

Estepan Urkiaga


Lauaxeta

GURE ABERRIAREN ELEA

KAZETARI-LANAK

Sarrera:

Xabier Altzibar



SUTONDOAN SORTA

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Lauaxeta idazle handitzat daukagu gure literaturan, olerkari lez batez be. Prosaz, eta kazetaritzan gehien bat, asko idatzi ebala badakigu, orain baino lehen be argitaratu izan diralako haren idazlanen bildumak. Zeregin horretan *Euzkadi* egunkarian jardun eban batez be, fin jardun be, Kirikiñok euskal orrian itxitako hutsunea betez. Haren antzera, egunkariko idazleei oharrak egiten eutsiezan eta auspoa emon bertan idatzi egien.

Liburu honetan artikulu hautuak batu doguz, hiru multzotan banatuta: gizarte eta politika arlokoak batean, literatura eta kultura arlokoak beste batean, eta sorkuntzako ipuinak hirugarrenean. Aurreko artikulu-bildumetan sartu bako idazlanak dira danak, eta berak sinatutakoak ezeze, sinatu barik egon arren, harenak dirala erexitakoak be tartean dira.

ESTEPAN URKIAGA *LAUAXETA*

Gure aberriaren elea

Kazetari-lanak

ESTEPAN URKIAGA LAUAXETA

Gure aberriaren elea

Kazetari-lanak

Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Alzibar

Edizinoa: Igone Etzebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO
2005

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S.L.L.

Lege Gordailua: BI-2977-05
ISBN: 84-89816-23-9

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Sarrera. <i>Xabier Altzibar</i>	11
Gure edizinoa. <i>Igone Etxebarria</i>	20

GURE ABERRIAREN ELEA. KAZETARI-LANAK

I Gizarte-politika gaiak

Egunekoa: Euskaditik, Espainiatik	27
Egunekoa: Euskaditik, Espainiatik	31
Azalpenak	34
Azalpenak	36
Azalpenak	38
Azalpenak	40
Azalpenak	42
Azalpenak: Hitzaldi orraztua	44
Azalpenak: Barnera Jo Daigun	47
Azalpenak: Eztabaidea	50
Azalpenak: Basatiak	53
Azalpenak: Salatariak	56
Salatariak II	59
Salatariak III	62
Kirolak Igandez	65
Azalpenak: Espetxean	67
Azalpenak: Ulerkatxa	70
Azalpenak: Abertzaleen jaiak	73
Azalpenak: Euskadi-Europa	75

Azalpenak: Batzar nagusia	77
Azalpenak: Erkal burua	80
Azalpenak: Opor ostean	83
Azalpenak: Zirikadak	86
Azalpenak: Hauteskundeak	89
Zirikadak	92
Zirikadak	95
Zirikadak	98
Zirikadak	101
Zirikadak	104
Zirikadak	107
Zirika	110
Zirika	113
Zirika	116
Zirika	119
Zirika	122
Zirika	125
Zirika	129
Zirika	132
Zirika	135
Zirika	138
Zirika	141
Zirika	144
Zirika	147
Zirika	150
Egunekoa	153
Egunekoa	156
Egunekoa	159
Zirika	162
Izpar urtenenak	165
Èuskadiko alderdiak	169
Izpar urtenenak	171
Abertzaleok, entzun	175
Ijitoen erantzuna	177

Hamabi katu	180
Ez al dakizu?	183
Afrikako gorabeherak	186
Oker-zuzentza	189
Euskadi eguna: Agur anaiak!	191

II Literatura-kultura gaiak

Evaristo de Bustintza <i>Kirikiño</i>	195
Egunekoa: Euskaditik, Espainiatik	198
Azalpenak: Ekin	202
Azalpenak: Euzko	205
<i>Euzko</i>	208
Monitor de Cultura Vasca	210
Azalpenak: Hogei urte!	215
Azalpenak: Horrerri, horrerri!	218
Las letras vascas: Una obra de <i>Otxolua</i>	221
Azalpenak: Eusko antzerkiak	224
Azalpenak: Irratsaioak	227
Azalpenak: Lizardiren oroimenez	229
Azalpenak: <i>Gazi-gozoek</i>	232
Azalpenak: <i>Gazi-Gozoek</i>	235
Azalpenak: "Txistu y danzas"	238
Teatro Vasco: <i>Tvanton Piperri</i> en Bilbao	240
En Villarreal de Urretxua: El IV Día de la Poesía Vasca	244
Kirikiño zanaren oroiz	249
<i>Aberriri</i> omena	251
<i>Aberriren</i> omenari buruz	254
Eusko idazleei	257
Egunekoa	260
Egunekoa	264
Zirika	268
Euskal Idazle Batzarra	270
Euskal Idazle Batzarra	272
Euskal aldizkingiak	274

Temas Vascos: <i>Vocabulario Vasco-Castellano</i>	276
<i>Satarkaren</i> artikuluari oharra	278
Teatro patriótico: El Próximo estreno de <i>Libe</i>	280
Nuestro teatro: En torno a <i>Libe</i>	285
<i>Yatsu</i> : El teatro euskérico	290
Zarautzen gaur: Lizardi zanaren gomutaz	294
Idazti barriak	297
Beste idazle bat gitxiago	300
Liburu barri bat	302
Kataluniako irarkoleak	304
Vlgarren Eusko Olerti-Eguna: Olerki saritua, Maite Opari . .	309
Idazleei oharra	310
Eguneroko barria	312

III Ipuinak

Osagile onena	315
Larunbatetako ipuinak	318
Ipuin barregarriak: irakurle errimea	321
Txikiena eta maitena	326

SARRERA

1. Esteban Urkiaga *Lauaxeta* orain dela 100 urte jaio zen. Hori dela-eta, haren kazetalanen antologia berri bat aurkezten dugu; hirugarrena, orain artekoak kontuan hartuta (ik. Bibliografia: Kortazar, J.; Mallona, A.). Lauaxeta pertsonaia ezaguna eta sinbolikoa bihurtu da euskal kulturari, literaturari batez ere. Hura fusilatzean, txapelokerrek eta matxinatu militar-faxistek euskal abertzale eta euskaltzaleak zigortu besterik ez zuten nahi izan. Lauaxeta Euzko Alderdi Jeltzaleko kide zen, mitinlari, hizlari eta kazetari ezaguna abertzale eta euskaltzaleen artean. Gerratean Euzko-Gudarostea hornitzen, beharbada taldeak antolatzen edo nolabait prestatzen, eta gero Euzko-Gudarostearen *Gudari* aldizkariaren artezkari jardun zuen. Abertzale sutsua, idazlea eta euskal idazleen bultzagile nekagaitza izan zen, gure artean eta kulturari ikuspegitik Pizkundea izenez ezagutzen den aldiria (1931-1936), II Errepublika garaian.

Olerkari legez ezagunagoa den arren (*Bide barrirak*, 1931; *Arrats-beran*, 1935), haren olerkaritza, hizlaritza eta kazetaritza arnasa beretik sortuak ziren eta elkarren osagarri. Jesuitetan ikasitua, intelektuala eta irakurle handia zen. Ogibidez, kazetaria *Euzkadi* egunkarian, hau da, EAJren egunkari ofizialean, Bilbon atzeratzen zena.

2. Lauaxeta kazetariaren bi alderdi, nahiz elkarren osagarri, bereiz daitezke: bata, *Euzkadi* egunkariaren *euskal atala* zeritzo-

naren artezkariarena; bestea, hark berak idatzitako kazetalanen egilearena.

Euskal atalaren ardura hartu zuen Lauaxetak 1931n, Orixeren ondoren, hau bere herrira joan zenean *Euskaldunak* poema idaztera. Atal hori euskarazko idazlanek osatzen zuten, gehiengotan orrialde bakar batean bilduta. Kirikiñok hasia zen arlo hori eta hark markaturiko ildo nagusietatik abiatuz, egunero-egunero orrialde oso bat, tamaina handikoa, argitara zuen Lauaxetak denetariko idazlanekin: politikako berriak, euskal herrietako albisteak, iritzi-artikuluak, euskal kulturako berri eta kritikak —baita noizean behin atzerrikoenak—, euskal olerki, antzerki, ipuin eta irakurgaiak, jakintza-arlo berezietako gaiak, herri-jakintza edo folklore-gaiak...

Egia da 8, 10, 12 orrialdetatik bat bakarra euskaraz, egunkari jeltzale ofizialean, ez zela gehiegi, eta euskal idazle asko kexatu ziren, besteak beste euskal herrietako berriekin eta euskarazko lanekin orrialde bat baino gehiago betetzeko gai zirelako. Egia da ere, informazio orokor nagusia erdaraz agertarazten zela egunkari horretan eta, herrietako berriak alde bat utzita, bigarren mailako informazio eta artikuluetarako uzten zutela euskal atala. Baina hala ere, *Euzkadik* euskara ghattotxo horretan txokoratua eta baliabidez mugatua zuen arren (euskal kazetari profesional bi baino ez, Lauaxeta eta Imanol Enbeita), orrialde tamaina handiko hori betearazteko Lauaxetak eginiko lana txapela kentzeko modukoa da.

Bada egunean-egunean dozenerdi bat herritako berriak publikatzen zituen, herrietako berriemaileek idatzi eta hark zuzenduak, askotan bere oharrekin. Ohar horien bidez berriemaile eta idazleoi aholku eta adore ematen zien, dohainik idazten baitzuten, eta haiek ere Lauaxetarekin hizketatzen. Bere lanari esker euskal berriemaile eta idazle asko bildu zituen *Euzkadi* egunkarian idazteko, batez ere Bizkai-Gipuzkoakoak baina baita Araba, Nafarroa eta Iparraldekoak ere. *Euzkadi* eta bestetako idazleok, abertzale eta ez abertzale, elkarrengana biltzen eta antolatzen ere jardun

zuen idazleen urteroko batzar eta omenaldiak aprobetxatuz (*Euzkel-Idazle-Batza*). Gainera, idazle on hobekuntzarako euskal liburu onen argitalpenak, garai hartako eta lehenagoko idazleenak, prestatzen ari zen (*Euzko-Idazti-Alde*) gerra piztu zenean.

Bestetik, Lauaxetak, berak idatzitako ehunka kazetalan argitaratu zituen, gehienak *Euzkadin*, gutxiago *Jagi-jagi*, *Euzkerea*, *Bizkattarra*, *La Voz de Navarra*, *Amayur*, *Txistulari*, *Los Luises*... eta gerratean *Gudarin*. Beraz egunkari, asteroko eta aldizkari abertzaleetan batik bat, irakurle jeltzale edo abertzaleentzat; gehiengotan euskaraz, baina gaztelaniaz ere sarri eta agian irakurle hein bat ikasiagoentzat, erdarazko idazlanak hiztegi eta estiloz joriagokak direnez. Lauaxetaren idazlanen bibliografia nahikoa zehatza argitaratzen den egunean (ahal den neurrian, behintzat, sinatu gabeko kazetalan asko haren eskukoak baitira, ustez), harrituta gelditu gintezke zenbat kazetalan idatzi zituen ikusita.

Lauaxetaren garaia Espainiako II. Errepublikarena izan zen (1931-1936), abertzaletasuna haziz eta euskal kulturaren Pizkundea mugimendua bere fruituak ematen ari zenekoa. Politikan Estatutua (*Euzko-Araudia*), elebitza, hauteskunde kanpainetan alderdiaren jokabidea (monarkikoen kontra, ezkertarren eta eskubitarren erdian, noiz nola: gizarte arazoetan ezkertarren kontra, estatuto gaietan hurbilago), udalen auziaren nahiz Asturiasko iraultzaren ondoriozko jazarkundeak (1933, 1934), Aberri Eguna...

3. *Euzkadin* euskarazko iritzi-artikulu nagusia idatzi ohi zuen garai batez, azalpen janzkeraz (Azalpenak saila, 1931-1933). Sail horretako gaiak gehiengotan alderdiaren politikak markatuak ziren: hauteskundeetan abertzale katolikoek boza nori eman, elebitzak eskaintzen zituen aukerak, Euzko Araudia, udalak demokraziaren eredu etab. Eguneko gai nagusien aurrean alderdiaren edo egunkariaren politika edo jokabidea azaltzeko eta propaganda egiteko idatzi zituen artikuluok, bereziki euskara ukitzen zuten gaietan. Beste batzuetan, bere pentsamentua eta sentimentuak

adierazteko ere bai. Gero, iritzi-artikulu batzuk sail jakin batetik kanpo agertarazi zituen.

Azalpenak sailaren azken aldian etsaiei zirikada zorrotzak sartzan hasi zen eta Zirika eta Zirikadeak sailak, bata eta bestea txandakatuz, abiarazi zituen (1933, 1934, 1935, aldika). Certae-
ren eta bereziki etsaien jokaeraren komentario labur ironiko-sar-
kastikoak dira, kalifikatibo gogorrak eta umorea erabiliz, euska-
ra ulerterrazagoan eta ez hain garbizalean. Zirikada edo makila-
kada hauen bidez Bizkaiko gobernadore zibilak abertzaleei
eginiko gogorkeriak eta jazarkundea salatzen ditu. Horietako
bategatik salatua izan zen. Sail honetako artikuluek ez dute izen-
buru berezirik eta multzo batzuek osatzen dituzte, bata bestetik
marraz bereziak. Besteak beste, egilearen filiak, fobiak, balioak
erakusten dituzte. Etsai politikoei erantzuteko, edo haien egintzak
eta jokabidea maiseatzeko edo barregarri uzteko asmoz idatzi eta
argitara zituen zirikadok.

Noizbehinka, Imanol Enbeita kazetarikidearen sailean ere
idazten zuen, izenpetu gabe (Egumekoa, 1931-1935). Hor He-go
Euskal Herriko politika eta kulturako berriak iritziarekin batera
eman ohi zituzten.

Antologia honetan, garai hartako politika-gai nagusien artean
ondokoak ageri dira: Errepublikako agintarien mitinak Billbon
(Prieto, Alcalá Zamora, ...), sozialistak Aldundiaren jabe, aber-
tzaleak espetxean, Donostian Berpizkundez ospaturiko Euzkadi-
Europa Eguna eta Batzar Nagusia; hauteskundeak (1933ko
maiatzeko udal-hauteskundeetan abertzaleak nagusi); Billboko
greba (1933); alderdikoei diziplina eskatzea; I. Enbeitak Eusko
Gaztediaz esandakoari (batzokietan eta euskara gutxi egiten dute-
la, alegia) eginiko oker-zuzenketa; abertzaletasuna loretan hemen,
herri kolonizatuetan eta orotan.

Egilearen pentsamentua edo sentipenak garbi adierazten
dituzte liburu honetako idazlan askok: mendigoizaletasunak ematen
duen barne-indarra; hondartzak galbide direla; barnera bil eta
gogoeta egitearen beharra; euzkotarren anaitasuna Aberri Egu-

nean; nazio-arazoari buruz Euzkadiko Alderdi Komunistak duen jarrera edo komunisten mitinetan Gora Euzkadi! entzuteak ematen dion atsegina...Euskararen inguruko gogoeta eta sentimenduek erakusle dira beste batzuk: euskara herrikoia euskara herrizalea edo herriak aurrera egiteko aurrelari hautatuen beharra; 1934-1935eko sei hilabeteko debekualdiaren ondoren idazleei berriz idaztera eginiko deia; *Euzkadi* egunkarian euskararen presentzia; euskarari gaitasuna ukatzen dioten zenbaiti (Areilza monarkikoa, Unamuno) emandako erantzuna; abertzale direnek euskara ez jakitea sortzen duen amorrua, etab.

Bereziak dira helburu, tonu eta mintzairan, esan bezala, Zirika edo Zirikadeak saileko idazlanak, bai eta herrietako salatarien ibilerak kontatzen dituztenak.

Idazlan hauek abertzaletasun jeltzaleari josia zen kazetari gazte intelektual baten ikuspegitik idatziak dira. Politika, gizarte eta euskararen inguruko auziak eta borrokak jasotzen dituzte (adibibidez EAJ lege laizisten kontra, edo Jagi-jagiko gazteek abertzaletasunari ematen zioten kemena). Bestalde, egilearen ideia, barne-egoera, kezka, jarrera eta sentipenak erakusten dizkigute: abertzaletasuna ororen gainetik, "aberriaren elea" babes gutxirekin nola ari den gizartean atzeraka, gobernadoreak debekatua izateraino protestarik gabe. Nolakoa zen egilea ere: barnerakoa, abertzale ideien (*gogai*) indarraren bidez euzko gogoak euskalzaletu nahi zituena, zirikalaria, ironiko-sarkastikoa, umoretsua.

Lauaxetaren garaiak udaberriko loreak beste iraun zuen: politika auziek gaindi egin, militarrek matxinatu eta orduko demokrazia defendatu zutenak, Lauaxetak bezala, hilak eta birrinduak izan ziren hiru urteko gerra ezinago odoltsuan eta ondorengo ia beste berrogei urteko zapalkuntzan. Nolanahi ere, haren kazetaritzak garai hartako lekukotza ematen digu.

4. Azalpenak saila kendu eta berriak eman beharraz jabetuta, Euskal Herri, Espainia eta nazioarteko berriak —batez ere

politika eta Euskal Herriaren kasuan kulturakoak ere— sari agertarazi zituen, izenpetu gabe. Berrien laburpenak ziren, itzuliak edo moldatuak. Batez ere Izpar Urtenenak eta Jakingarrienak sailetan agertarazi zituen, baita beste sail iraungikorretan ere. Izpar Urtenenak sailekoak (1933, 1934, 1936) aldi bakoitzean 20-25 berrik (*izpar*) osatuak eta euskal atalaren erdi-erdian kokatuak izan ohi ziren. Berri laburrak dira, 2-3 esaldikoak eta 4-6 bat lerrokoak, 2-3 hitzeko azpiizenburuekin. Lan handia egin zuen berrien emate arloan. Hona, beraz, garai hartako berriak laburki eta doi-doi Lauaxetak euskaraz emanik. Antologia hone-tan 1933ko multzo bat argitaratzen dugu.

5. Lauaxetak euskal liburu eta aldizkari argitaraberrien, antzerki antzeztuberrien eta orotariko kultura ekoizpenen berri-kritika-propaganda idazlan ugari idatzi eta argitaratu zituen. Baita bere antzerkiak ere.

Liburu argitaraberrien berri-kritika-propaganda batzuk argitaratzen ditugu hemen: B. Garro *Otxoluaren Bertolda eta Bertoldin*; Barrensororen *Gazigozoak*; Zamarriparen *Vocabulario Vasco-Castellano*; *Eusko-Olerkiak. 1933*; Zabalaren *Eusko-Alegiak*; M. Elzoren *Filosofia Vasca*; A. Anabitarteren *Donostia*. Baita astekari (*Euzko*) eta aldizkari batzuei buruzkoak ere (*Antzerki*, *Yakintza*). Edo antzerki eta opera, zartzueta eta abarri buruzkoak: *Libe*, *Txanton Piperri*, K. Elizegiren *Yatsu*. Antzerki itzulpenei buruzkoak (*Antzerki* argitaraturiko *Antigone*, Zaitegiren itzulpenaz). Edo euskal antzerkiei buruz irakurle batek eginiko galderari erantzuna.

Orobat beste kultur ekoizpen, euskarazko irratsaio, musika eta musikagileei buruzko batzuk ere (Aita Donostia, Uruñuela, Guridi etab.). Euskal liburuen argitalpen kanpainazkoak; Kataluniako argitaletxezkoa, etab.

Beste multzotxo batek euskal idazle zendu eta bizien omenaldi edo omenezko elkarretaratze eta bileren berri eta iritzi ematen du: Kirikiño, G. Osoro *Aberri*, J. Arruti *Arnobe*, Euzkel-Idazle-

Batzarra, IV Olerti Eguna (1933an Urretxun, Iparragirri egini-ko Omenaldiaren karietara). Hilberri eta oroimenezkoek lagunduta (Lizardi, J. Arruti "Arnope").

6. Azkenik, Lauaxetaren ipuin barregarri, kontakizun eta elkarrizketa atsegingarri —eta aldi berean irakaspendun— multzo txiki bat argitaratzen dugu, ipuin gehienak behintzat aurreragoko antologietan bilduak izan baitira. Irakurgai atsegingarri horiek ere kazetalanak dira tradizioz. Ezaguna denez, Lauaxetak, Kirikiñoren bidetik abiatuz, ipuin barregarri mordoxka bat idatzi zuen. Genero irakurriena zatekeen euskal atalean, Kirikiñoren garaian behintzat. Lauaxetaren ipuinok ere zenbaitek gogoz irakurtzen zituzten, garai hartako idazle batzuk lekuko (J.A. Irigara, J. Ruiz de Azua *Ogoñope*, Bedoñako *Txorizale*).

7. Antologia honetako idazlan gehienak 1933koak dira, gero 1934 eta 1935ekoak. Hau da, egilearen azken urteetakoak, hasierakoak baino gehiago. Eta aurreko bi antologiek 1931 eta 1932koak batez ere jaso dituztenez, hiru antologiok elkarren osagarri dira beraz. Hemen argitaratzen ditugun idazlanak bi multzo nagusitan banatu ditugu: Politikaren ingurukoak eta Euskal literatura eta kulturaren ingurukoak, hauek ere kazetalan baitira.

Antologia honek badakar zerbait berririk, uste dugunez, idazlan berriak edo aurreko bietan agertu gabekoak argitaratzeaz aparte: genero berriak (Zirika edo Zirikadeak saileko glosak eta Izpar Urtenenak saileko berriak), liburu argitaraberrien edo kultura ekoizpenen berri eta iritzi gehiago, orobat Lauaxetaren oharrak *Euzkadi* egunkariko euskal idazleei. Eta gaztelaniazko artikulua batzuk, mordotxoa idatzi baitzuen. Kazetari-lan berri hauek lagundu dezakete egileari buruzko ikuspegi osoagoa izaten.

Geure aberriaren elea izena jarri diogu, egilearen idazletzaren sakoneko zergatia, hark behin eta berriz espreski adierazia, erakusten duelako. Hona hemen bi pasarte:

“Euzkera-alde beti ta beti, baña ez euzkera dalako bakarrik, gure Aberriko zorion ta azkatasun alde jarritta baño. (...). Euzkeraz idazten dogunok, aberrijaren elia dalako baño eztoгу idazten. (...) Eta geure aintzarik andijena, abertzale ixatia da, ez idazle ixatia.” (Zirika, *Euzkadi* 6429, 1933-7-16).

“(Kirikiñok) Euzkerea mattagarrija dalako ezaban mattetuten, geure aberrijaren elia dalako baño. Onetan aldakuntz andija dago. (...). Pitxi bat dalako ez, Euzkadi'ren mamiña dalako baño.” (“*Kirikiño* zanaren omenez”, *Euzkadi* 6435, 1933-7-23).

8. Lauaxetaren hizkuntza eta idaztankeraz esan dezagun zer-bait. Joera jakinekoa zen, sabindar eskolakoa, ideologian ez ezik hizkuntza eredu, idazkera, hiztegiari dagokionez ere. Haren idazkera egungo ortografiara ekarri dugu ordea, irakurketa erraztu nahian.

Lauaxetak etxeko euskara ahaztu zuen jesuitekin ikasten ari zenean. Abertzaletuta gero, asko irakurri zuen, baina euskararen jainuz ez da aberats, hutsak ere nabari zaizkio egunkarikoetz gainera, horietako asko zuzendu baititugu edizio honetan.

Hala ere, euskararekin —gaztelaniarekin ez bezala— borrokan ari den arren, badaki jendearen ahoko euskara eta beraz euskal esaera eta esapideak erabiltzen, adierazpide ez ohikoekin txandakatuz. Baita irudiak eta literatura baliabideak, halaber esaldiak lantzen. Badaki ere, helburuen arabera, tonu desberdinak erabiltzen, noiz nola (didaskalikoa eta maiestatikoa batzuetan, gogorra edo bortitza giro eta gertaera politiko bortitzetan, beste batzuetan umoretsua, sarkastikoa edo satirikoa, edo emotiboa, are lirikoa, bere sentimentu eta emozioak ageriki adierazten dituenetarikoa baita. Iritzi artikuluetan egitura landu ohi du (hasierak eta batez ere bukaerak), eta ustekabeko baieztapenak eta adierazpide hiperbolikoak egitea maite. Erabateko ideiak, borobil eta zart adierazi ohi ditu, sententzia estiloz, beti indarrez; laburtasuna du gogoko (euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago), are estilo eliptikoa askotan. Eta gero, kontaeran bazekien suspenseari eusten.

Bibliografia

KORTAZAR, J.: ik. Urkiaga, E. *Lauaxeta*.

MALLONA, A.: ik. Urkiaga, E. *Lauaxeta*

URKIAGA, E. *Lauaxeta: Bide barridak*, Bilbao, Verdes, 1931.

— *Arrats-beran*, Bilbao, Verdes, 1935.

— *Lauaxeta, Urkiaga'tar Estepan, Azalpenak, 1931-1935*, Bilbao, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1982. J. Kortazarren aukeraketa eta hitzaurea: "Lauaxetaren prosa", 9-34 or.

— *Esteban Urkiaga. Antzerkia*, Euskal Editoreen Elkarte, 1990. Jon Kortazarren edizinoa eta sarrera (9-27 or.)

— *Azalpenak eta beste. 1932*, Euskal Editoreen Elkarte, 1991. Agurtzane Mallonaren edizino eta hitzaurea.

Xabier Altzibar

GURE EDIZINOA

Ohikoa dogu Sutondoan sortako liburuetan testuak gaurko idazteko ohituretara ekartea. Lan honetan be halan jokatu dogu eta, beste batzuen aldean, aldaketa eta zuzenketa gehiago egin behar izan ditugu.

Gure erispideak Labayru Ikastegiak berak argitaratutako *Hiztegia* eta *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* I eta II lanetan oinarritzen dira, bilduma honetako aurreko liburuetan egin dogun moduan.

Liburu honetako artikuluetan, ostera, jatorrizko testuko errata, errakuntza, oker eta hutsune asko arteztu behar izan ditugu: letra-dantza berbaren barruan; berbak txarto ebagita eta biren letrakaz berba barriak sortuta egon diranean berera ekarri ditugu; letrak trukatuta dagoz askotan, t-ren ordezk, esaterako, nahiko sarri suertau jaku; edo baten bat faltan edo bikoiztuta. Holangoetan danak idaztarauetara ekarri ditugu, zentzuna emonez irakurgaiak berak irabazten daualakoan.

Noizean behin esaldiak osotu be egin doguz: Batzar handia izango Gasteizen>Batzar handia izango da Gasteizen.

Bestelakoan ohiko jokabidea hartu dogu. Hona ezaugarri nagusiak:

Grafia guztia gaurkotu dogu gaurko moldera ekarrita, berba amaierako fonetismoak kendu egin ditugu, eta -uba>-oa/-ua, -ija>-ea/-ia bihurtu: dauzkube>deuskue, barrija>barria, konpor-me>konforme.

Berbak aparte eta osotuta idatzi ditugu, ezezkoetan batez be: eztauka> ez dauka, ezta>ez da, etxebarik>etxe barik.

Aditzetan dago aldaketarik handienetakoa, baina bizkaieraz idatzirako bultzatzen dan eredura ekarri ditugu: jakingo bageuz>jakingo bagenduz, gabez>gaitue, leuguban>genduan.

Leku-izenak bardindu eta gaurkotu egin ditugu: France>Frantzia; England>Ingalaterra, Apirka>Afrika.

Deklinabide-atzizki barik idazteko joera handia dauka, loturarik barik, baina gaurko belarrira gogortxua dalakoan ipini egin dogu, honako kasuetan: txaide-ziar>txaidean zehar, araudi alde>araudiaren alde.

Hiztegi aldetik nahiko garbizalea da, horregaitik gaur egun ezezagun egiten diran berbak oin-oharretan argitu doguz, esanahia ondoan ipinita. Bere testuren baten be halako oharrak dagoz, halangoak [] barruan sartu doguz geureetatik bereizteko.

Igone Etxebarria

GURE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK

I
Gizarte-politika gaiak

EGUNEKOA

EUSKADITIK

Aratosteak

Aratosteak ez dira lehenagoko eran, zomorro bitartez, lizun-keriaren bide. Orain hilak dira txaidez txaide ikusten ziran zoroaldrak errabi jantzita, baina txaidetik iges egitean ez dira baretu, eta aretoetara jo dabe. Bietatik zein onena dan neurtuten erreza da. Eta lotsarik apur bat bazan, nork igarriko, aretoetan ostera zikinkeria bakarrik, hutsik ikusten da. Aurpegiak estalduten dabez bihotzeko lizunkeria, zikinkeria argiz argi ez dabenak agertu gura, bide hori hartzen dabe. Baina errabi jantzita nahi ostean beti izango dira lotsabakoak, barruko lotsabakotasuna agertzeko. Zelan izango da bide arteza aurpegia estaldutea barruko zikinkeria agertzeko?

Horreen antzeko asko daukaguz gure artean; errabi jantzita dabiltz geutarrak balira legez, baina barruan beste gauza bat daroe. Karatulak daroez begiak estalduteko, baina errabi arren ezagututen jakez gogoko gogaiak. Guzur-egunak dira egun honek, eta guzurak ezer izateko aurpegia estaldu behar dau.

Gobernua

Hauteskundeak laster ziralakoa hur ebulan, baina hona hemen guztia hankaz gora. Gobernua jausi da, eta hauteskundeak baino beharragoak dira orain beste arazo batzuk.

Bakalduna bizkor dabil hari eta honeri itaundu, lehen ostikoka jaurti ebazan gizonai itaunduten. Alba, Sanchez Guerra, Cambo eta abar dabiltz guztien ahoan, lehenago gauza ez zirala inoen politiku honeekaitik, baina bakalkia arriskuan ikusten dan aldian, honeek dira zutikai onenak. Oraindik nor izango dan gobernuko lehendakari ez daki inok ziurrean. Ezkertarrak nagusi izango dirala zabaldu dan arren. Cambo jaunak erantzun dau bera gaixorik dagoan ezkerro ezin nahastu daitekela jaurle arazotan, hile batzuetan behintzat. Alba Madrileran noiz helduko dan begira dagoz bakalduntarrak, laterria gaizkatuteko. Orain *Cortes Constituyentes* eskatuten dabezanak bere alde izango dira gobernuan.

Ez da gauza erreza Espainiako gorabeherak arteztutea, laterri honetan guztiak buruan sartuta daukelako gai dirala jaurle izateko. Bakotxak bere burua dauka onenentzat, besteak osteraz ezer ez dira. Bitartean laurlekoa behera eta matxinada zaleak ederto dabilz euren lana egiten. Alderdi guztiak agintza handiak dagiez, erki orotakoak eurekana ekarri gurean, baina ikusiko zer dagien alean jartzen diranean. Espainiarren hitza, haize hutsa.

Antzokiak

Bizkaiko herri askotara doaz egun honeetan antzerkiak antzeztuteko, bilbotar aldra batzuk. Ez dago txarto, herrietako jenteari be zor jake holako zer edo zer eta, baina tamalez ikusten dogu, aldra guzti horreek erderazko antzerkiak daroezala. Erdereazkoak izan arren, gaitzerdi, eusko usaindunak balira, baina Pancorbon bertan be ez dira hain erdel usaindun antzerkiak antzeztuko. Aldra horreek, ganera, ez dabe bide onik asko erakusten. Bateko *La alegría de la huerta*, besteko *El mantón de Manila*, harako *Doña Francisquita* eta abar dira geure eusko herrietara daroezan antzerkiak. Erderea polito-polito sartuten deuskue herri guztietan, eta guk urte baten egiten dogun lana gau baten lurperatuten deuskue.

Lehenbailehen zuzendu behar dogu jazoten dan hau. Euskerazko antzerki asko, onak behintzat, ez dagoz. Beharrian hau zuzenduteko ez litzateke biderik onena antzerki sariketa bat egitea? Gipuzkoan bide hori dala gauza ederrak dagiez, guk Bizkaian ezer ez dogu egiten ostera. Eusko Gaztedia izango litzateke sariketa hori egiteko bazkunik onena, jentea eta txindia daukan ezkerro. Lehen be ontzat hartu eben hemen esan genduan gauzatxu bat, eta barrero gura geunke honetzaz oldoztu dagien. Bostehun laurlekoko sariketa bat azaldu ezkerro ez ete leitekez agertuko hiru edo lau antzerki, euskal antzerki? Bizkaieraz idatziak izan behar leukie antzerki honeek, ez gipuzkerea maite ez dogulako, ez horixe, Bizkaian antzeztuteko, bizkaieraz hoba dalako baino. Sariketa hori azalduteko txindia batzen hasi gaitезan, lehenbailehen; Arana-Goiri saria ez litzateke ona izango? Eusko Gaztediakoak oldoztu begie gauza honetzaz, beharrekoa dogulako lehenbailehen eusko antzerkiak gehitutea, gure herria itoa dalako antzerkiak ikustera, eta geuk ezer egiten ez badogu, erderazko antzerkiakaz erki guztia betetuko jakulako.

Itaun-Erantzunak

Bizkaieraz, zeintzuk dira olerki liburu onenak?

Itaun honeri erantzutea ez da gauza erreza, batentzat idazti hau, besteentzat barriz idaztiori izango dira onenak. Hemen jarriko deusudaz geure euskalgian argitaldu diran olerki idazti gehien izenak. Betor lehenen *Olerkiak* deritxon Arana Goiriren idatzi ederra. Hau behintzat atsegin izango jatzu. *Parnasorako bidea* deritxo Azkue jaunak argitaldu eban idazti bateri. Erdi-olerkari ete zanentz nago. Etxeita zintzoak be argitaldu eban *Au, ori eta bestea* deritxon liburu bat. Ez erre ez gordin. Zamarripa jaupariak *Gora begira* burutzat daroen olerki txorta bat argiratu eban. *Euskera Amaren liburu kantaria* ezaguna izango dozu, baita Arrese beraren *Lan artekoak* be. *Urretxindorra*, izen polita ezta?,

izentzat ipini eutsen Aizkibeldar Bingenek bere olerkiai. Mant-
rola jaupariaren olerkiak ederrak dozuz. *Goizpiak*, bizkaieraz.
Ez jat gehiago bururatuten, izango diran arren. Dakienak esan
begi.

1931-II-17

EGUNEKOA

EUSKADITIK

Euskal izena

Herenegun, ostegunez, ukuzia izan zan Begoñako Andra Mariren Eleizan gure adiskide Robles Arangiztar Imanolen eta Bernaolatar Koldobikeren alabatxu bat. Miren Maitena Lorea izena imini eutsien.

Zorionik heroenak guraso euskotar onai.

Edurra edonon

Arabako zabaldian metro bat edur ei dago. Bizkaian bere. Otxandiorako belbilik ez dau urteten Bilbaotik. Atzo eibartar batek esan euskunez, han bere azaldu da. Naparroan zer esanik ez. Auritzen, Azpirozko ganean eta beste leku askotan bidea urratzerik ez dago.

Misinoak Bilbaon

Hil honen hogeta bigarrean igandez, hasiko dira Jondone eleizan, arrastiriko sei eta erdietan, urteoroko euskal misinoak. Egunean-egunean goizeko seirak laurena gitxitan, eta arrastiriko sei eta erdietan.

Jaunartze guztizkoak, martiaren lehenean, igandez goizeko seiretan eta zortziretan.

Larrañagatar Eujeni eta Guriditar Leonar abade agurgarriak izango dira hizlari. Lehenengoa igaz gaixoak hartu eban eta ezin entzun izan geuntsan. Aurten zori hobea izan daiala.

Kristinau euskalduna. Garizuma da, eta Jaungoikoaren deiarri ez zakiozala izan entzungor. Urtean urtean jente gitxiago doala dirudi misino horreetara. Gehiago euskaldunik ez ete da Bilbaon? Eta doazanetatik batzuk (egi garratza esan behar da) batzuk eta gehiago zerikusi joan ohi dira; beste batzuk kristinau zintzoak, elizkoiak hainbeste premia barik, euskeraz gure erlijinoaren egi ederrak entzuten doaz. Non geratzen ete dira hainbeste eta hainbeste, nahiko premia daukienak?

Erdu pekatari
Erdu eleizara,
Jaungoikoaren hitza
Gogoz entzutera.

ESPANIATIK

Guridi Madrilen

Madrildik. Calderon deritxon antzokian emon da lehenengoz Guridiren zarzuela *La cautiva*, Sevilla eta Carreño jaunen hitzakaz. Asko atsegin izan jake entzuleai. Txalo ugari jaso dau euskotar musikuhonek Madrilen. Beioakioz gure atseginak.

Kataluniako auzia

Ministro barriak emon dabon argibidean Kataluniako auzia garbituko dabela dinoe. Arren, bada, arren! Guk ez ete dogu auzirik? Geuron artean nahikoak.

Batasuna

Acció Catalana eta Acció Republicana diralakoan artezkariak batzar bat egin dabe alkartasunera bidean. Artezkari batza bako-

txari eskubidea emon deutsie batzuk eta besteak, ondoen deri-
txoenean batasun hori egiteko.

Oindino ez da erabagi zer izen emongo deutsien alderdi batu
horri, Acció Catalana Republicana ala Acció Catalanista Repu-
blicana.

1931-II-21

AZALPENAK

Jeltzaleak erkaldiaren aurka, errepublikaren aurka dagozala, eurrez zabaldu daroe. Ez dira zitalkeria horren zabaltzaileak, Euskaditik urrun jaio diranak, edo eusko gauzari beti arerio izan jakozanak. Geure artekoak dira, gorroto bizia bihotzean daroenak. Baina suagaz olgetan dabiltzan ezkerero, euren hegoak erreko dabez. Jeltzaleak zegaitik izan behar ete dabe erkaldiaren etsaiak? Erantzun begie garbian. Geure alderdi hau baino herritarragorik ete dago? Herriaren guraria dan ezkerero ba errepublika, ontzat hartu behar dogu osoan, ez erdiz erdi. Baina bihotzez errepublikea indartu dagien ahalegindu behar garala esango dot eta inor ez da gai izango guzurtzat hori hartzeko. Bakalduntarrak geure arerio gorrienak izan dira, Euskadiren eskubide guztien aurka beti jokatu dabenak. Hemen ez dau eduki bakaldunak geu lango etsairik, eta hori egia dala gaurko guzur zabaltzaileak esango dabe. Errepublikeak, ostera, askatasunai ate idigia jarriko deusiela dirudi, lehengoak zapaldu ebezan gauzak aintzakotzat jasorik.

Baina errepublikearen aurka jeltzaleak ekingo balebe, buru arinak dirala esan beharko. Bakalduntarrak arerio izan badira, beti oinpetu bagaitue, zegaitik izango gara euren lagun, harri hori ganetik kentzen datorrenaren aurka eginik? Guzur hori biribila dala ondo dakie eta honela agertu eban igandeko *El Liberalean* Ulazia jaunak. Jeltzaleak, bakaldunak eurakin zerikusirik ez daukiela inoan eta borõndate onekoa dan gizonak hori sinistu behar dau. Kanpokoen lana ez dala jeltzaleen aurka dagiena, orain artean bere esan dogu, guzurra bide dala gehiagotu gurean dabiltzan

batzuen baina. Herriak hondatuten dabezan arren, uzkurtzaren aurka ipinirik askotxu, abadeen aurka hitz eginik eta Jaungoikoa gizarteko arazoetatik aldendu gurarik, ez dabe oldoztuten zelako hondamena dakarren Euskadira. Helduko da eguna, baina belu izango ete dan nago. Guk ez daukagu inoren bildurrik, abertzale-tasuna herriaren sustraietan sortua dalako, eta jazarpen handia-goak iraun dabezanak honeek bere iraungo dauz. Errepublikano-ak ikusi dabe nortzuk diran benetako herritarrak eta nortzuk dagozan euren alde lan egiteko prest, ez kargu batzuen ordez eta udalak atzemoteko ustez, beste batzuk dabilzan eran. Jeltzaleak bat edo bi ez gara, eta gaur justizia hartu ezin badogu, bihar har-tuko dogu. Errepublikanoak benetan gura badabe geure laguntza hemen gagoz, ez zoroen eran, geuri emongo jakunaren ordez bai-no, edo hobeto esateko geuri emongo jakunaren ordez, Euskadiri emongo jakunaren ordez baina.

Agintzak ez dira nahikoak gu igituteko, agintzak nazkagarri jakuz, orain artean bere zer jazo dan ondo dakigulako. Bakaldu-na jausi zan erkaldiai ez eutselako ezer bere emon gura, eskubide eta askatasun guztiak kendurik. Bakotxari zor jakona emoten datorren ezker erkaldia, bere alde gagoz, baina bakaldunak egin eben antzean eurak bere jarraitzen badabe, jakin begie arerio jakozala. Herriak ez dira atzipetuten guzurraz, egiakaz baina. Gaur eta bihar iraungo dau zutunik okerren dagoanak, baina las-ter heltzen jako amaia. Errepublikatea bere eginen seme izango da, ez agintzena. Esan bat eta egin bestea badagi, laster hamaikatxu arerio izango dauz. Orain artean agertu dan eran geu ezin izan gaitেকেz horren etsaiak eta buru gitxi eukitea litzateke errepubli-ka horren aurka jarrea. Geure alde dagozan ezker, opalduten deusagu laguntzarik minena erkaldiari, baina Euskadiren alde egiten badau, geure askatasunak ontzat hartzen badauz.

Lauaxeta
1931-IV-22

AZALPENAK

Elebitzazko erabagia argitaldu dau ministroak, baina tamalez Kataluniari jagoko oraindik. Hareen sendimenturik minenak Direktorioak oinpetu eta lazkitu ebazala dino, baina euskoenak bere ez ziran goratuak izan. Erabagi honen bigarren atala garrantzitsua da. Kataluniako irakastoletan umeak dakien hizkuntzan egin beharko dira ikaskizunak, edo katalanderaz edo erderaz. Zortzi urtetik goi guztiai irakatsi beharko jake erdere. Azken aldian beste atal bat josi deusie erabagi honeri, eta euskoen alde jotzen dabene ezkereraz azaldu daigun. Espainiako beste lurralde batzuetan bere Katalunian jazoten dana jazoten dan ezkereraz, erabagi hau hedatuko da eskatuten dabene guztiekana. Erabagi horren guna zabalduko dau gobernuak beste erki guztietara bere.

Ezin ukatu geinke gobernuak biderik onenak hartzen dauzala elebitzaz. Euskotar aldra galanta heldu jakon lehengo egunean eta Domingo jaunak inoanez, gauza bakarra behar da elebitzazko erabagi hau Euskadira bere barreiatua izan daiten: benetan eskatu dagaiea guztiak. Bere aldez pozik lan egingo dabela agertu eban, haurrai erakusteko bide onena horixe dalako.

Haurrak askoz bere arinaguloertuten dabe, amaren besoetan ikasi dabene hizkuntzan azalduten bajake. Elebitzazko erabagi horrek aurrerakuntza handiak lekarkezala edonork ulertzen dau. Abertzaleak diranak honela aberria irozoko dabe, hizkuntza dalako laterrien giltza, Mistrakalek esaten eban eran. Ele bat daukan laterria ederto besteakandik aldenduten da. Geure galbiderik gurena horixe izan da, umeak euskeraz ikasi ez egitea eta guztiak,

batez bere aberatsak eta dotoreak erderaz hitz egitea. Abertzale bat izango ete da elebitza horren alde lan egingo ez dauana? Aberria biribilduteko, osatuteko bide bakarra dan ezker abertzaleenak diran udalak eskatu behar dabe.

Baina abertzale izan ez arren bere euskaltzale askotxu dira geure artean. Honeen ordua oraintxe da. Hizkuntza maite dabela dinoenak batu eta alkatu behar dira eta euren eskakizunak Madriler a bialdu. Sarri dantzugu eusko umeak ezer jakin gabe urteten dirala irakastoletatik eta lor handiak igaroten dabezala irakasleai ulertu ezinik. Lautu euskerea, indartu behar dogu irakastoletan. Arazo honetzaz ederto batuta gagoz gehienak, euskaltzale aldra orok batean lan dagielako. Arlo bakarra dogu orain, herrian zaletasun hori piztutea. Izparringien bitartez eta hitzaldiz hasi behar gara euskoen artean bizkortu daiten euren hizkuntzaganako maitetasuna.

Beti zuen alde egingo da, inoskun ministro jaunak eta Katahumiarako bakarrik izango zan erabagia euskoen alde bere zabalduko zala esan eban. Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaleak, Euskaltzale Bazkuna, Jaungoiko Zale, Euskal Esnalea, Euskaltzaleen Biltzarra, Euskeraren Adiskideak, Baraibartarrak eta gazte aldrak batu ziran Madrilen eskakizun bakar hori egiteko. Tamala izango litzateke horrenbeste bazkunek ezer be lortu ez egitea.

Elebitzazko erabagiak atea zabalduten deuskuz. Nork uste izango ete eban orain urte batzuk holako gauzarik ikusiko zala? Eta atzeratuteko bidea ez da euskerazko libururik ez daukagula irakastoletarako. Lehenbailehen egingo dogu lan hori. Hamaikatu idazlari badagoz pozik lan horretan josiko diranak. Eragozpen bakarra izango da geure nagitasuna eta alperkeria. Ordua danean iratzartuten ez danak ez dau inoiz ezer jadetsiko. Gaur egin ahal daiguma, biharko ez itxi. Aberriaren muina, guna, hizkuntza da. Hesi bakarra iraun gura badogu.

Lauaxeta
1931-V-1

AZALPENAK

Aldundiaren jabe eta buru sozialistak egin dirala ikusi dogu, Laiseka jauna lehendakari dala. Laster apurka udalen jabe bere egingo dira. Ahaldunak hautu beharko diran aldian zer egingo dabe hemengo kistarrak? Lehengo eran banandu antzean joango dira, edo abertzaleai lagunduko ete deutsee? Aldiau ez da zizkimizkietan ibilteko, garrantzi handiko gauzak jokatuten doguzalako. Alderdi bi bakarrik aurrez aurre jarriko diran uneak heldu jakuz: batetik ezkertarrak, bestetik eskumatarrak. Eusko lurrean inork beste asmakizunik ezin eduki daike, bakalduntarrak eta antzekoak zetan izanik ez daukelako.

Lehen agintaritzaz lortzeko edo deduzko aurkietan izateko jokatuten bazan bere, euren sendiez, bakeaz eta aberriaz jardun behar da. Azaletik politika arazoetan ibili diranak, suagaz ibili dirala ikusi dabe, eta nork daki noraino helduko dan gar hori. Ordurik txarrenak oraindik ez dira heldu, erkaltzaleai ez jagoke ba orain uzkuartzaren eta sendiaren aurka egitea, baina behin aldun-batzarrak egin ordukoxe, agintaritzan gogortu dirala igarten danean, orduan hasiko dira okerrik handienak egiten. Katolikoai egin jake beti bananduta ibiltea, eta belu zanean negar egin eta batak besteari errua botatea. Baina gizona danak, aurretixek oġdoztu behar dau zelan gertauro dauzan bideak, eta eragozpenak zelan lautuko dauzan. Sarri esan dogu katolikoan artean gauzatxu batzuk izan dirala arazo gurenen zoztor eta eragozpen. Ezkertarren artean hobeto ikasita dauke apaltasuna eta eroapena politika gauzetan. Ez da barrukoa izango apaltasun hori, baina guztien

onerako norberaren harrotasunak alde batera itxiten jakin dabe. Ezkertarrak ondoen dakie antxineko gauzetan ez dala bizi behar, eta ontzat daukezan gizaldietako gogaiak eta zaharren esanak, guztiak barriztuten dira eta alkartuten dira ahalburu baten jarraitzaile izateko. Eskumatarrak, oster, antxinako gogaiak begira dagoz, hoberik munduan ezin izan daitekkelakoan. Hobena da gurasoak ibili ziran bidetik alde egitea. Baina lehen onak izan ziran bideak gaur hobea euki leikie. Goazan ba onenetik. Itzalik gorena eukiko deutsegu eurai, baina beste era batera gudan ekin behar dogun ezker, ez gara eurai loturik egongo. Euskadin batez bere jazoten dana da, alderdirik gehienak mila urte euki arren bere, eurak onenak dirala uste izatea. Besterenik ez dabe entzun gura. Baina oldoztu ete dabe inoiz alderdi barriak arazozen itxurara ekarriak eta eratuak dirala? Alderdi bat ez da sortuten gizon bateri buruan sartu jakolako besteen aurka joatea, uneak holantxe eskatuten dabelako baino. Alderdi barriak beti eukiten dabe unearen zegaitia. Fueruen alde, Karlaren alde eta beste gauza kutun askoren alde ekin ebenak geure itzalik samurrena merezi dabe, baina gaur alderdi horreek ete dira onenak Euskadi gaizkatuteko? Eurak baino indartsuagoa dan alderdirik ez ete dago? Abendaren sustraia, guna jo daben alderdia ez ete dago? Uzkuartzaren alde, sendiaren alde, fueruen alde lan badagi, zegaitik beroneri ez lagundu? Gogai barriak laterri orotan gurenda lortuten dabe, gogai honeek txarrak edo onak direan orain ez dogu esango. *Rinovarsi o morire* inoan D'Annunziok eta oker bere ez egoan hori esaten ebanean. Guk behar dan eran ulertu daigun esakun hori eta barrikuntza iroso daigun abendaren antxinako muinaren altzoan.

Erkala heldu jaku, orain hortik zer jazo daiteken susmatu daigun eta ez lotan egon, ezer bere ez dala jazoten eta. Belu izango ete da gero! Zuhur egotea hoba da gertakizunai erantzuna emoteke, gero negar egin baino.

Lauaxeta
1931-V-5

AZALPENAK

Mendiak maitatzen doguz, eta mendigoizale bihurtu gara. Eurretan datza, urian idoro, aurkitu ezin dogun bakea. Gogoak hesiturik dagoz txaide artean. Uriko bizitza urduriegia dozu, arineketan zoaz alde orotara, zaratak dozuz lagun eta gizonak nazkagarri. Mendian ostera amarru bako gauzak dagoz, anaia bainintzan moduan begiratuten gaitue guztiak.

Mendi goietan gauza bi atseginen dozuz: bakea eta isiltasuna. Bihotzak landu nahi dozuzan orduan, oroimenak indartuteko, bakea jatzu lagunik onena. Inork ez deutsu eragozpenik jarriko barneko bizitza txastau dagizun, mendiko zurrumurruak geldikidiro doazalako, zeruko hotsa bailiran.

Mendian inor ez dago iradu¹: orduak geldiro dabiltz, zugatz artetik doan errekatxua baizen samurkiro. Bizitza oso atsegingarria da, eresi maitekor baten antzean dantzugulako. Ez dozu inoiz ikusi menditarrik? Bere begiak, bere kinuak baketsuak dira, girin txarrak ez deutse zirkin eragiten, lurraren antzera bakea dariola dago. Horra baserritarren antza. Hitzetan bere ez da arin jardungo, geldiro baino. Mendiko zugatzak, orritxuak, izakiak, ez dira iradu hazteko, gizonak bere ez dauka arin ibili beharrik, dana jatorko izadiaren neurrian.

Baina isiltasuna bere ez da atzera ixtekoa. Zeure irudimena, adimena ez dauz ezek lazkituten. Eta bihotzak ederto ehunduten

¹ Iradu: prisaz.

dau bere mezaburuko gogaletan. Goru baten eran biribilduten dozu zeure barruko gurarien haria. Barnera ez datoz urietako larritasunak, arin egin beharrak. Jaube zara eta jaubeak ez dauka zetan arin ibili beharrik.

Mendigoizale gara, ez gailur orotan zantzo egitearren soilik. Gogoan bakea lehenen gura dogu, uriko zereginak, buruko minak ahaztu. Baina honeen gain dago beste zeregin bat. Mendirik mendi zabiltzan orduan zeure eskuakin ikututen dozu aberria. Goietan dago garbien abendaren muina, eta hara igoten zara ugatzik gozoena txastau dagizuntzat.

Gau argia goi orotan zintzilik dago, urrezko untzeak josita lotuten baileben, oihal urdina. Piztitxuen hotsak dantzuzuz lantzean behinean. Eta ilargiaren mosuak laprast egiten dau ostro baltzetan. Orduan itzal batzuk ikusten dirala dirudi, aberriaren gogo balira legez. Barnean dagozan euskotar gurari guztiak bizkortuten dira, eta hegaz goira egin nahiean dagoz. Abenda zahararren lehiak dira, betiraunera igon gurarik. Mendiko isiltasuna eta bakea, aberriaren lagunak dozuz.

Abesti maitekorrak haranik haran, arrorik arro doaz, itsasoan galtzen dan olatuen antzera, geldikiro. Hondartza geure bihotza jake. Eusko abestiak eta eusko zantzuak, mendion jaube egiten dira. Itxaropen baten antzera ikurrinak zabaltzen dira. Oi mendiko bakea! Zeure altzora noa munduko hotsetatik, girinak ba galtzen dabe gogo garbiaren gentza.

Atsedan egin gura neuke zugatzen azpian zeru urdinera begira. Loaldi hori izan daitela amai bakoa. Aberriaren gogoak dagian loa baizen luzea, baina ordua danean bizkortu naitela sutu eta lerdan, indarrez osatuta etsai orok oinpetuteko eran. Mendiko bakea eta uriko larritasuna alkartuten ikasi behar dogu euskoak, biakaz bat egiteko. Lanaren sari bekigu mendiko bakea.

Lauaxeta
1931-V-24

AZALPENAK

Kaleko beroa jasan ezinik, kanpora doaz uritarrak. Goizeko orduak dozuz eta bultziak beterik dagoz. Jaupa entzuterik ez jake gogoratu, eurak kistarrak ez dirala dirudi, udatzaleak baino. Neskak iguingarri jatzuz jantzi erdiakaz. Neska horreek edozer dirudie. Mutilak, bateko praka zaharrakaz, besteko ardao zato bat lepoan dabela. Gabean barruan ekarriko dabe mozkor galanta eta lizunkeria.

Hor joatzuz hondartzetara, mendietara. Baserritarrak ikararuta geratzen dira holako barregarritzko jenteak ikusita. Zeren bila doaz horreek, baina, mendira, hondartzara? Eguzkiaren mosua gozartuten edo haize ozkirriaren bila? Ez dirudi. Lizunkeria eta erdaltzaletasuna daroe, eta bizitza nazkagarriaren bila doaz. Mendietako bakea nahastuten dabe. Igandetan ikusten diran aldra lotsabakoak ez dira izaten gehienez euskotarrak, kanpoko zorritzok baino. Haizea atxaki bat jake, nahi dabena egiten ibilteko, gura daben tokietatik lotsa barik eguna igaroteko.

Eusko mendiak zikinduten dabez, eta eusko hondartzak.

Gauza ona da udan uritik iges egitea, eta haize gozoa hartzea, edo uretan mosua samuira sentitzea. Baina gizontasunik ez da galdu behar horretarako. Antxinako ohitura zantarrak, erromatarren ohiturak dirala dirudi, oraingo gazteen bizitzako ibilketen ardurea.

Zelaira, kanpora goazen orduan, bihotz onak eroan behar doguz, grinean bakea, buruko minen isiltasuna aurkituteko. Kanpoan ikusten dogu gauzen edertasuna. Baina orain ez doaz horigaitik, egun guztian nahi dabena egitearren baino.

Udeak ez dakar eusko baserrientzako irabazte handirik, gaki-biaka bai ostera. Neguan bakean dagoz herritxuan, bertakoak bakarrik, inoren eredu txarrik ikusten ez dabela, baina udeak uriola baten antzean dakartsez zikinkeriak eta arrotz haizeak.

Hona zelako lana egin dagien abertzaleak herrietan, udako aroan. Eurak emon begie eredu ona, beioaz eusko abestiak abesten, eta ez beitez ibili ardao dariola eta behar ez dan moduan. Eusko bateri jagokona, horixe da: pozik ibili, ez izan itun, baina ez inor lotsatu eta galbidera eroan. Zenbat bider dakusguzan gazte piloak galdurik, amaren semeak dirala bere esan ez egiteko eran.

Hondartzak dirala-ta zenbat gazte eta zenbat euskotar hondatuten diran, herriak eratuten dabez lizunkeri habi. Neguan uri nagusian estalduten diran hobenak eguzkitara doaz udan.

Euskadiko galkuntza handiena horixe izan dala dirudi. Lehenago bakean bizi nahi ebenak etozan hondartzetara, mendietara, orain ostera gudea nahi dabenak, zarata egin nahi dabenak.

Zoaz udako astelehen baten hondartzarik hondartza, eta han ikusiko dozuz ingi zatiak, ardao bonbilak eta abereak legez jan dabenen hondarrak. Antxinatik abertzaleak hots egin dabe uda zaleen aurka eta gaur ordua dala dirudi ahal dogun eran eta bestean gogor egiteko. Eguzki bila datozan batzukaitik ez dogu geure herriaren kaltea idoro gura. Eguzkia eta haizea hartu nahi dabena beioa beste alde batera, eta betor behar dan moduan, ez lizunkeriaren bidez.

Lauaxeta
1931-V-28

AZALPENAK HITZALDI ORRAZTUA

Madrilera ez gara joan, aldunak egingo daben lanari zuhur egoteko, baina oharririk egin baga ez doguz itxiko batzarrean jazoten diran kinuak. Kinuak barriri esan beharko, espainatarrak eskuak jaso, buruari eragin eta kinu egiteko jaioak diran arren, gogai sakon bat azalduteko gai ez diralako.

Arazo gurenak bidera urteten dabe, laterri baten zarpilketan. Espainiarrak barriz hitzakaz urten-ona egiten deutsee. Eginai barik hitzai dagoz eta aldun-batzar orokorrean be, hamaikatxu berba zoro eragingo dabez, azkenean ezer egin ez egiteko.

Alcala Zamora jaunari egon jako, alorrari hasikerea emotea. Hitzaldi hori orraztua izan da. Olerkari batek hobeto ez eban egingo. Jorraileko matxinadeak oraindik ez dau idoro izan olerkari bakar bat, baina Parlamentuan, zelako hitz bigunakaz agur egin deutsan, Espainiako erkalaren lehendakari jaunak. Ayerben hil ziran zinopai be zuzendu deutseez gorralbenak, eta edestian ezeze bihotzetan idatzita egongo ei dira.

Ahaldunai samurkiro agertu deutse, garbi baizen eder erkalaitxiten dabela, orain arte agintari izan diranak. Aurrerantzean be, akats barik iraungo al dau. Eta abar puntan txiruliruli egin dauen txoriaren antzo jatsi zan Alcala Zamora jauna aulkitik behera.

Erkalaren lehendakari horrek zer esan dauan azaldutea, ez da gauza gatxa. Bi hitz dira garrantzitsuenak: Gobernuak ahal daua-

na egin dauala, erkala irozoteko eta odolik ez dabela isuri. Beste esate guztiak ez dabe balio begiko piztarik.

Baina hitz horreek baino gurenagoak entzun gurako genduzan lehendakari baten agotik. Espainiako erkala ze motakoa izanen dan, lege barriak jaramonik egingo deusantentz erkien izake-reari, zelan atonduko dabezan lur arazoak, lanbakoen hartu-emonak. Erkalak badaukaz arazo gurenak. Katalunia, Galizia, Euskadi, Baleares eta Valentziako askatasun nahiak. Andaluzian ez dagoz herriak arte osoan. Hamaikatxu lanbako urietan igituten da. Txindia lurra jota datza.

Zertarako ostera zenbatuko doguz gauza oro? Alcala Zamorari ez jakoz etorri burura arazo horreek. Justiziz erkien leihak erabagiteko ez deutse hots bat egin ahaldunai.

Zer jazoko ete da, hasikeran guna gehiagoz hitz egiten ez dabenean? Baina zelako txalo-hotsa entzuten zan aretoan oster! Ezilkortasunaren haizeak jolas egingo ei dau ahaldunen buruan, ondo zuzenduten badabe erkala. Hitzaldi hori, liburu txukun batean ipinteko ez da txarra. Erretorikarik badau, baina muinik ez.

Gaurko egunetan ez dira laterrien arazoak zuzenduten ezer ez dakien aldra baten bitartez. Jakintsuak behar dira horretarako, ez barritsuak. Eta Espainiako aldun-batzar horretan kakotan hobeto egongo leitekezan batzuk dagoz, lege barriak egiten baino. Hor sortuko dira alkarren arteko bekatxak, leihak. Alderdi bakotxak nagusi izan gurako eta erkalaren ona erkien artean baino, euren aintza eta zaratea maiteago izango dabez.

Lehenengoko erkalak bere hizlari bikainak euki ebazan. Lehendakari zan Castelar jauniak, erretxinolak baizen ederto abestuten eban, baina ez eban ganoradun gauzarik egin. Hor dagoz liburuetan josita haren hitzaldiak eta olerkirik onenai baino hodei antzeko gogai gehiago darioe. Erkala, oster, hitzaldiak arren jausi zan. Oraingo honeek bardin egingo dabela dirudi. Orain jatort burura mutil gazte batek inostana: geure etxean ez dogu jaten askorik, baina barretan egiten dogu, ito ahala!

Madrilen bere gauzarik ez da atonduko, baina txaloak eta hotsak izango dira ugari. Jan ez arren ez dago ardurarik, *kuestinoa da ze barre egitea*.

Lauaxeta
1931-VII-16

AZALPENAK BARNERA JO DAIGUN

Zaratak baino ez dira entzuten geure inguruan, gogoak barriz atsedena gura leukee, barneko hausnarrari egoteko. Gogaiak ez dira neurtuten atako hotsen bitartez, bihotzeko bakearen neurriz baino. Nigan isuri dozuzan hitzak, isilera baztertuten nazanean, samurkiro azalduten deustez barruko gunak.

Ate guztietan aneika abots entzuten dodaz. Pozik hots horreei neure txaloa lagun jake. Baina isilera bihurtuten nazan orduan, txaloak joak lotsatuten nau. Hausnartuten dodaz hitzak, eta koskola baino ez dira, barruko muinik baga. Ez daroe gentzak damaioen samurtasuna, zintzotasuna. Hizlari asko dabilguz herri-rik herri, baina gitxik bihotzak ikututen dabez. Eurengan daurki-gu akats horren zioa.

Hitz egiten aurreratu baino lehen, ez dabez entzuten bihotzaren didarrak, isilean sortuten dira oldozkun gurenak. Nerau samurtu naroan eztena, besteai be sartu dagiedan. Norberak hausnartu badaroa barruko zadorra, laster besteena ulertuko dau, zador oro bardinak baitira gizonen bihotzetan.

Mundua igitu daben gizonak, geure saminai orio laztankorra isuri deutseenak, bakartiak dira. Euren isilean entzuten dabez artzain eta artzainora barik dabilzan gizon-taldeen hotsak, negarrak. Guretzako zarata danak dira pozak sortuak, edo gizarteko gorabeherak. Gogoaren didarrak, ostera, ez doguz entzuten, geure barruko negarrak ulertuten ikasi ez dogulako.

Hitzetan laburrak, eginetan adurrak, euskoak izan baigara, gaur aldatu dogu esakuna. Txortxor gabiltz alde guztietan, ganoradun gauzarik esan baga. Ez dogu ikasi oraindino berbak neur-tuten. Isilik luzaroan datzan ago batetik urten daben hitzak, dar-dar hedatuten dau barneko sakontasuna.

Oldozkun gureneta jo daigun guztiok. Agora baten, burura bitan. Geuk darabilgun ekin hau aldatsduna dan ezker, zoztorrez josia, gogoko indarrez aurreratu beharko da.

Abertzaletasunari eragin handirik ez deusagu egingo hitzaren bitartez soilik, geure bihotzetako guna ipinten ez badogu. Honak aurreratuko dau aberriaren gogaia. Maitasunezko oldozkunak sortuko jakuz barnean eta hitz bakotzak geure izate guztiaren atala barreiatuko dau.

Baina lanari egon baino lehen, egon gaitez barruan, aberriaren maitasunak egiten deuskuzan hotsai. Eusko gogoa ulertu gura dogunak, soinaren bitartez barik gogoaren bitartez alboratu behar gaiakoz aberriari. Koskola kendu eta guna ikutu, hausnar-tu, jan.

Sarritan entzuten doguz inork ulertu ezin daikezan abotsak, aberriaren alde dabiltzala uste daben arren, Euskadiren alde ezeze Afrikaren alde bardin zarata dagienak. Holakorik jazo ez daiten abertzale bakotzak sakonkiro jardun behar leuke aberriaren hitzak entzuten, ez gizonenak. Gizonak beste gizon baten hotsak esaten dabez eta. Iturrian bertan edan behar da, ez usu-lan.

Neke handia benetan, hitz horreek entzuteko gertau ahal iza-tea barna. Geuregan sartu behar gara eta hantxe iraun luzaroan, egunik egunera ikusten doguzan gauzak hausnartuten. Sarritan gogai batek agertuten dauz aberriaren edertasun guztiak. Maita-suna ermeten da isilaren itzalpean. Maitalariak hitzai barik adiku-nai dagoz, isilari. Geure lana bedi horixe.

Baina aberriaren edertasun bat ikasi eta ikusi ordukoxe, ez daigun inori azalduteko zaletasun larrik euki. Umotu daitela aldian.

Norberak gozartu behar dau lehenen igali horren goxotasuna, gero besteai errazago emongo deutsegu, geure hitzak bere usainez egongo diralako.

Barnera jo daigun. Lanik iraunkorrena gogoarena baita. Hitzak haizeak daroaz, baina bihotzetan ereiten dan haziak sortuazoko dauz emaitza guriak. Guztiak nabaituten dabez sentimentu bardinak, baina atako hotsetan dabilenak ezin ulertu dauz kinu horreek. Isilean dagoanak, ostera, gozartuten dau didar horren ezitia. Aberriagana oldozkunen bitartez, ez hitzen bidez.

Lauaxeta
1931-VII-17

AZALPENAK EZTABAIDEA

Harainegun izan zan eztabaidea, honaxe ekarri gura dogu. Donostian toki ikusgarri bat dago. Areto haretan hamaikatxu hitzaldi garatu dira, ezkertarrak ezeze eskumatarrak be euren zabalkunde tokitzat aukeratu dabelako. Aurtemin² orokerizaleak abertzaletasunaren aurrean txapela kendu nahi izan dabe, baina osoan barik, erdiz erdi. Euren asmo bereziaren aitz³ legoke txapela osoan kentzea.

—Eusko Iztundera joango gozak?— Batak besteari. Urliak ostera:

—Han zer jagok, ba?

Hara heldu ordukoxe berein langile. Erle-barrunbea eta zarattea. Guztiak kea darioe. Batzuk euskeraz mintzatuten dira, besteak erderaz. Ohidalako⁴ nahastea, hizkuntza bakarra entzun behar litzateken areto baten...

Larrañaga, eusko abizena, mahaiburu dago. Hots berak: “El comunismo ante el nacionalismo vasco”. Hauxe begiko gaia, bide okerreaz aldenduten ez bada! Sarri amuan amuzki bat jarri ohi da, gero trukatu bada ere.

Abertzaletasunaz zer dasake horrelako batek?

² Aurtemin, artemein: oraintsu.

³ Aitzi: kontra.

⁴ Ohidalako: itzelezko.

Lan ederrak egin ei dabez komunistak aberriak askatuteko asmoz. Adibidez Txina eta India mahai ganera betoz. Diruz eta adorez urruneko aberri haretan errusiarrak ahalegindu ziran.

Aberriak aske ikusi nahi dabezalako? Ardurarik ez deutse, kaikukeriak baino ez baitira aberriak. Aberri bakarra guztientzat bedi, mugak eta neurriak aberatsak jarri dabezalako.

Zer dala-ta aberri batzuk askatu nahiez orokerizaleak ibili dabiltz? Abertzaletasun guztien barnean matxinadarako adorea baino ez dago. *Erreboluzinoa* egin nahia. Eskura jatorke lehia hori. Indiako abertzaletasunak matxinadarako zaratak erakusten dauz. Doistarren herri artean be abertzaletasuna sortu barri dabil, baina dirudunak asmau dabe. Holako abertzaletasunaren alde ezin gudarik jokatu daikie.

Uzkurtzazale diran abertzaletasunak ezin aldeztu daikiez komunistak usaindunak. Leninen hitzak buruan "Uzkurtza da herrien *opio*". Langileak euren helburutik urrundu daroaz.

Txinarren abertzaletasuna aldeztu genduan aberatsakaz batera. Harrigarri dala? Ez; matxinadarako bideetan ebiltzalako aberats hareik ludiko beste aberatsakaz bat egin ziran. Atzipetu ginduezan. Eusko abertzaletasunaren alde usulak ezin apurtu daikiez orokerizaleak, abertzaletasun honetan uzkurtza eta aberastasuna buztarturik dabiltzalako. Euskadiko dirudunak nagusi diran ezkerero, matxinatea eta langilea buru egin nahi dabenak, okuluan egin beharra dauke.

Baina abertzaletasunak indarra dauka. Horixe euren errota-rako urik onena. Hodi batzuk jarri beharko deutsez.

Astigarribia jaunak hitz luzeak egin daroaz. Komunisten artean itzal handia dauza. Geure aberri honen askatasunik ez ei dogu gura abertzaleok. *Concierto económico* bategaz pozik egon gagozalako. Aberatsak konortetuko gaitue.

Euskadiren askatasunak bene-benetan komunistak baino ez dabe gura. Askatasun ostean, barriz, olak langileenak izan daitezantzat.

Ikastolak norentzat? Hori itauna! Sota eta Urkixoren semeentzat ezeze, ibai ertzetan jaio diranentzat bere bai. Uzkiurtza, abendea eta hizkuntza arronik⁵ abertzaletasunak ez dauka. *Cuestión económica* dira oraingo abertzaletasunak. Azken hitzak eusko langileentzat izan ziran.

Guztien arerio danaren aurka jagi ezean, alperrekoak lanak izango dira. Astigarribiaren hitzaldia begiko egin jaken askori. Gora Euskadi didarrak entzun ziran. Erlauntz haretan edozer ontzat hartuten dabe. Baina urubio bat bertantxe zan: Aristimuño jauna. Honek emon eutsazan ederrak geure komunista ponpoxa horri. Emon ahalak emon, baina alperrik. Bihar jaupariaren hitzak azalduko dira.

Komunisten eusko abertzaletasuna igarri dozu? Gizon honeek geure alde dirala dirudi, baina ez itsu izan. Horreen artean diranak atzerriko semeak dira. Goseak erabili darabilz. Matxinada bat gura leukee, geure laguntza oster a gura dabe.

Eusko Iztundean entzun ziran hitzak gogoan eukigarriak. Lehenago amesetan be gai horreek ez ziran erabilten. Orokerizaleak abertzaletasunaz mintzatuten? Nok uste?

Antz ona dogu, ez gaitzean ikaratu. Herriak buru diranean eurekanatuten dabez gauza guztiak. Hobeto; soina osatuten danen an jaki guztien jaube egiten da. Ondo jatorkoz mueta guztiak.

Geure herriari jazoten jakona. Lehen kaltegarri izango jakozan gauzak, gaur onerako dauz. Euskadi askatu behar dala, komunista batek hots egiten ebanean, txaloak entzuten ziran. Barregarrizko kapelak eukezanak, biseradunak, panazko prakadunak, bigote erreduak, txaloka ikustean, atseginduten ginan.

Lauaxeta
1933-I-5

⁵ Arron: barrua janda.

AZALPENAK BASATIAK

Lehenago baso eta oihanetan baino piztiak ez ziran egoten, gaur ostera, etorri bide dira urietara. Euren orru eta hotsak entzuten doguz entzun. Gizon antza hartu ez balebe ardurarik ez genduan izango, baina kapelaz eta soineko dotorez jantzita ibili dabiltzan ezkerro, usterik gitxien danean haginkada gorriak egiten deuskuez.

Txaidean zehar gizon usaintsuak ikusten dira, batzuk makila bat eskuan daroela. "Piztiak horren majotsu?" nonok itaunduko dau. Guzurra ez dala jakin gura badau, barriz, Bilbao honetara betor. Euren ozkumea⁶, zirkilua⁷ be udaletxean aurkitu dabe.

Piztiak eta udaletxean! Bilbao hau galduta dago! Holakorik ipuinetan be ez da asmau izan. Baina ipuinetan ikusi ez doguna, orain egiz ikusten dogu. Azalduko dot azkenengo baten egin daben barrabaskeria. Haginkada handiak emon eutsezan euren ezkutunera sartu ziranai.

Udaletzeko aretoan batu ziran. Batek badaki nondikoak diran, baina, tira, zinegotzi hautatuak diran ezkerro, jarlekuetan jezarri daitezala. Geuri tripetako minik ez deuskue emoten. *Sozialista* deritxoena lehenengo hitz egin nahi dabe. Lan bakoai gosea zegaz kendu edo?

⁶ Ozkume: ezkutaleku.

⁷ E.j. *zirkulu*.

Uste hauxe genduan! Langileen aldezlari maltzur honeek oraingoan ogia eta lana eurrez ekarriko euskuelakoan, belarriak zoliagotu eta begiak zabaldu genduzan.

Aretoan ziranak, larri-larri, zer entzungo zan. Arazo gorriak dirala uri honetan, ondo dakigu. Saltokiak, olak, izontziak⁸ eta gauza guztiak hankaz gora jausi dira. Bilbao zan uri alai, langiletsua eta aberatsa, gaurkoan ezerez dirudi. Txaideetan txiroak, landerrak, arrotzak ugari dira, baina aberastasunak aldendu ziran. *Adio ene maitea* abestu beharko deutsegu.

Sosolista jagi zan ba. Ha zan hitz jarioa! “A los dos años de República no es tolerable, porque no lo autoriza la Constitución, la vista de ese monumento en la vía pública, porque el Estado español es un Estado laico y el Sagrado Corazón representa a una determinada religión”.

Holakoxe zaparradea entzun genduan. Gosea kentzeko asmo ederrak. Han entzun ziranak entzun, ezin azaldu daikeguz, lotsagarriak ziralako! Erkaldarrak eta sosolistaok ago zikinera etorri ahala hitz lohi jaurti eroiezan. Geure alderdikoak hareen aurka, baina piztiak beti pizti dira eta ezer ezin egin. Euskotarrak *laico* batzuk belaunik belaun izan garala, urikoak Josu Bihotzaren irudi hori ikusi be ez dabela ikusi gura.

Eta erabagi lotsagarria ontzat hartu zan. Euskotarroi odola be sututen jaku, atzerri aldetik etorri diran gosekil honeen asmoak ikustean. Geure sinismenaren aurka, geure ekandu, izate, dantza, edesti, hizkuntza eta mueta guztien aitziz dabilzan dongeok nagusi jakuz.

Nok uste holakoak ikusiko genduzala? Geure batzarrak uzkurtzaren babespean egiten ziran, baina oraingo honeek txerrenaren aldekoak dira. Ez gara ikaratu. Handiagoak ikusiko doguz oindino, arrotzok zentzumbakoak diralako. Erreka edo ibai ondoko olen keak burestuten izan daben irudi ederra, eusko abendeak

⁸ Izontzi: itsasontzi.

bere siniskarritzat jaso eban harrizko oroigailu sendoa, kanpo-koak jaubetu diranean, kenduten dabe.

Eta oindino itsuak dagoz! Zer itxadon daikegu horreekandik? Gaizkabide bakarra baino ez daukagu: abertzaletasuna. Txar guz-tion iturburua dan atzerri horrengandik alden du gaitazan.

Geure izatea indartu dagigun, ez inoren zereginetan aldia eralgi. Geure asabeak burua jasoko balebe...

Ahal dogunik sutsuen geure hasarrea erakutsi daigun une honetan. Ezin jasan daikegu lotsagarrikeria hori. Josuren irudiak lehengo tokian iraun dagiela, bere eskuak zabal-zabalik, ludia besarkatuteko eran. Bake donea euskotarra aginduten deusku. Arrotzak orain hartu daben erabaki lohi horren zigor ordainez geure ganera ezer ez bedi jausi. Euskadik holako gauzakaz zeri-kusirik ez dauka, Jauna!

Lauaxeta
1933-I-6

AZALPENAK SALATARIAK

Jaurleri bat zetarako dan ez dakigu, baina kapela buruan eta makila eskuan eroan dagiantzat hautatu badaroe, horren ordeztxorimalo bat jartea asko litzateke. Zegaitik demoninokeria hau esaten dogun esan?

Jaurleriak ezetarako gauza ez diralako edo behintzat, gehienean be, inori atsekabeak emon dagiozantzat. Erkian jazoten dana jakingarria dogu. Jaurletxeak salatarien biltokiak dozuz, pizti galduen antzera etxe horretan narras-narras dabiltz. Inori eperdia garbitu ezinik egun etorri jatorkez.

Ene bada-ta, herritxu baten ezer jazo bada, salatariaren ari-
neketak arinak dira! Gosez badira be lukainka erdi jateko astirik hartu barik, Bilbaora hor joatzuz! Herri osoak badaki nora joan diran. Urliak hau egin dauala edo berendiak beste hori ez dauala egin, jaurletxean txitxiputzu salatariok dabiltz.

Eta holako maltzurak eta doilorrak aginduten dabe. Beste jaurlaririk ez da behar.

Halan bide da.

Salatarien gogoia ez dazauzu? Ikusi, ikusi dodanaren bitartez jakin dodana ezetarako izango bajatzu, oraingoan doa.

Alderdi batean egon ezinik —eperdiko mina egiten jake— gaur hona eta bihar hara dabiltzanak ogipide bat aukeratuten dabe. Atxurrean egitea ez jake atsegin; ezta be mokilak haustea. Soloko lanak maite izatekoak ezeze, bestearentzat lagateko ho-beak dira izan bere.

Alderdirik alderdi dabiltzan horreek, alderdietan diran gizonik sutsu, sendo eta zindoena dira. Guzurre dirudi, baina egia dozu! Aurrerengoak dozuz beti, eta alderdiko gorabeherak eurek darabilez.

Gizontxu honeek diruz barik zapokeriaz aberatsak dira. Lau eguneko bizarra kendu barik ez daukenean, bostekoa darabile. Saltokian ogia eta babarrunak ez dabez ordainduten, baina ardandegian txikitorik bere ez. Hiru pare oski konpondu deutsez eta laugarrena goitik baino behetik zulo handiagoakaz dauke.

Kaletarrak baino ez diranentz?

Bai zera, eta astoa zara! Artojorran barik trabenarik trabena ibiltzen diran baserritar batzuk be, holakoxeak dozuz. Txaidean ikusten dozuzan bakotxean barre ala negar egin ez dakizu. Emazteak azkenengo azokan saldu dauzan oilo eta arrautzen dirutxua hartu eta hor etorri datoz *gobernadore* jaunagana.

“Gritar ha hecho Nicolas, el de Zapatarine, muere errepublika o así”. Jaurleri jaunak Zapatarineko Nikola ezagutuko balebe legez, ganorabako horrek hitz egin daroa. Jaurletxeko otseinak bere, horreen lepotik barre galantak egiten dabez.

Salatari *ondrau* honeek, herrian baino Bilbaon gehiago bizi dira. Bizkai guztiko salatariok ezagututen doguz. Egunero jaurletxera doaz, ezta? eta hantxe dagoz. Hareen aurpegiak, aurpegiak dira gero; batzuenak osagileak *anatomía* egiteko duinak, besteenak surra gorri, matraila jausi eta buruko uleak nahaste daukezanak.

Azkenengo *pintxe* bati be, ikaragarritzko agurra zinkatuko⁹ deutse, baina *galoi* antzekorik hurbilduten bajake, hareen labankeriak eta eperdi igikerak. Lehengo baten jazo zana... esango deusut? Bai, esango deusut. Neure lagun bat *marino*, itsastar ikasten dabil, Correo txaidean egurastuten atseginago jakon arren. Dotore ibili dabil, *marino* jantzi onenagaz; *almirante* antza hartuko zeunskio.

⁹ Zinkatu: oihukatu.

Jaurletxera joan bazan joan, joan zan. Berein salatari atadian egozan, jaurlariak astia noz eukiko eurentzat.

Neure adiskidea *almirante* antzez han sartu zanean, jesarrita egozan betoker, erren, mozkorti, baldar, doilor, maltzur, kaiku, astotzar, *tvaketeru* guztiak jagi ziran. Hareek idatzi eben *Jagi-Jagi* ederra! Zutunik egin eutsen agurra, agur makala ez zan izan.

Holakoxeak dira salatariak. Eta euretarikotan bada izan, buruko uleak aina. Gehienok goizean etorten jatzuz, arratsaldean jaurletxeakoak atsedena nahiago dabelako, uri txikerretako papaukiloen esamesak baino eta. Ordubatagarrena edo bigarrena izan orduko urteten dira, bazkaria jan behar dabelakoan jan. Zorritz ugariak baina diruz urriak diran ezkerero, lapikoko apur bat *trabena onenean* jaten dabe, ogi askogaz eta ardao txarrenaz.

Bost erreal izaten da guztia. Gero Arriaga akeitetxera doaz, tripak bor-bor gose daukezala, baina hantxe kanpoko aldean diran mimenezko jarlekuetan jezarten dira.

Txaloa jo orduko otseina han da: —Jaunak zer hartuko dau? Jauna entzutean hareen begiak niri dagoz; *jauna* ez deutse euren ederragaitik esaten, gero emongo daben eskupekoagaitik baino.

Akeita hartuterakoan zelako edariak daukezan itaunduko dabe, azkenean *ginebra* txarrena hartuko badabe be. Txokorra erakutsirako gura izaten dabe, nondik oratuten jakon ez dakien arren.

Bazkari puntarengoa jan ez dabenik ez zeunke esango. *Bilbainara* doazen jaunak baino tripa-zabalago dagoz.

Zetarako salatari kontuak dakarguzan? Irakurri egizu, bai? eta laster jakingo dozu jakin, gura dozuna eta erdi. Egingo doguzan barreak, salatari horreek nortzuk diran dakigunok! Bizkai guztiko salatariak hemetixek igaroko dira.

Lauaxeta
1933-I-8

SALATARIAK II

Bilbaoko zilborrean zubia dago eta *Isabel segunda* deritxoe, erregina ha izan zan lango zabaltokia dalako edo. Zubi honetatik gorantz-beherantz dabiltzanak ikustea, ibaira burua jaurtitea bai-zen atsegingarri ez da izango, baina tira, barre egiten ez danean negar egiten dan ezkerro, hantxe egoten gara.

Hondartza aldean egon bazagoz, zubiz gora doazenai begiratu egiezue. Nortzuk diran? Lau gizon doaz, baina euretariko bat ausartuena dala dirudi. Aterkin edo gaurdasolak eskuetan daroez, eguzki ederra dan arren. Mungiako bultzian etorri dira, bai? eta jaurretlera doaz, *Bizkaitar* lotsabakoak herria galdu zorian ei dauke, *errepublikano* on-onai arnasarik hartzen be itxiten ez deutsela. Deriokoak dira.

Guztien aurretik doana, baserritarra da, eta artoa erein dauan tokian kardua batuten dau. Bere etxeiko behiak ikusiko bazeunkez ikusi, urte bian jan barik dagozala esango zeunke. Errepublikatea etorri danetik, bekorotzak atara barik daukaz. Bekorotzak kortatik ateretan ibili beharrean, batzokietako zikinkeriak jaurretlera eroatea gauza egokiagoa ei da ba...

Bigarrentxu hori kamino ertzean bizi da, ogibiderik ez dauka. Zapateru izan ei zan, baina *politiko* izateko jaio zala buruan sartu jakon eta trabenarik trabena *politikea* zabalduten hasi zan. Ikaragarritzko hitzaldiak biribildu ostean txikitotxu batzuk edaten ebazan. Etxeratuterakoan barriz, mozkorra lepoan eta zapatak erdi barreka. Zapata apurtuak agoak zabal-zabalik barreka dagozala dirudie, izan be.

Gorroto handia hartu eutsen, bai?, eta ogibide hori itxi eban. Emazte gaixoa narras-narras ibili dabil bestaldeetan zapiak garbituten eta.

Hirugarren salataria *pato* baten antzera zillbor handiaz dabil. Matrail gorri, ezpanak lodi, inok ez dau erosi gura txarri hori. Txaidez zehar hor doaz. Jenteak ezagututen dauzan ezker, laidoz begiratuten deutse. Aldundian sarri izaten dira bideetan edo bitxabaletan euren *kofradiko* batzuk sartuteko.

Euretariko gitxi eta maketo asko bitxabaletan ikusten dira. Eta zelako langileak gero, zelakoak. Harri-joten kapeleagaz ikusten dira, baina oindino handiagorik entzuteko jaió gara. Esku meheak edo finak eukazala berak bai?, eta bigote-erredun batek *guanteak* eskuetan daukaz.

Harri-joten eskuak maskorrez beteko jakozalako *guanteak* darabiltz! Lau salatariok etorri ziranean gauza barregarria jazo zan. Jaurletxeakoak ondo ekien hareek nortzuk ziran; errege aldie-tan hantxe ikusten ebezan eta.

—Está señor gobernador? Decir que cuatro errepublicanos de Derio querer hacer verle para decir de los bizkaitarrones.

Holako hitzak entzutean ikaratu ziran jaurletxeako otseinak. Baina erkaldarrak honeek ete dira? Geure bizitza guztian errege-tarrak izan dirala ikusi badogu...

Baina otsein hareek astokiloak ziran, berehala besteak erakutsi eutsezan erkaldarren batzokiko ingitxuak. Eurak lehendakari, idazkari, diruzain eta guztia ziran.

Jakea aldatu daben honeek lotsaren erbatzik ez dauke. Ludian inok ezer jasaten badau eurek jasan daroe. Biziten bere ez deutse itxi gura abertzaleak.

Legenarrak balitzaz legetxe herrikoak eurakandik aldenduten diralako, jaurleriagana doaz. Salerosleak, oskinak, okinak eta beste errepublikano onak ezer saldu ezinik ei dagoz. Bizkaitarrak porrot egiten ei deutse, Espainia maite dabelako.

—Eta zer gura zeunkie, ba?

—Batzokia zarratu eragin, urliari, berendiari eta Gondrondotxikiko Peliri bostehun laurlekoko zigorrak leporatu dagioezala.

Salatarien negarrak eta deadarrak! Eurek aina Lerroux ez zan ahalegindu erkalen alde.

Abadeak, *klerikalak* eta bizkaitarrak euren arerio zitalak ziran, baina erkalaren alde jokatutearren, ez ziran kikildu.

Jorrailean izan ziran hauteskundeetan erregeari autarkia emon baeutsen, erkala alkartzeko emon eutsen. Orain inoren menpean izango diranentz, negarrez antzean itaunduten deutse.

Jaurlariak hitz onak esaten deutsez eta pozaren pozez hor doaz geure salatariak. Somerako okulu baten bazkari galanta jaten dabe *Círculoren* kontura. Euren putzak eta arnasestuak Andoni deunaren ertxadonetik entzuten dira!

Lauaxeta
1933-I-10

SALATARIAK III

Salatari malatari, apez-uzku milizkari, geure antxinako esae-reak dirausku. Antxinako hareek zer esaten eben, oraingo honeek baino hobeko ekien, baina hareei parkeske nagoala, esakuna aldatu gura neuke: salatari, jaurlari-uzku milizkari.

Eta izan be zelako *prozesinoak* ikusten doguz! Barrenkale txaidean gizonkote bat aurkitu neban. —Eta nora goaz joan ba?— euskeraz hitz egin neutsan, baina astokilo harek erderaz erantzum eustan.

—Entender poco vascuence, yo de Bermeo ser.

—Tira, tira erderaz baino euskeraz hobeto ulertuko gara eta! Koplarik ez egistazu ekarri, aurpegiari igarten deutsut euskotarra zarana eta.

—Errepublikano ser yo, no euskotarra.

—Non jaio zinan, ba, Navalcarnero de los Cuclillosen?

—Mermion. Goiko kalean jaio nintzan.

—Eta norako ustez zabiltz? Barrenkalera etorri ete zara etorri ba?

—Gobernu zibila topau ezinik nabil. Neure lagunak han izango dira-ta, arin joan gura neuke.

Eta haregaz hizketan jardun neban. Bai jakitekoak jakin gero! Neronek lagundu neutsan, bai? eta errepublikanoa nintzalakoan, kolkoa zabaldu eustan. Bere lagunak nortzuk ziran esango deutsuet.

Lehenengo latari edo abogadu antzekotxu bat. Maritxu antzekoa ei da. “Ay, por Dios!” “Llue gracioso!” eta holako pesteke-

riak baino ez dauz esaten, seguru be... Txaidez txaide burutsik ibilten da, uleak kizkur-kizkur dauzala, "Sábelo todo" hauxe dabe.

Euretariko beste bat *diez*, *recontre* eta holako biraoak esaten doa. *Diez*, holako zantarkeririk ez da egiten! Birao galanta *diez* hau da gero! Honeen atzean doazenak trauskiak badira, trauskiak dira. Talatik baino tabernatetik sarriagotan ikusten dira.

Demokrazia, *libertad* eta *errepublika* baino agoan ez darabilenez.

—Bermeoko *demokratak* honeek izango dira, ezta?

—Bai horixe "a mucha ondra".

—Noiztik honako erkaldarrak dozuz, ba? Beti-beti gaur diranak izan dira edo lehen gauza bat eta orain beste bat ete dira?

Gobernu zibila idoro ezinik ibili zan haren bitartez jakin neban Bermeon harriak be erkaldarrak dirala. Erregetarrak izan zirala lehenago? *Diez*, holakorik entzuteko be! Eta ogena ete zan? Ez, ba, ogena ez zan. Gauza lotsagarria ez zan *carabiña* handi bategaz Primo de Riverari harrera abegitsuak egitea. Erkaldarrak lanetan ibili ziranean, eurak erregearen aldezlari zintzoak izan ziran, baina bat hiltzen danean beste bat haren lekuan jarri ezkerro, kitu.

Eurak gauza bat izan dira sekuletan: abertzaleen arerio zitak. Honeexek joan ba, jaurletxera. Ezin arnasarik hartu ei dabe. Arnasea hartu ezin dauana osagileagana joaten da, baina honeek jaurleriagana doaz.

Ludian ez dago jente txarragorik, eurak nagusi ez badira, beste hondatuko leukielako. Bermeoko *kazike* horreek gizonaren eskubideak zelakoak diran ez dakie. Eurak, beti eurak, eta besteak lupuak jan dagizala.

"Emakume batek laido egin deust, jaurleri jauna" batek dirautso. Besteak, ostera: "Dantzara joan nazanean *kalabazak* emon deustaz neskatil batek, bera *bizkaitarra* dala-ta. Holakorik ezin jasan daikegu". Bostehun laurlekoko isuna jarri deutesenentz ez dakigu. Ogen handia holako bat egitea.

Hurrengoak: "arrantzale batek *mokoti* esan deust". Eta zenbat bidar hitz hori entzuten ete dogu herrietan. Eta zer? Mokoti dirauskuenean atera zapitxua eta surra garbituten dogu.

Abertzaleen lotsagarrikeria honeek dirala-ta, Barakaldoko bandea bidalduten deutse. *Banda* hori nortzuk osotuten daben? Ai ene-ta zaran astotxua! *Asaltoko guardiak!* Barre egiteko bere!

Barre dinozu, barre? Negar egingo zeunke euren zigorkadak hartuko bazenduz!

Lauaxeta
1933-I-12

KIROLAK IGANDEZ

Igandeetako zeregina, zeregin arintxua dogu. Handik eta hemetik, kirolak ikusteko gogoia. Bultziak gizasemezkoz datoz. Hango piloak! Bilbaon San Mames tokirik ikusgarriena. Goragino!

Dirurik ez dagoala? Ez, zera, egon ez! Madrid-Athletic ikusteko harripetik dirua ateraten dabe. Jango ez bada be! Antxinekoak esana: etxean ez dogu jaten, baina jolastuten gara.

Hamaikatxu ogerleko biribil jokatu ebezan. Noren alde? Bilbaotarren alde, ba. Lehoikumak ei jatzuz honeek, lehoikumak, baina oraingoan kikiltxu dabiltz. Jokalari batzuk gaixorik ei dagoz. Ez dakigu, baina hori dinoenean, sinistu beharko. Hanka-tik bata, bestea iztarretik, geure etxean koplea ez da faltako. Lehenengo ostikokaldian madrildarrak nagusi ziran. Edertoetan be ederto jokatu ziran. Bilbaotarrok amorruez sartu ziran. Tantuak eurrez sartu gura, baina ezin ba! Norberagan ez dago. Amaitu zanean hango zaratak! Harrika egingo? Ez, ba. Madrilek tantu bi eta Bilbaokoak bapez geratu ziran. Hurrengoan izango da edo. Epailea zanak astakeririk ez eban egin.

Donostian ziran beste batzuk. Ondarretako ostikolariak txapelketea gura leukie, baina behetxutik dabiltz. Atotxa gizonez goraino zan. Lehenengo ostikokaldian ez batzuk ez besteak ez ziran lehiatu. Tanturik egin bage, etxoletan sartu ziran. Gero, baina, Urtizberea gazteak gertau ostean, Iriondok lehenengoa egin eban.

Donostiak tantu bi eta getxotarrak bakarra. Ez zan joko ikusgarria. Hango gizasemeak, barriz, txilioka, zarataka.

Las Corts zelaian jokoak zan. Bartzelonaren indarrak neurtu nahi ebazan Santanderreko Racingek. Baina aurten kukurruku askotxu egiten dau Bartzelonako taldeak; Santander aldekoak ago bete hazurrez geratu ziran. Tanto bat egin ezinik, hareen ahalegi-nak... Katalandarrak lau tanto ederregaz aldendu ziran.

Sevillako gorabeheren bildur barik, ostikolariak eupadaka ba. Gazteak baitira. Betisek gura ebanik ezin lortu. Español gogorra da eta. Bi honek eta bat lehenengoak. Goiko mailako ostikolariak dira, besteak bigarrenengan dagoz. Igandean gauza handirik ez zan ikusi. Ostikolariak nekatuta dagoz edo... Igaz baizen sutsu ez dirau aldra batek be. Español beste guztien aurretik doa, bigarren jarraitzen deutso Madrilek. Eta ago-zabal askoren saminbide dan Athletic hirugarren. Ai ene! *Alironik* ez dogu abestuko! Negarra begian. Geuri axola handirik ez, baina...

Bigarren mailakoak:

Athletic de Madrid, 2; Sportin, Gijongoak 1.

Celtak 2; Murciak 1.

Oviedok 2; Irunek 0.

Osasuna, 1; Castellon, 2.

Deportivo Coruñatarrak, 3; Sevilla, 1.

Jauzkea edo pelotea. Lanari ekin eta jolasari eutsi, geure lan-tegi honetan batzokiak ibili dabiltz. Pelota-eskuraldiak asmau dabez. Otxandiano, Mundaka eta Markina igande garaile doguz. Egia, Goitia eta Elortza pelotarien buruak dirala be ikusi dogu. Club Deportivoko tokitxuan eskuraldi edo tantu onak ikusi ziran. Eusko jolas honek gurtzaile asko batu daroa.

L.

1933-I-24

AZALPENAK ESPETXEAN

Larrinagako espetxetik jatsi nazanean idazten hasi naz neure barruan gogai itunak dodazala. Espetxean dagozan abertzaleak esan deustezanak entzun ostean oldozkor nago. "Notin gitxi jator-ku ikertutera", esan deuste. Eta euren begietan samintasuna ikusten zan.

"Notin gitxi jatorku", Larrinagan dagozanak dinoskue. Inoren aurkako hitzak ez ziran, baina koskola apurtu ostean mamin latza aurkituko zan. Abertzalerik ez dago ala? Bilbaon inor ez dago espetxeakoak ikustera joateko?

Txaideak emakumez bete-bete dagoz. Ezpanak gorri-gorri egin eta betuleak orrazturik kinuça eta barreka ibili dabiltz. Espetxera joateko astirik ez dauke baina... Mutil gazteak be, hor dabiltz. Batzuk ardao zuria edaten doaz, besteak jolasera.

Eta aberriagaitik oinazez dagozanak ikertuteko astirik ez dauke. Astia bai, asti lar dauke, baina abertzaletasunik ez. Azalezko abertzaletasuna baino ez dan ezkerro, euren anaiatz ez dira gomutetan.

Aspaldion esan daroagu eta esan behar izango dogu: eusko abertzaletasuna bide onetatik ez dabil, azalezkoetatik baino. Geure urkoakaitik ezer egin behar danean, aberria-arren zeozer jasan behar danean, abertzalerik ez dakusgu.

Udabarri eta udaroan mitinetara joateko asko dagoz. Atsegin-garria baita! Emakumeak eta gizonaekoak, beribil dotorean sartuta, abeslari eta ohiuka joan doaz. Itsas ertzetako uritxuetan egu-

na igaroten dabe pozik, baina neguko igande ilunetan, itsasorik ez dagoan herritxuetan izaten diran mitinetan hareetarikorik ez da agiri.

Hizlari gaixoak bakarrik doaz, inok ez deutsalako lagundu gura. Uritxuko biztanleak minez dagoz, kanpokorik ez dagoalako euren jaietan. Egizko abertzaletasuna balego, holakorik jazoko ete litzateke?

Abertzale izatea modazko edo dalako zurrumurrua entzun dogu. Egia ete da? Holakorik jazo ez dadin berehala gogor hasi gaitzezan. Alde batera eta bestera geure zigorkadak jaurti daiguzan. Ondo dabilena ez da minduko, txarto dabilena, barriz, edo zuzenduko da eta aldunduko jaku.

Astean egun baten edo birritan espetxera joateko ez bagara, gauza handirik ez gara. Espetxean dagozanak itun dagoz. Hango urten ezina ezeze, etxekoen negarrak gehiago saminduten dabez.

Egunak joan egunak etorri, horma ilun artean egon dagoz. Askatasuna gurako leukie, baina burnizko atea itxita ikusten dira. Ezin iges egin. Egun itunak dira espetxeko egunak, baina itunagoak bakarrik dagoanarentzat.

Goizeko hamaikagarrenean kanpokoakaz hizketalditxu bat egin daikie, alderdi guztietakoak hara joaten dira ba. Eta pozik geratuten dira hizketaldi haren ostean. At eta aske dagozalako ustea euki daroe eta. Baina hiztegiara datozanean eta aberkiderik ez dagoala ikusten dabenean, euren bihotzak minduten dira. Euretaz ahaztu diralakoa, burua makurtuta atzera doaz.

• Negarra begietan dogula lerro honeek idazten doguz. Espe-
txekoen hitzak barrenean sartu jakuz. Beste behin holakorik ez dāgigula entzun!

Edo zegaitik dagoz espetxean? Gaizkinak diralako? Ez, euren aberria maite dabelako, euren aberriagaitik askatasuna galdu dabelako. Zeozer zor jake, ba. Kistarrak ezaugarri bat euken eta ezaugarri hori bide zalā igarten zan nortzuk ziran Kristoren jarraileak. Elkar maite-maite eben. Honexetantxe aberkideak alkar ezagutu behar gēunke.

Abenda bateko semeak garan ezkeru, maite gaitezana. Orain arte ezaugarri hau geure artean izan da. Bai behin! Abertzaleak alkarrengana maitasun zintzoa euken. Ezaugarri hau galdu ete dogu?

Abertzale bat gaixorik dagoanean ikertu behar dogu. Lagundu behar deusagu. Espetxean dago? Hara goazen arin be arin.

Askatasun barik dagozanean abotik ez dagigula entzun holarik. Negarra begietan dogula urten gara. Hiru gizon bakarrik geure aberkideak ikertuten joan dira! Hiru aberkide baino ez gagoz Bilbaon?

Lauaxeta
1933-III-4

AZALPENAK ULERKATXA

Igandeko hitzaldian entzun genduzanak entzuteko mendira joatea hobea dogu; Madril aldetik heldu ziran hizlariak, hizlari puntarengoak izango ez ziranik, ametsetan be ez genduan uste. Madrileko endore jauna lango lodikoterik! Harek daukaz iztarrak, harek. Luzeran eta zabaleran bardina ei da. Holakorik ez dot sinistuten, baina egia ei da. Eta Cordero? Arkume galanta hauxe! Bigote ikaragarria dauka, edonor uxatuteko eran. Neure bildurra gizon ha ikustean! Umeak bizirik jaten dauzala dirudi! Palomo zan gizonik onena. Gaixo horrek izena be izan apala dauka eta. Usoa... Espainiar hizlari honeek ganorazko berbarik ez eben egin. Geure hizlarietan txarrenak hareek baino hobeto hitz egingo leuke.

Corderoren hitz batzuk hamaikatxu barre eragin euskuen. Espainiako biztanlerik gehienak irakurten ez idazten ez ei dakie. Corderoren hitzak hitz honeek dira. Abertzaleok anei bidar esan daroagu Espainiako biztanleak basatiak dirala, baina holakorik entzuten deuskuenak gaiztotzat hautetsiten dabez. Cordero jauna ez da harzuloan jaioa ba.

Beste lelokeria bat be isuri jakon. Lekaidetik gehien non diran ez dakizue? Arkume horrek bai ba. Irakurten eta idazten ez dakien erkietan lekaidetik gehien ei dagoz. Salomon jauna! Euskadin aina lekaide ez dago inon, baina hemen *analfabeto* gitxitxu dago gero!

Erkala gora eta erkala behera, besterik ez euskuen esan. Lanbako asko dagoala-ta gai honetzaz ekingo ebelakoan gengozanok, ago bete haginez geratu ginan. Ez deutse ardurarik.

Bizkaiko semeak gosez badabiltz, dabiltzala. Corderok eta bere lagunak zer jan eta zer edan badauke. Eta zelako beribilak ekarri ebezan! Laurogei mila laurleko ordainduak ei dira! Ez da txantxea.

Orain alditxu Prieto jaunak langileai inautsen: Hor doaz abertsak euren beribil dotoreakaz eta udako arratsalde beroetan, olatik urteten zareen aldian, bitxabaleko hautsez hondatuten zaitue. Zuen egarriak eta goseak ez deutse errukirik emoten. Jolasetara doaz. Eta orain Prieto eta bere kideak beribil dotoreakaz dabiltz, langile gaixoa hautsez hondaturik.

Zelan aldatu diran! Cordero, Palomo eta Rico horreek euskotarren aurkakorik ez eben esan. Sevillan esateko lango hitzaldiak ziran, baina Fatrasek bere amorrua erakutsi euskun. Honen gorrotoa igarri genduan. Geure aldunak, aldun bihurrak eta lotsabakoak dirala esan eban. Madrilen gauza bat eta hemen beste bat esaten ei dabe. Ondo gagoz. Han eta hemen, toki guztietan geure aldunak esan dabena gauza argia dogu. Euskotarren aberria zein dan azaldu dabe.

Eusko abertzaleak dirala adierazo dabe. Fatras jaunak, baina, txaloak entzun gura izan ebazan eta ostikadak jaurti eutsezan abertzaleai. Haren zitalkeriak! Geure onezkorik ezin esan ba! Atzerriko batek zer esan daike?

Igandeko eguna, egun barregarria zan. Ibaiz be Bermeokoak heldu ziran. Izontzi guztien izenak irakurri ostean, ibildeun¹⁰ baten gengozala uste genduan. Ama maitea, Ama mindua, San Jose, San Pedro, zeruko deun guztien izenak. Eta ezkertarrak ei jatzuz! Izontzi horreek ber-berok etorri ziran behinolako Josu Bihotzaren irudia iragi zanean be. Orduan bakaldarrak ziran

¹⁰ Ibildeun: prozesimo.

ezkero, ibiltalditxu bat egin behar euren espainiazaletasuna erakusteko, orain osteraz ezkertarren alderdian dagozan ezkero, beste ibiltalditxu bat abertzaleen aurka dauken amorrua erakusteko asmoz. Euren hitzak, barriz, euskerazko hitzak ziran. Tamalgarrria! Euskaldunak ziran maketokumeak, euren leporako hamaitzatu barre egin ebezan astokilo hareen berbak entzutean.

Euskotarren arerioak batuta egozan tokira, euskeraz, hitz egin eben gizonak heldu ziran. Jaungoikoaren izena goratuteko baino izan ez dan elean, hango biraoak entzun eta ontzat hartuten ziran.

Bihotza negarrez geunkan hareen hitzak entzutean. Basurietako gizontxuak, hara eta hona dabiltzan euskotarrak, Espainia zaleakin batuta egozan. Josu Bihotzaren aurka esaten ziran hitzak txalotuten. Noragino jausi garan! Eta guzti hareek ziran bakaldarrakaz batuta ebiltzanak!

Zelako lanak eta zereginak daukazan abertzaletasunak herri gaixo hau izartu arte!

Lauaxeta
1933-III-8

AZALPENAK ABERTZALEEN JAIK

Jai ospetsuak egiteko asmoz dabiltz donostiarrak. Aste osoa iraungo ei dabe jai honeek eta hizlari argienak gizonik entzute-suenak azalduko dabe eusko aberria zer dan eta zer nahi dogun abertzaleak.

Berbizkunde eguna, egunik ederrena izango ez danik, ezin esan. "Aberri-Eguna" egin genduan eta haren gomutea, gomuta zintzo-zintzoa izan jaku. Esango geunke esan, abertzaletasuna edertuten dala. Baina igaz egin ziran jaiak nahiko ez dira, horratino. Aurten be, jai handiak egin gura dira.

Donostia baino hobeto non, ostera? Frantzia aldetik etorri nahi diranak, oinkada baten bertan dagoz. Euskadi-Europako jai honeek aberriaren entzutea hedatu daikie. Orain arte etxean sartuta egon garanok, aurrerantzean ludian zehar joan behar gara.

Espainiara begira egon garalako susmurrua dogu eta laterri horri begirapen larregirik ezin euki geinkio. Basurdeak ez diranik ez dogu esango, baina hemeko gauzak ardurarik ez deutse egiten.

Eusko abertzaletasunak beste bide batzutara jo begi. Europa guztian zabaldu geure izatea. Doistarren artean diran eztabaida handiak dirala eta ez dirala, judutarrak ludia ikaratu dabe. Eguneroko batzuk irakurten badoguz, hareen zaratak entzungo doguz.

Judutarrak zer diran jakin nahi dauanak, izparringiak irakurri beiz. Diru asko ei dauke. Bai behin, baina diruz bakarrik ez dira holako gauzak egiten. Zelan egin jakin behar da.

Geure hitzaldi eta batzar nagusietan eralgi daroagun diruaz zabalkunde galantak egingo geunkez. Asmo honek poztu garoaz. Ondo datoz hitzaldiak eta batzarrak, geure aberriaren onerako badira.

Euskadi guztiko abertzaleak hara joango dira. Zenbat eta gehiago, ederrago. Atzerriko guztiak ikusi begie geure abertzaletasuna.

Aste haretarako gertu gaitезan. Han izan gaitезan, bat be etxean geratu barik. Txindi gitxi dagoala, lan eza eurrez dala... Holako guztiak ondo dakiguz, baina oraingoan ahaleginak egin behar doguz.

Donostiako uri txukunean, aberriaren uririk ederren eta argien horretan, jaiak jai badira, berrogei mila batuko gara. Atzeritarren ohiturak eta ekanduak galdu deuskue galdu. Zorioneko uda horrek talde handiak ekarri dakarз eta eusko izatea kendu erazo deutse.

Udeak egin daroana, barriz, abertzaletasunak kendu nahi dau. Barriz izan dedila uri txukun ha, geure eusko uria, ekandu onen habia. Ezin itxi daikegu aberriaren uri ederrena atzerrikoen menpean. Horretarako eusko abestiz, eusko jolasez eta geure hizkuntzaz hondatu, betetu, gainezkatu daigun.

Eusko Alderdi Jeltzaleak erakutsi begi bere indarra, geure aurkakorik ez dagoalako. Harrokeriz barik aberri-maitasunez agertu gaitезan. Gazteak eta zaharrak, batez bere emakumeak eta mendigoizaleak, guztiak agertu egun horretarako. Dei bat entzun ordukoxe egin daigun.

Eta oraingoan aberriaren deia zein dan edonok daki. Berbizkunde egunez Donostian izan behar gara.

Lauaxeta
1933-IV-5

AZALPENAK EUSKADI-EUROPA

Jai haundiak egingo dira, geure Aberri honi jagokozan jaiak. Abertzaletasunaren indarrak erakusteko duin izango diran jai honeek, Europara begira egin nahi doguz. Aspaldion konturatuta gabiltz Espainiara begira ez dogula ezertxu be lortuten.

Zenbat anei batuko dira? Ez dakigu, gauza erraza ez dalako zenbatutea, baina berrogei anei edo gehiago han izango dira. Zelako anaien batasuna eta aberriarenganako maitasuna! Hainbeste oinaze igaroten doguzanok, egun on batzuk be behar doguz. Holako batza haundietan sendotu daroagu geure abertzaletasuna.

Hizlari onak, estropadak, jolasak eta abar ez litzatekez ezer geuretzat, guztion ganetik Euskadi ez balego. Europatik etorriko diranak, Kataluniako abertzaleak, ikusi dagiela geure herri honen bizitza. Bizitza mardul eta joria, hil nahi ez dauan herriaren bizitza.

Reclus jaunak antxina inoan: eusko herria badoa. Baina eusko herria bizi da oindino eta biziko da aurrerantzean be, eskerrak aberri bat emon euskun gizon gurenari.

Gaur Donostian erakutsiko dau bere bizimina. Europako herririk zaharrena, olarik zadortsuenaz, mendi artean estalduta dagoan herri txikia, ez da egun baten hilgo.

Han erakutsiko dau ez dala kontentatzen arauditxu bategaz, ez dauala bizi gura arrotzakaz bat eginik. Euskotarrak piztu dira eta arrotzak dagiezan hotsai jaramonik egin barik, aurrera doaz. Bilbaon batu ziran lehengo baten Espainako jaurlariak eta hizlari

espainiarrak. Goiak eta beheak jo arren, hogeï mila baino gehiagorik ez eben batu. Zegaitik? Euskotarrak ez dabelako ezer gura eurekin.

Herri bakotzak bere barruan daroa gaizkabidea. Geure honek be kolkoan dauka gaizkabiderik onena. Donostiako batzarrak leba handia dauka, ez han batuko diranakaitik, han zer nahi daben esango dabelako baino.

Hil edo bizi, han izango dira geure kai guztietako arrantzaleak. Itxasoan zehar joango dira euren ikurrinak zabalik dabezala. Hil edo bizi arautuko dira luginak, baserritarrak. Nabarra aldetik, Bizkaitik, Arabatik eurrez joango dira. Baina Zuberoa eta Laburdi inguruetakook be ez dira handik urrun ibiliko. Euskoen alkartasuna oraintxe sentitzen hasi gara. Lehenago ez zan holarikorik, anaiak barik, etsaiak gintzazalako.

Urtzik gura izango al dau gaurko eguna, egunik ederrena izatea. Ez dedila Euskadiko zerua goibeldu, bere goietan eguzki argiak dirdir egin dagiala. Eta eusko semeak, ama itun honen semeak garanak, hantxe batuko gara benetako anaitasunean. Asmo bat eta itxaropen bat baino ez doguz izango.

Euzkadi izparringiak agurtuten dauz han batuko diran guztiak eta Jelen alde beti lan egiteko eskatuten deutse. Izparringi honen asmoak, han batuko diran guztien asmoak baino ez diralako. "Gora Euskadi askatuta"rik zintzoena eta sakonena entzun daigula Donostiako txaidetik ederrenean.

Lauaxeta
1933-IV-16

AZALPENAK BATZAR NAGUSIA

Igandeko batzar nagusia harian dogu. Berrogeta hamar mila batu ziran eta ez gara ikaratuten, geure batzar nagusietan eurrez batzen diralako abertzaleak. Alderdi guztietan buru dogu geure hau. Edonora joan behar izaten danean, hara goaz. Euria izan edo eguzkia izan, abertzalerik ez da bildurtuko. Asmo bat sartu jako buruan eta asmo horrek darabil.

Igandez Donostian izan ziranak, bihotza poztu erazoteko gaina ziran. Bilbaotik urten ziran beribil eta tarrantak amairik ez euken. Euren ikurrin ederrak zibuka-zibuka ziran bitartean, bixabalak zehar arin-arin estalduten ziran. Emakumezkoak be, askotxu ziran. Bultziz lau mila baino gehiago haratu ziran eta itsasoz, ostera, Bizkaiko itsaso ondoan bizi diran guztiak.

Ibiltaldi honeek garrantzi handiena dauke, batez bere *enchuferik* ez dagoalako geure artean. Baina sakelak hutsik euki arren, bihotzak beterik doguz. Eta aberriagaitik geure odola emoteko prest gagoz.

Nabarra aldetik heldu ziranak ikustean ikaratu gintzazan. Hainbesterik etorriko zala ez genduan uste. Zorionez aurrera doa geure abertzaletasuna. Zer esan, barriz, Donostiako jaietzaz? Ikusgarriak zirala? Horregaz ez dogu ezer esaten. Txaideak beterik ziran, akeitetxeak, jatetxeak eta beste jolastoki guztietan jostorraz batentzat lekurik ez zan. Itsasoan sartu ziran itsasontziak ikusi ikustekoak bai zirala. Era batera txistuka eta deádarka, benetan zoragarri ziran.

Donostian ez da hainbeste abertzale izan inoiz. Zoritzarrez abertzaleak ez dira askorik, orain ederto doazan arren. Uri txukun haretan be arrotzak ugari dira, eta arrotzak geure Aberri hau ezin maite izan ba. Eta holako batzarrak beharrezkoak dira. Ikusi dagiela ikusi arrotzak eta eusko seme txatxarrak, nonor bagarala. Euskadiren semeak bat baino gehiago dirala. Donostiak holako batzar asko behar izango leukez udaroak dakartsozan akats ezainak kenduteko.

Igandeko jaiak piztuko ebazan bihotzak eta gogoak. Batek baino gehiagok sentiko eben zein abendako semeak diran eta euren aberria zein dan. Gipuzkoako jaurleriak berein eragozpen eta zoztor jarri gura izan ebazan, askatasuna eurentzat baino ez dabelako ulertuten. Ezin ikusi, ba, abertzaleen jairik eta batez bere abertzaletasun moltsorik.

Ezkertarren amorru txar hau toki askotan agertu zan. Donostian bertan, txaidez txaide ebiltzan gazte zantar eta lohiak. Gora Euskadi Askatuta entzun ordukoxe oihuka eta deadarka hasten ziran eta ukubilkada batzuk izan ziran. Ezkertar gorriak tripetako minakaz ziran igandean eta ezin jasan ezertxu bere, baina Eibarren jazo zanak ez dauka izenik. Bitxabalez etorzan beribil guztiai alto eragin eutsen. Eibarko abertzale guztiak kanpotik ziran ezkerre, ezkertarrok adoretu ziran. Balienteak eta terribleak dira gizontxu horreek, batzokira joateko, baina emakume bat bakarrik dagoan orduan. Hartu batzokiko ikurrina eta enparantzaz erdian sua emon eutsen. Holako gizonkeriak egingo dabez, bestetarako ez dabelako balio. Eta gabaz etozanai suizkiluakaz eta zigorrakaz aurrera egiterik ez eutsen itxi.

Agintariak zer egiten eben? Barre eta etxean sartuta patxada onean egon. Artola-edo deritxon jarlari horri deitu eutsen, baina alperrik; ezkertarrak izan baziran zer bait egingo eban, baina abertzale guztiak hilda be, ardurarik ez. Zorionez handiagorik ez zan jazo. Baina Oriñ goian be, beste zeozer jazo zan. Motrikun batzar bat euki eben karlatarrak eta Donostiatik etozanakaz topo topo egiten eben. Eta holako baten karlatar koldar eta sinisteba-

ko batek suizkiluz zauritu eban emakume bat. Gurdibilaren erztetan geratu zan ezkerro sutotsa, zauri haundirik ez eutsan egin, baina beharbada, bertan hilko eban.

Hona hemen zer diran karlatar horreek. Batasuna gero, batasuna? Ez horreekaz, guztia hondatuko balitz bere. Zorionez emakumea ondo dago eta besterik ez zan jazo. Baina zelako eragozpenak ezkertarren eta eskumatarren aldetik. Bitzuok dira bardinak.

Horregaitik ez gara ikaratuten, ostera. Abertzaletasunak gauza handiak ikusi izan dauz, ekaitz gorriak zehar ibilia da. Eta oindino atzeratzerik ez dau egin, aurrerantza baino.

Donostiako hitzaldiaz ez dogu ezer esan. Hizlari guztiak bata baino bestea hobeto mintzatu ziran. Monzon, Agirre, Ernandorena, Maxpons, Ammende, Otero Pedrayo, Urreta... Hizlari argiak eta hitzaldi sakonak. Berrogei anei notin ziran eurei entzuten eta hango txaloak ez ziran txalo makalak. Abertzaletasunari jagokon eran mintzatu ziran, ez araudizale edo erkizale batzuen antzean.

Itxaropen haundia dogu iganderoztik. Ez gara galduko honezkero, herri hau izarrik dagoalako. Bere asmoak azalduten ikasia dogu eta Euskadiren gaizkundera helduko jaku laster.

Lauaxeta
1933-IV-18

AZALPENAK ERKAL BURUA

Hemen izan dogu, zetarako izan dan ez dakigun arren. Ibiltaldi honen zegaitia ezin ulertu daroagu, arakatuten dogu baina. Hauteskundeen aurrez izan bazan, agarbitzik eukiko eban, erkakalaren aldezkoak hamaikatxu baziralakoan egozan gaixo horreek eta; orain, ostera, ziobako etorrerea baino ez da izan.

Hauteskundeetan egin geuntsen eupada ederra entzun ez ala? Entzun egin eben entzun, baina bururik makurtu gura ez ba. Prietoren tretak eta maltzurkeriak, besterenak ez dira. Jauntxu honen asmoa zein dan igarri dogu: Bizkaiko errege-ordezkoa dala edo. Baina erregerik ez zan izaten lehenago, gaur tentepotente bati gurkerak egin daioguzantzat.

Espainiako erkakal buru danari egin jakon harrerea ikusi dogu. Gauza mizkina eta ezereza. Ume ugerdo batzuk, urari gorroto handia deutesen gazte piloak eta urrunetik etorri diran andrakote lodi, lohi gangartanak. Ikurrin gorriak, ertzainak ugari, zazpi gurdikada *asaltoko* eta gudari gaixoak. Hori zan han ikusi genduana. Besterik ez? Ezetz, ba, Jaungoikorako bere. Non izango ziran bilbaotarrak? Alde egin eben.

Eta alde egiteko egunak izan dira hiru egunok. Haizeak berak be usain edo hats txarra ekarran, hatsituta egoan. —Ze usain da hau gero?, neure adiskide bati itaundu neutsan. —Txurro-usaina, erantzun eustan. Baina beste batek jardetsi euskun orio erre sundea zala. Ez dakit zeren usaina zan, baina maketo-hatsa zala iga-

ri neban. Holako jaietan edo txijiloetan jatsiten jakuz Bilbao-goi guztietakoak. Eta euren itxurea zer da izan gero!

Demoninentresa. Urik ez dago Bilbaon urik, horreen sama ugerdoak garbituteko? Ezkertar baten purrustadak entzun nebazan: hau dan lotsagarria. Erkal buru bat jatorku agintzarik ederenakaz eta herri traskil honek atzea emoten deutso. Ez daukagu hazikera onik ez espainiazaletasunik.

Neurekiko egin nebazan barre nasaiak, aspaldiko gaixotasunak kendu eustezan. Gaixo harek zer uste ete eban? Erkal burua-gaitik ez deusku ardurarik eta eurentzako ezer ez da.

Euskadiren askatasuna aginduten etorri bazan, orduan bai egingo geuntsala berebiziko harrerea. Baina zer ekarri deusku? Ezer ez. Herri txiro eta lander honentzat hitz bigunik ez da izan, agintza txikerrenik ez dogu entzun. Hitzaldiak entzun deutseguz, hitzak neurtu eta goznartu doguz.

Antzokian, Euskalduna-pelotatokian, herri guztietan hots bat ulertu dogu: "Que toquen el *Gernikako*". Eresi hori jo eragin ezkerroan, pozik bihurtuten dira Madriler. Eta hemeko astokilo batzuk agoa bera be adurrez daukela negar egiten daroe.

—Ikusten ete dozue erkal buru honek daukan maitasuna? *Gernikako* jo eragin deutse. Eusko askatasunak emon deutsuez erkal *liberal* honek.

Eta geure gomutara jatorkuz Primoren aldiko egumak. Orduan be, zorionezko *Gernikako* entzuten genduan. Eta *fueristek* txalo gogorak joten eutsezan. Oraingo gorritxu guztiak legez. *Gernikakoren* azken hotsak amaitzean, txalo-barrunbea baino ez da izaten.

"Eman da zabal zazu" entzun ezkerroan, euskotarrak esnetan dagozalako ustea dauke, baina oker dabilz. "Eman da zabal zazu" k ez deusku zirkinik egiten. Hemengo gorriak badakie, bai behin. Horrexegaitik txaloak joten dabez abesti hau entzutean.

Baina "Gernikako"ren hotsak baino hots ederragoak daukazan abestia daukagu. Euskotarrak beste eresi bat entzun gura dabe. "Gora eta gora Euskadi" entzun gura geunke Alcala Zamora edo beste horrelako bat datorren bakotxean.

Orain ez da izan, hurrengoan... bere ez. Hau gorabehera pozik egon geintek ez euskoak. Mutil onak garala, astoak ez garala esan dau erkal buruak. Besterik zertarako gura dogu, ba? "Gernikako" abestu dabe sarri-sarri, gorulariak, ezpatadantzariak eta honetarikozko batzuk euren dantzaketak egin deusez. Coral deritxon abesbatzak be, eusko abestiak abestu deusez. Pozik egoteko ez bada, burua erre kara jaurti daigun eta kitu.

Tamalez horrenbeste poz eta txalo artean kezka bat daukagu. Hain maite badabez eusko abestiak, ohiturak eta dantzaketak, zegaitik ez deuskue askatasunik emoten geure irakastoletan euskerea erakusteko? Zegaitik arauditxu bat bere ez? (Geuri ardurarik ez deusku emoten araudiak).

Espainiarrai barre eragiteko, hareei atsegin emoteko baino ez dabe balio geure abestiak eta dantzak. Eta horrek minduten gaitu. Aberatsak euki ohi dabez txakurrak, katuak, tximinoak eta abar, aldia igazi eta pozik bizi ahal izateko. Espainiarren katu, txakur eta tximino batzuk baino ez gara. Hareei barre eragin eta gero, zigorkada bana emonaz, etxean sartuta bizi izateko.

Lau egun honetan zer entzun, ikusi eta susmau dogun idatziko bagendu, harriak be arrakalduko litzakez. Gai honeri ekingo deusez.

Lauaxeta
1933-V-4

AZALPENAK OPOR OSTEAN

Emakumeak, lepoak gorri-gorri egiteko baino ez diranak, kukurruku askorik ez eben jaurti gizonen aurrean. Orain arte izan dogun entzute txarra zapaldu dogu, oilo-izenaz ezin bizi geintek ez eta. Hainbeste eta hainbeste jasan badogu, koldartasunarren ez da izan, arranotan, araudi batek lotuten izan gaitualako baino. Eusko herriak eskatuten eban araudi horrerri zoztorrik jarri gura ez eta, edozer jasan izan dogu.

Baina burua makurtuten dauanari, edonok laido egiten deuto. Emakume baten aurrean kikilduten danak zorioneko egumik ez dau eukiko. Txerrena bera baino balienteago bihurtuko jatzu. Gizonak, osterak, ukabila erakusten deutesanean, negar-negarka alde dago.

Bizkaiko gorritxuen kontua, hauxe baino ez da. Gura ebena egiten izan deuskue, geure hotsik ez zan entzuten, barriz. Abertzale guztiok kikilduta legez egon gara. Bada eroapen larregi hori alde batera itxi dogu oraintxe. Emakumeai emon-emonak egin deutezala ikusi dogunean, geure odola berotu jaku. Eta han ikusiko zenduzan Bilbaoko txaideak notinez beterik. Gora eta behera ebiltzan gizonak. Oporjeta handiagorik ez da inoiz egin. Saltoki danak zaratu ziran, bultzi batzuk be geratu ziran. Baina txindegietan sekula jazo ez dana, oraingoan jazo da: ogipekorik ez egoalako ezin lanik egin.

Bizkai osoak erantzun deuto abertzaleen deiari. Sosolistoak ezin esango dabe buru diranik. Lehengo harrokeriak iges egin

dira. Hau gara, hori gara, hau egingo dogu eta bestea ez dogu egingo, deadarka ibili diranak, agoa zabalik geratu dira.

Geurez ez dinogu ezer. Euskadiko izparringi guztiak goraldue dabe oporketa hau. Batak be ez deutso garrantzirik kenduten, ikaragarrizkoa izan zalako. Baina Euskadiko izparringiak ezeze, atzerrikoak be oporketa honetzaz jardun dira. Ezin isildu ba. Madril osoan mintzatu ei dira Bizkaiko oporketa honetzaz.

Holan jazoko zala ondo igarri genduan. Baina gauzak jakin arren, ikusi ostean pozgarriago dira. Indar handia geunkala, asko ginala esaten genduan. Orain arerioak be horixe dimoe.

Geure langile sendoak urten ziran txaidera, asaltoko ertzainen iskiluai eta zigorrai jaramon egin barik. Eta emakumeak eurak be ikaragarrizko lanak egin dabez. Ez ziran ikaratuten espainiar baltizka horreen zigorrakaitik eta txaidez txaide ebiltzan gizonai adorea eta kemena emon nahirik.

Abertzaletasunak gurendarik handiena lortu dau, lehenago ezer ez bazan txaideratuteko, gaur gauza handia dala igarri daualako. Zortzi orduan asmauriko oporketa bat hain ederra izan danean, hurrengoan zer egin daikegun oldoztuten dogu. Hurrengo oporketea ez da izango edozelakoa. Euskotarrak erantzungo ete eben, sarri itaundu dogu. Erantzuna entzun dogu bai?, eta inok ez gaitu ikaratuko.

Aldundietan diran arrotzak, aldetan nagusi izan gura daben zitalak eta geure semeai ogia kenduten deutesnak, jakin begie; aurrerantzean ez gara labankeriakaz ibiliko. Gehiegi jasan dogu eta barre egin deuskuzue. Herriak askatuteko, herria behar izaten dala, antxinatik dakigu. Geure abertzale zintzoen lana horixe izan da. Herria egiten ibili dira, herri sendo eta kementsu bat eralduten. Lan honek bere helburua jo dau. Zer egin orain herri honegaz? Bertan behera itxi?

Abertzaletasunari jagokon betebeharra, betebehar gurena da. Geure anaiak espetxean gosez hiltzen diranean ezin geratu geintekenez lotan eta negarrez. Geure aberriaren ikurrina ostikopetuten

dabenean, ezin geratu geintekoz isilik. Geure langileak zapalduten dabenezan, eskuak jaso behar doguz.

Euskadiren begiak zabaldu dira, ez dago ilunik. Lehen ziran lainoak eta zalantzak orain egun betean dagoz. Bide neketsuak, bide honeek dira. Egunoro otoi behar doguna, egunoro esan daroagu; herriak ez dira gaizkatuten atseginaz eta pozaz, negar eta saminakaz baino.

Geroago eta sendoago sartu daigun geure bihotzean eroapena, zinopak izateko gogo. Aberriaren zinopak izateko behar dan gogo sendoa ez da egun baten lortu ahal izaten, luzaro baino.

Larrinagako espetxean dagozan mutil gazteak, horreek ikasi dabe zer dan abertzale izatea. Gosez hilik, zortzi baino egon ezin diran tokian berrogetak, baina hau gorabehera, guztiak pozik eta barreka.

Gorraldu daiguzan espetxetuak eta txalotu daiguzan geure langileak. Honeek bai dirala benetako abertzaleak. Euren etxeetan gosea baino ez dan aldian lan barik dagozalako, olak itxi dabez eta txaidera urten dira. Ikara barik eta zarata barik, baina bizitza emoteko prest. Gorraldu daiguzan geure emakume zindoak hain adore gurena erakutsi dabelako.

Euskadi ez da galduko horrezkero. Eta gaurko pozaren ostean, biharko negarrak ikusi daiguzan. Gurenda bat lortu badogu, menperatze handiak jasan beharko doguz. Gora Euskadi Askatuta deadarrak egiteko gogo dogu, hitz honeetan batzen diralako geure itxaropenak eta nekeak, geure negarrak eta alaitasunak. Hitz horretan dagoz geure nahiak eta helburua. Ikaskizun ederra, oporketa honek emon deuskun ikaskizuna. Ez gara ahaztuko beratzaz.

Lauaxeta
1933-V-6

AZALPENAK ZIRIKADAK

El Liberal edo txarritokiko ingitxua irakurten ez dogunok gauza ona zer dan ez dakigu. Guzurrontzi deituko deutsagu. *Par-dillo* guztien guzurak batzen dauz izparringi horrek eta oraingon be hamaikatxu zatarkeria esan daroaz. *La emboscada de Usansolo* izenburutzat daukan ataltxu bat dakar egunero. Atal hori baino orinal garbiagorik izango da bazterretan.

Iskanbila guztietan errudun nortzuk diran badakigu: abertzaleak. Holan dirausku *Guzurrontzik*. Igandeetako mozkortien eztabaidak ondorengorik badakarre, abertzaleak dira errudun.

Igandeko hizlari baten hitzak: “Ahora a los sonos de *La Marseillesa* y de *La Internacional*, a conquistar las reivindicaciones del pueblo español”. Hau entzun ostean, agoa zabalik geratu ginan, baina espainiarrak jo eutsezan txaloak, Frantzian bertan bere entzungo ziran. Arrotzen eresiak abestuteko zaletasun handia dauke eta.

Ikaragarritzko txalotsak entzun ziran hitz honeen ondoren. Tira, ba, geuri “Txintxan fug” abestia abestu gura badabe be bardin deusku. Hor konpon, Mari Anton. Espainiarrak ahausika edo eresi hobarik ez badauke, geure errua ez da.

Metxeru bat ostu dabela *asaltokoak* esan ebalako, gizon bat espetxean dago. Baina geure jaurlari horrek ez dau ezertxu be egin, egin zanentz jakiteko. Gizon batek dinoanari siniste gehiago emon behar jako.

Eta metxeru bat kendu ebela *asaltokoak* esaten badogu? Egia dala esango dogu ba. *Euzkadiko* irarkolan dabilen gaztetxu bati kendu eutselako. “No tiene sello” esan eta beste barik kendu eutsen. Gaur arte. Aurrerantzean sakelak hutsik eroango doguz eta inok ez deusku ezer kenduko. *Jagi-Jagi* bila etorri eta metxeruak eroan, ez da truke txarra. Zigarroa zegaz piztu eukiko jok asaltoko harek.

Igandean eta bultzian. Eusko gazte batzuk eta espainiarrak. Honeen zarateak eta purrustadak ez ziran makalak, “A todos los nacionalistas les debieran de dar para pasar”. Gure mutilak isilik. Badaezpadan. Baina besteok ez ziran nahikotuten. Ziri eta ziri, abertzaleen aurka inarduen.

“Son unos gallinas”. Hau esan ordukoxe, eusko gazte haretako batek emon eutsan ukabildakeaz, musturrez behera jausi zan. Eta beragaz etorri ziran guztiak isil-isilik geratu ziran. Okulu baten jezarrita gentozanak, ito ginan barrearen barrez. Espainiar haren ausarkeria ez zan txikerra...

Fueruak gura doguz, *fueruak*. Holantxe deadar egiten eban karlatar batek.

—Eta zer dira *fueruak* ba? —itaundu geuntsan.

—Nik ez dakit, baina *fueruak* gura doguzala sarri entzun dot. *Fueruak*az seguru be, beharrik ez ei zan egiten.

—Orduan fueruzalea barik alperrikeriazalea zara zeu—, erantzun geuntsan.

—Txotxo, Jaungoikoaren hamar aginduak ete dakizak?

—Bai, jauna.

—Esan egistazak ba.

—Baina erderaz baino ez dakidaz, jauna. “Amar a Dios sobre todas las cosas”.

—Baina zer azaldu gura jok horrek? Euskeraz esan egistak ia.

—Jauna, ba, Jaungoikoa soka guztiakaz amarrau behar dala.

Hona hemen zer ikasten daben eusko umeak irakastoletan. Eta holako gauzak entzun arren, barre baino ez dabe egingo egin geure anaiak.

Azterketak dira. Auzo ikastola bateko umeak larri dagoz. Ume gaixoak zer itaunduko ete deutesen dagoz. Bigote gorridun bat mahai aurrean dago, euren irakaslemeakaz.

Jauntxuak aztertuko ei dauz.

—Oye, ¿qué es estiércol?

—Baina gure baserriko ume gaixoak hitz ha inoiz ez eben entzun izango eta begiak zabalik begiratuten eutsan. Izan be, geure baserrietako gizasmeak ez eben hitz hori sarri entzungo. Holako baten han zan irakasleme batek esan eutsan mutiko gaixoari: satsa, txotxo, satsa.

—Hori esan baeustan, geure etxean be makinatxu bat dago eta.

Erderaz erakustearen onurak dira honeek.

Lauaxeta
1933-V-24

AZALPENAK HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde-eguna igazi jaku egin. Egun horrerri buruz zer esango dogu? Ikaragarririk ez da izan geuretzat, gurenda hori lortu genduala, ondo baino hobeto genkialako. Hauteskunde-egunetan baino lanean ez dabiltzanak, herria geureganatu nahi leukee, baina egun batean ez dira igituten herriak, izerdi asko eta lan ugarien ostean baino.

Urte asko bere asko daroaz lanean geure alderdi honek. Inoiz atsedeen barik, jo hona eta jo horra. Bakalduntxu bat gura dogulako ez gabiltz, eusko herria iratzartu dedintzat bai ostera. Herri honen gogoia aurkitu dogu eta ekandu, abesti, jolas eta beste izakera guztiakaz aberri baten antza emoten deutsalagu.

Udaletxe batek ez deusku egiten ardurarik. Zinegotziak gorabehera, ez da eusko herria goralduko. Hauteskundeetan gogor egin daroagu, geure asmoak aurrera eroateko bide ona dogulako. Baina aurreko egunetan ez gabiltz larri-larri, baserriz baserri, agintza handiak egin eta uzkurtzatasuna erakutsi nahiez.

Beste alderdientzat begoz gauza horreek. Inori ez deutsalagu eragin geure alde jarri dedin, bakotxaren barrutik urtetan ez dan gauzeak ez daualako balio. Diru bidez erosi diran autarkiak, lotsagarritzko aurtarkiak dira. Bizkaiko herri baten baino gehiagotan betiko kazikilo zikinak ibili dira antxinako bideetatik. Diru askotxu dauken ezkerok, dirua emon behar ba.

Baina diruz erosten diran autarkiak ez dabe balio, berez lortuten diranak baino. Eta diru askotxu badauke, emon begioe txi-

roai edo lagundu begioe geure baserritarrai. Horreen diruak, ostera, kazikerietan bizi izateko baino ez dira.

Zorionez horreen egunak joan ziran. Ez gagoz antxinako aldietan, baserriko gizajoai edozer esan eta herriak galduten ziran aldietan. Ugazabak eta dirudunak nahi ebena egin erorien. Espainiako kondeak eta markesak, euskotar gaiztoak, saltzaileak edo zikin guztiak batzen ziran geure eusko herria galtzeko asmoetan. Orain holakorik ez dogu ikusten eta, nonon jazo bada be, laster amaituko dira horreen iruzurrak.

Inoiz uste izango ez genduan herrietan buru egin dira abertzaleak. Ermuan zer dinozu? Beti karlatarrena izan dan Ermua herri txukunean, Valdespina eta beste bat edo bi jauntxu izan diran herri kutunean, abertzaleok txapeldun urten gara. Baten batek negar egiten ei eban. Hamaikatzu lan ederren semeak izango dira Ermuako abertzaleak. Azpeitian, Azkoitian, Ernanin, Pasajesen eta bardin herri handietan gurenda danak lortu doguz.

Abertzale ez diranak, ikaratuta ei dagoz. Ikaratuko ziran, bai arranotan, abertzaleak lau txotxolo baino ez zirala uste ebenak. Goikoari eskerrak eusko herri osoari txotxolokeria hau sartu jaku. Eta horrexek gaizkatuko gaitu.

Gurenda handia lortu dogu, baina geure gurarietan ezer ez da. Ez gara horregaz asetu. Egonezinak garala? Bai behin, ezin bakean bizi geure aberri hau bihotz eta begietan daroagulako. Igandeko gurenda gorabehera, lehengo eran jarraituko gara lan eta lan. Beste alderdiak beharbada lotan geratuko dira, atsedean egingo dira. Guretzako ez dago holakorik, lana baino.

Nabarra eta Araba ez daukaguz ondo. Hor jokatu behar gara, karlatarrai kendu arte euren agintaritzza. Espainiartuta daukezanak, euskotartu behar doguz. Hauteskunde honeek asko erakutsi deuskue. Baztertuta euki doguzan herrietan gauza handirik ez dogu egin. Aurrerantzean? Jo eta kea, bake barik ekin, beti ekin.

Urtean egun asko daukaguz lanerako, baina bat be ezin galdu daikegu. Geure atsedanak, etsaien gurenda dakarre.

Azaña jaunak inoan: "Non dira eurak?" Non garan? Autarkikutxetan. Hortxe gagoz espainiarrai erantzuteko asmoz, baina begiak eta belarriak zarratuko dabez, Euskadiren deia entzun gura ezik. Buruhandi jaunak jakingo eban oraingo, abertzaleen gurenda hau. Zer oldoztuko ete eban? Geure aurka egitea? Bai edo.

Ez gara horregaitik ikaratuko, hori baino haundiagorik egin deuskue. Katoliko txar eta ezkertarrak, guztiak alkartu dira geuri kalte egin nahiez, baina guztiak ez deuskue buruko minik emoten. Hor konpon eta aurrera, bakotzak jakingo dau noren alde jokatu nahi dauan.

Igandeko eguna, egun ona jaku, batez bere Bizkaia eta Gipuzkoan. Honeek eskobea hartuta guztia garbituten hasi dirala dirudi. Ez da bildurrez geratutekoa. Eusko Alderdi Jeltzaleak lorik ez dau egin, okulu guztiak arakatu baino eta lanaren saria beti lortu daroagu.

Eusko herriak bihotzik badauka, alderdi honen lanak goralduko dauz eta iratzartuko da.

Lauaxeta
1933-V-24

ZIRIKADAK

Zezentokiko ogasunak jaurriten izan dauzan batzarreko lehendakaria zan Erkoreka jaunak bere betebeharrai ezetza egin deutse. Txindi gitxi eskuratu ei dabe oraintsurengo zezenketetan, bai? eta hasarre dago. Horren errua be, abertzaleak ei dogu. Erkoreka jaunari atsegin-atsegin jakon ezkerro hara eta hona ibiltea, ardura hori ez ete dau baztertu askeago izateko? Adarkada bat emon dagiela.

Deban diran erkaldarrak, erkaldar jatorrak dira. Lehenago bakaldarrak izan ziran, baina horrek ez dauka garrantzi handirik. Gizon argiari jagoko aldakuntzea. Eta Debako erkaldarrak euren zintzotasuna erakusten emoteko, iragarki hauxe argitaratu daroe: "Veraneo en Deva, Agrupación republicana (antiseparatista), agencia pisos amueblados a veraneantes españoles, a precios arreglados. Dirigirse Agrupación". Atso zaharren bidea. *Piso* horreek garbiak diranentz ez deuskue esan, ostera. Txingurriak legetxe, guztia etxerantz eroan gura dabe erkaldarrok. Buztana ikusten jake. Erkaldarrak daukezan txakietan¹¹ ez ei dago arkakusorik, imutxarik¹² ez zorririk. Nahiko imutxarik dozuz eurak. Bai behin.

¹¹ Txaki: etxe, gela.

¹² Imutxa, imitxa: chinche.

Valladoliden galazo daben hitzaldiaz ez dinogu ezer. Zer ba? Lugin edo agrario horreek Espainiako agintari balitzaz, patata edo babarrun batzuek legez jango gindukiez. Horrenbeste bere bai? Ezkertarrak txar badira, eskumatarrak hobekak ez dira.

Hemeko *gestore* batzuk Madrilera joan dira. Zetan? Inok ez daki, egin daroenaren izparra azalduko deuskuen arren. Holakoxe *demokratak* dira. Casares Quiroga jaunagaz egon ei dira, luzaro egon be. "Guardias de Asalto" gehiago eskatuten joan ei dira. Agirre jaunak esan dau behintzat.

Garbizu hemen dagoan artean *asaltoko* gehiago ez dogu behar. Estatutoaz ogia edo taloa egingo daben jakiten joan ei dira.

Pastela baietz egin.

Asteko lana berrogei ordura eratsi gura dabe Bilbaoko zinegotzi ezkertarrak. Gosea ez da urrun ibiliko. Astean ordu bategaz be, nahiko ei dauka Garbizuk eta. Lehenago saltokirik saltoki ibiltan zan ehunak eta oihalak salduen, baina *asaltoko* egin ezketino, *esku-trapurik* bere ezin dau saldu. Zehatz.

Bostehun laurleko zer ziran be ez ekienak oraingoan ikasiko dabe. Besterik ez da entzuten. Ohetik jagi ordukoxe, otoiak baino lehenago neure kolkorako dinot: Bostehunekoa etorriko ete jat? Lehenago eta orain eguneroko ogia eskatuten genduan, baina orain *tentazinotik* barik, bostehun laurlekoko galenatik aldendu gaizala eskatuten deusagu geure betiko Jaunari. Laiseka eta lagunak bostehun kobretan dabez, bai? eta jaurlariak be eurakandik ikasi dabe.

Laisekatxu eta bere adiskideak zetan joan diran Madrilera jakin dogu, Euskadiko batzoki guztiak itxi erazo egin behar ei jakez abertzaleai. Eta Casares Quirogari euren asmo hau azaldu ostean, *viva la democracia* hots egin ei dabe.

Gizagaixo honeek zer egin ez dakie. Herriak atzea emon deuse eta hileroko bostehun laurlekoak ez dabez galdu gura. Laise-

katxu eta adiskideak ez dabiltz aiko-maikoka. Guztia zarratu eta kitu.

—Txotxo, asmakizun hau igarten badozu, sari ona emongo deusut.

—Asmakizun hori esan begi ba.

—Hara, bitxabal baten dagozan gurdibil bi urten dira arin-arinka. Orduko ehun eta berrogeta hamar aneurki igaro daroetz. Non aurkituko dira hemetik hiru ordu barru?

—Gaixotegian, jauna!

Lauaxeta
1933-V-26

ZIRIKADAK

Katalandarrak ikertu gaituenean poz-pozik ibili dira, baina euretariko bati zigorkada galanta emon izan eutsan ia-ia, *asaltoko* batek. Neure poza ez zan txikerra izango, lepoa berotu baleutso. Gurari txarra dala? Ez, arranopola. *Esquerra* deritxon alderdiko ahaldun zan ezkerero, ezkertarrak zer egiten deuskuen jakin egiantzat. Uxala erakutsi baleutse Maciàri bere lepo ubeldua.

Larunbatean izan ziran astrapaladak, astrapalada barregarriak izan ziran. Asaltoko txinelen zigorrak ez egozan lo. Baina zigor horreek begi bakoak dira eta *radical sozialista* zan emakumetxu bati emon-emonak egin eutsezan. Neure kolkorako poztu nintzan. "Viva la República" deadar egian baina alperrik, asaltokoak gogorrago ekin eutsen. Ikasi hurrengorako.

Lopez Albo nor dan gitxik daki. Osagile ospetsua ei da, baina apal-apala dan ezkerero, etxeakoak baino ez dabe ezagututen. Hitzaldi bat egin eban lehengoan. Laiseka jauna be, jakintsuen laguna dalako edo, ez zan atzeratu Institutuko areto nagusia eskatu eutsanean. Guretzako ez dau baimenik emoten, baina Lopez Alborentzat ate guztiak zabalik daukaz.

Gure osagiletxua harro-harro etorran. Aretoan izango zan ostetza. Bera lango gizonak ez dau hitz egiten egunero. Baina zer zan hango bakartasuna. Hamalau gizon eta hiru neskazahar baino ez egozan. Lopez Albo horren aurpegia zuri-zuria da, baina

orduan gorritu jakon. Laiseka jaunak bere hasarrea erakutsi eban, Bilbaoko lexatarren aurka.

Santanderretera joan beharra izango dau laster geure osagileak. Baina handik bere ostikoka atera ei eben seguru be.

Berneon bolanderak jaurti dabezalako, hiru gizon espexeratu dabez. Eta txindegietan lapurketa galantak egiten dabezanak aske dabiltz. Bolanderak jaurtitea ogen handia da izan bere eta. Etxe bat erre ezkeron? Itxasoak sua hartuko baleu? Orain arte bermeotarrak honetzaz ez dira konturatu, baina aurrerantzean jakin begie: bolanderakaz itsasoa erre leikie. Lapurketak egiten badabez aske biziko dira. Kontuan euki.

Euzkadi izparringi hau salatu euskuen atzo. Baina ze demonino dauka epaikariaren salatua merezi dagian? Inok ez daki zegaitik, baina ertzainak batu eben. Goi eta behe arakatu ostean, zegaitik salatu daben igarri dogu. *Euzkadiko* argazkiak diran ederrak izan eta tripetako minak emon ei deutsez ezkertarrai. Geuk zer erru daukagu ba, geuk, Berneon abertzale asko badira?

“Confraternidad vasco-catalana” hitza ikusi baino txerrenaren adarrak ikusi nahiago ei dabez. Eta oindino ikusi behar izango dabezanak.

Kataluniatik heldu diran gizon ospetsuak *El Liberali* ikertaldia egin eutsen. Hurrengo egunean hartu genduan izparringitxu hori. Lehenengo orrialdean ez ekarran ezer. Bigarrena, hirugarrena eta seigarrena be aztertu genduzan.

Kontxo, ezer ez jakarrak. Eta izparringia laga genduanean, azkenengo ingoskian, iragarki artean hauxe irakurri genduan: “Nos visitaron los señores catalanes”. Besterik ezer ez. Ondo jagok. *Edukazinoa* bajagok inguruetan. Izan be lehenengo orrialdeak Prietoren hitzaldiak iminteko behar dauz eta. Zer uste dozue ba?

Japondarrak egin dabena gurraketa zelakoa izan dan ez dakizu. Nagaoka buruzagia izan zanaren bigoteari gurraketa hori egin deuse. Ludian ziran bigoterik ederrenak gizon harenak ei ziran.

Tokio guztiko biztanleak ibildeun ikaragarrian joan dira joan, eta bigote handiari otoi egin deuse. Hemeko batzuen bigoteari be holakoren bat egin behar izango deusagu. Edo bere burua jakintzutzat daukan ule zuridun baten uleai gurraketa ederra egin.

Aitzol agurgarriari bostehun laurlekoko isun bi leporatu deusez. Txindi asko baleuko be. *Yakintza* aterateko hobeak eta beharagoak dauz laurleko horreek.

Txarragoa izango da Artola jaunak beste bostehun laurleko kendu gura badeutsez. Oraingoan aberastuko dira espainiarrak.

Gipuzkoako emakumeen bururik ederrena zein dan jakiteko sariketa bat eratu dau *La Noticia* izparringiak. Hobeaz ez ete litzateke bururik hutsena zein dan jakiteko sariketea eratutea? Txerrenak zer egin ez dakianean buztanari zirkin eragiten ei deuse. Gehiagorik entzungo dogu.

Lauaxeta
1933-V-31

ZIRIKADAK

Hogeta hamaikagarren urtea joan jaku, geure irakasleak Roosevelt jaunari urrutidazki bat bidaldu eutsan egunetik. Espainiarak espetxeratu eben, gaurkoak legez atzokoak be, bardinak ziralako. Larrinagako espetxean egon zan Kubaren askatasumaren alde urten zalako.

Espainiak ezin jasan izan eban urrutidazki bat, baina orain laterritzat baietsi daroa Kuba. Aldiak ekarten dauzan gauzak, gauza ikusgarriak dira. Egun honeetan leporatuten deuskuezan zigorkadak dirala-ta, pozez gomuta hau bururatuten dogu. Irakaslearen eginak langorik ez dago geuretzat.

Hona datozan arrotzak eusko izatearen aurka baino ez dabiltz. Horreentzat jakingarria izango da Txinan jazo dana. Wuju deritxon uri handi-handian Bizkaiko semeak dagoz bel-dun. Eta euren Euskadiganako maitasun-suaz ezpatadantzari aldra bat egin dabe. Ikusgarri-ikusgarria benetan Ibai Horia deritxon ibarreko uri handian geure dantzaketak egin ebazanean.

Txinar guztiak pozaren pozez ei egozan dantzaketa hareei begira. Argazkitxu baten ikusi doguz txinar mutikoak praka zuriakaz eta arkondara zuriagoakaz jantzita. Zelako taupadea egin deuskum bihotzak, geure aberriko ekanduak kanpoan be maitatzen dabezalako.

Hemeko basatiak ikasi behar leukie. Baina gorrotoak jota dagozan ezkerro ezin irunsi gaitue.

Ertzain gehiago ekarriko ei dabez Bizkaira, larunbatetan ezin dabelako ezer egin orain dagozanak. Herri txiki guztietan aske bere aske dagoz lapurrak eurek gura dabena egiteko. Txindegietan sartuten dira, euren etxean sartuko balira legez. Bai, ba, ertzainak nahiko zereginik dauka *Jagi-Jagi* atrapetan. Aiko-aiko. Asterokotxu batek horrenbeste zeregin emoten deusela gizon erri-me horreei.

Uzkurtzaren etsai edo arerio gorria ei dogu *El Liberal* izparringitxua. Hala dinoe, baina horrenbestekoa danik ez dogu uste. Joan zaitex *esquela* bategaz eta berehala argitaratuko deusue. Atzoko zenbakian be hauxe irakurri genduan: "Habiendo recibido los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de S.S.". Eta txadonetan egingo diran jaupen izparra be, azalduten deusku. Uzkurtzaren arerio barik, lagun-lagun dira horreek dirua irabazten dabenean. Diruaren aurrean tximinoak be dantzan egin daroa eta.

"Semana pedagógica" edo deritxon antzeko lelokeri bat egin daroe Bilbaon; Bizkai osoko irakasleak erduten dira eta urrunetik etorri diran jaun batzuen esamesak entzuten dagoz.

Zer darabilen? Espainia hemetik eta Espainia handik. Ezetarako be ez dabez azalduten hemen diran arazoak. Elebitza zer dan? Ardura deutse Madriletik datoza horreei.

Euskadin gagozala ez dogu uste, Cuencan baino. Geure irakasleak inoan, hemeko izparringiak Cuencan agertuko balira, bardin izango litzatekela. Oraingo ikastola-gai honeek be harako hobeak dira, honako baino.

Espainiako izparringiak katuai deika dabiltzala dirudi. Egu-nero ikusten doguz hizki honeek: *Miss* eta *miss*. Geure etxean katuari deituten jako *miss*. Eta zer da *Miss* hori ba? Emakumeen arteko batzuei edertasuna burura igon jake eta euren liraintasuna erakusteko "nor ederragoka" batzuk egiten dabez. Nor ederragoka horreetan garaile diranai "Miss Espainia" edo beste lelokeri bategaz atsegin emoten deutse.

Holako ganorabakokerietan astia galduten dabenak ez dauke zeregin handirik. Eskerrak Goikoari Euskadin holakorik ez jakuna sartu. Nor ederragoa dan bakotxaren ekandu eta ereak esango dabe.

Lauaxeta
1933-VI-1

ZIRIKADAK

Txantel bat hartu dogu, oturuntz batera joan gaitezantzako txantela. Hasikeran zer egin ez genduan jakin. Joango gara, edo ez? Oturuntz hori non izango dan baten batek itaunduko deusku. Tira ba, jakinmin hori kenduko jatzu. Zumarragan izango dan oturuntzerako txantela dogu.

Zer egingo geunken Zumarragan? Iparragirre zanaren gitarrera joko dogu. Besteak be gehiagorik egingo ete dabe ba? “Eman ta zabal zazu” abestuko ei dabe.

Madriilen ontzat emon daben Gopatzaren aurkako legeen kaltez, hitzaldiak egingo ei dabez. Hitzaldiak barik zeozer gehiago egiten ez badabe, ez gagoz ondo Euskadin, beste zerbait egin behar dogu.

Eskumatarrak eta ezkertarrak, guztiak bardinak dira. Batzuk goian diranean, behekoak zapaldutea baino ez dauke.

Vilvaoko El Liberal deritxon ingitxuan irakurri dogunaren izparra emon barik ezin geratu gara. Txotxolokeria asko irakurten doguz, baina izparringi horrek aina inok ez dauz idazten.

Ondarroako erkaldarrak bidaldu daben eskutitza edo alagalako idazkia, ez da ahuntzaren gabeko eztula. *Tierra Vascan* ederto idatzi eban bati haginka datoz. *Juzgaduetara* eroango ei dabe idazlea. Ai Santhi, geure Santhi, belarria ikusten jak. Noiz baketuko haz kardiñai itxita?

ABC izparringiak dinoanez, Espainian ez dago izparringien askatasunik. Euskadin beste horrenbeste jazoten da. Izparringi bat argitaratzea baino errazagoa litzake txindegi diruak ostutea.

Jagi-Jagikoai itaundu egiezue eta hareek esango deutsue.

Tira ba, noiz edo noiz *gubernua* be jausi da. Hamaikatxu bidar entzun izan dogu: gaur, bihar edo etzi. Baina egunak egun ziran. Luze egiten ziran. Sosolistoak ez dabe gobernutik urten gura izan, ostikoka be.

Ez, ba. Sakelak ondo betetuteko tokian egon dira eta. Nor izango dan jaurler? Batek badaki. Geure ustez euskotarrak ezin poztu geintekaz askorik, honeek zein hareek, guztiak bardinak jakuzalako. Onik ez dago geuretzat.

Laiseka jaunak be berehala urtengo ei dau Aldunditik. Prieto aldendu dan ezkerro bera be etxeratuko ei da. Baina Merodiok ez dau holakorik entzun gura. Bostehun laurleko ez dira irabazten egunero. Ganera zeregin handirik be ez dauke.

Prieto gestore jarten ez bajaku. Hori eta gehiago be egingo leuke, asturiastar horrek.

Casas Viejas-ekoak zer egingo daben jakin gura geunke. Azanari oparituko ei deutse jaka ederren bat. Izan be, Espainian jazo dan gauzarik goragarriena hantxe jazo zan.

Burgos podridos edo deritxoen herriak be opari handia egingo deutse. Eta Prietori nok egingo deutso ba? Bizkaiko aber-tzaleak zer egingo deutsen badakigu. Hona helduko danean, bolanderakaz eta guzti hartuko dabe.

Espainiakoak zelakoak diran jakiteko, hitz bategaz esan geinke; Erkala etorri zanean, Andaluziako herritxu bateko endoreak Madridera deitu eta esan eban: "Erkala dogu herrion. Eta zer egingo dogu jaupariak? Beste zereginik ez eukan endore jaunak. Jaupariak zer egingo eben jakin gura eben.

Elgoibarko *Aberri* idazle azkarrari omena egingo ei deutse. Ondo merezi dau. Baina ezkongai dagoanari ez jako holakorik egin behar: Mirentxuk esango dau zer egin behar jakon. Geure aldez bihotz-bihotzez gagoz omen horren goralgarri. Mutilzahararak goraldtu behar dira.

Elgoibarren batuko gara *Aberriren* umore ona ikusteko.

Lauaxeta

ZIRIKADAK

Jaurburu diran Espainiako agintariak eperdiz gora jausi dira. Zer egingo daben? Sosolistoak ez dira etxeratuko, etxean baino hobeto bizi diralako laterriaren ondoan.

Prieto zer izango dan jakin gura geunke. Geure asturiastar gizon lodikotea ez da kikilduko. *El Liberal* izparringiak egingo ei deutso ahal dauan guztia. Batzuk dinoenez Prieto hori Bizkaiko Aldundiko lehendakari izentauko dabe.

Izpar jakingarria: Domingo jaunak harrerarik maitekorrena egin deutse Bizkaiko *gestoreai*. Joan ziraneko geltokira urten eutsen. Tamalez ezer ez dabe lortu; Eusko Araudia sakelean sartuta ekarriko ei dau Laiseka jaunak.

Gipuzkoako Castro jaunak ez dau gura izan estatutorik, baina Laisekaren hitzak bigunduta itxi dabe. Abertzaleak isilduten diran be, araudia behar-beharrekoa da eta. Gai honetzaz idatziko dau *Alcibar* jaunak.

Karlatarrak izango eben batzarra galazo dabe. Hau be tamala da! Ikusgarri-ikusgarria izango zan jaia debekau deutse. Iparragireri omen bat egiterik be ezin dabe jasan oraingoak. Tira, antxinakoak bardinak ziran.

Baina karlatarrak ez dakie zer egiten daben. Iparragirre gaixoak "La Marsellesa" joten ei eban Frantzian sekulako ondoen. Herri guztiak jarraitzen eutsen soinuaren samurez ikaratuta.

Bakaldarrak barik, erkaldarrak egin behar leuskioe omen hori. Santhi Meaberi idatziko deutsalagu honetzaz.

Arrasateko Ugaldetar Peli langile onari etxeko tresnak kendu deutsalaz Artola jaunak. Multak ordaindu gura ez dabezan guztiai beste horrenbeste egingo ei deutse. Lanbakoak zer jan eukiko dabe.

Urkitzu jauna nor dan ez dakigu, osterantzean besarkada bat emongo geunskio. Zer dala-ta, ba? Ondarroako erkaldarrak emoten deutsezan buruko minak dirala-ta.

Egunoro artikulua eder bat idatzi daroe Urkitzu horren aurka. Tripetako min handiak emon deutsez, korrontziaren¹³ korrontziaz egon ezinik dagozalako. Itxasoko isurdeak be barreka ei dabiltz. Bisuguak, ostera, erdi hilik, begietako tristeziatz. Ohidalako barreka egin dabez eta.

Bizkaiko abertzaletasunari zerbait jazoten jako. Zer ba? Aspaldion multarik ez espetxerik ez dogulako ikusten. Teotimo jaunari eskerrak barik, zigorkadea emongo deutsalagu piska bat zirikatu gaitzezan.

Abertzaletasunak zigorkada onak behar izaten dauz beti zutunik izan dedin. Bestelakoa zan Amilibia gaixoa. Haren egunetan hamaikatxu abertzale zintzo egin ziran!

Bizkaiko itsasoa lohituten hasi jaku. Zer ete dan gagoz. Bildur gara hainbeste zikinkeria hondartzara dakarrelako. Baina adiskide batek esan deuskunez, atzerri aldetik heldu diran espainiar piloak igeri egitera joan ei dira.

Hareen samako ugerrak kenduteko ura edo ardaoa behar izango da.

¹³ Korrontzia: beherako.

Eta hondartzak harira etorri diran ezkerok, zerbait gehiago esan daigun. Haragia erakusten joaten diranak be hasi dira eguzkitan, narrutsik, txarriak legez etxunda astia emoten.

Lotsarik ez dauke eta. Emakumezkoak eta gizonezkoak, guztiak nahaste-borraste ederrean, han ibili dabiltz. Eguzkia hartuten barik lizunkeria zabalduten doaz holakoak.

Hondartzetara joatea baino hobea izango jaku mendira joan. Mendian behintzat lau hankako abereak baino ez dagoz, hondartzetan, ostera, hanka bikoak.

Lauaxeta
1933-VI-10

ZIRIKADAK

Bengarai nor dan ez dakigu. Ardurarik bere ez. Baina Baztan Buru Batzarra nor dan dakigun ezkerro, haren hitzai gagoz. Bengarai horrek esan ebazan hitzak ez dira hitz bigunak, batez bere lekaideentzako. *Txarri* eta *doilor* batzuk dirala azaldu eban.

Gai hori erabilteko asmoz nor gehiagoko mintzaldi batera dei egin deutse Bengarai horri. Baina gizona dan gizonak egiten ez dauana horrek egin dau. Baztan Buru Batzarrari erantzun deutso hitz horreek ez dirala berak esanak, eta zuzendu beharrekoak zirala. Besteak, ostera, ostikada ona emon deutse: *La Voz de Guipúzcoa*tik hartutako hitzak dirala, bai?, eta izparringi hari eskatu dagiola hitz horreen zuzentzea. Lapurrak be ezeztuten dabe eginiko gatxa.

Larunbateko *Jagi-Jagi* ez zan agertu. Zer dala-ta? Jaurleriak esango deusku. *Ley de Imprenta* edo deritxon araudi batzuk dagoz argitaratuten danaren alde. Baina Bizkaian ez dago holako legerik.

Hemen gura dabena egin daroe eta kitu. Eta ez etorren txarra geure asterokoa! Haren zigorkadak ez dira makalak!

Lope de Haro edo dana dalako horrek Bilbaon daukan gizairudi aurrean lorak ikusi doguz. Zergaitik dozak lorok? Itaundu deusagu bati, baina erantzunik ez deusku emon. Atxuriko okulu baten daukagu Haroko Lope hori. Lope edo odoloste handia bardinak dira.

Rioja aldeko notinak dira horren gurtzaileak. Euren zaindari deunaren jaiak ziralako-edo lorak jarri eutsezan. *Agirremota* edo holako abizena euki baleu, ez ei zan egongo Atxuriko okulu horretan. Orain Mirasol txaidera eroango ei dabe. Ederto dago. Hara eta hona, ez dadila bakean egon.

Ez daukat, astelehenetan agertzen dan izparringi petrala ez dodalako erosten. Prieto eukiko ete dogu agintari buru? Bai zera! Prieto horrek buru handia dauka, baina ezin eratu izan dau gobernurik. Oraingoan aske gagoz, bestela galduak gengoan. Deuskun gorrotoaz. Orain Azaña dabil gobernu eratzaile.

Besteak baino hobea izango jaku Azaña hau. Eta *radicalak* agintaritza honetan alde badira, errezago geure lanak egingo doguz. *Gestora* zoritxarreko honeek kenduten badeuskuez, beste-lako poza eta deskantsua eukiko dogu.

Prieto gobernuia eraturten ibili zan orduetan, Bilbaoko sosolisto ziztrinak deitu eutsen. "Eta zer egingo dogu abertzaleakaz?" Arin baino arinago gura eben geure aurka hasi. Askatasuna agoran darabilen honeek larri egozan geure ahala hasi arte. Orain erdi negarrez dabiltz. Laiseka be burua makurtuta dabil.

Prietok gobernuia eraturko ebalakoan, Bilbaoko txotxolo batzuk pozarren saltoka hasi ziran. Oturuntz ikaragarria izan zan Artxandan. Hareen poza, zantzoak eta txaloak. Bizkaiko jaube izateko asmoz edo egozan.

Orain, baina, zer esango dabe?

Epalza nor dan badakigu. Izparringi honetan idazten eban eta abertzale zintzoa zala uste genduan. Baina berehala aldatu zan. Txaketeru bat baino ez zala igarri eben danak. Orain *Diario de Navarra* deritxon zoritxarreko orrian idazten dau. Lelokeriak baino ez dauz idazten.

Bultzian etorran Cadizko gazte batek txantel bat emon euskun: "Aquí, en nuestra patria España" inoan. Eskean etorran eta ezer ez geuntsan emon Euskadin gengoalako. Azaldu geuntsanean Euskadi zer zan eta zer gura dogun, geure gizontxuak erantzun euskun berak ez eukala aberririk. Gizon kokoloen asmoak baino ez ei dira aberriak.

Cadizkoa izan behar, holako astokeriak esateko!

Shanti Meabek idatzi eban lehengoan. Urkitzu jaunaren idaztiak eta ahuntzaren korotzak bardinak dira. Usain txarra dauka idazki honek.

El Liberalean etorran idazki hori eta hamaikatxu barre egin genduan. Zimaurra, satsa eta bekorotzak sarri be sarri aurkituten dira izparringi horretan.

La Constancia andereak ez dakar ezer ala? Estulaz ei dago. Zumarragan mezea abestu behar dau eta isilik dago orain. Arrautzak jatea onena dala jakingo dau, bestela geuk horixe aholkatuko geunskio.

Lauaxeta
1933-VI-13

ZIRIKA

Oihalak saltzen ibiltzen diranetariko bat Garbizu dogu. Bilbao osoan ezaguna bere astakeriak dirala-ta. Baina azkeneko larunbatean jazo jakona jakingarria da.

Oihal-saltzaile horreek izan dabe euren batzarra, bai?, eta batu ziran areto handian. Holako baten hasi zan hitz eta pitz Garbizu geurea eta guztien aurka jaurti ebazanek ez ziran makalak. Bere ondokoak minduta ziran, baina lotsa onekoai jagoken eran isilik egozan. Guztiak, ostera, ez ziran baketsuak. Euretariko batzuk jagi ziran eta kanpoan ebiltzan ertzain biri eskatu eutsen Garbizu hori kanpora atara egiela.

Han ikusiko zenduan Bilbaoko zinegotzi harroskoa, ertzain biren artean. Ezkertarrak eta eskumatarrak, guztiak bere arerioak dirala esan daroa orain.

—Ai Garbizu, kontuizu ezer ez zarala!

“Euskadi invertebrada” izenburutzat dauken idazki batzuk argitaratuten dauz aspaldion *Pedro Keta* izenpetuten dauanak. Lerro gitxitan burubakokeria gehiago ez dozu irakurri.

Keta horren gauzak irakurri baino gurago dogu *aseiterrizin* edo purgantea hartu. Lehenengo hitzak ikusi orduko loak hartzen gaitu. Seinari loa eragin gura deutsan ameak erosi begi *La Voz...* eta hantxe diran *Ketaren* idazkiak irakurri begioz. Berehala loak hartuko dau umea.

Deustoko zubian lan egin gura ebala-ta, langile batek egin ebazan zaratak joarriariaren etxetik entzun ziran. Beretzat lanik

ez egoala esan eutsen arren, alperriko hitzak ziran. Gose zala-tan egin behar ebalan inoan.

Langile gizaxo hau espetxera eroan dabe. Holakorik ez da jazoten inon. Lan egin gura eta ezin lanik egin!

Gobernua jausiko zala eta ez zala ibili ziranean, Guerra del Rio deritxon ahalduna be han ebilan. Canariasen jaioa da gizon hori. Izparkari batek itaundu eutsan: —Eta azkenengo izparretzaz zer diraustazu?

Guerra del Riok erantzun eutsan: —Neuk ez dinot piorik be.

Alboan egoan Tapia bertsolari txarrak esan eban: —Kanario isilagorik ez dago ludion!

Prieto jaurtza edo gobernu buru izango zalako zurrumurrua entzun zanean, Sestaoko endoreak eta zinegotziak erabagi bat hartu eben. Eresbatza hartu eta txaidez txaide ibili ziran. Pozaren pozez arteak hartu ezinik egozan.

Orain lotsaz beterik ez dira urteten etxetik. Sosolistoak ei dira zorioneko sestaotarrok. *Entxupe* gehiago gura izango eben eta pozik egozan eletrizidade apur bat gehiago eukiko ebelakoan.

Urkiolan ez ei da izan lapurrik. Kontxo, kontxo! Sekulan ez genduan uste izango lapurrik ez zala joango Urkiolara. Lehenago askotxu joaten ziran, ba. Haize hotza ei dago mendi-tontor hareen ganean eta txaideko musturretan erraz-erraz lapurretan ezin izaten ei dabe.

Errazoi handia dauke, bestela dabiltz hemen!

La Constancia atso zaharra lotan datza. *X* izenpetzat eukan idazki baten haxe irakurri genduan: “Usando y abusando del adjetivo cristiano, de tufillo tan sospechoso, por el de católico”. Eusko eleiza egin gura ei dogu. Baina zenbaki beratan haxe irakurri genduan Orozkoko idazki baten: “La conservación y el incremento que la religión católica ha tomado en Irlanda es debido al espíritu verdaderamente cristiano de sus habitantes”.

Ene bada, zoratuta dagoz gizon honeek. Batak gauza bat eta besteak beste bat esaten deuskue. *La Constancia* andera zaharra burutik dagoala antxina entzun genduan, baina orain ikusten dogu geure begiakaz.

Josuren Bihotz deunagaz gorabeheraka dabiltz espainiarrak. Hoyos eritxon josulagunari esan ei eutsan Espainian gurtua izango zala beste edonon baino maitasun handiagoz. Orain ostera josulagun batek dinoanez, hauxe esan ei eutsan: "Con más veneración que en muchas otras partes". Ez dakigu zer egin eta zer esan.

Jainkoari be bakean ezin itxi deutse gizon honeek. Eta zenbat atsotxu eta beatatxu ez dira abertzaletuten, zorioneko hitz horreek dirala-ta. Euskadi ez bada Espainia, Josuren Bihotzaren hitzok geuretzat ez dirala dinoe. Zelako lelokeriak!

Gran Vian langile bat idoro dot. Eskean ebulan eta nondikoa zan itaundu deutsat.

—Burgoskoa naz.

—Baina ez dakizu lanik ez dagoala, ba, hemen? Zetan zatoze hona?

—Bai —erantzun deust—, badakit lanik ez dagoala, baina hemen karidade handia dago.

Horra espainiar baten agotik egi galanta!

Lauaxeta
1933-VI-14

ZIRIKA

Goizeko hirurak ez dira egokienak inoren bila joateko, batez be lozorroan dagoanean. Baina joan egin dira Bilbaoko ertzainak Otxoa abertzale zintzoaren etxera.

Zeren bila? “Zeren zeren, libertadea zein eier den” abesti batek dirausku. Goizeko hirurak baino ordu hoberik ez dagoala *Jagi-Jagiren* bila joateko uste izan dabe, bai?, eta Begoñako biztanle guztiak izartu dabez. Hareek ziran ate-hotsak eta zalapartak!

Jagi-Jagirik aurkitu ezin eta Otxoatar Iñaki eroan eben eurekin. Zegaitik? Isilik egon zaitez barritsukerietan ibili barik. Gure jaurleri azkarrak zerbait merezi dau oraingoan, holako diligentzia zolia imini daroalako. Bitartean lapurrak aske dabiltz gura dabena egiten.

Aldasororen gorabeherak entzungarriak dira. Alderdi batetik bestera ibili dabil eta azkenean *praile* sartuko da. Erkaldar alderdi baten alderkikotuta egoan, baina ez dakigu zer jazo jakon. Jaurti egin dabela dinoe. Berak, ostera, bere arauz urten dala. Gizon ona bada behintzat eta.

Burubakotan zenbatu aina dagoz bazterretan eta zikoitzak ez dauke neurririk. Bilbaoko txaide baten ebulan astokilo galant bati egin deuten lapurketea dala-ta, makinatxu bat barre egin dogu.

Señorito jantzitako gazte bi ondoratu jakozan eta isilka-misilka hitzpeko bat esan gura eutselakoan alde batera eroan eben.

Hogeta bost mila laurleko ei eukezan zorrotxo baten eta diru guzti hareek txiroen artean banandu gura ei ebezan.

Eurak kanpotarrak ziran ezkerero, Bilbaoko txirorik ez eben ezagututen. Mesedez diru hareek banandu egizala eskatu eutsen eta gure tentepotente papautzarrak *señorito* ziranai beste mesede bat eskatu eutsen: aldean eukazan diru apurrak eurei emon egiezela. Burubako horrek emon eutsezan ehun eta hogei laurleko. Demoninoa baino arinago *señorito* biok aldendu ziran. Bestea, barriz, atadi baten sartu zan eta zabaldu eban zorrotxua. Ai ene zer zan ha. Diru ordezt, izparringi zatiak aurkitu ebazan. Beste behin ez ei dabe atrapauko.

Goiko jaun onak deitu ei deutso Olazabali. *La Constancia* eskuetan ebala zerura joan da *integristen* buruzagi argia. Gipuzkoan jazo diran uriola eta hondamendiak zegaitik izan diran azaldu deutso.

Alcibari, bere ordezt, Jaungoikoaren ordezt, esan dagiola, ez dadila sartu uzkuertza gauzetan, ezpabere emon-emonak egingo deutzazala. Ganera esan ei deutso Jaun onak mendi goietan egin dagizala jauregiak, horrelan urak ez dauzala eroango eta.

Baina Olazabalek barre-barreka erantzum deutso Urtziri, antxinatik ekiala berak tontorretan egiten diran jauregiak uraren bildurrik ez daukela. Abertzaleok kendu dagizala ludi honetatik be eskatu deutso. Ikusiko dogu zer jazoko dan. *Exkomuninoa* behintzat badakar.

Balbotin ahalduna laugo mutilik ez dago. Hau dok hau gizona! Hogeia mila gudari ei dira *Norte* aldean. Ohidalako gudarostea da gero. Karlatarrak hasi dira gudaroste horren bila. Bakalduna ekarteko besterik ez dabe behar.

Amesetan ez ete dauz ikusi gudari horreekt? Hemeko mutil gazte batzuk zirika antzo irratidatz hauze bidaldu deutse: "Rogamos nos diga dónde podemos alistarnos para engrosar ejército 20.000 hombres existe en el Norte".

Espainiarrak ekarri eben euren aberrirantza Emil Luwig idazlea. Honek orain ordaindu deutse mesede ha. Zezen eta zezen-lariez idatzi dauan idazkiak ez dauz toki onean itxiko espainiarrok.

Herri basati bat dala esan gura dau Ludwig horrek. Traste onak egongo dira, lehen hainbeste lanbakeria egin eutsenak. Idazki horretan dinozan gauzak euskotarrez esango balucz lotsatuta gengokez. Espainiarrak, barriz, ben-ben.

Asturiasko bakaldungeia izan zana ezkondu ei da. Etxekoak etxeko dira eta, hasarre bizia erakutsi deutse ezkondu dalako. Zer egingo eban ba, Espainiako bakaulkiaren zain egon? Besteak baino buru hobea daukala erakutsi dau mutil horrek.

Komunistak ez zirala hiltzen uste genduan, baina horreek be hiltzen ei dira. Oraintsu hil da Zelkin eritxon emakumea. Reichtageko ahalduna zan komunistak hau. Idazti asko argitaratu ebazan, baina idaztiak ez dabe heriotzea aldendu.

Izparringiak harro-harro etozan, Barbena eta Collar diralako hegazkarien eginkizun gurena dala-ta. Baina goregi danai zer jazoten jaken badakigu. Harako Ikarori jazo jakona.

Gizajo honeci be bardin jazo jake. Mexiko laterrian jausi dira lurrera. Zer dala-ta? Mendi gorenen bat jo dabe. Bata hilda geratu da, bestea be txarto-txarto dago. Gaixoak!

Lauaxeta
1933-VI-23

ZIRIKA

Bizkai Buru Batzarreko burukideak diran Garatetar Joseba Mirena, Billalabeitiatar Karla eta Izaurietatar Joseba Mirena espetxean sartu dabez. Sevilla horrek ez dauka koplarik, espetxeak eta kitu! Eta zarata egiten dauanari zigorkadea! Zegaitik espetxeratu dauzan itaundu deusagunean, ez deusku ezer erantzum, baina igarri dogu zioa. *Euzkadin* atzo agertu zan oharra ei da ziorik nahiko inor espetxera eroateko.

Ohar horrek zer inoan? Abertzaleak eskegi dagiezala txeigoe-tan eurai jagokezan zapiak. Bai ba, tripetako mina emon deutso Sevilla horri hainbeste zapi balkoietan ikusteak. Zer zan ha! Milaka agiri ziran Bilbao osoan. Geure agintari onai, zorionik bihozkorrena egiten deutsegu jasan dabenagaitik.

Emakumeak batzen diran tokian gauza onik ez dagoala sari entzun dogu. Oraingoan honeen ganorabakokeria bat azalduko dogu. Ezkertarrak diran emakumeak euren aretoa dauke. *Mujeres modernas* edo dana dalako izena dauke.

Atzo batu ziran euren urteroko batzarra egiteko asmoz. Baina han zer jazo zan gero! Kanpotik entzuten ziran txilin-hotsak eta txilio ikaragarriak. Handik laster emakumetxu bat atera eben konortetuta. Beste emakume batek jo ei eban buruan eta zauriz josirik itxi be gero.

Andrak zarataká egozan bitartean, gizonak kanpoan egozan. Gabeko hamaikagarrena bazan eta afaria jan barik egozala-ta gizonok hasarre ebiltzan. Androk bakean jartzeko ertzainak igon

ziran aretora. Begiak ez eutsezanean atera. Auzoko guztiak leihotan egozan eta geu be txaidean, hango sokorru eta desditzaduak entzun nahirik.

Halako komediarik ez dogu sarri ikusi. Andra horreen antze-koak badira *moderno* guztiak, ondo baino hobeto gagoz. Ez da bazterretan faltako hasarre eta zaratea.

Mujeres modernas honeek egin eben batzar ostean, etxean dauken emakume batek urrutizkinez hitz egin eban. Norekin ez dakigu baina hauxe inoan: “Esto ha sido terrible. Se han pegado de lo lindo”. Kontuizu zer izango zan hango zalaparta-hotsa!

Gipuzkoako hondamendi ostean egin diran sorotsiak ez dira makalak, baina abertzaleok buru dira horretan. Eta zein alderdi-takoak ziran txiroak begiratu barik euren sorotsia egin daroe.

Donostia zaharreko etxe baten sartu jatzuz andrazko bi:

—Zer behar dozue zeuen etxean?

—Hau, hori eta bestea, ezer ez daukagulako.

Eta emakume lirainok berehala bananduten dabez tresnak eta janariak.

Etxe txiro haretako andreak itaunduten deutse: —Nori zor deutsagu mesede hau? Eta erantzun eutsen: —Batzokiari. Baina emakume harek ez ekian batzokia nor zan. Bere alaba bati itaundu eutsan non ete zan batzokia. Harek be ez ekian. Orduan geure emakume biai esan eutsen: —Eskerrak emon egiozuez *don Batzokiri*. Zenbat lan egin beharko dan herria abertzaletu arte!

Casares Quiroga deritxon horrek Marruecos aldean frantzes-tarrak dagien lana dala-ta, gorapen handiak esan dauz. Urrun joan da gizon hori lekaideen mesede eta lan onak ikusteko. Eta bitartean Madrilen erabagi txarrak hartzen dabez lekaideak kanpora jaurtiteko. Hori dok burua!

Eusko aldundi-isunetako ahaldunok, egun batean ez bada bestean Madrilen dagoz. Oraingoan be handik dabiltz, zeregin handiak baleukez moduan. *Estatuto del vino* ardaoaren araudia gora eta behera darabile. Domingo jaunari ikertaldia egin gura deutse, baina alperrik. Domingo horrek ez dauz bere aurean ikusi gura.

Laisekak esan dauzanak ikaragarriak dira: aldunditik urten-go dala horrenbeste laidorik ezin jasan daikela-ta. Egia balitz!

Eusko Ekintzakoak itxi ebezan aldun-jarlekuak betetuteko sosolisto bat eta erradikal-sosolisto bi hautu dabez. Jeltzaleai emon gura izan deutsez hiru jarleku eta lehendakaritza, baina honeek herrizaleak edo demokratak diran ezkerero, ez dabe gura holako jarlekurik.

Ekintzakoak be beste horrenbeste erantzun deutse. Abertzaleen artean ez dabe inor lortu. Orain espainiarrek handik aukeratu dabez aldun-isunok. Zati baterako egongo dira oiez.

Bizkaiko jaurlariari ez jako igarten zer gura dauan be. Atzo arratsaldean agindu ebana, agindu barregarria zan. Eusko ikurrin guztiak balkoietatik kenduteko agindu eban.

Zer uste ete dau ba? Horregaz ez dau ezer aurreratuko, galdu baino. Ikurrinak gorabehera ez gara ikaratuko. Eta agindu hori emon ostean *Viva la libertad* oihu egin eta geratu zan. Ondo dago.

Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean diru eske hasi jatzuz gipuzkoar batzuk. Ez dira mutil leloak mutil horreek. Baina holako ordu larrietan ez leukee lapurretarik egin behar.

Antola jaunak emon ebazan isunak kobretan dabiltzala-ta hasiko balitzaz, hobeto egingo leukee. Bostehuneko bat kobrauko ete leukee?

Lauaxeta
1933-VI-24

ZIRIKA

Ia hamahiru anei laurleko kendu gura deuskuz Bizkaiko jaurlariak, baina abertzaleak zer garan konturatu barik egin dauan horregaz, ez dau ezer handirik hartuko. Onak gagoz geu, onak, inori dirua emoteko, batez bere espainiarra danari. Geure anaiai emoten deutseguna emonda be hamaikatxu falta jaku. Bizkaiko jaurlariak gura dagiana egin daike, baina beste horrenbeste geuri be jazoten jaku. Ahor ba untzea. Izakeraz izan gara geu holakoxeak. Eskatu egiten dozu, eskatu? Ukatu egingo jatzu, ukatu.

Abertzaleoi egin deuskuzan multak dirala-ta, labankeria handiak esan dauz. Ondo lotu dadintzat be, zegaitik bilatu gurako dauz. Baina txarto eginari ez jakoz errez topetan hanka artezak, okerrak baino. Inondikoak azaldu dauz jaurlari horrek eta katolikoai mosutxu batzuk be egin deutsez. Bai ba, guztiakaz ez da hasarratu gura eta. Hurrengoan esango deusku!

Bera bizi dan etxe aurean eurez ikusten ziran eusko ikurriak, bai?, eta haxek tripetako minak emon eutsazan. Gestorako jarlekuak hartu bagenduzan ez jakun ezer jazoko...

Sondikako endore eta zinegotziaz be multa ederrak leporatu deutsez. Jaupara joan ziralako oiez. Mezatara bazoaz mezatara zoazalako eta ez bazoaz ez zoazalako, zer egin be ezin jakin zeinke. Baina askatasunik edèrrenean ez gara bizi ala? Askatasunlegeak diranean bakotxak gura dabena egin behar leuke. *Verbena* batera joan baziran ez eutsen multarik emongo! Bizkaiko endore

eta zinegotziak ezin jauparik entzun ahal izango dabe hemetik aurrera, ezpabere bostehuneko bat helduko jake.

Jagi-Jagi argitaratuten dan irarkoleari be bostehuneko bat egin deutso. Begi eta sur-puntan izparringi horixe darabil gure jaurlariak. Antxina agertu ziran orritxu batzuk zirala-ta bostehuneko jaurtitea, ez da gauza arteza gero. *En un registro* dirausku, baina egunean zortzi *registro* egin daroez horren ordezkoak. Iku-siko dogu nok ordainduko dauan bostehuneko hori.

Markinako karlatarrak oiloak lakoxeak dozuz, baina Zaragozakoak lehoi hutsak. Hangoak ez dabiltz txantxetan eta barriketetan. Ezkertarrai emon-emonak egin deutsez. Berrogei ez dabez zauritu, ba, berrogei? Txapel zuri eta gorridunakaz geldu gero, horreek *rapa!* tiroa jaurtiten dakie eta.

On Karlos, (*euskalerrriako* eritxenak holantxe idatziko leuke), *on Karlos* horrek badauka nor gudari aukeratu.

“Erramillate, erramillate,
txakurrak tripea bete.

Markinan. Orexa jaunak: “Abogó por la unión de las derechas”. Baina nongo *derechas*? Hemekoak ala Espainiakoak? Hemeko *derechas* horreek ez dauke beste biderik abertzaleakana etorri eta bakean egotea baino. Orexa horrek barriro ahaldun urten nahi izango dau geure kontura, baina holakorik ez da jazoko barriro. Baten egin zan zorakeria, bigarrenez ez da egin behar. Madriler aahaldunak bialdutea baino hobe litzake etxean geratu.

Zer izan da gaur Bilbaoko kaleetan! Bateko eresbatzak, beste teko gurdibilak. Hemetik bolanderak eta handik txaloak. Euskaldirien askatasuna lortu dogulakoan egon naz, egon be! Eta zelan ez gero! Txaloka ebiltzan gazteen artean eusko ikurrinak baino ez ziran ikusten. —Zer da, ba? itaundu deustat adiskide bati. Burutik oinetaragino begiratu deust eta asto bat nazala esan be.

—Zegaitik nok astoa, ba?

—Athletic kanpeoia dokala ez ete dakik?

Ai ene burua txarra! Ez nintzan horrexegaz be konturatu. Izan be pozik egoteko gauzea da hori eta! Dana ondo dagoan ezkerro poztu gaitazan, jo txaloak eta bidera urten daigun. Athleticek irabaztea ez da gauza txarra, baina horrenbestean artegatu daitezkezala gizonak ez neban uste izan.

Erandiotarrak bere txapeldun agertu jakuz. Mutil honeei be harrera gorengo egin deutse. Mutil horreek ez dira txarrak gero. Gehienak abertzaleak ei doguz. Tira, holan bada atsegingarriagotxu jaku.

Lauaxeta
1933-VI-28

ZIRIKA

Eta multa barririk badogu ala? Hauxe itaundu deuste! Zer erantzun be ez dakit, oraingo multa guztien etorrerea *aitearen* egi-tea langoxea dalako, jaurlaria hasarre dagoala badakigu. Hamai-katxu izen-abizen helduko jakoz egun honeetan, leporatu dauzan isumen kaltez.

Menako jantokietan gozoak eta guzti emon dagiela agindu daroa, abertzaleen diruakaz zer jan eta zer edan egongo dala-ta. Pozik gagoz geu be, lanbakoai janaria emongo jakelako.

Bakaldunaren aldietan jazoten ez zana orain jazoten da. Eus-kadi aberri bat zala idazten zanean, inor ez zan ikaratuten. Baina erkaldarrak zarataka hasten jakuz. Ze demonino dala-ta, baten batek esango dau. Egun guztietan entzuten genduan *Las nacionalidades ibéricas*, baina orduko barriketak alde batera jaurti dabez eta *nacionalidades* horreen aurka ekin dagie. Bakaldunak baino buru ederragoa daukela erakutsi daroe.

Aberri azkarraren omena noz izango ete da? Inoiz ez? Holan-txe dirudi. Bateko *El Día*n eta besteko *Argian* hamaikatxu idazki eder irakurri doguz, baina omen hori ezerezean geratuko dalako bildurra dogu.

Aberri horrek merezi dau, ba, inork merezi badau. Elgoibar-koak euren txokóan egin gura dabelako eta Motrikokoak bere jaioterrian egin gura deuselako. Azkenean inon ez. Geureketz, baten edo bestean egin behar jakola uste dogu. Elgoibar toki ona

litzake, haratuteko be erraz-erraz egiten jakulako. Omen horretaz tautik ez deuskue esan geuri, baina *Aberriren* alde dan ezkerro, pozik erantziten gara.

Katoliko izparringien eguna ei dogu gaur. Abertzalea zaran horrek norentzat emongo dozu? Zeuk ezin emon daikezu abertzaleen izparringientzat baino. Beste guztiak, alde batekoak eta beste-koak zeure gogaiaren eta aberriaren etsai eta arerioak dira. Ahal dozun neurrian emon egizu zerbait eta txadoneko atean baino hobe litzateke izparringien irarkolara joango bazina eta bertan emon gura dozuna.

Gipuzkoako jaurlariak zematu dauz udaletxeak, han izan diran hondamendietan zerbait galdu dabenai lagunduteko batzen diran diruak, jeltzaleen harpidean sartu barik, berak eratu dauz harpidean sartu dagiezan. Gizon horrek ezin ikusi dau inork egiten dauan gauza onik.

Baina abertzaleak erantzun ona emon deutse: Udal guztiai agindu deutse emon dagiela edozein sorotsi-batzari, alderdikeriak ez dirala lan horreek, sorotsi goragarriak baino.

Jaurlari eta Eusko Alderdi Jeltzalearen artean, azkeneko honegaz geratuten gara.

Bizkaiko Aldundi-isunean beste hiru ahaldun isun izentau dabez. Euskotarrak? Bai zera? Hiru horreen abizenak urrundikoak dira. Euskotarrak ez dabe ezetarako balio eta. Hiru gizonok pozik baino pozago ei dagoz eta lehenengo zarran bostehun laurleko gehiago bakotxak sakeleratutea erabagiko ei dabe. *Gora la democracia* zarata egingu dogu bitartean!

Entzun dogunez, hemetik aurrera Mundakako udalak erderaz baino ez ei dauz egingo Kepa deun egunetako jaien egitarauak, eta Mungiaiko udalak, osterá, euskeraz. Orain arte Mundakak euskeraz eta Mungiak erderaz egiten izan daben arren.

Aldakuntza honegaz poztuten gara. Mungiako udalak gorapen handiak merezi izan dauz egin dauan egitarau ederragaitik. Zelako euskera txukun-txukunean idatzia dago gero!

El Liberal edo dana dalako izparringi txarri horretan, Markinako ezer ez dakian batek *Ete* emakume argiari zeozer dirautso. Markinako erkaldarrak guztiak alkarregaz batuta euren talento guztia pilotu ostean be, ez dauke *Etek* daukana. Haren argitasuna eta zintzotasuna eukiko balebe, pozik egongo litzakez!

Ubedan jazo dan barrabaskeria, ez da Espainian baino jazoten. Gazte gaizkin batek beste bati agindu eutsazan erreal bi mutiko bat ekarten baeutsen. Beste leloak eroan eutsen gaztetxu bat eta etxola baten erail dabe odola edateko asmoz. Holakorik ez da jazoten inon. Ikaratuta gagoz, baina handiagoak be jakingo doguz.

Eusko ostikolariak irabazi dabelako, madrildarrok hasarre dira. Baina hangoak irabazi balebe be, euskotarrena izango zan gurendea, hango ostikolari guztiak edo gehienak euskotarrak dira eta. Madrildarrak ez dabe balio ezetarako. Ostikolariok hona heldu ziranean, hamaikatxu notin bazan txaideetan. Bostehun langilerentzat lana ekarri balebe, ez eutsen holako harrerarik egingo. Hemeko gauzak halakoxeak dira.

El Liberal orritxuan Luis Prieto deritxon Prieto nagusiaren semea hasi jaku. Zetan hasi jakun? Idazten, gizona, idazten. Aitak daukan izparringian semeak gura dabena idatzi behar. Txarra zein ona, lehenengo orrian, barriz, argitaratuko deutse.

Lauaxeta
1933-VI-29

ZIRIKA

Eusko Gaztedia langorik ez dago inon! Sabin maitearen gogai biziena hortxe gorde daroe. Eta abertzaletasun gorengo honek eragiten deutsan gazteak, hara eta hona, beti aberriaren onerako dabiltz. Gaur urtengo dira Donostiara. Zetan? Gipuzkoako abertzaleai sorotsi bat croateko asmoz.

Han izan diran hondamendien ostean, Bizkaiko abertzaleak ez dira isilik edo bakan geratu. Lanik ederrenak egin dabez eta harpide ugariak zabaldu dabez. *Oldargiko* mutilak ez dira azkenengoak, lehenengoak baino.

Ahiztak eta *Hiru Gudari* antzeztuko dabez gabeon. Antzerki honeek ikusi doguzanok ondo baino hobeto dakigu Donostian atseginez hartuko dabezala. Hain dira entzungarri eta txaloga-riak.

Antzezlariak, ganera, antzezlari puntarengoak dira. Pozik izpar hau emoten dogu, Gipuzkoako abertzale guztiak joan daitez-
zan gaur eta bihar Bizkaiko gazte honeen antzezkizunak ikusten. Abertzaletasunaren alatzak, alatz handiak dira.

Euskadiko osterea egin ebenak pozetan urtuta etorri baziran, oraingoan bitsetan egongo dira. Horreek dira buru azkarrak gero! Ez deuskue, egin ba, zoragarritzko idaztinotxu bat. *La vuelta a Euskadi* deritxo eta noren eskuak egina dan berehala igarri dogu.

Hori Erraztitar Joseba Mirena hori sartzen dan tokian, gauza txarrik ez dago! Zoragarritzko argazkiak, azalpenak argiak eta azala ezeze barrua txukun daukazan idaztino horren gurasoak zer

egin daben badakie. Euskadin zehar ibili ziran hareek ez dira ahaztuko behingoan harako osteraz zoriontsu haregaz; orduko une amaigarriak iraun dagientzat, idaztino honetan gorde dabez jakingarri guztiak. Geure irakasle bakarraren abesti-hizki batzuk be han hemenka dagoz, begien pozgarri eta bihotzaren asegarri daitezantzat. Gure *Urdiola* argia be ibiliko zan idaztino hau egiten. *La vuelta a Euskadi* deritxon idaztino honetzaz zerbait luzeago esango dogu. Ohar hau nahiko bedi gaurko.

Kizkiña izenburutzat daukan idazki bat jaso dogu. Zaitegitar Jokin josulagun argi-argiak bidaldu deusku. *Revue internationale des Etudes Basques*en 27. urteko XXIV idaztia. I. zenbakian argitaratua dogu. Kizkin zer dan be askok ez dau jakingo. Kizkin azaldu nahi dauanak erderaz *célula* dasake. Gai sakon hau euskeraz erabili daikegula be ez genduan uste, antxinatxu ez.

Zaitegi jaunak gai honeek euskeraz erabilteko dohaia badauka. Olabideren idazti ederretik hartu daroaz gizasoin izen gehienak. Eta jakintza gaiak ondo orraztuak daitezana, Pujula, Barnola, Arbelaez, Amozurrutia, Cajal, Pi y Suñor, Carnoy eta Henneguyren idaztiak arakatu dauz.

Idazle on batek egin daiken lana da hauxe. Argi eta garbi esaten deuskuz *Kizkiñak* zer egin daroen gizonaren soinean. Gauza gitxi dakigunok hobeto ulertu dagigun, argazki politak jarri deutzaz idazleak.

Bihotzetiko eskerrak egiten deutzaguz eta holako lanetan iraun dagian, eupada sendoa jaurtiten deutzagu.

Olerki-eguna etxean dogu, Iparragirre zanaren omenez egina izango ei da. Olerki-egun honeek atsegingarriak jakuz, olerkari barriak agertu daitezana. Eusko elertiak laguntza asko behar dau, ezer egingo bada.

Jai handiak, hitzaldi azkarrak eta olerki-sariketak izango dira Urretxua herri txukunean. Han izango garanok, beste guztiak be dei egiten deutsegu, egun horretan haratu daitezana.

Aitzol argiak darabiltz holako lanak, geure aberri hau goraldur nahiez. Hemen Bilbaon egiteko ziran jai hau, hurrengoan Bizkaiko olerkari argia zan Arana Goiriren omenez egingo ei da. Poztuko ginake.

Arrasateko abertzaleak jai handia egingo dabe. Igandean, hatan be. Dragoiak jango ebezala arrasatetarrak, baina jan ezeze haginka be ez deutse egin. Horreek ekin eta ekin, herria abertzaletu dabe. Hizlari argiak eroango dabez: Agirre, Montzon, Iruxo eta Camarra andereñoa. Holako hizlariakaz geuk be zeozer egingo geunke. Gipuzkoa eta Bizkai erdi hantxe izango ei dira. Horixe gura geunke, haren poza poz betea dedin eta aberriaren eta aberriaren oncrako izan daitezcan batzar honeek.

Nok esan dau *Liberala* burutik eginda dagoala? Burutik ezeze tripetatik be bai! Ez jako bururatu, ba, gauza txarren bat! Athletici harrerea egiten joan ziran guztiak abertzaleak ei ziran seguru be. Han ez ei zan ikusi abertzaletasuna baino. Ostikolariak dirala *chusma* horren buruzagiak esan deusku.

Zentzuna noz helduko jako izparringi horri. Bai, ba, espainiarren ikurrin bat be ez zan agertu eta horrek minduko eutsazan tripak eta burua. Geu pozik gagoz, ostikolariak be abertzaleak diralako, baina tantorik onena ez dogu sartu Espainiako atean. Noiz izango da?

Espainiako demokratikoak hasi dira eurenak egiten. Karlataren aurka ikaragarritzko barrabaskeriak egin daroez. Geu ez gara karlatarrak, baina uste dogu, besteak aina hezkundea¹⁴ daukela euren zabalkundea egiteko. Agintariak ez dira batzuentzat, danentzat baino. Holako basatikeriak egin daroezan herrian, ez dago lotsarik, ez krintzarik!

¹⁴ Hezkunde: hezkuntza.

Largo Caballero, fazista egin jaku. Eta egin jake, geurea ez da eta. Holako gizon argirik ez dogu geuretzat gura. Baina barrabaskeriak daukez Espainiako sosolistoak. Batzutan herri-agintaritzaz gorabeheraka darabile; holangoak, osteraz, herriari ostikada bat emoten deutse. Mussolini eta Hitleren antzeko-antzeko bihurtu dira.

Espainiarrak zer ziran antxinatik genkian: zigorra esku baten eta bestean ugelak. Burtzain batek legetxe daroe herri gaixo hori!

Lauaxeta
1933-07-01

ZIRIKA

Bostehunekoa heldu jako Montzon adiskideari. Bizkaian oinak imini ordukoxe, bostehuneko bat jausiko jakolakoan gengozan. Bai horixe, hemen sartzen danak zerga handia ordaindu behar dau! Gure Sevilla azkarrari ez jako inor igaziko. Montzonen bostehunekoa, ostera, jaurlariarentzat baino hobea litzake Gipuzkoan hondatu diranentzat. Campos Eliseos antzokian egin eban hitzaldia dala-ta bostehun horreek epaitu deutzaz. Han harek esan ebazanak baino gorriagoak esaten doguz egunero, baina bakean bizi gara. Euskadi zer dan eta zer izango dan esatearren ez jako inori buruko minik emon behar. Ez da halan?

Josu Bihotzaren eguneko multak dirala eta ez dirala, idazki polita bidaldu deutzagu Sevillari, baina jaurlari azkarrak ezer be ez deusku erantzun. Berrehun edo seirehun diranean, isilik egotea langorik ez dago. Hemetik aurrera guztiak gauza bat egin behar dogu. Multak badatoz, anei gizonen lepora datorrala.

Karlatarrak be hasi dira Gipuzkoako hondatuen aldez zeozer egiten. *La Constancian* idaztiz ez dira nahikotu. *Señorioko* buru danak orritxu bat zabaldu dau. Bakotxak ahal dauan eran aletxua emon dagiala, ba. Zegaitik? Ez ba bere karlatarrak garau bat ez dalako geratuko.

Olazabalek bere jauregi ederra emon dau txiroentzat. Haolan dinoe. Berak mendi punta-punta baten egingo ei dau barria. Uriolen bildur handia dauka.

Goyenetxeatar Andoni abertzale zintzoari jarri eutsen multaxu bat. Baina ordainduteko asmorik ez dauka oiez. Ertzainak heldu jakozanean, erantzun deutse bestaldera joateko, berak ezin leikela ingitxurik izenpetu eta.

Berehala joan jakoz beste ertzain batzuk eta atxilotu ostean espetxeratu dabe. Erregealdian jazoten ez ziran gauzak orain jazoten dira. Baina tira, pozik gagoz, artoa eta kereizak jateko askatasun handia daukagu eta. Behiak jagoteko be askatasun osoa ei dauke baserritarrak. Ze demonino gehiago gura zeunkie ba? Nahiko bere ez da, nahiko?

Mariano Salaverria nor dan ez dozu jakingo. Neuk be ez! baina noizean behin idazten dau. *La Voz de su... amo* edo dana dala-koan idatzi daroaz, inok irakurriko ez dauzan idazkiak. Idazle aipatu honi bururatu jakona, Salomon berari be ez jakon otuko. Gipuzkoarako araudi edo estatuto bat asmau behar ei dabe. Bizkaia bere etxean eta Gipuzkoa berean. Bakotxak bere araudia. Eta honetan errazoiia egin deutso olerkari gorengo batek. Lausotuta ez bagagoz, olerkari hori Arresetar Emeteri dogu. Txoketan jat hori entzutea!

Royo Villanova abertzale bihurtu jaku, eusko abertzale! Nok esango eban holakorik? Katalandarra hamaikatxu ziri sartu eutsen, ba. Baina euskoakaz beste era batera portau gura dau. Ahal-dun-batzarrean argi eta garbi esan dau euskotarrak ezin maite geinkela Espainiako Erkala. Errazoi galanta.

Ia abertzaleak omen bat egiten deutsagun Royo horri. Ederra izango litzake, Espainiaren batasunaren alde hitzik egin dauanari omena egitea. Entzuteko be entzuten dira eta!

Eta, ez zoaz Gernikara ala? itaundu deust lagun batek.

Zetan Gernikara? Zugatzari kuskurrak sortu jakoz ala? Ezkurrak badakizu txarrientzako janaririk onena dirala.

Hau esan baneban, esan neban. Haren hasarrea eta bitsa. Beste behin ez neutsala halangorik esango eta kontxo eta montxo

hasi jatan. Izan be karlatarrak doaz Gernikara. Berrogei mila batzeko asmoa dauke.

“Fueru santuak Euskal Herriari opreziduko deutsez”. Bazkuntzez be berba egingo dabe fueruen ganean. (Hoba tribuna ganean).

Neskazarretan be joango ei da zortzi mila. Dote ona badauke, tira!...

Mungiako enperantzan. Dantzan eta dantzan dabiltz gazteak. Maketo batek dirautso emakume bati:

—Dantzan lagunduko deustazu?

—Ez, zugaz ez dot dantzarik egin gura.

—Lehen egin dozu beste horregaz, ba.

—Bai, baina hori euskotarra da eta zeu ez zara.

Birau handi bat jaurtita, han doa kanpotarra. Emakume horrek zeozer merezi dau. Holan egiten da!

Lauaxeta
1933-07-02

ZIRIKA

Txapel-okerrak ez dagoz bakean. Gizonak erailten dabezanean, pozik dagozala dirudi. Hamaikatxu gizon erail izan dabez, baina ez dira nahikotu. Ahien-mintzean erail deuskue abertzale bat. Mutil gazte eta trebea. Pajares eta Gutierrez abizenak eukazan, baina euskotar zintzoak legetxe jokaturten izan da geure Euskadi honen alde.

Txapel-okerrak sutots bategaz betiko erail dabe. Gizonak erail eta piztiak aske itxiten dabezanok, lehenago be gorrotau doguz, baina orain areago. Mendigoizale gaztea betiko hil da eta haren gurasoak negar egingo dabe, baina txapel-okerrai ardurarik ez. Goian bego aberkide ona.

Pajares gaixoaren hobiratzera joan gintzazanean burdi bitan etozan asaltoko zerok. Eta beste beribil batean, ostera, ertzainak. Gizonak erailten joan bagina be, horrenbeste ertzain eta koplak ez ziran etorriko.

Gorpuari lagunduten be ez euskuen laga. Bitxabalean zehar arin baino arinago joan behar izan genduan, ertzainok orpoz orpo etozalako. Eta horren aurka hitz egin ezkerotan, hasarratuten dira.

Mutil gazteak erail eta gorpuak hobiratzen laga ez egiteko lain diran ertzainok, zetan ete dagoz, ba, gaizkinak atrapauteko? Zierbanan erre dabez hiru ertxadon eder, baina gaizkin bat ez dabe lotu.

Oraintsurengo basatxono¹⁵ ederra erre dabe. Hara joan gina-

¹⁵ Basatxono: baseliza.

nean ketan egozan hageak. Agintaririk etorri ete zan? Bai zera! Txinel gaixo bat baino ez ei zan agertu!

Abertzaleen aurka egin eta asterokoai urteten itxi ez egiteko, astirik be ez dauke. Gero gaizkinak eta lapurrak aske dabiltz. Hobeto egingo leukee hareen atzean ibiliko balitzaz, geure atzean baino.

Aste honetako *Jagi-Jagi* irakurri dogu. Txaideetan hotsik entzun ez arren, han-hor saldu daroe. Mutil horreen halakorik ez dago. Espainiako jaurlariak bat egin arren be, asteroko horrek urtengo dau. Bai horixe.

Garbizu hori *asaltoko* egin dabenetik gauza onik ez dago. Telak salduten irauñ baleu hobe izango jakon. Emakumeai lepoa berotuteko ona ei da eta kontu kontalari ibilteko.

Irigoyen ospetsua hil jaku. Argentinako gizonik azkarrena izan zan. Laterri haretako lehendakaria ezeze, gizon entzutetsua zan. Eusko odoleko gizon argi honek geure abendea goraldtu dau bere ekintza bidez.

Amerika aldean izan diran euskotar gizon gurenen artean haxe be zenbatuko dogu. Bere aberriaren gorabehera gorrietan askok eta askok jarraitu deutse.

Artola jaunak zer esango dauan jakin gurarik gagoz. Katalandarrak eta euskotarrak jaurlari horren esamesai jaramonik egin barik, euren harpideak zabaldu dabez. Oraingoan Katalunia geure adiskide agertu jaku. Poztuten gara sorotsi hori dala-ta. Esker onekoak garan ezkeru, goratuten doguz honetan, baina itxaropen larregirik ez daukagu eurengan.

Euskadi Buru Batzarrak urrutidazki sendoak bidaldu deutsez hango ahaldun eta lehendakariai. Gipuzkoako hondamendian galdu diranai lagunduteko jolasketa handiak egingo ei dira Bartzelonan. Ondo baino hobeto egina.

Corazarre bat egin deutse txapel-okerrai El Ferrolen. Hango herriak maite ei dauz txapel-okerrak. Oturuntza ostean hitzaldi gogoangarriak entzun ei dira areto nagusian.

Pajares gaixoaz ez ete ziran gomutau? Oturuntza osteko jaki ona izango zan gazte horren gorpua. Hamaikatxu gizon jausi dira txapel-okerron iskilupean eta gorazarreak egin daroatsez. Holakorik ez da ikusten Espainian baino!

Prieto horrek ez dau gura espetxean dagozan askatasunik. *Amnistia* eta koplak beragandik urrun dagozala erantzun dau. Gizon horrek ez dauka bihotzik. Milak eta milak dagoz espetxeetan sartuta, baina Prietori ardurarik ez, bera ondo dagoan ezkerro besteak lebarik bere ez.

Holakoxeak dira beti ezerez izan diran gizonak. Zeozer diranak harro baino harroago dabiltz eta zoritxarrean dagozanaz ez dira gomutaten. Aldiak ez dagiala bihurkerarik egin gero.

Bartzelonako izparringi baten irakurri dogu: Madrileko euskotarrak Bilbaoko euskotarren aurka. Baina Espainiako ostikoketaren txapelketea edo Euskadikoa dogu? Gizaxo hori, zagoz isilik; Teoticok jakiten badau jakin zer idatzi dozun, galduta zagoz!

Zeure bizitzan ez dozu beste horrelakorik idatziko gero!

Bizkaiko jaurlariak ez ei dau multa gehiago emongo. Hori entzun doguneko, dantzan hasi gara, baina geure poza urak eroan dau. Aitearen eta semearen egin baino lehenago bostehuneko bat leporatuko deusku.

Fatras jauna bakaldar: bihurtuko ei da eta Prieto oster a fraile sartuteko asmoetan ei dabil.

Bermeoko *udal-isuna* kendu baino lehen itsasoa be legortuko dala esan deuskue eta azkenez, Olazabal jauna *deun* egingo dabela. Txadonik handien baten iminiko dabe, integristak otoi dagientzat.

Lauaxeta
1933-VII-6

ZIRIKA

Bilbaoko udaletxean bakerik ez dago. Basurdeak sartu dira-
netik errua eta hagin-hotsa baino ez dira entzuten. Azkenengo
batzarrean be, holako zaratak izan dira eta guztia barriz euskerea
zapalduteko asmoz.

Aldun-isun diran guztiak be han batzen dira euren hagin
zorrotzak erakutsi nahirik. Bilbaon diran ertzainak eta seinzainak
euskerea jakin behar leukiela edonok dakus, baina kanpoko
basurde horreek ez dabe holakorik entzun gura.

Sevilla jauna abertzale bihurtu jaku! Ezetz? Bai gizonak, bai
horixe. Abertzaletasunak gura dauana, Sevillak be gura dau gero.
Euskotarrak nagusi izan daitezala, esaten dogu abertzaleok eta
Sevillak horixe dirausku. Soriako abertzale zintzoa dogu. Horre-
gaitik Bizkaiko aldundi-isunean Perez, Turiel eta Frantzias abi-
zendun gizonak jarri deuskuz. Gaztela aldeko gizonak, Sevillaren
aberrikoak. Horra zelako abertzale zintzoa dogun jaurlaria!

Itñaki deunaren egunean egingo diran jaiak, jai ospetsuak
izango dira. Betiko eran. Baina beste urteetan izan ez dan ikuski-
zun bat eukiko dogu aurten. Zer izango, zer ez da izango... Ezetz
igarri! Aizkolariak ete? Ez, ez dira aizkolariak! Harri-jasotzaileak
ete? Horreek bere ez!

Ze demonino izango ete da, ba? San Mames zelai ederrean
ikuskitzun gurena izango da. Han izango doguz *asaltoko* mutilak!
Ene bada ta horretaz ez gara gomutau bere egin! Egia dok eta!

Txapel-okerrak erail dabon Pajares gaixoaren gorabehereaz zerbait esan dan Leizaola jaunak. Madrilén hitz egin dau eta ondo hitz egin be. Baina Fatrasek erantzungo ei deutso.

Fatrasen bihurkeriarik ez dau erakutsi, horraitino, Leizaola jaunak. Haren zapokeria galantak agertu ziran Usansoloko jazoe-rak zirala-ta. Oindino gizon onak eta txarrak dagoz.

Eusko Alderdi Jeltzalearen sorotsiak mueta guztietako gizo-nentzat dira. Gipuzkoan hondatuta geratu diran guztiai lagunduten deutse eta ez hemeko ezkertarrak dagien legez, eurenak diranai baino emon ez.

Abertzaleak zer diran holako egunetan ikusi daroagu, eta ondo ikusi daroe beste ezkerreko piztiak bere. Ahal izan dabezan eragozpenak jarri deuskuez harpideak zabalduteko, baina halan eta guzti be, abertzaletasunak aurrera eroan dauz bere asmoak eta milak eta milak batu doaz laurlekotan. Artolak dauka horrek zer esango dauan jakin gura geunke.

Hemeko jaurlariak esan dauana badakigu: “La sardina nacionalista al ascua de la desgracia”. Sardina hori jango ete dogu?

Madrieko akeitetxeetan kendu ei dabe eskupekoa. Hori halan dala dinoe, baina ez da jazoko holakorik. Eskupekoa kendu baino lehenago burua kendu daikegu. Morroi guztiak akeita ekarri ostein zeuri begira daukazuz. Zeozer gura dabe eta zeozer hori eskupekoa dogu. Orain arte be sarri entzun dogu kenduko zala, baina horreek koplak dira. Akeita karututeko asmakizunak.

Abizen luzeak ei daukaguz euskotarrak. Hori dinoanak ez daki zer dinoan be. Oraintsu ezkondu dan gizon baten abizena ikusiko dozumean, esango deustazu gauza ona zer dan. Madras, Indian ezkondu da gizon hori eta salerosle aberatsa da. “Kamaksihi Satyanarayana Varaprasada Veera Venkata Lakshimiarasihma Rao Pantalu Garu” ez da abizen makala. Bere emazte gaixoak *K* deituten ei deutse. Abizen hori eta *Euzkadin* agertuten diran lerro

okerrak, bardinak dira edo. Gero "Iturriberrigoikoerrotakua" eta holakoakaz etorriko jakuz leloak. Madrasko salerosle horrek esango deutse.

Oregon laterrian erabagi lotsagarria hartu dabe. Baratz ederrak daukezanak, bedartza handiak bere euki daroez. Bedarra lango edertasunik ez dago baratzean. Baina gauzak karu dagozala-ta, baratz-otseinak kenduko dabez eta euren ordezt hiru edo lau behi imini. Behiak lakorik ez ei dago bedarra kenduteko. Zarata handiak dira erabagi hori dala-ta. Baratz-otseinak hasarre gorrian dagoz eta behiak, ostera, pozarren.

Izparringietan idazten diran gauzak gauza barregarriak dira. Ferroleko batek dirausku: Zorionez alaba bi eta seme bat ludira ekarri dauz Rios beharginaren emazteak. Hiru seme-alaba ekarri deutzaz andra horrek eta langile bati ganera. *Zorionez* esango deusku gero izparringi leloak!

Bizkaiko jaurlaria Madriletik dogu. Atzera ez dala etorriko entzun dogu eta pozik gagoz. Ez gara egongo ba! Bai horixe, Sevilla ez jaku begiko eta! baina guzurra izango ete dan bildur gara. Orain arte bere holako hitzak entzun doguz eta gero lehengo eran geratu gara. Urian entzun doguna, behintzat, hementxe jarri dogu. Sevilla ez datorrela gehiagotan honantza. Hori egia balitz!

Lauaxeta
1933-VII-7

ZIRIKA

Madrileko txaidean jazo dan hau, barregarriena dogu. Hango gizon bi joan doaz txaidean zehar. Akeitetxe baten jazarri dira eta euren ondoan, barriz, euskotar bat. Erderaz eragoioen biak: katalandarren eta balentzitarren elea berehala ikasi daikezu, baina euskotarrena, euskotarrena ezin ikasi izan eban txerrenak berak be.

Kontuizu: euskeraz oihu egiten dabenean “Gora Euskadi askatuta” hauxe esan gura daroe: Gora, *viva*: Euskadi, *Cristo*, eta askatuta, *rey*. Geure euskotar lagunak hamaikatxu barre galant egin eban hori entzutean.

Euskerea dan gatxa erakusteko adibide onena jarri eban madrildarrak.

Begoñako ertxadonari sua emon gurarik Barrabasaren semeak diran espainiar batzuk ibili dira. Neskutzaren txadon eder horri be sua emon gura deutse kanpotar zikinok. Bizkai guztiko semeak jagi beharko ginateke holako gaizkinak erailteko. Esker-rak Goikoari ezer ez zan jazo, baina jazo bazan be gaizkinok aske geratuko ziran. Ez dago zuzutsarik ez kalabazik.

Bermeoko udala lekuratu dabe, bere lekuratu. Leku-uzte kaltegarria eragin eutsan Amilibiak, ez berez, Bermeoko kazikeai atsegin emotearren baino. Orain zer ete dinoe kazike lotsagalduko horreek?

Noiz edo noiz zuzutsa egin dala esan geinke. Bermeoko aberzale gaixoak, pozik baino pozago egongo dira orain. Bai behin.

Hainbeste atsekabe eta nahigaberen artean holako pozalditxu bat behar eben. Baina abertzaleen udala ikusi baino txerrenaren adarrak ikusi gurago dabenak, ez dira bakean geratuko eurenak egin arte. Lehenago bakaldarrak ziran lelotzarrok, orain erkaldar bihurtu dira beti agintari izateko asmoz.

Arrantzaleen emakumeak dantza ugari egingo ei dabe aur-tengo Eupemi deunaren egunetan. Geu be hantxe izango gara holako izpar ona *zelebratzeko*. Han edo hor emongo deuskue jaten eta. Berdelak ez badira be...

Igande guztietako jazoorea, igande honetan be jazo da. Sesta-on izan dira tiroak eta zaurituak. Ezkertar barrabasok beti dabiltz tiroka eta gizonak erailten. Bai, ba, inok ez deutse eragozpenik jarri gura eta.

Abertzaleen hitzaldi eta batzar ostean ez zan ezer jazo, baina gero hitzak zirala eta ez zirala, errieta eta burrukea sortu zan. Abertzale bi zauriz josita geratu dira. Sosolistoek lana izan da oraingo hau. Abertzaleen hitzaldian hamabost milatik gora batu ziran, bai?, eta sosolistoak iragarrita euken hitzaldia atzeratu beharra izan eben. Tripak jaten egozan eta egokiena eretxi jaken tiroka hastea. *Asaltokoak* han ziran, baina trankil eta beti barre egien. Neu katxeau ninduen behintzat.

Larunbatero jazoten jakona *Jagi-Jagiri* jazo jako. Asteroko horreen zain dagoz Bilbaoko ertzain guztiak. *Asaltoko* burdi bi eta mila ertzain batu ziran Gran Vian. Eta hainbeste jagole zan toki-tik be, urten zan geure asteroko hau. Ez dakigu zer demonino egin daroen mutil horreek ertzainai kuku egiteko.

Zenbaki gitxi agertuten diran ezkerok, hogeit edo berrogeik bakotxa irakurri daroe. Horrelan guztientzat dago. Jaur-lariak be pozik irakurten ei dau asteroko begiko hau. Ondo dago, zeozer geratuko jako.

La Liberala Vilvaokoak dirauskunez, paristarrak burutik eginda dagoz. Ez jatzuz hasi ba, gizonen arteko nor ederragoka.

Orain artean emakumeak baino ez ziran ibiltzen holako lelokerietan, baina gizonai be atsegin ei jake nor ederragokea. *Monsieur Gigolo* hautu dabe, ba, emakume antzeko gizon-erdia dan bategan. Emakumeak baizen apainduta eta uleak orraztuta joaten badira gizonok, ludia konponduta dago. Txerrenak zer egin ez dakianean buztanari eragin, esan daroe...

Ez dakizue nori, baina gorapen batzuk egin behar deutsadaz bati. Zuek ez zaree gomutaten, baina geure artean dogu *euli* adiskidea. Udako lagunik onena eulia dogu. Batez be burusoil diranen lagun kutuna da.

Euli jauna agertu jaku etxean eta kanpoan. Noizean behin mahairaino agertzen jaku eta zukura jaustea be atsegin jako. Belarri edo sur-puntan jarten danean arerio gaiakoz, baina errazoi barik. Euliak maite gaitu eta geugana dator. Udaroko euli adiskideai agurrik samurrena egiten deutsegu eta eurekaitik esaten diran gaiztakeria guztiak guzurak dirala azalduten dogu.

Noizean behin platerera jausten dan arren, euli jauna gizon ona da. Oraingo ezkertarrak baino hobe bai.

Lauaxeta
1933-VII-11

ZIRIKA

Bizkaiko jaurleri ponpoxa etorri zan unean gauza guztiak arteztuko zirala-ta pozik gengoan. Haren hitzak entzuki itxaropena bihotzeratu jakun! Baina hitzak ederrak diran neurrian bakotxaren ekintzak ez dira egoten. Beti ez behintzat. Eta Sevilla horri be, beste horrenbeste jazo jako.

Asmo onak ekarri ebazan arren, ezerezean geratu dira. Garatzai aurrerakadea egingo eutsela? Lehen baino beherago dagoz. Bizkaiko gizerailketak eta iskilu-hotsak deuseztuko ebazala? Inoiz baino erailketa gehiago dakusgu.

Horri esaten jako: *frakasua*. Eta frakasau daben gizonak zer egin behar leukien, antxinatik dakigu: jauraltza itxi eta etorri ziran bidetik atzera joan. Odol lar isuri daroe Bizkaiko semeak bakez egoteko.

Gaizkin bat ez dabe atxilotuten, lapurrak eurek gurako leukien baino askatasun ederragoz ibili dabiltz eta egunero hogeta hamar mila lapurketa egin daroez. Garatz arazoak ikastera doa Sevilla jauna, geu poztuko gara eta.

Nok esan dau? Nok ez dau esan? Eusko Ekintzako abertzaleak izan ei dira Sestaoko gaizkinak. Hori dinoanari mihina ebagiko geunskio. Oindino ez dogu eusko izatea zein dan galdu.

Espainiar guztien leloa ikasi dabe Sestaoko gaizkinak be: ino-ri errua emon eta kitu. Baina holako gaiztakeriak egiteko eusko odola barik espainiarren aiherra euki behar da. Guzurrrik ez dogu

sinistuten, bai?, eta oraingo guzur hau bere ez. Espainiarrak izan dira gaiztakeria horren egileak.

Neure bizian jazo ez jatana jazo jat oraingoan. —Zer jazo jatzu, ba? —norbaitek itaunduko deust. Ama hil jatzu, ala? Ez holakorik, Goikoari eskerrak. —Mila laurlekoko ingia galdu dozu? —Neuri ez jat mila laurlekoko ingirik galtzen, ez daukadalak. Zer dan? Katxeau egin nauela. Sekulan ez dot sentidu holakorik, baina igandean *asaltoko* batek esan eustan: —Mesedez.

Eta goitik beheraino igortzi ninduan. Aldean zer neukan? Euskadiko ikurrintxu bat, hiru laurleko, ingi zati batzuk eta arkatza. Besterik ezer ez.

Jaupari batek emon deustan ingitxua arin irakurri dot. Gazteizen izango dan *Gran Asamblea de Cuestiones Sociales*era joateko deia zan. Ez dot barre gitxi egin ingi hori dala eta ez dala. Ze arraio (holantxe, arraio) gura ete dabe jaupari, kanonigu eta garaitiko horreek? Lau edo bost hitzaldi eder egin ezkerroan gizarteko arazoak arteztuta dagozala uste dabe? Bai zera. Eusko Langileen Alkartasunari eragozpenak jarri eutsezan gizon horreek, hitzaldi luzeak, eta berbaldi samurrak egingo dabez, baina ezer ez. Hamaikatxu lelokeria eder egin daroe. Gazteizera orain ez noa, baina joango naz *erromeriak* diranean. Batzar horretan baino zeozer gehiago ikasiko dot bertan.

Sevilla horrek gura dauana esan daroa, Sestaoko herrian izan genduan batzar ikaragarrian notin gitxi izan zala dirausku. Tira ba, sinistu egin beharko jako. Jauriariak eta Goiko Jauna bat ez badira, guztia dakie eta. Hamabost anei edo mila bat diran tokian notin gitxi badago, bostehun batzen diranean, zer esango dogun ez dakigu.

Sevilla eta beretarrak gitxigaz asko eta askogaz gitxi egiten dakie.

Perez Madrigal euki dogu Bilbaon, baina inor ez da konturatu horrezaz. Hemeko izparkariak zetan dagozan ez dakigu, lotan edo ez badagoz. Ahaldun ospetsu hori Bilbaon izan eta tautik be ez deuskue esan.

Eta zetan etorri da, ba, Perez Madrigal? Sinistu be ezin zeinke. Oso eskumar bihurtu ei da gizon hori eta eskuma aldeko ahalduakaz batera alderdi barri bat eratu gura ei dau. Ahaldun-batzarrean hainbeste basurdekeria egin ebazan hau eskumaldekoturik dabilela jakitean, barre-algarak egingo dabez.

La Liberala izparringian dirauskunez, Castron izan ziran Sestaoko endore eta garaitikoak. Eta igandean uri haretan izan zan hitzaldia gorabehera nasai joan zan eguna igaroteko asmoz. Galdakanoko endore jaunari leku-uzte eragin eutsan jaurlariak, Usansoloko iskanbilak zirala-ta. Ez ei eban bere arlorik bete. Baina igandekoagaitik ez deutso ezer egin Sestaoko endore horri.

Cero zuzutsa-zaratakaz etorriko jaku. Hamaikatxu gauza entzun behar izaten da eta.

Lauaxeta
1933-VII-12

ZIRIKA

Zortzi egun iraungo neukez barreka geure Sevilla ospetsuaren gauzak dirala-ta. Iskiluakaz atrapau dabez sosolisto bi, baina sosolistoak diralako ezin eroan daikeez espexera. Zer egin? Sevilla horren buru argiak laster erabagi dau: iskiluak eroateko baimena ei euken. Noiztik? Antxinatik.

Residuos de licencias ei dira! Neure aititaren etxean dagoan karabina zaharra hartu behar dot eta kalez kale joan. Baimena badozu? esaten deustanari, badakit zer erantzun: Karlatarrak gudaldiko baimenaren *residuos* dira. Orain arteko jaurlariak oihu egiten izan dabe: iskiluak eroateko baimenik nok kenduteko asmoz? Toki onean jagok gure Mari, zugatz ganean eta gonea mirri.

Ukondoa sartu dau oraingoan. Bizkai Buru Batzarrekoak atxilotuta euki dauz ordu luzeetan. Zegaitik? Berak be ez daki zegaitik, holantxe otu jakolako baino. Espainiako legediak ez ete dino, ba, inor ezin atxilotu daikela jaurlariak, epailearen eskuetan imini, bai, ostera?

Hori egia izango da, Sevillan edo, baina Euskadin ez dago holakorik. Hemen gura dabena egin daroe eta kitu. Epaileak, barriz, errurik ez dau aurkittu BBBkoak argitaratu eben idazkian. Umeak lege txantxetan ibili gura dau Sevilla ospetsuak.

Jagi-Jagiko mutilak argitaratu daben oharrak hamaikatxu barre eragin dau. Gran Vía osoa notinez egoan atzo. Zer zan, ba?

Asteroko hori dala-ta hogeta lau ertzain eta *asaltoko* burdi bi han ziran. Espainiako legediak aginduten dauanaren aurka egin gura dabe edo. Bitartean geure lapur zintzoak han-hemen ostu daroe. Eta eurek gura dabena ostu be gero.

Areitioaurtena be espexera eroateko asmoa dauka. Zer egin dauan? Ezer ez. Sevillak eta sosolistoak gura dabena ez daualako egiten espexera daroe. Hori ez da erru handirik, ba. Ez da izango zuretzat, baina jaurlari onentzat gehiegi. Hamabost egunerako espexea emon deutso.

Lapurra izateko, balio handiko gizona izan behar da. Edonok ez dau balio lapurretan ibilteko gero! Euskotarrak ez dira gauza eta espainiarrak jatorkuz. Honeek dira mutilak lapurretan! Baina beti ez jakez gauzak ondo urteten. Atzo be igon ziran teilatu batera, baina ertzainak ikusi ebazan. Sutots bat jaurti eutsen gure mutilak eta arinka hasi ziran, baina gabaz eta argi barik gitxik ikusi daroen ezkerro, lehiarrezko zulo batetik jausi ziran landolera. Hirurak zauriz josita geratu ziran. Eta abizenak? Collas, García Gonzalez eta Cantalapiedra.

Espainiarrak diran azkarrak holako lanetan!

Iparragirre zanaren omena gaur dogu. Geu be han izango gara, baina *Gernikakorik* ez dogu abestuko. Bazkalostean abestuten badabe ez gara jarlekutik jagiko. “Gernikako Arbola” abestu zein “Maritxu nora zoaz” abestu, bardin jaku.

Karlatarrak be omena egin gura deutse Iparragirre zanari. Eta abertzaleak bere bai? Hilda gero egiten deutsez holako gorapenak, bizi zanean, ba, gosez ebulan... Iparragirre zanaren antzeko asko geure txaideetan, arlote batzuk baino ez diralako.

Atarrene azkarrak *El Dían* idatzi dauan hau geure arauz dagoalako, hementxe iminiko dogu: *Idazle-batzarra* dala-ta.

“Ez naiz M.-dar G.-ren iritzikoa.

Nere uste txiroaz, orain sortu nahi dan euskal idazle batza hori jeltzale alderdikoa izan behar dau.

Beharbada uzkuertz, aberri, askatasun eta jeltzaletasuna gorrotatzeko euskera darabilten idazleak, idazle batza horretan ez. Holako batza, Euskaltzale, Euskal Esnalea, Eusko Ikaskuntza edo Eusko Pizkundeak sortu bezate.

Euskeraren alde beti eta beti, baina ez euskera dalako bakarririk, gure Aberriko zorion eta askatasunaren alde jarrita baino.

Aberri omenduaz sortu nahi dan euskal idazle batza, JEL eta askatasun eguzkiak bero-bero egindako asmoz sortu bedi.

Hauxen da nere uste zintzoa.”

Euskeraz idazten dogumok, aberriaren elea dalako baino ez dogu idazten. Eta nekatuta gagoz beti abertzale ez diran hiru edo laugaitik geure aberriari ezetz egiten. *Aberri* azkarra, abertzale zintzoa izan da beti, idazle ona, baina abertzale hobea. Eta geure aintzarik handiena abertzale izatea da, ez idazle izatea. Gai honeztaz zerbait esan beharko dogu.

La Liberala izparringiak ez dira usku tautik be BBBkoen atxilotze horretaz. Etxean ez ei deutse itxiten eta! Ezpabere eperdiko galantak emoten deutsez Prieto horrek.

La Liberalan idazten dabenak, haziera oneko mutilak dira.

Lauaxeta
1933-VII-16

ZIRIKA

Mañariko harkatzak ikusteko gogo bizia ei dauka Teoticotxu horrek. Anbotoko anderearen aurpegia zelakoa dan jakin gura leuke. Horranta doanean, *Mañariko* adiskide horrek ez egiozu lagundu, bestela bostehun laurlekoko isuna jarriko deutsu.

Batzokiaren jaubeari be galena jarri deutso. Horko erreka artean dabiltzan laminai be beste horrenbeste egingo deutse. Teoticozen gauzak eta Mañariko endorearenak bardinak dira.

Igandean ez ei zan geratu ardaorik be herri horretan. Egarrri galanta euki ei eban endore horrek! Don Carlos datorrenean zer emongo deutso ba?

Abertzale batzuk espetxeratu deuskuz. Ondo dago. Espetxera doan bakotzak lau geuganatuten dauz. Zabalkunderako biderik onena. Teotico horrek ez dau espetxea hutsik euki gura. Soriako mantekilea emongo deutsegu. Haxe jan ezkerroan ondo egongo dira.

Bilbaoko hondartzan ez gara egoten inoiz, baina bart heldu ginan. Egurats ederragorik ez dogu ikusi aspaldion. Eresbatzak inondiko zaratak erabili ebazan eta azkenean eusko eresi bat jo eban.

Eusko eresi bat entzun genduanean ikaratu ginan. Idia hegaz ikustea errezagoa dozu eusko eresi bat entzutea baino. Erkorekari zer jazo jakon ez dakigu, eusko eresia joteko agindu dau eta.

Mila asko ziran entzularien artean eta eusko eresi hori amaitu zanean, sekulako txaloketea entzun genduan. Bigarrenaz jo

eragin eutsen. *La maja* edo antzeko abestiak baino gurago dabez euskoenak. Ikasiko ete dabe? Ezetzean gagoz. Cuencan bizi bagina lez hemekoak egon dagoz.

Madrialeko izparringiak jarri dabez San Mameseko argazkiak. Han izan ziran ezpata-dantzariak agertu dira *Ahora* eta *ABCn*. Ikaratu gara. Zer eskatuko ete deuskue hurrengo? Izparringi horreek holako gauza bat egiten dabenean dirua eskatuten dabe.

La Liberala isil dago. Abertzaleak ez dau ezer gura, baina abertzaleen kontuak ez badakarz, granorik ez da salduten. Zer egingo? Sakelean ez dago dirurik saltzen ez danean.

Baina *La Liberalak* zer egin badaki: zineko *izarren* argazkiak imini daroaz. Bilozik dagozanean pozik iminten dauz. Bere irakurleai jatekorik ez deutse emongo, baina begiak asetzeko aragia ugari behintzat.

Gandi espetxeratu dabe. Agur egiten deusagu. Aberri baten askatasuna gura dauan gizon hori geure anaia dogu. Ludi osoko abertzaleak anaiak gara. Ingalaterra guztiak baino gehiago balio dau gizontxu horrek. Baina Gandi bakarrik ez da izan, bere emaztea be espetxeratu dabe. Eusko emakumeak urrutidatz bat bidaldu behar leuskioe emakume horri.

Madrialeko ahaldun-batzarrean *Viva el fascio* hots egin dabe. Espainiako kontuak dira horreek. *Viva el hambre* esan baeben, bardin geuretzat. Erkaldarrik ez dagoala Espainian dinoe. Euskadin bere ez, eusko abertzaleak kendu ezkeron.

Olazabal jauna aspaldion isilik dago. Zerutik ei dabil Urtzi jaunagaz hizketaldi luzeak egiten. Ekaitz gorri bat noiz izango dan jakin gura dau, mendi tontorrean *txaleta* egiteko.

Gipuzkoako nekazarien aurka demandea asmatu nahi dau. Gotzainari itaundu dagiola zer deritxan.

Udea dan ezkeru alperkeriak jo gaitu. Uger egitera goaz, ziri-
kada honeek bertan bera itxita.

Lauaxeta
1933-VIII-4

ZIRIKA

Demonino-demoninea, ikereak jo gaitu! Galizia-Katalunia-Euskadiko gizon argiai egin deutesen harrerea ez da txantxetako harrerea izan. Txapel-okerrak eta *asaltokoak* eurak be burua makurtu deutse. Teoticotxuk zigorkadaka erabili dauzan gizonak goratuak izan dira. Zer dinoan berak? Ezer ez. Isilik dagoanaren agoan ez da sartzen eulirik.

Katalunia osoan egiten deutsezan txaloak eta eupadak entzuten doguzanean, poztuten gara. *La Liberala* bera be barre-irrika dago. Libra bat mantekila bidalduko deutse Teoticotxuk Generalitat barruan jan dagientzat.

Izpar hau ez dogu jakin. Lehenago esan baeskuen *sikiera* be! Iñaki deunaren egunean Teoticori zer jazo jakon esan deuskue. Citroen eder baten joan jatzuz joan. Butron aldean askalduten izan ziran. Honantza etorri ziranean eperdiz gora jausi ziran Teotico, txoferra eta euren lagunak. Jaurletxean ezer dakientetz? Ezer ez. Beribila apurtu-apurtu egin zala, baina Bizkai honek dirurik asko dauka beste barri bat erosteko.

Araudia gora eta araudia beheara, hasi jakuz “radikalak, soso-listoak, erregezaleak, ezkerak, eskunarrak, behekoak eta goikoak”. Eta ezer ez giteko, horrenbeste zarata!

Hobe bañean itxiko baleuskio araudi gaixo horri, ondo zauriz beterik dago eta. Etzi batuko ei dira udal guztiak. Etzi-hurrengo ezer ez dagoala esango deuskue. *Gestorako gestore* horrecek hara

eta hona ibilteko erarik onena dozu. Arabako lau katu diran *radical* edo trasteak be araudiaren aurka dagoz. Karlatarrak legetxe. Danak dira izan be herri batekoak eta.

Esparza (Eladio) deritxon txotxolo horrek hitzaldia egin dau. Hitzaldi txarragorik ez dogu inoiz entzun. Badakizu zetzaz mintzatu dan? “Mitxeletak, txoriak, euliak, erleak, behiak, idiak, txahalak, txekorrak, oiloak, oilarrak, ogigaztaiak, kurlinkak, zozoak, urretxindorrak, biregarroak, ipurtargiak, moxoiloak, kokoak...”. Guztia jarriko bageunka, hogeta zortzi orridun izparringia behar izango geunke. Esparza horrek daukan adimena langorik ez dago inon!

Gipuzkoako herritxu bateko eztabaidak, *Inzarzu* euskal idazleak jartzen dauz: Ergoneko maisu jauna! Hitz hauek zuretako. Zuk, gure batzokiko dantzariak San Gregorioko Elizaren aurrean dantza egin zutelako, zer esan ziezun? “Eta hura al zan dantza egiteko tokia? Elizaren aurrean ez zala egin behar dantzarik”. Eta lehengo egumeko *karlisten* dantzariak non dantza egin zuten? Ez bakarrik Elizaren aurrean, baizik Elizari atze emanda. Gure dantzariak behin ere egin ez dutena. Elizaren aurrean ezeze, bajuan be egin daikie karlatarrak, Jainkoaren semeak ez al dira? Abertzaleok *masoiak* gara. *Bula partikularra* dauke gizon horreek. Olazabalek esango deutsu horretzaz.

“Eusko antzerti-eguna” asmau deuskue. Bildur gara bildur Labayenen tranpea ez ete dan; hori lako drama-egilerik ez dauka-gu eta pezetak berak eroango dauz. Edo *Aitzolek* asmauko eban. Drama ikaragarri bat egiten ei dinardu. Labayen edo *Aitzolek* lehengo saria irabazten badabe, tranpea izan dala esango dogu. Edo irizleen aurka hitz egin, beste batzuk egiten daben legetxe.

Gaixorik egoteko gogo bizia daukat. Gaixorik egon nahi? Batek esan deust eta baietz erantzun deusat hiru bidar. Nagike-

riaz beterik nago, bai? Eta hamar bat egun ohian banengo, ederto atsedenduko nintzake.

Baina gaixo hori ez dadila izan larregirako. Jan gura dodana, edan, ostera, ura izan ezik guztia. Ikertalditxu batzuk eukiko neukez. Adiskideen ikertaldirik ez, adiskiderik ez daukadalako. Baina arerioak helduko litzakez, berehala hil nadin be. Zorioneko gaixo hori helduko ete jat?

Donostiako abesbatzaren laguna nintzan. Orfeoi hori begiko jatan, baina orain arerio bihurtu naiako. Espainia aldean dabilen guztian, "Gernikako" besterik ez dau abestuten. Euskotarren eresirik onena kopla zar horreek dirala dirudi. Orfeoi hori karlatarena ete da, ba?

"Gernikako" entzun baino gurago dogu "Altza Felipe trunlala"!

Lauaxeta
1933-VIII-5

EGUNEKOA

Idiakez dala-ta

Getariako biztanleak egin dabena goratu daigun. Anei edo mila notinek euren izen-abizenak emon dabez Idiakezen alde zerbait erakutsi nahirik. Gipuzkoako udalai eskatuten deutesen hau, eskakizun ederra dogu. Zuzutsaren bila joan behar gara eta horretarako udalaren laguntza langorik ez dago.

Horn eta Leizaola jaunai eskerrak, zortzi urteragino laburtu deutesen zigor horregaz, ezin geratu geintekaz nasai-nasai. Baina Getariako notinak egin dabena goragarria bada, goragarria da benetan herritxu haretako udalak erabagi dauana. Euskadiko udalai eskatuko deutse guztiak batuta, Idiakezen alde lan egin dagien.

Lotsagarri hau jausi jakun ezkerre geure aberriaren ganera, atzindu behar dogu. *Asaltoko* gurdibil bi joan jakozan gizon gazteari, gaizkinetan gaizkinena izan bailitzan. Bide guztietan uste eben Cavalcanti buruzagia eroiela. Baina gaizkinak aske dabiltzan aldi honetan, gizon onak espetxeetan dagoz.

Geure ordua be helduko jaku. Une haretan egingo dogu benetako zuzutsa, herri honetan beti egiten izan dan lakoa.

Estropadak

Pasai Deun Joneko arraunlarien erabagia jakin dogunean, bihotza be poztu jaku. Hain adibide ederrak ez dira ikusten eguneroko! Mutil azkar eta goragarri horreek, benetako abertzaleak

dirala erakutsi deuskue. Abertzaletasuna ez dago hitzetan eta kopletan, eginkizunetan baino.

Donostiako jaiak dirala-ta, urtero estropadak izaten dira. Erregata horretan buru izaten diran mutilak, Pasai Deun Joneko gazteak dira. Hainbat bidar txaloak jo deutseguz Donostiako itsaso bazterran. Hareen lerdentasuna eta indarra! Hegazka eroaten eben batela.

Mutil honeek eta beste asko prest egozan Euskadiko estropada txapelketea egiteko, baina Artolatxuri ez jakon atsegin izan, bai?, eta galerazo euskun. Zegaitik? Abertzaletasunari deutsan gorrotoak holako erabagiak hartu eragiten deutzaz.

Orain jaietako estropadetan alde izan dagizan mutil honeek dei egin deutse, baina Deun Joneko estropadalariak erantzun ederra emon dabe: Euskadiko txapelketea egin arte eurek ez dabela parterik hartuko beste estropadetan. Gitxik goratuko dauz behar litzateken eran gazte zintzo honeek.

Euskadi osoko abertzaleak omenik ederrena egin behar deutsegu gazte horreei. Eta Deun Joneko gazteak ez dira izango bakarririk, beste batzuk be horixe egingo dabela entzun dogu. Orain zer esango dau Artolatxuk? Getariakoak, Oriokoak eta besteak hori egin ezkerroan, Donostiako estropadak galduta dagoz.

Gipuzkoa Buru Batzarrak erabagi behar leuken gauzea dogu. Zelan edo halan hori egin daikegu. Ikusiko dabe donostiarrak zenbat notin gitxiago batuko diran Igeldo inguruan.

Pasai Deun Joneko abertzale zintzoai geure agurrik beroena. Gora zeuek, Euskadiren seme zintzook!

Izparringia batu

Atzo agertu zan *Euzkadi*, ez zan zenbaki makala! Han idatzita etorri zanak tripetako min handiak egin eutsezan hemeko ezkertarrai, Eta egi hutsaz gero, ez guzurraz. Baina geure Teoticotxuk berehala batu eragin eutsen izparringia, bere aurkako ezer ezin jasan daikela-ta.

Jaurleri horrerri amen-amen esan ezkerroan ondo biziko gintzakez, baina abertzaleak ez gara jaio inoren menpean egoteko. Jazarpen guztiak erakutsi daiguzan, notin guztiak jakin dagiezan.

*La Liberal*ako piztitxuen urrutidazkiak ez gaitue ikaratuten, Perez, Ramirez, Palomares eta beste guztiak, maketoak diralako. Euskoak balitzaz, zerbait esango geunke, baina atzerritar batzuk ez dauke zetan sartu geure gauzetan. Sevilla baten alde holakoak dagoz Gomez, Espinosa eta abar. Hoba euren herrietan aginduko balebe, inoren etxean barik.

Galeuzka

Bilbaon izparringitsu bi alkarren etsai gorriak dira. Ezin ikusi dira, ezta-ezta ibai zabala euren artean dala be. Bata ezkertarena, bestea ostera eskumarrena. Tira, ezkertarrak eta eskumarrak nortzuk diran ezin ulertu dogu, baina espainiarrak darabilen hizketa honegaz geratuko gara.

El Pueblo Vasco eta *El Liberal* izan jatzuz adiskidetu diran izparringiok. Biak uste bat eta asmo bat baino ez darabile. Zelan diran gauza honeek? Ez dakigu zelan diran, baina ederto konponduten dira.

El Sozialista izparringiak argitaradu eban idazki bat berehala berrargitaradu eben, abertzaleon aurkakoa zan eta.

Pizti txarrak dira honeek. Ezkertarrak eta eskumarrak, guztiak berehala adiskidetuten dira geure ala egiteko. Zer itxaron geinke horreekandik? *Galeuzka* dala eta ez dala egunero gauza bat baino ez darabile. Bildur dira oiez. Baina oindinokarren entzungo dabez entzutekoak. Ez gara horreen ziki-mikiakaitik etxean geratuko.

Lauaxeta
1933-VIII-12

EGUNEKOA

Izparringien aurka

Izparringiak aterateko izan dan askatasunari oste-osteka asko jakuz. Geure hau ezin atera daikegu. Goizeko orduetan helduten dira ertzainak eta jaurleriaren aginduz dala-ta irarkolea hesitzen dabe.

Ludiko herri baten be ez da jazoten. Diktadura aldietan egiten diran gauzak Sevilla jaunak egin daroaz. Beretzat ez dago legerik, ez betebeharririk. Atzoko zenbakia be, bi bidar eroan behar izan genduan eta jaurleriaren ikurra edo seilua ezarri eutseneko, mila ertzain egozan prest.

Holan ezin jarrai daikegu. Izparringi honen ordezt jaurletxera joaten zanari aterik ez deutsalazabalduko esan dau. Tira, behar gitxiago eukiko dau. Baina inori ez jako laketu behar izparringi on baten kaltez hitz egiten. *Libelotzat* hartu gaitu. Eta hori ez! Benetako zuzutsa balego, epaitegira eroango leukie jaurleri hori.

Sevillari ez jako kezkarik sortuten. Egunero esan doguz berak egiten dauzan ezbeharrak, baina lehen baino nasaiago irauten dau. Aldun-batzarrean hots egin daigun izango dira bidegabeberia honeek edo...

Geure erruz jazoten jakuz gauza guzti honeek. Lege-arauz ibili behar garala, hau edo bestea egin ezkerroan bide okerretik goazela... Koplak! Aldun-batzarretan zarata handiak egingo bagenduz! Basurde artean basurdeak legetxe izan behar gara.

Jaurleri hioni ez deutse ardurarik emoten legeak, geuri be beste horrenbeste jazoko jakunean, orain baino hobeto ibiliko gara.

Bitartean galduta gagoz. Bizkaiko diktadura honen ala jazo daigun geure abotsa; bestela etxean zarratuta egon gaitезan.

Miramar jauregia

Gipuzkoarrai laztankeriak egiten hasi jake Prieto. Gizon hau ez da ikaratuten toki guztietan izan dauzan musturrekoakaz. Bakaldunarena zan jauregia emon deutse Donostiako herriari eta hortxe egoteko asmoz haratu da.

Bilbaora etorteko gogorik ez ete dauka? Hemen be beharko litzatekez holako jauregiak ba. Baina hemen ez dauka adiskiderik, gehienak arerio bihurtu jakoz eta.

Gobernuak bihotz ona daukala, esan deusku. Ez dakigu, ba! Geuretzako ez dau bihotz onik erakutsi. Prieto horrek hitzaldiak egiten badaki eta oraingoan be hitzaldi luzea egin dau, isilik egon ezin.

Baina jauregi horren ordeз ez ete dau zeozertxu gura? Prietoren faboreak beti gerokoa dauke. Zer bait eskatuko deutse; ahal-dun urten gura izan dau eta Donostia aldetik edo aukeratutea asmau ez badau.

Dana dala, Miramar jauregi hori Donostiarena zan lehenago eta orain be lehengo lekura etorri da, ez dau gauza larregirik egin.

Eguzkia, argi barik

Eguzkia argi barik dagoala esatean, harrituko zarie, baina egi hutsa da. Eguzki bat agertzen da Madrilen eta aspaldian ez dauka izpirik, ilunpean bizi da. Euskeraz barik erderaz bere izena jarriko dogu *El Sol*. Hogeи zenbaki baino ez dauz salduten eta hara jo eta hona jo dabil, nondik hedatuko dan.

Azaña jauna lango gizonik ez dagoala ludian esan euskun. Orain, barriz, Azaña lango lelorik ez dagoala. Azkenengo zenbakian *Galeuzka* dala-ta lerro lizun batzuk dakarз. Norenak diran ez dakigu, baina nondik dabilan ez daki "La alianza catalano-

galaica-euzkérica” idazten dauanak. *Euzkérica* hori eta Kristoren eskuetan pistola bi bardinak dira!

Eguzki horrek, ba, turuta joten dau. Espainiarrai adierazo nahi deutse *separatismo* gorria birrindu behar dala. *Patriotismo pedáneo* ei da geure abertzaletasuna. Bai, ba, eurek ederto bizi dira aberri aske baten, bai?, eta jopu diranak herrian ohituak dongetsiten dabez. Hobeto egingo leuke zatorrak lez lurpean sartuko balitz eta, eguzki izena daukan ezker, argi gehiago egingo baleu.

Kubako zaratak

Kubako matxinadak eta iskanbilak euki daben oihartzuna ez da makala izan. Ludi osoari zeozer jagokola eztabaida horretan dirudi. Machado buruzagiaren azpian bizi izan dira kubarrak, baina legekerietan ibili dan gizon horri be heldu jako bere ordua.

Habana osoan baketu dira notinak eta gudariak be isilik dagoz. Tamalez Ipar Ameriketako gudariak sartu dira, Kuba laterri haretako biztanleen bizitzak zaindu behar dabezala-ta. Ipar Amerikak bere agindupean gura leuke ugarte hori.

Céspedes deritxo orain hautu daben lehendakariari eta honen ustez Ipar Ameriketako agintariakaz batuago eta kutunago izan behar dira. Herriak, oster, hitz honeek entzutean bere hasarre bizia erakutsi deutso. Ez dabe ezer gura yankitarrakaz. Baina Kubako gorabeherak ez dira agintariakaitik eta garatzak hondatuta dagoz, bai?, eta hankaz gora jausi diralako gauza guztiak baino.

Inoiz senti ez dan lako gosea senti daroe.

Lauaxeta
1933-VIII-17

EGUNEKOA

Jaurlarikeriak

Pozarren gagoz, nonok ez dau uste izango baina. Euskeraz idazten dan lanik inok ez ebala irakurten eta gengoazanok, geure okerra zuzendu behar dogu. Euskeraz idazten dana eskotarrak irakurten dabenentz ez dakigu, baina Soria aldekoak joranez irakurri daroe.

Noz edo noz hasi dira. Beti geure ele hau zapalduten ebenak goratu nahi dabe eta izparringietako idazlanak irakurten hasi dira. Jaurlariak ulertu dau behintzat idatzi doguna, fiskalak be ulertuko dau. Irakurle bi daukaguz. Hirugarrena nor izan dan badakigu, baina isilik egongo gara. Aurrerantzean adorez jarraituko gara. Lehenago ez genkian norentzat idazten genduan. Beharbada geuretzako baino ez; orain ostera, irakurle batzuk be badaukaguzala-ta, pozik ekingo deutsalagu lanari.

Eta nok irakatsi ete deutso euskerea geure Sevillari? Zenbat kobretan dau? Sorian jaioa dan arren, euskotarren elea maite dauala erakusten dau. Holakoxe jaurlariak behar geunkez, baina jaurlariak bakarrik ez daitezala izan euskerea dakienak, maisuak, epaileak, notarioak, latariak eta beste guztiak be jakin dagiela. Geure idazlanakaitik zigortuak izan arren be, poztuko gara. Egutero idatziko dogu fiskalagana eroateko eran, baina mesedez ikasi dagiela euskeraz.

Adiskide ona emoten hasi jaku Sevilla jauna (Teótico). Baina ikusiko dozue batek be ez dauala ikasiko geure elea. *Auspotxuren* batzuk idoroko dabez euskeraz idazten dana erderatuteko.

Bestelako *propaganda* egin deust ganera. Madrileko izparringietan be irakurri dogu ezizena. Baina tamalez inok ez dau idatzi behar dan eran. Batzuk *Lagoceta*, besteak *Labaceta* eta abar. Bilbaoko izparkarien erruz neure ezizena hondatuten deuste. Neuk be tribunaletara eroango dodaz, besterik ez dabe egiten ba *cineko izarrak*. Beste honelako *denuntzi* bategaz Frantzian ezagutuko nabe. Eta horixe da gero gizonak guren dabena. Ez da halan X...? *Auspoaren* izena eta abizena jarriko nebazan, baina isilik gorde daiguzan, lehengo eran adiskide izan gaitezantzat be.

Soriatik hoska

Soriako endorea hasarratu jaku, zegaitik hasarratu dan be ondo dakigu. Eta errazoia daukala esango deusagu. Sevilla hangoa dala-ta, erkiari ez jako irainik egin behar, erki guztiak dira goragarriak eta txalogarriak. Batzuk beste batzuk baino hobeak. Gai honi ez gagoz, bestela *denuntzi*ako gaitue.

Eta zer dino Soriako endoreak, ba? Bere erkia maite dauala eta erki haren aurka esaten diranak mindu dabela. Ederto esana! Soria maite dau, hango semea dalako. Hemen, ostera, geure herria langorik ez dagoala esaten dogunean, eta kanpokoak kanpora joan daitezala, bertokoentzat be lanik ez dagoalako, orduan zigortauten gaitue.

Euzkadi izparringiak besterik ez dau egiten. Euskotarrak erakusten deutse euren herria maite behar dabela. Hemeko landoletan, bertokoak izan behar dabela lehenengo mailako langileak.

Sorian gauza bat ontzat daukena, hemen txartzat dauke askok eta askok. Endore horren izen-abizenak jakingo bagenduz, idatzi bat bidalduko geunskio. Goragarria dalako. Eta bide batez itaunduko geunskio nondik jaso dauan *Jagi-Jagi* hemen gagozanok ezin dogulako zenbaki bat be jaso. Sorian errezago izango da asteroko hori hartutea hemen baino. Haraxe joango gara geu be.

Aralarrera

Gaur eta bihar joango gara Aralarrera. Geure bihotzak pozik dagoz Zaindari Deunaren aurrean ahuspezturik otoi egin eta aberiaren askatasuna eskatuteko. Mikel Deuna langorik ez dago, ez zeruetan eta ez ludion. Gudaketa gorrian izan zan buruzagi eta euskoen buruzagia izan dedintzat, Jel alderdiak be arren dagio.

Uharte-Arakil aldetik batzuk, besteak Madoztik, hemetikoak, ostera, Betelutik, mila-milaka goragino igongo dira. Inoiz ezer eskatu badogu, igandean eskatuko dogu geure Euskadi honen askatasuna.

Orain urte asko dirala geure zaindaritzat aukeratu genduan Mikel Deunaren aurrean, inoiz ez dogun eran, abestuko dogu:

*Mikel, Mikel geuria,
zaindu Euskadi...*

Lauaxeta
1933-VIII-19

ZIRIKA

Ai ene bada, geure Teotikotxu aldenduko ei jaku! Bera dan gizon ona izan eta agur egin deusku. Bizkaiko jaurletxe edo gobernuan ez dira ahaztuko horrek jaurti dauzan galen edo multakaz.

Negarrak urteten deusku begi bietatik! (Hiru begietatik ezin urtengo deusku, hirurik ez daukagulako.) Sevilla horrek euskerea be ikasten inarduan, hemen idatzi neban artikulua baten barri be jakin eban eta. Sevilla etorri zanean poztu ziran itsasertzeko ontziak be. Lana ugari izango zala deadar egin euskun, baina lehen baino txartoago gagoz. Banketa emongo deusagu orain, abertzaletasuna zabalduten ahalegindu dalako. Gobernadore bat baino hoberik ez dago abertzaletasuna zabalduteko. Baina samin handia dogun arren, lehenbailehen aldendu dadila eta geure begiak ez dagiela bere bizian ikusi.

Eta gobernu barriaz zer dinozu, ba? Zer esango dot ba esan! Nik ez dinot ezer, baina herrietako jauntxuak esango dabe. Horreek bai esango dabela zer diran. Orain arte sosolistoai eperdia garbitu ezinik ibili dira, hemetik aurrera barriz, *radical* bihurtuko jakuz.

Hor, mendi-ertzetakoko astokilo askotxu *radical* egingo dira. *Radical* izatea zer dan? Txerrenaren adiskideak izatea be bardin deutse. *Kuestinoa da ze* aginduten dauanagaz ondo egotea; beste gauza guztiak alde batera jaurti behar dira.

Aldundi edo diputazinoko *gestore* galantok zer egingo daben be ez dakigu. Gipuzkoakoak lotsa apurtxu bat euki dabe.

Gobernu barria izentau dabenean euren lekuak hustu dabez, baina Bizkaikoak lehengo lekuan dagoz. Laiseka eta ez dira behingoan aldenduko, baina *bide zabaletan*, bitxabaletan ibili diran sosolistoak, horreek aldatuko dira. Herri gehienetan zabaldu deuskue *Círculo Radical* eta sosolistoen arerio zital egingo jakuz.

La Liberala hasarre dogu. Atso zaharrai jazoten jakena honi be jazo jako. Prietogaz ezkondu zanetik hona ezkon-ibiltaldian ibili da. *Eztizgo ilargia* edo esan daroe. Baina ezkon-ibiltaldia amaitu jaku, Prietok porrot egin daualako. Haren hitzak eta begikunak be goratuten ebazan. Prietok begi bat zabalduen baeban, berehala esaten euskun: ludiko gizon batek ez dau zabalduko begirik, Prietok baizen ederto. Hitzaldi bat esaten ebaneko, ostera: hizlari hoberik ez da sortu amaren sabeletik. Eta horrelakoak irakurtean geure kolkorako inogun: Eulala!...

Bilbaoko endore edo alkate jatorra dan Erkorekak Artxanda erosi gura leuke. Erkoreka eta trenak bat izan dira, baina orain hasarrakuntza sortuko jake. *Funikularra* eta bultziak alkar ikusi ezinik dagoz eta.

Ez dogu pentsa gura zenbat joan-etorri egingo dauzan Erko-reka horrek zorioneko Artxanda dala-ta. Egun bat ez dau hemen egiten, bateko Madriler, besteko Bartzelonara, trenerik trenera dabil.

Nabarrako *puerrozaleak* Pradera aukeratu dabe legedi-zaindirako. Gizonto hori Primo Riveraren laguna zan eta ahal izan dauan toki guztietan *fuerven* aurka ibili da.

Orain zer esango ete deuskue nabartarrak? Guzurras dabile-na ez doa urrun. Hango eta hemeko karlatarrak ez deutse itzal handirik geure lege zaharrai. Madrilen tentepotente bat jarri ezke-roan pozik dagoz. Tentepotente jauna izan dadila Albontsa eta kitu.

El Pueblo Vasco eta artzainen txakurrak antzekoak dira. Txakurrak zer egiten dauan badakizu: otsoa datorrenean ahausi eta ahausi. *El Pueblo Vasco* horrek be beste horrenbeste egin daroa. Euskadi eta Katalunian diran batzarrak eta hitzaldiak otsoa dirala irudituten jakoz eta ahausika dabil.

Casanova gizon ospetsua zanaren omenez izan diran jaietan, Espainiaren aurka entzun diran oihuak azalduten deuskuz. *Muera Euskadi* esaten dabenean isilik egoten da. Izparringi horri bardin jakó edozer. *Muera Pedro* esan arren ez deuto ardurarik, baina *Muera don Pedro* esan ezkeron deadar dagi. Bata zein beste antzekoak dira ba.

Azken hitza: Dantzán egin gura dauanari, ez egiozu *tanbolinik* jo.

Lauaxeta
1933-IX-14

IZPAR URTENENAK

Gipuzkoako hondamendia. Iruñeko gotzainaren agindua. Euzkar araudia. Karlatarren gorabeherak. Frantziako jaurbatza. Espainiako herriketea. Ludiko izparrak.

Gipuzkoako hondamendiaren ostean hamaikatu sendi geratu dira ezer barik. Pasai osoan bildurrez dagoz, 3.000.000 litro baino gehiago gasolinatan isuri diralako itsasoan. Arrasta baten bitartez edo sua hartuko baleu gasolinatza horrek, ikaragarritzko kalteak jazoko litzakez.

Donostiako endore jaunak ikertu dauz hondatu diran uriak. Sasiain horrek esan dauanez gorrietan be gorria izan da Errenderi aldean jazo dana.

Jaurleak eskatu deutse gudalburuai emon dagiela non egon tokia, etxe barik geratu diranai. Beraz, ba, gudari-etxeetan egongo dira behingoz, sendi gaixo horreek.

Gipuzkoa osoan samintasun handia dago joan dan hondamendi hori dala-ta. Herri askotatik jaso dira ukar¹⁶-deiak. Donostian batez be, laguntza asko opatu deutse hondatu diranai. Alderdi guztiak zintzo jokatuten dabe.

¹⁶ Ukar: limosna.

Eusko araudiazko jardunaldian *La Tarde* izparringiak Benito del Valle jaunari itaundu deutso zelako aburua daukan gai horretzaz. *Unión Mercantil* deritxon bazkunaren lehendakaria dogu jaun hau. Bere eretxiak, ba, itzal handia dauka. Benito del Vallesen ustez behar-beharrekoa dogu araudi hau. Euskotar guztiok atera behar geunke geure autarki bidez.

Erkorekak dinoanez, izparringiak saldu gura dauzanak bere karneta euki behar izango dau. Orain edonok salduten dauz, baina aurrerantzean ezin saldu ahal izango dabez karnetadunak baino.

Elexabarriko gautokian izaten diran langileak ez dabez gauza txarrak eskatuten. Bilhaoko udalak emon dagiela akeitesnea goizean eta afari ona gabean eskatu dabe. Erkorekak esan deutesenez, holakorik ezin daike udal honek, dirurik ez daukalako.

Iruñeko Gotzain jaunak ez dau gura jaupariak ahaldungai izaterik. Hori erantzun deutse Jel alderdikoai. Eskumarrak, erregetarrak, izentau ebezan jaupari bi, ahaldungai izateko. Lehen ez eban ezer esan, baina Jel alderdikoak joan jakozanean, ezetz erantzun deutse. Eta beste alderdietakoak ez deutsela berari baimenik eskatu. Gebenduko dau, beraz, eta Nabarran ez da izango ahaldun ez ahaldun-erdi jaupari bat be.

Gaur hitzaldi bat egingo dau Getxon, Agirretar Joseba Andoni ahaldun izan zan gazte azkarrak. Zaletasun handia dago jaun honi entzuteko.

Bizkaiko karlatarrak be araudiaren alde ei dagoz. Euren oharrak egin daroez, baina azkenean guztiai aginduten deutse euren autarkia emon dagiela.

Zarata makalak ez dauz atera Elortza eta Orexa jaunen idazkiak. Olazabal zerutarrari bidaldu deutse ohidalako idazkitxu bat,

eusko araudiaren alde jokatu behar dabela-ta. Baina Olazabal ez da geratu konforme, hasarre baino. Ikusiko dogu zetan geratuko dan nahaste-borraste hau.

Datorren igandean batzar handia izango da Gasteizen, Moratza zanaren omenezko jaiak dirala-ta. Alde guztietatik izpar alai-korrek datoz eta Donostia, Bilbao eta beste uri handietako eres-batzak haratu, joango dira. Madariagatar Erramun, Valera, Valentziakoak, Queró Morales, katalandarrak eta Agirre eusko ahaldunak hitz egingo dabe. Galizia aldetik be norbait helduko ei da.

Frantziako jaurbatzak bere leku-hustutzea izan dau. Garazki-arazoetan gehiago egin deutse etsaiak eta bertanbehera ahala itxi dau. Daladier jaunak, beste alderdiakaz bakeak egin ezinik, bere agintzaritzaren hustutza erakutsi dau.

Marcelino Domingo jaunaren aurka auzi bat aurkeztuko eba-la Ossorio eta Gallardo jaunak inoen, baina dana ezerezean gera-tu da. Alkarren arteko idazki bi izan dira, besterik ez.

Oviedoko erkian alkartuta egozan erradikalak, luginak eta mauratarrak, baina azken orduan alkartasun hau ezereztu dabe. Luginak bakarrik jokatu dabe. Sosolistoak irabazten urten dira.

Sevilla aldetik komunistak be urten gura leukie ahaldun. Horretarako euren ahaldungaiak izentau dabez: Diaztar Joseba, Gil Mirges eta Figueres. Sevillako erkiz ostera sosolistoakin batu-ta doaz.

Unamuno txotxoloak argitaradu dau idazki bat emakumeen autarkiaz. Honeen lanak, etxeko lanak dino eta herriketa gauze-tan ez dabela zerikusirik izan behar.

Madriléko osagileen ikastetxe nagusian ohidalako astrapaladak izan dira. Ikasle gehienak oporketea egin daroe eta ikastole-tako aulki eta mahaiak txaidera jaurti dabez. Ertzainak etorri ziranean gogor egin eutsen tiroka, eta ikasleen eta honeen artean ikaragarritzko tirotsa atera eben.

Cuencako erkian be erradikalak, lugintzatarrak, erkaldarrak eta liberaldarrak alkartuta joango dira datozen hauteskundeetan. Sosolistoak, osterá, bakarrik jokatuko dira.

Mexikoko konsul dalakoak agerraldi bat egin deutso Bartze-lonako jaurleari uri handi haretako zineetan emoten daben zinta baten bere laterriaren aurkako gauzak dirala-ta. Jaurleak abegiz entzun deutso.

Lauaxeta
1933-X-25

EUSKADIKO ALDERDIAK

Geure aberri honetan berein alderdi daukaguz, batzuk betar-gi, bestetzuk betoker. Bakotxaren araudiak aztertu daikeguz, ez uzkurtzaren bidez, herriketa-arauz baino. Gaur Euskadi honen etsai antzo dagozan alderdiak adiskide izango dira bihar. Aldiak egingo dauan lana, ezin ukatu. Oraintsu arte espainiar izan diran alderdi bati oratu deiogun.

Komunistak zer diran? Alderdi honetakoak ez dira asko, baina geroago eta gehiago dirala ezin ezeztu, txaidean zehar ikusten doguzalako euren alderdikideak. Espainiako komunistak ziran honeen artezkari eta zuzendariak. Orain aldatu diranentz?

Ikusi daigun. Komunisten artean dogun adiskide batek bidaldu deuskun ingitxu bat aztertu beharrean gagoz. Zer dino-en jakin ostean, geure aburua emon daikegu. Idazkitxu lohi baten jaso dogu ingi hori. Hona idazpurua: "Plataforma revolucionaria del Partido Comunista para la liberación nacional y social de Euskadi". Hitz honeek irakurriko genduzala, nok uste izango eban? Baina alatz hau egina dogu. Abertzaletasunak eragiten deutse. Narras bada be, geure atzean datoz. Beste lerro baten hauxe irakurten dogu: "Los comunistas propugnan en Euskadi... la política del apoyo directo y decidido por parte del proletariado al movimiento nacional-revolucionario de los pueblos oprimidos y dependientes". Ulerterrezak dira hitzok. Aitearenka hasiko dira baten batzuk, baina ez da harritzekoa. Errusian bertan be menperaturik dagozan aberrien alde ekin dabe eta.

Beheragotxu, ostera, hauxe dirauskue: “La nación vasca está implacablemente oprimida y expoliada por el imperialismo español”. Amesetan gagozala dirudi! “Sosteniendo el derecho del pueblo vasco a la independencia y a la separación del Estado español”. Abertzale zintzoenak be beste era batera ez leukie hitz egin-go.

Idazkitxu osoan holantxe hitz dagiskue. Gizon honeek ulertu dabe euskotarrak zer darabilgun. Geure aberriaren askatasun bila goazela ezin ukatu daikie.

Ingi osoa ez dogu aztertuko, adibide honeek nahiko dira, ba, borondate oneko gizonentzat. Asmo txarrak baino ikusten ez dabezanak, larri izango dira eta Jel alderdikoai zirikadaka hasiko jakez. Gizaseme txatxarrak!

Komunisten alderdiagandik urrun gagoz, baina eusko abertzaletasunak daukan indarra holantxe igarri daroagu. Euskadi honetan bizi gura dabenak euskotarrak dirala autortu behar izan dabe. Ez dago beste biderik.

Umeari, umea dan aroan, edozer gauza egiten jako, baina behin gaztarora heltzen danean lotsa handiagoa euki behar izaten jako. Eta bere gardiz eta eretxiz ludian zehar dabil. Herri honi be, beste horrenbeste jazo jako. Gogoa galduta ebilanean edozein alderdi nagusi izaten zan, baina bere eusko izatea zein dan ulertu danean, ez dauz jasango semeak diranak baino. Komunistak izan edo ezkertar gorriak izan. Eusko aberria euren aberria dala dinonean, zuzen dagoz. Eskumarrak zer egin behar leukien, esango geunskie; Euskadi dala euren aberria baieztu dagiela. “Por la liberación nacional de Euskadi” dirauskue komunistak. Aberkideak doguz, beraz. Eurai konbeni jakelako hori idatzi dabela? Behar bada. Baina beste alderdi batzuk konbeni jakenean be, ez dabe antzekorik esaten. Hitz horreen bila goazen sosolisto edo erregetarrengana! Bai zera, esku onetan dago zartena!

1933-XI-15

IZPAR URTENENAK

Jel alderdikoek hitzaldiak. Ezkertarren hitzaldiak Euskaldunak. Gipuzkoako herriketea. Bakaldarren ahaldungaiak. Kataluniako gorabeherak. Espainiako iskanbilak. Sánchez Román jaunaren asmoak. Hitleren guredea. Vandervelde eta Blumen hitzak.

Zabalbidetako pelotatik abertzaleak egin ebezana hitzaldietan ikaragarritzko notintza batu zan. Zabala, begoñatarak, Basaldua, Kareaga eta *Lauaxeta* jaunak hitz egin eben. Txalo-hotso handiak entzun ziran.

Datorren barikuan hitzaldi gorengoak egingo dira Euskaldunak pelotatik. Agirre, Robles eta beste ahaldunen batek hitz egingo dabe. Artegatasun handia dago hitzaldi horreek entzuteko.

Bizkaiko bakaldarrak bakeak hartu ezinik dagoz. Bilbaon garo bat ez dauken arren, euren ahaldungaiak izentau dabez. Kareaga andereñoa, González Kareaga, Lezama Legizamon eta Rojo izentau dabez.

La Gaceta del Norte izparringiak idazki gogorra argitaratu dau bakaldarren aurka; ahaldungai horreek kendu behar dabezala dirautse, bestela gotzain jaunaren aginduen aurka ekingo dabela-ta.

Eguenean agertuko jakuz ezkertarren ahaldungaiak, Euskaldunak pelotatik. Prieto, Zugazagoitia, Azaña eta Domingo ei jatorkuz. Sarrera ordaindu behar izango da laurleko bat.

Euskaltzaindiak eratuta, euskerea ikasi gura dabeneztat ikas-taldi sakonak jarri dabez. Bizkaiko Instituto dalakoan izango dira ikastaroak eta jaun argitsu batek azalduko dauz ikaskizumok.

Bizkaiko auzi-etxean be oker bat jaso ei jake epaile ziranai eta aske itxi gura eben neskatxa zigortau dabe. Oker hau atzera zuzenduteko bidean jarriko dabe. Idiakenez gaz holakorik ez zan!

Urumea pelotatokian hitz egingo dabe Jel alderdiko ahaldun-gai diran Leizaola, Pikabea, Irazusta, Irujo eta Monzon jaunak. Su-gar dabiltz alderdi guztiak.

Isasondoko mikeleteak esan dabenez, herri haretako bitxabal-ertzean mendi bat jausi da eta bitxabal hori eragotzi dabe. Egunen batzutan ezin igaro izango dira burdi eta beribilak.

Motrikon zauritu eben Zabala abertzale gaztea eta, dinoenez, Arrietatar Mikel karlatarrak sutots hori jaurti eutsan. Ertzainak gaur atxilotu dabe gizon hori.

Atzo banandu ziran hamar mila laurleko Altza uritxuan. Gaur, oster, Aia eta Iruran bananduko dabez 87.274 laurleko urolde ostean hondatuta geratu ziranen artean.

Atzo egin zan Donostian komunista baten hil-lorra. Notin asko joan zan ahukuan, baina hango hoztasunak harriturik itxi ebazan ikusle danak.

Olimpia antzokian mintzatu zan Cambó eta Esquerrakoen guzurak eta atzipe lotsagarriak dongetsi ebazan. Beragaz batera mintzatu ziran Ventosa eta Rahola.

Valentziako Apolo antzokian hitzaldi bat egin eban Goikoe-txea bakaldarrak eta faszistarrak oiuhuka hasi ziranean, ezkertea

rrak hasarratu ziran. Ikaragarrizko zalapartak eta ukubilkadak izan ziran.

Santiagoko urian gaizkin batzuk apurtu dabez *Unidad* deritxon izparringiaren landolak. Baina izparringi hau faszistarrena dala-ta, ezkertarrak pozik dagoz.

Eunleen arteko langile guztiak oporketea egin daroe Bartzelonan. Hori dala-ta, uri osoan zarraturik dagoz saltokiak. Langile gehienak txaidez txaide dabiltz, bake antzean.

Frantziako biztanlea dan Paul René espetxean egoan. Osakuntza bat egiteko gaixotetxera eroan egiela eskatu eben. Gaixotetxetik iges egin nahirik jauzka egin eban lehiotik, baina zoritxarrean, iztar biak apurtu ebazalako.

Madrileko sosolistoak amaitu gura dabez euren hitzaldiak, bariku gabean ohidalako bat eginaz. Hitzaldi honetan gizon ospetsuenak mintzatuko ei dira eta gauza gorriak esango ei dabez.

Barikuan oturuntz bat egingo deutse Sánchez Román dala-koari. Berrogeta hamar notin batuko dira, beragaz aspaldion ibili diralako. Alderdi barriren bat sortuko ei da oturuntz horretatik.

Doistarren artean izan diran hauteskundeetan Hitler garaile agertu da. Bere alde autarkia emon ei dabe berrogei milioik baino gehiagok. Milioi bi baino ez dagoz buruzagi horren aurka.

Parisen bananduten dan sari ederra, *Gringoire* saria, Hante-loste jaunari emon deutse. Doistarren arteko eztabaideazko idazki batek eroan dau sari hori.

Blum, Frantziako sosolistoen buruzagi danak hitzaldi goren-goa egin dau eta errusiatar eta nipondarren artean guda gorria sortuko dala berehala autortu eban.

Ingalaterrako ahaldunen artean iskanbila handiak izan dira, lugindarren alderdikoai herri handiak egiten deutsezelako besteak. Macdonaldek aldeztu dauz bere alderdikoak, baina egonezin handia sortu da.

Errusia eta Ipar Amerikako laterriaren artean darabilezan gorabeherak barikuan arteztuko dabez. Garrantzi handiko erabakiak hartu dabez laterri biok.

Chaco lurraldean guda gogorrean dirua Paraguay eta bolibiatarrak. Paraguaytarrak lortu dabez gurenda ederrak eta Pirizal uria eurenganatu dabe.

Belgikako sosolistoen buruzagia dan Vandervelde jaunak Dixon urian izan dan batzarrean dongetsi dau faszistarren araudia. Horreen aurka ekin behar dala azaldu eban.

Parisen dagoan Derouléde olerkariaren oroigailuan kalte handiak egin dauz gizon batek. Hori egin ostean ertzainakana joan zan atxilotu egien. Brianden oroigailuan egin dabenari erantzun gura izan ei deutso ekintza horregaz.

1933-XI-15

ABERTZALEOK, ENTZUN

Benetan lotsagarria da egun honeetan entzuten doguna. Txai-dean zehar, herri txikienetan, urietan, edonon barriketea eta abarrotsa baino ez da entzuten. Bateko Jel alderdikoak eskumarrakaz alkartuta goazela hauteskundeetan, besteko erradikalakaz. Honeek kandidatura bat, besteak beste bat. Eta abertzaleak diranak, abertzaletasunean urte asko daroezanak sinistuten dabez kanpokoan esamesak eta barritsukeriak.

Guzurra dala dirudi. Ez daukaguz geure agintariak? Ez daukagu geure izparringiak? Agintariai edo barritsuai jaramon egin behar ete jake? Alderdiaren izparringian datorren kandidaturea ete da geurea edo ez?

Hor kaleetan mur-mur dabiltzanak, jeltzaleak hatan be, ez dauke lotsarik be, holako guzurak zabaltzen badabiltz. Gogortxu idazten dogu, baina gogor idazteko ordua dalakoan gagoz.

Zer da hau, gizonak eta emakumeak? Gauza negargarriagorik ez dogu sekulan ikusi. Agintariengan sinistuten badogu, eurak dirala gure buruak uste badogu, aginduten dabena baino ez dogu sinistu behar. Eta agintarienagaz konforme ez dagoanak atea zabalik daukaz, joan bedi gura dauan tokira!

Gure ustez beste kandidatura bat hobeto litzakela? Beste alderdiakaz alkartu behar ginala? Honeek geure aburu eta usteak dira. Onak edo txarrak, baina geure aburuak egiteko ez gagoz. Alderdi baten sartuta dagoanak alderdi horren aginduak jaramon egin behar deutse.

Eusko Ekintzako anaiakaz ederto batuta joango ginala? Neuri be begiko jataz anaiok, baina agintariak beste gauza bat aginduten dabenean, hareen esanai oratuten deutset. Erradikalakaz be polito alkartu eta ekingo genduala? Geuk edo Bizkai Buru Batzarrak aginduten dau? Ai lelo-leloak gara, gero!

Edonoren esamesak sinistu, geuk zabaldu txaidez txaide edo zelako izparrak! Burutik egin ete jaku ba!

Agotik joaku abertzale gehienoi geure indarra, bestetarako ez dogu balio eta. *Euzkadi* izparringian agertuko ez danari ez jako jaramonik egin behar. Eguneroko honetan esango deuskue zer egin. Eta garraztasun honeek alde batera itxi daiguzan.

Mesedez abertzaleoi: Geure agintariak esango deuskuena egin, euren araupean ibili gaitazan. Beste alderdietakoakaz ez daukagu zetan jarrai. Hareen esanak, onak edo txarrak izango dira, baina ez dira inoiz izango geure agintarien esanak eta aginduak.

1933-XI-17

IJITOEN ERANTZUNA

Lar jakitea ezin eskatu geinkio inori, baina toki guztietan egi betea esan ez daroenai matraileko bat emotea ez da hoben gorria. Bakotxak esan daike bere eretxia, horigaitik inor ez baita hasarratuko. Baina eretxiak modu askotara agertu daikeguz. Esate baterako, erregetarrak lotsagalduko batzuk dirala idatzi nahi dodanean, hitzak biribilduko dodaz. Ahalbait ondoen azalduko dot neure eretxi hau. "Txakur galdua zara" edonori esan daikio-gu, baina hitz honeek gorrian barik jantzi apainakaz hornidu geinkez.

Horretarako lotsea behar dala? Bai horixe! Eta lotsa gehiago oindino berbaldiren bat oguzten danean. Eletari baten lelokeriak dirala-ta gaurko arlo honeri buruz gagoz. Areiltza nor dan? Nor dan ez dakigu, nor ez dan dakigun arren. Salomon ez da behintzat.

Bilbao honetako erregetarren arteko bigote txikidumen bat dalakoan gara. Noizean behin idatzi daroa. Beretzat bakarrik idatziko baleu ez ginateguz suminduko. Zoroai ez jako jaramonik egiten, zereko zera zan kolonbiatar bati be ez geuntsan jaramonik egiten eta. Hirurogei mila bertso idatzirik eukoza. Hirurogei mila! Eta harekek leidu gura euskuzan. Munduko poemarik ederrantzat eukan bere txotxolokeria. Bertso txarragorik, oster, aha-leginak eginda be, ez zeikean zorrotzu. Hirurogei mila bertso hareek mahai ganean gordeta çuki baebazan, inori kalterik ez eutsan egingo, baina geure pazientziaren akulu zorrotza ziran. Hirurogeta hamar mila bidar madarikatu genduzan bertso hareek. Egileak, barriz, gorapentzat jasoten ebazan geure alenak.

Hari jazoten jakon beste Areiltza honi be jazoten jako. Kontra bategaz. Kolonbiatar harek baekian bertsotan. Biribil eta sendoak idatzi eroazan. Bizkaiko erregetarren umetxu honek, barriz, ten-telkeriak baino ez dauz idatzi eta esaten.

Kontuizu. Donostiara dei egin deutse berbaldi zoragarriren bat esango ebalakoan. Tribunara igon zaneko eztulka hasi zan. Marranta ei eukan. Marranta eukitea ez da ona, baina noizean behin berebizikoa jaku. Espainiako politikero aipatu bat joan jatzun Ginebrako herri-batzarrera. Han egon dagozanak ez dira kokolo-mokoloak gero, gizon jakintsuak baino. Bere txandea heldu jakon espainiar hari, baina tautik ez jakon entzuten. Eztula gora eta eztula behera, munduan izan dan marrantarik gorriena harexen samara etorri behar zan. Marranta eukontz? Bai zera! Frantzesik ez ekian eta toki haretan frantzes baino ez eikean hitz egin. Hauxe jazo jakon Areiltzari. Eusko literatureaz berba egiten jarri zan, baina eztul hutsa ziran bere berbak. Euskerarik ez badaki! baina jakintsuak baino ausartuagoak dira ezjakinak. Badakizu zer jaurti eban? *Literato edo eskribidore gorengo batek be ez ei dau euskeraz idatzi.* Hori dinoan gizonari zer egin ez dakigu: edo Salomonen ordezkotzat goratu edo kortara bidea erakutsi.

Axular gizajoak zelan idatzi eban ba? Etxeberri jakintsu eta argiaren izen-abizenik ez dau entzun sekulan Areiltza honek. Mendiburu? Nor ete da Mendiburu hau? Soloan laietan ebilen bat edo. Mogel, Añibarro eta beste bizkaitar seme jatorrak ez dira jaio oindino. Areiltzarentzat ez behintzat. Oraintsu izan diran olerkarien artean *Lizardi* lakorik ez dago erregetar guztien aretoetan. Agirre bera be, literato ona zan. *Orixeren* poema nagusia irakurri dau bigoterre horrek?

Holako bati erantzuten gagozan artean astirik onena galduten dogu, ez dau merezi. Euskerea ikasi dagiala, bai? eta gero ulertu-kogara. Erregetarren esamesak holakoxeak dira.

Baina amaitu orduko: gaurko gauzez hori badinoe, antxinekoiez zer esango dabe? Edonok dakizan eusko literatoak ez dirala

izan dinoanak, orain berrehun edo larehun urteko jazokunetzat zer idatziko dau?

Lelokeria hori esan ebanean, nasai-nasai geratu ei zan Areiltzatxu. Eskumako sakeletik atera eban mokozapi zuria, airean atrapau eban eta gero bekokiko izerdi beroa legortu eban. Txalo handienak egin eutsezan erregetar guztiak. “Hauxe da geure gizona” batek inoan. “Honexek zapaldu, birrindu, hautsitu eta ezeztuko dauz abertzale guztiak” beste batek oihu egian.

Bildurraren bildurrez geratu gara. Irakurle treberen bat urtengo al jaku lagun antzo, osterantzean galduak gara.

—Hi, baina zegaitik idatzi dok “Ijitoen erantzuna?” —norbaitek itaunduko deust.

Amaitu baino lehen erantzungo deustut. Areiltza honek esan eban: eusko abertzaleak eta ijitoak bat dira. Ijitoak, ba, erantzungo deutse behar dan moduan. Aste baterako jaia daukagu.

1935-III-21

HAMABI KATU

Saguak atrapateko baino ez zirala katuak uste genduan; edo sutondoko errauts ondoan etxunda gaba igaroteko. Etxekoandren bildurra dira, ikusi orduko ostuten dabelako arrain edo okelea. Oindino ez dakigu katuak zer egiten dauan etxe batean. Lapiko-ko lukainkea atsegin jako.

Eta teilatuetan dabilizan katuak? Gabero argia danean hor joatzuz teilaturik teilatu eta inori baketan ez deutse itxiten. Geure artean beste zeozetarako be balio dau katuak. Gizon bat moz-korturik dakusgunean esan daroagu: horrek jaukok katua!

“Katuba labatsean behera doa” dinoenak jokoia laster amaituko dala dirausku. Baina beste ezetarako balio ebala ez genduan uste; orain, barriz, gauza jakingarri bat entzun dogu. Zuek ez dozue sinistuko, baina egi hutsa dala aurreratuten deusuet.

Alemaniko idazle ospetsu batek Abisiniar gauza sakonak dirauskuz. Espainiar izparringi baten datoz bere idazlanak. Emil Ludwig deritxo idazle horri. Abisiniar zegaitik idatzi daroan? Ez dakit ba, hango erregearen libertadeak atsegin ez bajakoz edo. Libertade handiak daukazanentz? Harira gatoz. Katuak eta erregeak zerikusi handia dauke. Zelan dan?

Inori ez jako bururatuko katu batzuk zerikusirik euki leikeela errege batégaz, baina garrantzi haundiko gauzea jaku. Erregearen emazteak edo emazte izan gura dabenak edozer emongo leukee hamabi katugaitik. Bostehun emazte daukaz Abisiniako erregeak. Eurai jaten emoteko be ez da diru gitxi behar izango!

Baina Abisiniako errege horri ez jako ezer kostetan. Zinera ez deutse lagundu behar, kapela barririk be ez deutse eskatuten. Narruzko abrigorik ez jaken atsegin? Ez ba, bero gorriegiak dira lurralde haretan narruzko soin janzkiak erabilteko eta. Errege harek ez dauka zetan dirurik gastau. Horretarako hauxe erabagi eban: errege-emazte izan gura dauanak gloriatzat hartu behar dau emaztetza hori. Titulo hobarik ez dago Abisian. Beste herri batzutan be holako gauzak jazoten dira. Markesa edo dukesa izan gura dabenak txerrenagaz dantza egingo leukee. Emakume batek berehala burua galduten dau holako titulu bategatik.

Abisiniako emakumeak, beraz, erregalu ederrak eroaten deutsez bakaldunari: behiak, idiak, zaldiak, urrezko pitxiak eta abar. Bakotxak ahal dauana. Eta jatekoak? Errege-emazte bakotxak gertaten dau eta zoriontsua izango da erregea bere mahaira helduko danean. Bostehun emazte daukazanak non bazkaldu edo afaldu eukiko dau, arranopola!

Baina erregalu guztien artean bat atseginen jako errege jaunari. Zer dan? Uste izango dozue urrea edo zidarra atsegin izango jakozala. Pitxiak? Ez dira horreek erregearen begiko. Abisiniako bati zer gustauko ete jako ba! Jaki ederrik be ez da han. Inok ez leuke igarriko, baina Emil Ludwigek dirausku.

Erregearen emazte izan gura dauan emakumeak hamabi katu eroaten badeutsaz jauregira, laster lortuko dau bere guraria. Hamabi katu horreek, ostera, ehiztari onak izan daitezala. Errege jauregiko sagu guztiak jan dagiezantzat beharrezkoenak ei dira katuak.

Geure baserritarrak-eta dote bila ibilten dira. Hamabi katu emon egiezuz zeuen alabai; errege bategaz ezkontzeko dote ona badira, lugin bategaz ezkontuteko hobeak izango dira.

Txorixoak egiteko baino ez dabela balio katuak? Bilbaoko tozina loditonak hori egingo dabe. Zegaitik ez? Atrapau katutxu bat eta txiki-txiki egin ostean lukainka bihurtu. Beste batzuk, barriz, erbien orde z jan daroe. Katu bat daukenean pozik dagoz, merienda itzela egingo dabela-ta. Baina holako jenteak Abisia-

ra bidalduko neukez. Han ikasiko leukie katu batek zer balio dauan.

Horregaitik laterri haretako katuak ederto bizi dira. Batez be hiru edo lau alaba daukazanak, katu pilo galantak daukaz. Eta ez uste izan teilaturik teilatu dabiltzala, sutondoko tokirik onena eurentzat da. Hotzik ez da izaten, baina edurra balitz, etxeko umekondoa baino lehenago katuai itxiko leuskioe sutondora arri-matzen.

Hamabi idi edo behi izan baziran be, baina hamabi katu dotetzat nahiko dirala jakitean, baten batek barre egingo dau. Neuk, oster, egi-egitzat daukat Ludwigen esana.

Tamalez ondorengo txarrak ekarri dauz artikulu harek. Zer jazo dan? Espainia aldean katu batzen hasi jatzuz guraso gehienak. Lau-bost alaba daukezanak katu-dote hori emongo ei deutse euren alabai eta Abisinia aldera bidaldu. Hemen inogaz ezkondu ezinik dabiltzanak, han erregeagaz ezkonduko dira eta. Kontuz, ba, katuakaz. Eta bat edo beste falta bajatzue, ez ehiztariari errurik bota. Hori lehenago zan. Orain Abisiniara eroateko ostuko eutsuezan!

1935-III-22

EZ AL DAKIZU?

Udabarriko egun honeek ez dira urian pasau behar diranak, bost toki badira geure lur honetan, ba, atseginez egoteko eta. Eguraldi ederraren deia entzun neban Joseba deunaren goizez, bai?, eta urten nintzan beste adiskide birekin. Bilbaoko bazter lohi honeek itxi genduzan, Gizpuzkoako mendino eta larrak ikusteko asmoz. Zugatz guztietan agiri ziran udabarriaren loramimak.

—Hazelako aroa aberriaren hazi ona ereiteko! —batek inoan. Baina euskeraz ez, erderaz baino. Adiskide haren hitzak, erdal hitzak ez jatazan begiko, batez be Elgoibarko bazterretan. Geure ondoz pasatzen ziran gazteak, emakumeak eta gizonezkoak eusker garbia erabilen.

—Abertzale askorik badago hemen ala? —geure bilbotarrak itaundu eban. Neure kolkorako ninoan, ostera: Abertzale asko dagoanentz ez dakit, baina euskeraz hitz egiten dabenak, uste ez arren be, abertzale zintzoak dira. Hizkuntzabako abertzaletasunak ez jataz atseginen.

Eta bidez gora ginoiazan geu ba. Bilbaotik joan gintzazan hirurak eta Elgoibarko abertzale zintzo bi. Han inguruetan agiri ziran baserriez jarduten ginan.

—Harako etxe eder haren toki izena? Mintegiaga deritxa. Beste hari, barriz, Ibarkolea. Hurrengo hari, Arostegi, Elgoibarren hasi eta Azkoitiaruntz doan aldats erditik ikusten diran beste basetxe zuri, inondik be ez daikeguz begiz jo. Lurralde haren edertasuna!

San Lorentzo bidez bide jente asko aurkitzen genduan. Gizon eta emakume guzti haren agoetan haxe zan: “Arratsalde on”. Uriko ke eta kale artean gagozanoi barne guztia poztuten jaku euskerea entzuten dogunean.

Guzti hareek abertzaleak ziranentz ez dakit. Geu hirurok, oster, abertzaleak ginan, geurekin etozan beste biak bere bai. Baina erdera gerabilan. Lauk euskeraz egingo genduan, euskaldunak baiganan, bakar batek erderaz baino ez ekian, barriz.

Eta erdaldun eusko abertzale honek, inok baino berba gehiago jario eban. Haren berba-jarioa! Bidez ikusten ziran gehienai be, zeozer esan barik ez eutsen ixten. Gitxik erantzuten eutsen. Holako baten eleiz aldetik etozan emakume apalai be itaun haxe egin eutsen. Hiru androk estrata ondoan egozan urian ibilteko zapatak kendu eta basarteetan zehar joateko eginak diran trauskiak janzten.

—No os ha dicho el cura que subirais un poco?, —hots egin eutsen bilbotar harek. Eta gure hiru emakume hareitariko batek, astiro-astiro burua jaso, goitik behera begiratu ostean, erantzun eutsan:

—Euskeraz ez al dakizu?

Isildu zan bai, bilbotar ha! Tautik ez eutsan jardetsi, baina eusko emakumeak zuhur-zuhurrak diralako edo, baserritar harek jarraitu eutsan: —Bai, geuk be erderaz hitz egiten badakigu, baina nahiago dogu gure hizkuntzea.

Baserriko andra haren erantzunak zirri-zarra galanta sartu eustan bihotzean. Erantzun hobarik ez eban idoroko inon: “Euskeraz ez al dakizu?” Ondo baino hobeto ekian erderaz be, neurekin etorri ziran elgoibartarrak esan eustenez. Egunero urira jatsiten zan ezker, erderaz be parra-parra hitz egiten eban, baina abertzale on bati jagokonez erantzun eban.

Burua ondo makurtuaz aldendu zan geure adiskidea. “Ederrak emon deustaz!”, erderaz inoskun. Emakume harexek legez beste euskotarrak egingo balebe, geure euskera gaixo hau laster litzake goiko mailetan.

Apaiz edo abade jaunak zer esan eutsen sermoian ondo ekian andra harek, baina halakorik ez eban erantzun. Ondo jantzirik egoan *señorito* hari lepo-bete emon gura izan eutsan eta benetan lotsatuta itxi eban.

Jazokun ha ikusi ostean inoiz baino ederragoak iduritu jatazan mendiak. Inoiz baino ederragozat hartu neban neure aberria, baina ez erdera hutsez josita dagoana, euskerazko izenakaz apaindurik dagoana baino. Eusko herria, eusko aberria biribilduten gabiltzanok, basetxe horreetara begiratu daigun.

—Abertzalea al zera? —itaundu eutsan emakumeak. Itaun bat egiteko bidean egoala uste eban. Eta geure bilbotar gazteak erantzun eutsan: —Bai horixe!

—Eta euskera barik? —erantzun barik geratu zan hots hau. Geurekin etorri zan adiskidearen antzean hamaikatxu badira.

Mendiz behera itzal ilunak jausten ziran! eta geure beribila hartu ostean arinka bilbaoratu ginan. Erderea entzun dogu!

1935-III-23

AFRIKAKO GORABEHERAK

Aspaldi honetako izparringietan, batez be Frantziakoetan, ardura bat irakurri daroagu. Tunez, Aljeria eta bazterretan sortu diran eztabaidak. Lurralde horreek Frantziaren babespean dagoz, kolonia antzean. Oporraldiren bat, erailkuntza gorriak jazoten dira. Parisko izparringiak-eta arduraz dagoz, ezin igarri daikie ba, zegaitik diran gorabehera horreek.

Afrikako iparralde horretako biztanleak euren laterriaren askatasuna eskatu daroe. Baina askatasun nahi hori ezeze, beste gurari batzuk be igitu eragiten deutse marruekostarrai. Astero erail daroetz judutar batzuk. Zegaitik? Judutarren eskuetan dagozalako ogasunak, diruetxeak eta abar. Bertakoak, barriz, gosez dira.

Marruekos aldean aurrerapen handiak egin dauz Frantziak. Lyauteyren zainpean iragi ziran etxerik ederrenak. Azkenengo tokietan diran uritxueta be bultziak jarri, bitxabalak egin ebezan. Antxina erromarrak egin ebezan lan goragarriak, gaur pantzetarrak egin dabez; Aljer eta Tunez Europako uri nausien antzeakoak dira. Ikastetxe ederrak, txaide zabalak, saltokirik gorengoenak. Gizartearen aurrerabideetan laster baten doaz. Eta guzti hau lortu egientzat Frantziak milioi asko eralgi ei dauz.

Lurralde hareitan eralgi diranak 15.000 milioi frankotan biribilduten dabez. Kolonietarako dauken presupuesto gehiena harakoxe dabe. Baina orain arrisku gorrian dagoz dirutza horreek. Marruekos aldeko gauzarik ezin erosi, ez saldu daikie. Aljeria, Tunez, Maroko eta inguruetan lurak emoten dauzan gauzak

Frantzian bertan hartuten diranak edo antzekoak dira. Garia, ardaoa, orioa eta abar. Frantziako Midi ingurukoak hasarre dira Afrikako igali eta barazkiak euren kaltezekoak dirala-ta.

Merkaturik ez dabe aurkitzen lurralde hareetako uztak, eta maomatarrak ez dabez halako barazkiak-eta jaten, euren uzkur-tzeak galerazoten deuselako; Frantzian bertan ugariegi dira. Non saldu? Lan eza, txirotasuna eta honetariko egonezinak onak izan dira lurralde hareetan islamdarren hazia erein eta zabaldu-teko. Abenda batekoak diran islamdarrak laterri oso eta askea irozo nahi dabe. Beraz, Frantziaren zainpea ez dabe gura.

Baina igikune honen buru dabiltzanak Parisen bertan ikasi dabenak dira. Frantziak ardura haundia izan dau maomatarrak zerbait ikasi dagientzat, baina zeozer ikasi dabenak ondo ulertu dabe inoren zainpean dagoan laterria otseina dala. Horra zegaitik ikasleak eta karreradun gizonak askatasunaren alde jokaturen diran.

Arabitarrok errazoi bat azalduten dabe: judutarrai eskubide edo deretxo osoa emon deutse Frantziak. Eurai zegaitik ez? Hone-tan dago untzea. Afrikako iparraldean dagozan europatarrak 900.000 inguru dira. Espainiar eta italiarrak erdiak inguru. Ber-takoak, ostera, 16 milioi. Eskubide bardinak emoten bajakez, arabitarren eskuetara joango ei dira administrazinoko arloak eta agintaritza edo gobernuko giltzak.

Arabitarrek ez dagozala horretarako gertaurik? Parisen-eta ikasi dabenak baietz dinoe. Baltsakeri edo komunistarrak be zabalkunde itzelak egin daroez. Horra, ba, Maroko inguruak zegaitik igituten diran. Lan ezak, atzerritarren eskubideak eta uztak-eta salduezinak jagi eragin deutse Frantziaren aurka.

Sail gatxa dauka Frantzian oraingoan. Askatasuna zabaldu-ten dabiltzanak askorik ez dira, baina onenak. Larri dagoz, behintzat, politika-arazoetan ardi diranak. Misioneru batek dino: Frantziak lar egin dau gorputzak zaindu-teko, gaixotegiak, esko-lak eta abar, baina arimen alde ezertxu be ez dau egin. Jaungoi-koaren biderik ez deutse erakutsi eta horra orain zelako arrisku

gorrian dagozan bere kolonia ederrok. Umetxu guztiai erakusten deutse eskola eta lakiotarrak ez dabela ezer balio.

Orain gauza gatxa izango da haren artean kistartasuna hedatutea. Parisko izparringietan hauxe ikusi daroagu: arabitarrai kistar ikasbideak erakutsi behar jakez. Holantxe geure zainpean iraungo dira. Eta esakun horregaz kalterik handiena egiten deutse uzkuartzeari.

Misioneru bat hurbiltzen jakenean, mahomatarrak-eta uste dabe Frantziako gudari bat-edo agertu jakela. Garrantzizko gora-beherak sortu dira, behintzat, Afrikako iparraldean, eta Frantziako kolonia eder hareek noz askatu dagoz. Abertzaletasuna ludi osoko lorea da, izan be.

1935-III-27

OKER-ZUZENTZA

Larunbatean agertu zan "Egunekoa"n geure idazlekide dan Uribitartetar Ibon jaunaren idazlan bat. Euskaldun batzokia gaitzat hartuz inoazanak bere eretxiak baino ez dira. Izparringi honek ezin daitez beretzat jaso. Euskal orri honen buru egiten danak irakurri barik agertu ziran, bai? eta horregaitik oker hau zuzendu gura dogu. Bilbaoko Eusko Gaztediaz, batez be, idazlan haretan esan ziranak ez daitez esan. Eusko Gaztedi horrek izena ezeze, ekintzak be euskotarrai jagokezanak daukaz. Bertan hasi ziran antxina-antxina euskalabestiak argitaratuten; *Eusko deya* izan bazan, *Euskaltzale-Bazkuna*, *Euskerea*, eusko irakastola bereziak; eusko hitzaldiak, abertzaletasunaren zabalkunderako argitaradu diran orriak, eusko teatrua, ipuinak, folklore lanak, Euskaltzale-Bazkunaren elestia. Nok zenbatu daitez Eusko Gaztedi horren lanak, batez be euskerearen alde? *Euzkadi* izparringiak goratu behar dauz goratu Bilbaoko Eusko Gaztediaren euskeraganako lanak. Oso galduta egoan hizkuntzeak burua jasoten badau oraingo aldietan, Eusko Gaztediari eskerrak egin behar izango jakoz. Hantxe euskerea ikasi dabe Bizkaiko idazle gehienak. Geure Uribitartetar Ibon abertzale zintzo eta euskaltzale puntarengoak esan gura ebana iluntxu egoalako edo, oker askok ulertu izango eban. Edo berrari iluntxu urten jakon eretxia. Idatzi ebazan lerroetan idatzi ebana, ez da berak daukan eretxia. Egunero idatzi behar izaten danetan holako okertxu batzuk errezkiro jartzen dira. Bilbaoko Eusko Gaztediak eta beste gaztedi guztiak ahal dabena egin

daroe euskerearen alde. Bestela ez litzake izango gaur dagoan urduritasuna!

Lerro honeen bitartez abertzaleai azaldu gura deutsueguz Eusko Gaztediaren meritu itzelak. Txapela kendu behar litzake Bilbaoko Gaztedi zintzoaren aurrean! Toki guztietan egin bazan hor egin dan beste, zorioneko izango gintzakez.

1935-05-21

EUSKADI EGUNA AGUR ANAIK!

Ibili eta ibili batzartu gara. Hemen gara. Hemen gagoz uri zahar honen kale, enparantza, harresi eta okolu guztietan. Zenbat ete gara? Berrogei mila? Berrogeta hamar mila? Ez daikeguz zenbatu hemen dabilzanok, baina askotxu diralakoan gagoz. Mila asko! Geure etsai edo arerioak nahi leukien baino gehitxuago.

Nondik baina etorri dira abertzale guzti honeek? Batzuk Arabatik. Arabako lurraldea lau-laua dogu. Udarosan garitzak urretan dagoz eta haizetxua danetan zibu-zibuka ibiltzen da. Laualde haretan bizi diranak gizon onak eta maitekorrak dira. Lurrari eutsita dagoz. Mahastegi ederrak be badaukez. Eta zelako ardao gozo-gozoak! Errioxa gorritik etorriak dira. Beste batzuk Agurain aldetik. Arabako abertzaleak gorantz doaz.

Honeek nongoak diran? Gipuzkoarrak. Berehala igarten jake, euskera hutsa darabilelako. Ederki mintzatzen dira gero! "Aizak, ikusi dituk hor muralla zaharrak". Gipuzkoarrak jente alaia dogu, garbi jantzita dabiltz. Kulturazaletasunak jo dauz eta gaurko egunean euskotar maitagarrienak edo dira.

Hemen dabilzanak Bizkaiko semeak dira. Seme gogorrek, burrukarako jaiok edo. Mendietako burniak sendotuta dagoz. Abertzaletasunaren alde edozer egingo leukee. Euretarike asko espetxeetan egonak dira, baina ez dira ikaratu. Inoiz baino zintzoago jarraitzen dira.

Eta hareek eleder hareek nongoak dira? Napartarrak, Baztan aldekoak. Jaun antza dauke. Inoiz prisarik ez dauken gizonak,

horretan igartzen jake ba gizon gurenai. Bertiz-Harana, Baztan, Irati aldekoak, Erronkaldarrak. Napartar zintzoak! baina beste horreek be zintzoak dira gero! Erriberakoak! Odol berodun gizonak bildots egin dira abertzaletasuna ezagutu dabenean, baina barruan lotan dauken lehoia izartuko jake egunen baten.

Horra hor nondikoak diran Iruñan dabiltzanok. Eusko semeak dira? Baina zetarako etorri dira? Zer bilatzen dabe hemen? Aberri baten bila dabiltz. Bila ez, euren barnetan daukelako, aberri horri azal eta mamia emon nahiez baino. Eusko herririk ez dagoala esan deutse bai?, eta erantzun ederra emon deutse Iruñeko herrian dagozan kazike batzuei. Hurrengoan ez dabe holakorik esanen.

Aberriko alde guztietatik etorri dira bizi dirala esatera. Etsai ankerrak hiltzat daukez, baina barneko bizitzea daukenak ez dira inoiz hiltzen. Jaungoikoaren eskerra daukenak betiko bizitzea eurekin eukiko ei dabe. Aberriaganako maitasuna daukenak be ez dira sekulan hilgo. Euren gorputzak be aberriko lur bihurtuko dira.

Hementxe gagoz kaleak betetuz. Alde askotakoak gara. Aberriaren amoreak ekarri gaitu. Sendikoak garala alkarri igarten deusagu. Begikeran, irriparretan! Eta kale honeek be ez jakuz bakan egiten. Geureak dira. Euskerea entzunak dira. Horregaitik ez dira hormak-eta dardar hasten. Poztuten dira, orain urte askotxu dirala be hizketa hauxe entzuten ebelako.

Agur anaiak! Aspaldiotan ez ginan alkarrekin aurkituten, gaur ostera hementxe gagoz. Betirako iraungo balitz alkartasun hau! Eta zegaitik ez? Geure bihotz barruetan ez dago sinismenik? Eusko anaitasun hau ez da hilgo gehiago. Mardul iraungo dau bihotzetan, aberria berpiztuko dan arte. Iruña zaharrean etxeak be, pozarren zutik geratuko dira. Geure zaindariaren antzo!

1935-VI-30

II

Literatura-kultura gaiak

EVARISTO DE BUSTINTZA *KIRIKIÑO*

La memoria del hombre bueno reclama de nosotros un pequeño comentario en este segundo aniversario de su muerte. Porque *Kirikiño* fué, ante todo, la personificación de la bondad. Su alma no sabía de recovecos; antes estaba enfilada hacia horizontes claros, luminosos, donde la virtud esplende sin manchas. Cuantos se sintieron halagados de su amistad le recuerdan con el cariño y el amor que se merece un hombre que no sabe sino sembrar el bien.

Sus senderos fueron los senderos de la honradez. Sacrificó su bienestar terreno por la causa de un ideal. Y mientras otros escalaran en alas del arribismo, él se ocultó calladamente. Pero qué inmenso bien no produjo al nacionalismo vasco este retiro voluntario de *Kirikiño*!

Escritor amenísimo y popular, que se había enraizado en el alma de la raza, supo producir obras que serán leídas con agrado por cuantos son capaces de amar el euskera. Su amor eterno fué esta lengua racial.

No con el amor de muchos, que sólo la ponderan y glorifican en bien tallados períodos erdéricos. Para escribir euskera hace falta tener espíritu de sacrificio de abnegación, de renuncia, que en *Kirikiño* brilló con vivos resplandores. En otro lugar hemos escrito alguna nota sobre esta labor del difunto Bustintza. Reproduzcamos algunas ideas:

Considerado como escritor, merece un puesto honroso en la literatura vasca. Muy pocos han sabido adquirir un estilo más per-

sonal. Estilo que hermana la elegancia del hombre educado en la ciudad, que conoce los buenos modales y hábitos con la gracia inimitable y galanura de los decires populares. Dos fuerzas influían sobre él. La ciudad y el campo. Y supo extraer de los dos lo más puro, lo más netamente castizo del alma vasca. Porque es un error el creer que solamente florece el alma vasca en la tranquilidad aldeana; también produce sus frutos en la ciudad y a la sombra de las altas chimeneas de las fábricas. Que nunca fué nuestra raza tan estrecha de espíritu ni tan avellanada que no pudiese dar espléndida floración aun arrancada de su propia tierra! Con este ánimo la siguió *Kirikiño* por tierras castellanas, admirando las virtudes raciales de los gaztela-mutilak.

Discípulo de Arana y Goiri, se mantuvo fiel ha la ideología del Maestro.

Ciertamente, no quiso intervenir en muchos debates, que sólo sirven para agriar las voluntades; pero con su conducta mostró claramente que veneraba y respetaba la escuela euskeralógica trazada por el fundador del nacionalismo. Por el único que supo dar cuerpo de doctrina ha la idea nacionalista, cristalizándola en postulados, que no puede rechazar la sana ética.

En Arana sobresale el escritor de talento formidable, el sabio que dicta con la razón; en *Kirikiño* brilla el alma del escritor que recoge felices ocurrencias, del costumbrista que conoce los gustos populares. Para aficionar al vasco a la lectura es preciso presentarle temas humorísticos con su gracia y socarronería aldeana, y Bustintza supo dar forma a ese deseo. Cuneó un euskera popular, sin rechazar los neologismos, pues fué un maestro en formarlos; pero fué muy parco en usarlos. Su euskera era el que vió en labios de los baseritarras; muchas veces, hasta con sus mismos defectos. Pero el alma del fino literato sabía dar vida y espíritu a ese lenguaje, que adquiriría brillo y resplandor en sus manos.

Si grandes son sus méritos como escritor, mayores lo son como orientador, guía y maestro de euskal idazles. Es muy raro el hombre que cuenta con el amor, con la devoción incondicionada de los

demás si asienta cátedra de maestro. Pero *Kirikiño* obtuvo este título por voluntad popular y supo ejercer este magisterio espiritual con la humildad y el respeto de un discípulo. Bajo su férula, suave y paternal, se adiestraron numerosos escritores vascos.

Los que llegaban a las páginas de *Euzkadi* con el ansia del escritor primerizo encontraban en Bustintza una carinosa acogida.

Corregía bondadosamente, sin displicencias. Una nota adosada al escrito daba ánimos, aplaudía al nuevo idazle. En todo escrito tropezaba con algo de bueno digno de alabanza, porque amaba el euskera y quería formar para él un nuevo escritor. Y el baserriarra humilde leía su crónica sin tener que avergonzarse en el pueblo.

Cientos de idazles fueron adiestrados en su escuela. Y todos le profesaron un carino inmenso, un amor sin límites. Su vocación fué el vivir oculto en la Redacción de *Euzkadi* y cumplió sagradamente este deber. Ahora apreciamos su labor. Hoy en día escriben muchísimos correctamente en euskera, leen la sección euskérica innumerables euskaldunes, y todo se debe a *Kirikiño*.

El hombre bueno, el amigo cordial que nunca supo de rencores ni de malicias, dejó un reguero de luz, de bondad, y aunque la muerte nos lo arrebató, vive perennemente en la memoria de todos.

Hoy apreciamos en su justo valor lo que hizo por la patria. Una plegaria ascenderá a los cielos pidiendo al Señor que su mirada divina alegre los ojos de aquel santo varón que en vida se llamó Evaristo de Bustintza. La memoria del justo será eterna.

Lauaxeta
1931-II-1

EGUNEKOA

EUSKADITIK

Idazti barriak

Urruzunotar P.M.ren ipuinak. Lehenengo idaztia. Neketako Ama Birjinaren irarkolan. Iruña, 1930.

“Makina bat aldiz, Urruzunotar Pedro Migelen izena ikusi zenuten orri honetan, irakurleak! Eta bai berak zionaz makina bat aldiz barre gozoa egin ere. Bere ipuin, gertaera-esate, egi antzeko gezurrezko asmaketa, ijito-kontu, senar-emazteen alkarrizketa... eta gainerakoak ez dira errez ahaztekoak. Horrelakoak ugari eta ugari bidaldu zizkigun *Euskal Esnaleara*, eta bai guk pozik eta pozik hementxe agertu erazi ere.

Irakurgai haietako sail polita aukeratuaz, 150 orrialdeko liburutxo atsegin bat argitaradu dute Urruzuno apaizak Mendaro aldean zituan adiskide batzuk. Urruzunoren idaztiz betea dago, eta nolakoa dan jakiteko ez degu gehiago hitzik esan beharrik: euskera errez, legunekoa; mami atsegin, gai labur, bizi eta alaiak guztiak. Barre eginaz eta eraginaz gazte-jendea euskaltzaletzeko ha zer liburutxoa hauxe!

Liburu hau ondo hartzen baldin badegu, bere beste anai gehiago etorriko omen dira. Sartu dezagun bada etxean!

Bakotxa 2 laurleko.”

(*Euskal Esnaleatik.*)

Aldizkingiak

Euskalerraren alde aldizkingi ederra jaso dogu, eta inoiz baino txukunago iruditu jaku. Noiz argitaradu ete da Estefania abak Iturribarriaz argitaraduten daben lana baizen ederrik? Iturribarria olerkari ospetsuak ez dau aurkitu goratzaile asko, bere ikasleak izan ziran arren Basterra, Joan de la Encina eta abar, elerti arazoetarako ago gozoa izan dabenak. Estefania aba bere olerkari horren ikaslea izan zan, eta sarri Iturribarriaz guri bere hitz egin euskun. Estefania abari zor deutsagu, bilbotar olerkari honeganako maitasuna. Orain argitaraduten dan lan hau, saritua izan zan, *Euskalerraren alde* aldizkingiak egin eban sariketan. Zenbaki honetan beste lan guren bat dator Orixe jaunarena. Alper samarra ez bagendu *Orixe*, zelako lanak eta idaztiak ikusi beharko geunkezan. Mutila da hau elerti arazoetan.

Mungiar biren lanak be argitaraduten dira. Bata Madariagatar Imanol jaupari argiarena, bestea Fanotar Gotzon gaztearena. Hona hemen aurkibidea:

Los vascos en 1800. Vergareses con montera, por Martin de Angiozar; *Francisco de Iturribarria. Su biografía y juicio crítico de su labor poética*, por J. M. De Estefanía, S.J.; *Estampas del País Vasco, Urzainki (Nabarra) antes de la desaparición del puente románico*; *Cuadros vascos. Los jugadores de bolos*, por Jose Alonso; *Biografía, Miguel de Abendaño*, por Eduardo de Urrutia; *De todo el País, Teatro: estreno de Perkain le basque en ...* Musica: Excursión del Orfeon Pamplones ha Madrid. *El P. Donostia, miembro de la Sociedad Francesa de Musicología de París*, por Bildari; *Aberastasuna goretzi*, Fanotar Gotzonen idaztia; *Mendiko Anjelus*, Luis Etxazarretaren olerkia; *Iztueta y sus canciones. El elemento tradicional y la aportacion personal de Iztueta en la letra de las canciones de Gipuzkoako dantzak*, por Nicolas Ormaetxea; *Jaiotzezko itxu-gorrak*, Madariagatar Imanolen idaztia; *En torno al idioma vasco*. Lehendabiziko Kirikiño saria: epailarien erabagia. Bigarren

Kirikiño saria: araudia. Idazti berean, por Aztertzele; *Izkirimi-riak*, por Jajai.

Doipuruaren ...

Haizean zehar heldu jakun doipuruaren hitza, Marconi jakintsuak azaldu daben tximist-uhinen bitartez. Hitz hori, mundua mundu danik eta hona, lehenengo entzuna izan da toki guztietan, doipuruaren hitza, kistarrak eta kistar ez diranak, orok entzun izan dabe maitasunez. Indar handia dauke alde honetan Erromako hitzak. Doipuruak guztiai mintzo hori bialdu deutse, lehenengo bere artaldekoak diranen artean hasita. “Neure bihotza guztietanganako maitasunez beterik dago” inoan eta hitz horreen ikurra diran honeek gehiagotu ebazan: “oroi hots egiten deutsuet alkarren arteko ikusiezinak itxiteko eta batasunean ludira bakea jatsi daiten lan egin dagizuela”. Izparringi guztiak hitz honeek erabili dabez, eta sano goratuten dabe Doipuruak agertu daben bake-gogoa aspaldiko aldi honeetan. Kristoren jarraitzaile benetakoan antzean, beti didar egiten dau, guztiak bakean iraun dagientzat. Baina bake hori ez da askok ulertuten daben eran. Doipuruak agintariai itzala eukiteko aginduten daben arren, itzal horrek ez dau izan behar edozelakoak, ez. *El orden constituido* agoan darabile katoliko dirala dinoen beredinek, baina katoliko onak izan daitekez agintarien aurka dagienak bere, behar dan erazko ahala ez badauke. Bakea ona da, baina bake hori bidebagean, injustizian jarria bada, orduan bakea barik gudea egin behar dau katolikoa danak. Doipuruaren hitzak ez dagoz horren aurka, hitz horreek euren erara ulertu gura dabezanak hots handiak egin arren.

Hator, mutil

Sotaren antzerkigai hau dala-ta, atzo idatzi genduzan lerro batzuk txalorik minenak eginik, baina gauza bat oker esan gen-

duan. Ereserkiak Franco jaunarenak zirala ninoan, eta ez da holarikorik. Elolatar Paulenak ziran. Eresilari gazte honenak ziran, hain entzungarriak iruditu jakuzan eresiak. Gozatu daigun bakotxa bere lanak...

ESPAINIATIK

Laurlekoa gerarazoteko

Bartzelonatik. Barriketariak Ventosa ministro barriaren etxean izan ziran itaun batzuk egiten, eta ez eban ezertaz hitz egin gura. Hau eta guzti bere, itaun bat egin eutsien atzenengo. Laurlekoaren aldabagea gura ete eban. Eta lehen esanari dakiola. Lehen, diru-etxearen batzar nagusiari idatzi eutsan hatan sendotzen eta gogortzen dala. Izan bere, Ventosa, idazki hatan, laurleko aldabera geratu daiten aburukoa azaltzen da.

Arazo larriak

Cierva jaunak dinoanez erabagi agian dagozan arazoak garbituko dira guztion gogo ona dala bide.

Bugallalek eratsi dau, laurlekoa gora hasi dan ezkerero, Gobernu honegan itxaropena dagoala adierazoten dauala.

Batzar erabarrizailleak

Batzar erabarrizaille horreetan Laterri-legea erabarritzeko nahikoa bide emongo ei da.

L.
1931-II-20

AZALPENAK

EKIN

Asteroko barri bat. Eta euskeraz hatan be. Lana emongo deutse bere zuzendariak, txindirik ez baina. Eskerrak txindi bila ez doazena, euskoen artean hazi ona erain nahiez bai, osterak.

Irakurri dozu asteroko hori? Ez, ezta, ba irakurgarria da. Euskera erreza darabil. Oraingo irakurri eben euskera erraza nahi izaten dabenak. *Barrizale* amorratuak garan batzuk, irakurten dogu behintzat burutik orpoetaragino.

Eta gauza on asko ikasten doguz. Idazleak, batez be herritar-
rak, idazkera politak esaten dabez. *Orixe* adiskide minak egi handia inoan, orain egun batzuk idazlerik erdiak isilduko balitzaz hobe izango litzatekela.

Baina hitz horreek ez ziran herriko idazleen aintzi. Idazle izan gura eta gairik ez dauken askorentzat baino.

Ekin asterokoan herritar idazleak dozuz nausi. Hareei orrialde asko zabalik itxiten jakez. Orain batzuk labankeria handiakaz hasi jakez idazle batzuei, bateko hau, besteko hori. Lelokeriak. Herriko idazleak maitasun guztia agertzen deutse, zoro izan ezik.

Jaungoiko Zale hil zan *Ekin* honeri bideak lau itxiteko asmoz. Aldizkingi ha, begikoa jakun. Urterik asko iraun dauz euskaldunen alde lanean. Guztiak ez dabe neurtuko harek egin dauan lan onurakorra.

Jaupariak, argienak hantxe idazten izan dabe, gai askotzaz. Orain baina herriaren bihotzeragino sartu nahi dabelako, asteroko hau asmau dabe.

Onurarik inori emoteko ez naz jaió (Apaltasun barik, gero e? askok orain apaltasun antzo handia dauka eta). *Ekin* herriaren-tzat bedi, ez jakintsu euren buruak egiten dabezan askorentzat.

Baserritarrak ohitu daitezcan euskeraz irakurten eta zaletasuna biztu daigun euren artean. Idazle landuak zor handia izango deutse holako asteroko bati, honen bitartez ohituta gero beste liburuak irakurriko dabez ba irakurleak.

Gipuzkoa inguruan lan ederra egin dau *Argiak*. Askok eta askok hantxe ikasi izan dau euskeraz irakurten. Orain Bizkaian *Ekinek* egingo dau lan hau.

Ekin, *Argia* eta anai zaharrena dan *Eskualduna*. Hiru asteroko txukun, gehiegi ete? Ez, bakotxak bere saila dauka. Alkarren aurka barik, alkarri lagunduteko dira.

Geuk horixe gura geunke. Ez daitezala izan zoztor alkarri egiteko, eusko herriak euskaldunduteko baino. Hots bat sarri egiten dogu herrietan, gitxik ulertuten daben arren: Gora Euskadi euskotuta.

Alde horretara doazan lanak, atsegingarri. Asteroko batek, neure ustez, hitzaldi eta jolas askok baino gehiago balio dau euskoentzat. Txindi asko eralgiten dogu jaietan, baina hobe eralgiko bagenduz idaztietan, izparringietan eta asterokoetan.

Hitzak haizeak daroaz, idazkiak ez, iraunkorrak dira. Bizkaian izango ete da abertzale bat *Ekin* erosi barik? Aberria maite dauan batek bere ezaugarria be maite dau: euskerea.

Eta bakotxak irakurri ostean, adiskideai emon behar deutsegu asteroko hori. Bat be ez daitela geratu irakurri barik. Eta ondo irakurten dakienak, hartu *Ekin* eta ez dakienai irakurri.

Askotan ikusi izan dot. Eusko idazti bat eskuetan erabili arren ezin ulertu izaten eban, baina gero besteak irakurtean ederto ulertzen ebala.

Ekin zoragarritzko izenagaz jatorku. Laguntza eskatuten deusku eta behartuak gagoz laguntza emoteko. Irakurriak beharko

dauz, emon ba. Idazleak hantxe dauke non idatzi. *Euzkadin* argitaratu ezin eta guztiak edo batzuk otzara sakonera jausten dira. Orain *Ekinen* sartuko dira batzuenak, besteak hemen. Guztiak toki berezia eukiko dabe.

Urte askotan bizi, esan beharko deutsagu *Ekin* begikoari. Eta urte askotan bizi ikusi gura badogu, lagundu deiogun. Koplarik ez, laguntza da agerkai ederrena.

Lauaxeta
1932-III-2

AZALPENAK

EUZKO

Euzko asteroko barria jatorku. Euskereak gorantza hegaz egiten dau aspaldi honetan. Oraindino bi ziran asteroko horreek. Gero *Ekin* dotorea agertu jakun, lan berezia egiteko, gaur *Euzko*.

Asteroko guztiok begiko jakuz. Bakotxak bere saila eta arloa dauka. Uzkuertza aldeztuten dau honek, besteak eusko izatea, harek euskerea, honek abertzaletasuna.

Mueta askotakoak, baina helburu batera doazenak. Bide asko dira, izan be, mendi-goi batera igoteko. Bidean zehar doakez batzuk, besteak aldatsak gora. Baina azkenean alkartuta mendi goian izango dira.

Hementxe goratu genduan *Ekin* asterokoa. Begiko jaku eta astero irakurten dot, zer ikasiak daukazalako. *Argia* be astero neure eskuetan jaso daroat. Ederki. Gipuzkoako anaien izpar, euskera samurra eta abar hantxe dagoz. *Euskalduna*, ostera, pozik eskuetan darabilt. Eta zelan ez, euskerearen batasuna eta euskerearen muetak hantxe idoroten badoguz. Bat da eta bat ez da. Zelan ulertuko dogu hitz hau? Bat da eta bat ez da.

Neurekiko ulertuten dot. Aberastasan jorriak dauz geure ele honek, ago bakotxean lora bat dirudi. Eta guztien agoan usain bardina dauka. Lora guztiok landuak bediz, gero larrosarik ederrera egingo dogu eta. Azkenean ikusiko dogu zelan sortuko. Bakotxak bereari indarra emon begio, ez dedin hil.

Euskerearen lorategian lan daigun guztiok. Idatzi daigun, irakurri, olerkiak, bertsoak, ipuinak eta abar. Lana lakorik ez dago euskerearen jorritasuna eta ederra erakusteko.

Horixe egin nahirik jatorku *Euzko*, baina euskerearen ganetik abertzaletasuna jarteko.

Euskereak indar handia hartuko dau, euskotarrak abertzale diranean. Orain hamar urte, tautik ez nekian euskeraz. Eta ez neban maite. Zegaitik? Aberria be ez nebalako ezagututen. Ezagutu osoan behintzat, erdizka bai baina. Gero ulertu dot geure aberriak euskerea dauala gauzarik ederrena. Eta orain abertzale-tasuna, biak alkartuta darabildaz. Ondo edo txarto ez dakit, bai-na maitasunez bai.

Eta horixe beharrena dogu. Askok besteen aurka hitz egitea baino ez dauke. Horrek txarto idazten dau. Hori euskaltzale hotza dogu. Beste hori ezer ez dakiena da, baina harroa. Erraza da inoren aurka hitz egitea, baina norberak lan onurakorra zabaltzea ez da hain erraza.

Ludiko hizketaldia ez deuste sartuko buruan, euskereak aldatzaile onena euskaltzale-tasuna dauala. Ez. Benetako abertzaletasuna daukanak ez dau itxiko bere hizkuntza, bere elea.

Euzko helburu horrerik begira dator. Apaingarririk onenak, marrazkiak, ipuinak, izparrak, herrietako izparrak, jakintzagaiak eta abar. Gaurkoan behar dalako asteroko bat. Baina gauza guzti honeen ganetik, aberri bakarraganako zaletasuna. Inoiz ez dau begi aurretik kenduko, Euskadiko asteroko bat dala, Euskadin abertzaletasuna beharrenekoa dala.

Oraintxe dakit askok begi txarrez ikusiko dabela asteroko hau. Zer egingo. Ludian guztien agorako ez da gozorik. Batez be euskoen artean inoren lanak beheratuten zale diranak beredin dira.

Hots gogorak eta purrustadak izango dira. Hor konpon. Neuri poza urteten jat bihotzetik. Asteroko guztiak gaur arte irakurten izan dodaz, orain be bardin egingo dot. Ez dira asko ele hau goralduteko. Gehiago balegoz hobeto.

Negarrik ez da egin behar. Gaurko erak eta joskerak, idaztiak eta neurtitzak, aldiak galbahetuko dauz eta uregorria diranak geratuko dira.

Eta nagusi izango dira benetan eusko herriaren bihotza ikutuko dabenak. Aberri honen izatea, ezaugarriak azalduten dauzanak, harek gurenda berekin daukake. *Euzko* izen ederra dok, heurre lana egin behar dok. Euskotarren soloan bedar asko jagok, kendu egizak, garbitu egizak. Euskerearen onerako eta aberriaren gaizkunderako, hator aurrera. Lau zaree gaur, hobe gehiago bazinee.

Lauaxeta
1932-VII-23

EUZKO

Lehengoan esan nebana, egiztau deuskue! Mutilak dira, geure *Euzko* ateraten dabiltzanak! Esan eta egin! Zer gura dozue? Zenbaki dotore bat? Hartu egizue!

Eta hemen heldu jaku. Baina ez uste izan edozelako zenbakia dala. Burutik oinetaragino azalez eta maminez oso dator. Nondik nora holako irudia, idazki ederrak eta izparrak? Kontxo, kontxo!

Aranoatar Jon margolari puntarengoak, ez margolari erdizkeak, Aranoa ospetsuak irudirik txukunena egin dau azalerako. Barruan bere margolari honexek Durangoko ertxadon ederra dan Kepa deunarena lerrotu dau. Alexandretar Josu jaunak bere irudi bi, Santafe Largatxa eta beste batzuk ederto dotoretu dabe.

Baina idazleak nondik atera dabezan itaunduten deutsegu. Zer uste dozue, eurrez aurkituten dirala idazleak? Bai zera! "Durango", *Tabiratarrena*. "Araba eta euskerea", *Gazteiztarrena*; "Zorionak *Euzko*", *Basarrirena*; "Atzera hilgo..." Garrotar Bernartarena; "Beti Aurka", Arantzaditar Estepanena; "Sendabidea, gaizkabidea", Belaustegigoitiatar P.rena; "Durangoko euskerea", *Amilgainena*; "Lan, lan eta lan", *Eterena*; "Euskadiko mendiak ori", *Urdiolarena*; "Txomin kirten", Ziartzolotar Imanolena; "Osagile onena", *Lauaxetarena*; "Erbestean"; "Astekua"; "1882-1932. Abertzaletasunaren eztegu urretsubak", *Amandarrena*; Goizparkia; "Gure Gaztedia eta uzkurtza", *Otarperena*; "Euskotarra", *Urkidirena*; *Arrika*, *Aterrene* eta *Garbirena*; "Izontzi-ganetik" "*Barrangelutar batena*"; "Atsegin on egin"; "Aberria", *Zeletarena*; "Azerikeriak", *Belu-Mendurena*; "Aurkittu

dau", Enbeitatar Keparena; "Bigundu bihotzak", *Urretabarrena*; "Iturri garbia", *Euskaldun barri batena*; "Izkirimirijak"; "Gaur bestetara gagoz", "Ixiletsuba"rena; "Maite zaitut", *Aterre-nerena*; "Egi birbilak", Torkatikorena; "Sagua eta larraskiloa", *Endaitzena*; "Larraun'dar Martin", Uribitartetar Ibonena; "Entzun anaiak", *Utarsusena*; "Atzoko zoriona, gaurko zoritxarra, biharko itxaropena", *Abeletxerena*; "Emakumeak eta euskerea", *Ane Mirenena*.

Baina honenbeste abizen, izenorde ikusi arren ez dira nahikotu. Herrietatik bere izparrak ugari dagoz. Hogeta hamabost herritxutako izparrak. Ez da ahuntzaren gabeko eztula!

Ez dogu zenbaki ederragorik ikusi. Zorionak bihotzetik hartu begiez geure adiskide onak. Eta hor idazten dabena ai aupada bat. Zetan dagoz urte guztian horreek? Zenbaki dotoreetan baino idazten ez dakizue? Idazle gitxi dagoala eta negarrez beti gabiltz. Errudunak dira holan idazten jakin eta beti isilik dagozanak.

Zenbaki osoa opatuten deutse Astarloa zanari: "Eusko Alderdi Jeltzaleak omen hau opatzen deutso Astarloari euskeraren aldeko bere lanaren ordaintzat, MCMXXXIIgn. irailaren IVan.

Abertzale garanak zer irakurri badaukagu orri horreetan. Euskaltzale Bazkunari zorionak eta aurrera ekin dagiala. Bake barik eta atsedeen barik holakoxe zenbakiak gertauten.

L.
1932-IX-4

MONITOR DE CULTURA VASCA

G. Martínez Sierra. *Sehaska Abestia* (Canción de Cuna). López-Mendizabaldar Ixakak Euskeraldua. Bi ekitalditan. Tolosan 1932. I. López-Mendizabalenean.

Entre las tentativas felices de adaptar al euskera las obras más selectas de la literatura universal, podemos contar la versión de la exquisita comedia de Martínez Sierra. No es para gusto de las masas. Su finura la reduce a un pequeño círculo de iniciados. Por lo mismo, nuestra extrañeza sube de punto al notar que el público euskaldun la ha aplaudido con fervor. La versión misma es de gran finura y arte, porque el señor López Mendizabal es hoy en día uno de los conocedores agudos de los secretos del idioma.

El original no ha perdido de su gracia y encanto; antes al contrario. La misma dulzura del euskera reza mejor con el tema de la comedia.

La bella poesía del entreacto autoriza nuestras palabras. Hace algunos años estas orientaciones hubieran merecido una burla, pero hoy en día son realidad. El idioma acoge en su amor todas las ideas más sutiles y delicadas. Axular supo lo que se decía en su célebre frase.

La ignorancia que se pasea por esas calles subraya aun la incapacidad del euskera para tratar de temas elevados. El gran paradojista de Unámunno nos regaló hace poco con una salida de tono. El euskera vale tan sólo para cuidar del ganado que pace en el silencio de las praderías.

A los vascos nos incumbe la obligación de responderle con obras en la mano. Esperamos que la bella edición de *Sehaska Abestia* frenará las palabras del rector de Salamanca. No hace mucho tiempo publicamos en las páginas de *Euzkadi* la versión euzkérica de una obra de Maeterlinck. Las ideas líricas y escurridizas del celebrado escritor belga florecían con agrado en nuestro idioma.

Mistral, Wilde, Homero y otros autores pasan de mano en mano en lengua de Aitor. Lo que importa es el conocer la capacidad de cada idioma para poder entablar disputa sobre ella.

El acontecimiento de esta publicación es para nosotros prometedor de nuevas tentativas. En Tolosa y Donostia la obra ha merecido aplausos de nuestro público, tan villanamente injuriado. Esperamos que el señor López Mendizabal, espíritu selecto y literato de varios recursos, nos regale con nuevas traducciones. Así se autoriza el idioma.

Euskō Ikastola Batza. Irakurri Maite... Lehenengo Ingurrazkija. Azpeitiatar Julene Eskauriatzarenak.

Con ímpetu renovador ha comenzado a trabajar por la cultura del pueblo vasco la Federación de Escuelas Vascas. Sus publicaciones son modelo de pedagogía y de impresión. La última de sus ediciones se concreta a una colección de cuentos para niños. Está escrita en euskera y se debe a la elegante pluma de doña Julia de Azpeitia de Eskauriatza.

La inteligencia clara y penetrante de esta maestra ha sabido hacer estudios profundos del alma infantil para luego cristalizarla en escritos bien ideados y mejor redactados.

Irakurri maite... es una de esas ediciones que encantan a los niños.

Uno de nuestros dibujantes más finos, Aranoa, ha sabido trazar temas encantadores para delectación de las miradas. Su lápiz estilizado sabe dar vida a las líneas.

Y la escritora, en tono sencillo, siempre adecuado para los niños, ha sabido escribir unos cuentos selectos que enseñan delei-

tando. Es la finalidad más bella. En el alma infantil es preciso sembrar las buenas ideas. Su educación tiene que ir en armonía de sentimientos e inteligencia para que nada quede en agraz. Pero en el campo vasco nos sale al camino otro problema. La conciencia nacional de nuestra juventud precisa de seguros guías que le enseñen la maravilla de la patria vasca. Y esta finalidad queda bien trazada en las páginas de la docta maestra. La enseñanza es uno de los temas más difíciles, pero el escribir para los niños es cosa que muy pocos han podido conseguirlo. Es menester transformarse en niño, tener sus mismos sentimientos, y es cosa imposible el conservar fresco e inocente el corazón cuando se llega a cierta edad. Por esto el mérito de la señora Azpeitia es digno de ser realzado.

Por otra parte, sus dotes de escritora, la amenidad de los cuentos ha dado al librito un encanto singular. La Federación de Escuelas Vascas merece un sincero aplauso por el acierto en la selección de libros y por el cuidado que pone en su edición, siempre pulcra y elegante.

De su alma y de su pluma. (Colección de pensamientos, seleccionados en los escritos del Maestro del nacionalismo vasco.)

He aquí el libro que no será superado este año por ninguna otra publicación. Es un regalo para los espíritus patriotas que aman con pasión, con fanatismo si queréis, la vida y la obra del Maestro del nacionalismo vasco. Para nosotros Sabino es el alma de la raza, el corazón de Euskadi. Y de aquel corazón y de aquella inteligencia brotaron pensamientos sublimes, ideas rectoras, frases que son una enseñanza perpetua de honradez, de conducta. Uno de sus fieles seguidores, Manuel de Egileor, se ha tomado el trabajo de ir seleccionando estos pensamientos, que serán para nosotros el breviario de nuestra actuación.

Antes de llevar a buen fin la publicación de todas las obras de Arana Goñi era preciso que quedaran en prisión de perpetuidad sus ideas. La juventud que hoy en día rompe con furia por los campos patrios necesita de manjar, de guías espirituales. Luego vendrá

el *Opera omnia*. Cuántos quedarán extrañados ante el volumen de sus escritos! Todavía pocos han entrado de lleno en el espíritu, en el alma enorme de aquel gran hombre. En esta breve sección, que no es sino un avisador de cultura, no podemos entrar en el estudio detallado del libro que entre manos tenemos. Tan sólo queremos celebrar alborozados esta aparición. Diez capítulos dividen la obra. Temas de selección que acusan en el recopilador un criterio penetrante y fino. Al fin, un índice bibliográfico cierra la obra.

A nuestro juicio, es el primer presente que se ha hecho a la memoria del Maestro; es decir, un presente que merece la perennidad. Antes eran ofrendas del corazón, del entusiasmo; hoy en día llegan las ofrendas a la inteligencia.

La Editorial Verdes Atxirika y el Secretariado General Vasco, que han publicado este libro, merecen calurosos aplausos.

Arrutzatar Mikel. Euskeraz Ikasteko Bide Erraza. Bilbao. Imprenta Mayli, 1933.

El autor de este libro es sobradamente conocido en el campo renacentista vasco. Su prosa clara y modelada le ha colocado entre los buenos cultivadores del idioma racial. Pero el señor Arrutza tiene sus aficiones hacia otro campo no menos meritorio. Hace algunos años publicó una Gramática euzkérica con el sano propósito de facilitar a los alumnos la enseñanza del idioma patrio. Aquella edición se agotó muy pronto. Y hoy nos viene con otro librito que trae los mismos fines. El presente es mejor ideado, más práctico.

El autor sigue las huellas de las Gramáticas de otros idiomas, pero en especial el método Berlitz. Desde la primera lección se enseña al discípulo a componer frases, a hacer preguntas. Para los que opinamos que el mejor método es el directo, la Gramática del señor Arrutza nos parece de perlas.

Los temas que ha seleccionado son de interés, bien graduados y mejor dispuestos. Todo ello nos indica que el señor Arrutza ha llegado a conseguir el difícil arte de ser maestro. Agradecemos su envío y le animamos a que siga por esos caminos.

POESIA VASCA

La poesía vasca ha llegado a su plena floración. Sospechamos que la edad de oro de nuestra lírica es la actual. Mejor si nos engañamos. Una legión de poetas, de primer orden algunos de ellos, han dado al idioma patrio una flexibilidad rara y han traído al alma vasca nuevos sentires.

Los certámenes anuales de poesías están abriendo rutas luminosas. Entre estos certámenes, que merecen todo nuestro aplauso, Juventud Vasca de Tolosa ha organizado con deseo de hacer una selección de cantos para la noche víspera de Santa Agueda. Entre los vascos esta costumbre tiene raíces profundamente líricas y patrióticas. El Jurado, compuesto por los señores Arrese, Agirre y Labayen, ha terminado su misión. Y entre los premiados destacan los poetas Jauregi, Muxika y Loidi. La personalidad del señor Jauregi es muy destacada. Nuestra felicitación es sincerísima, puesto que algunos habían atemorizado al gran poeta. Su camino es la lírica, sin trabas ni sujeciones a determinadas escuelas. Don Emiliano de Muxika ha merecido numerosos premios, bien ganados por cierto, puesto que es un espíritu artista que sabe matizar sus ideas con bellas palabras. Por último, el joven Loidi, poeta de gran porvenir, se consagra de nuevo como lírico sutil.

En este certamen era preciso demostrar ser poeta y unir la inspiración con el acento popular. Y nos alegramos que líricos tenidos por subidos, de categoría superior a los bertsolaris, hayan merecido esta distinción. Los que mucho predicán contra la poesía de los cultos verán, sin duda, que la otra poesía no existe sino en el deseo de algunos pocos.

Juventud Vasca de Tolosa y los poetas premiados reciban nuestro pláceme.

Lauaxeta
1933-I-29

AZALPENAK HOGEI URTE!

Hona hemen hogeï urte luze ostean azterketa bat egiteko zorian. Jaio zan eguneko asmoai egon ete jake? Hogeï urte honeetan geure *Euskadi* izparringi hau abertzaletasunaren bidez bide ibili ete da?

Izpar batzuk zabaldu teko ez zan sortu. Edozein izparritan holako izparrak irakurri daikeguz. Beste asmo batek sortuazo eutsan. Aberriari laguntza opatuteko, geure abenda zar honen ogasunak erakusteko. Abendearen edertasunak eta euskotarren aberri honen hizkuntza, ohiturak, dantzak eta izate guztia batu eta goratuteko.

Izparringi bat gehiago izateko ez zan sortu. Euskadi kutun honetan izparringirik asko ziran geurea jaio zanean. Baina Sabinek esaniko hitzak gomutan doguz: Cuencakoak bailiran, hemeko izparringiak mintzatuten dira. Geure herri honek ezer zor ez eutsen.

Jel-hazi edo abertzaletasunak aldezlari bat behar eban. Gogaiak zabaldu teko era askotako bideak dira, baina onena zein dan edonok daki: izparringia. Urte honeetan bere bidetik urten ete da? Ez dogu uste. Beti geure irakaslearen irakatsiai tinko eutsiten eutsela gaur arte etorri da eta aurrerantzean be holantxe jarraituko dalakoan gagoz.

Geure aberrian izan diran gizonik argienak, izparringi honetan euren jakintza tantoak isuri izan dabez. Erderaz eta euskeraz, hogeï urte honeetako idazki guztien aurkibide bat eukiko bagen-

du, zenbat gogai eder idoroko geunkez! Euskerazko gaietan ekin dabenak gomutarazoko bagenduz, erreskada galanta egingo leukee. Eleizalde, Arriandiaga, Albizuri, Zabala-Arana, Apraiz Altuna, *Amandarro*, Altube, Errazti Eguzkitza, *Norbait*, *Otxolua*, Bera abea, Urrutia abea, *Tene*, Lopez Mendizabal, Urriolabeitia, Arantzadi, Arrutza, Muxika, Arrese. Aldi baten honeek, euren buru eta irakasle *Kirikiño* ospatsu eta gogoangarria zala. Gero *Orixe*, Jauregi, *Lizardi*, *Larreko*, *Haur Prodigua*, *Barrenoro*, *Zeleta*, Manterola, Enbeita, *Irular*, *Urkiola*. Zenbatuko geunkez? Ezin. Euskadin izan diran eta gaur diran idazlerik gehienak izparringi honetan idatzi dabe eta. Herrietako izparrak eurrez agertu izan dira eta gaur be agertuten dira.

Baten izena jarriko bagendu guztienak jarri behar izango geunkez. Asketsi! Ehundik gora zenbatu daikeguz. Euren artean emakume lirainak. *Mañariko*, *Matte*, *Ele*, *Eliz-ondo* eta abar.

Baina guzti honcen lana goratuko badogu, euren gogaiak susmau daiguzan. Euskereak leba handiegirik ez deusku emoten. Aberriaren elea dalako idatzi dabe eta horregaitik goragarriak dira; *Euzkadi* honetan idatzi dabenak helburu bakarraren bidez ibili dira.

Euskereari zor jakon garrantzia emon bajako, jeltzaleak sortu eben izparringi honi zor jako. Aberriaren ezaugarri guztiak maite izan dauz eta euskerea be horregaitik.

Ekatzak eta arriskuak ez jakoz faltau. Ez, ba, eurrez izan dauz! Eta zelan ez gero, etsaiak aske ibili badira ibili? Baina arerioak non dira: haren gomutarik ez dogu ikusten. Abertzaleen lana, oster, sendo-sendo dago. Aberri barik geure burua aurkitu genduanok, aberri bat geure semiai emongo deutsegu. Ele bat ostikopean idoro genduan eta ele bat piztuta itxiko dogu. Eta guzti hau abertzaletasunari zor jako. Sabin handiaren oinatsez ibili diranai.

Baina atzera begiratuterik ez daukagu, aberriak aurrera begiratu behar dabe. Igazi diran ehundien mamina geure barruan dogula, biharkora begira gagozan. Beste hogeit urte barru zer? Geure aberri hau gaur dan legez izango da?

Geugan dago. Geure nahimenak erantzungo deusku. Urteak joan urteak etorri lan dagigun. Beti, oster, gogai bategaz. Jel-bideak ezin laga geinkez. Egi horrerri loturik ibili gaitez, egiak gaizkatuko gaitu eta.

Negarra begian dogula irakurri doguz hitz batzuk. *Kirikiño* zanak hauxe idatzi eban orain hamar urte: "Ekiozue, hemendik beste hamar urtera be hemen egongo da *Euzkadi* zain-zain Jel-en alde, orain arte beti lez. Gu oingo idazleak ez gara egongo, behar-bada, baina beste batzuk egongo dira, geuk lez Jel-gogoa izango dabenak berau aldeztuteko kanpoko eta etxeko arerioetatik".

Gizon haren hitzak egia dira. Joan zan, baina Jel-gogoa ez da amaitu eta ez da amaituko. Joriago ikusten dogu. Eta aurreran-tzean be, jori eta mardul iraungo dau abertzaleak diran artean. Goikoak lagundu daiskula eta geure etsaiak hobiratuko doguz, guztion ganez aberri bakarra agertu dedintzat.

Lauaxeta
1933-II-1

AZALPENAK HORRERI, HORRERI!

Txinelak atrapau gura daben lapurrik ez dozue ikusi? Ikustekorik badago ikustekoa dozu ba! Txaidean entzuten diran deadar eta garrasiak ez dira makalak izaten. Horatius olerkariak halako neurtitzetan dirauskun mendi-erditze aldian izango ez ziran langoak!

“Horreri, horreri, lapur txarri horreri!” atsoak eta agureak deadar egin daroe. Hau jo, besteak hankaz gora jaurti, eta han doa lapurra. Haizea baino arinago doa. Eta saltokietako emakume lodikoteak urteten dira atera. “Zer da edo?” Ludi osoa jarri da lapurraren aurka. Beste zereginik ez dagoala dirudi.

Eta txaideetan jazoten dana, geure idazleen artean jazo jaku. Noizean behin lapur bat asmetan dogu. Lapur hori era askotakoa izaten da: batzuetan olerkari ulerkaitz bat; hurrengoan barrizale bat. Ikusi dozue horrek zeinen zail idazten dauan? Eta idazle guztiak abo batez: gudu horri, utikan geure barruti honetatik. Eta guztiak hasten jakoz zigorkadaka. Ibaizabalen hasi eta Bidasoaraino hots bat entzungo dogu; idazle hori ulerkatxa da.

Eskerrak, batzuk Homeroren astoaren antzekoak garana. Zer dan ipuin hau? Homerok dinoan lez, astoa sartu zan bedartzan. Umeak makilakaz-eta joan jakozan kanpora jaurti nahiez, baina alperrik ziran makiladak. Ezin atera izan eben. Bedarra gozoa zalako kontua egiten eban bai?, eta hor konpon Mari Anton.

Makilada batzukaitik ez gara ikaratuten. Eusko elertian, ostera, hamaikatxu makilada emoten dira. Guztiak bardin jan-

tzita ikusi gura gaitue. Baina utikan! *Lizardi* praile jantzita ikusiko baneu, zelako barre galautak egingo neukezan! Pipa handi bat agoan eta praka laburrakaz ibiliko da, ba, ibili, geure *Orixe*? Barrensoरो kanonigu jantziakaz eta *Luzear* romantikoen ulezapa handiakaz ikusi gura doguz ikusi? Ez, ba. Bakotxa bere jazeraz.

Idazleen eztabaidak eta jaboiazen putzak bardinak dirala, norbaitek esan eban. Zoro-herriko semeak dira. Inok deadarrrik ez deust egiten oraingo honetan, baina basi egin gura dot! Barre egiteko gogoz gero! Literato ponpoxa horreen ondoan ganorabako batzuk garanok ez geintekaz jazarri.

Aitzol jaunak turuta jo dau. Eta haren turuta-hotsa entzun dabenean alde guztietako gudariak agertu dira. "Utikan barrizaleak, sutara ulerkatxak, ibaira olerki konprendiezinak, kortara txarriak, zelaira behiak" eta "biba biba la internacional". (Bgaz gero).

Holakoxe zalapartak entzun doguz! Bildurrez bildur gara. Zer jazoko ete da? Sagu bat erdituko dabe mendiak? Ez da horrenbesterik. Antxinako leloa dogu gaurko arazo hau.

Eztabaida honetan *Abaraska* idazleak argi hitz egin deusku. Herrizaleak eta herrizale ez diranak zelako mailatan dagozan erakutsi deusku. Elerti guztietan maila asko dira. Espainiarrak ulertuten ete dabez euren elertiko idazti guztiak? Idaztirik onenak ez dauz herriak ulertuten. Fray Luis de Granadaren idazlanak ulertuten ebezan? Idazle ha hasi zanean ez eutsiezan ulertu. Herrizale bat zanik ezin esan, *modernista* bat zalako. Orain, ostera, erraza jaku.

Idazle errazik ez gatzik ez dago: idazle onak edo txarrak baino. Batzuk gogairik ez dauke, azalik bere ez. Eta euren huskeria herrikoitasunaren altzoan estaldu gura dabe. Beste batzuk mamiz eta azalez aberatsak dira. Eguzkitza jaun agurgarriak gai sakonak darabiltz, baina edonok ulertuten deutzaz. Euskera motroiloa darabil? Ez horixe, garbietan garbia, inorenik bada, harexena dogu. Idazlea da eta...

Geure uste txarra beste bat. Edonor idazle dalakoan gagoz. Idazkortza eskuetan hartu, bai?, eta lau zirriborro egiten dauzani idazle izen-abizenak bururatuten deutsaluz. Eta idazle-lan-dara datoan batzuk *grippegaz* datoz.

Edozein eskribidore (holantxe esango dogu, ezta?) *literato* bihurtuten dogu. Eskribitzaileak batzuk dira, beste batzuk *literatoak*. Aldakuntza handiak dira bioen artean. Idazleen lana herriarentzat dan ezkeru, erraz idatzi behar dabe. Olerkietan zaila dan bat ezagututen dogu, baina izparringiko lanetan erraz idazten dau. Olerkiak literaturarako ei dauz, beste lanak herria bizkortu eta euskozaletuteko. Helburu bi dira, ez bakarria. Literatura zalea izan dan herri osorik ez dago. Danteren poema ederra herriak irakurten dau? Bai zera! Goetheren idazlanak edonok irakur ete daitez? Ezin ba.

Herrizaletasun handiak dira, baina *demokraziaren* arerio edo etsai amorratua naz. Herriak ez dau herririk zaindu eta aurreratu. Herrian diran lau edo bost argienak eta azkarrenak bere gidariak izan dira. Eta izango dira. Erderaz *minorías selectas*. Honeen gurtzailea nozu. Herrizaletasuna eta kalabazak! Gauza onak lurperatuteko edo deuseztuteko baino ez dau balio herriak.

Baina lupetzetan sartu gara, ez gara garbi urtengo. Inoren idazkietan gustuko jakuna ulertuten dogu, gero harro-harro kukurruku egin dagigun.

Oraingo lelo barri hau euskal idazleak mila bidar erabili dabe. Oindino argirik ez dogu ikusten. Sabindarra harrika egiten jaken. Honeek, osteru, euskerearen alde lan handiak egin dabez. Hogeita hamar urte honeetan euskereak egin dauan aurrerakadea ez da makala! Barrizaleai eskerrak. Orain galgea apur bat estutu behar ez danik ez dogu esango, baina, tira, didar larregi egin barik.

(Darraike.)

Lauaxeta
1933-II-16

LAS LETRAS VASCAS UNA OBRA DE OTXOLUA

G.C. della Croce. *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak*. Garrotar Bernarta M. *Otxoluak italeratik euskeralduta*. Bilbao, Verdes Atxirikatar Emeteriren irarkolean. 1933.

El traductor de la famosa obra italiana no necesita de presentaciones, puesto que sus artículos periodísticos y la prosa fácil y clara le han granjeado un puesto de honor. *Otxolua* es considerado por muchos como el mejor escritor bizkaino. Nosotros no nos atrevemos a tanto, porque es difícil el medir méritos cuando la vanidad de unos o la humildad de otros pudiera resentirse.

Para nosotros *Otxolua* es un prosista admirable que conoce como pocos el idioma y lo trabaja con seriedad y amor. El comienzo de todo ciencia es el amor, y *Otxolua* siente un amor intenso por el idioma racial.

Día tras día hemos podido saborear las páginas bellas y graciosas de la popular obra. Astutie sottilissime de Bertoldo, dove si seorge un villani accorto e sagace. Más tarde su autor Della Croce continuó la obra con: *Le piacevoli e ridicoloso simplicitá di Bertoldino figliulo del giá astuto e accorto Bertoldo*.

No era pequeña empresa el atreverse con obra de tal corte popular.

El que haya leído algo del original italiano podrá apreciar los giros castizos, los modismos y refranes que salpican la obra entera. Infunde miedo al traductor cualquier libro medianamente bien

escrito, porque es peligroso el trasladar a otro idioma un pensamiento que halló forma exacta en su lengua propia.

Para *Otxolua* no ha sido insuperable el trabajo emprendido. Creemos sinceramente que le ha costado mucho el traducir ciertos pasajes, pero su paciencia de hombre de laboratorio ha llegado a encontrar en el euskera locuciones populares y vivas.

El mérito de esta versión está en su forma viva, lejos siempre de los giros que crecen en un invernadero.

El autor de *Bertolde y Bertoldin* dejó correr su ingenio en retruécanos y sutilezas de estilo muy difíciles de comprender. *L'eccezzenza e trionfo del porco*, *L'arte della fonfarraria* y otras más, le colocan en lugar destacado. Con gran acierto ha sabido suprimir la tercera parte de la obra, que se debió a la pluma un poco obscena de Scalligeri. Realmente, nada gana la novela picaresca de Della Croce con las licencias de Cacaseno.

Es realmente difícil encontrar un escritor vasco que use un vocabulario tan rico y vario como el señor Garro. El ha sabido medir el matiz de cada palabra y ha revuelto una y cien veces el diccionario para extraer las palabras más populares. Podrá el lector apreciar este trabajo en el pequeño diccionario que adorna el libro. Queda uno asombrado ante la riqueza del idioma, tan negado por los que la desconocen.

No sería demasiado atrevimiento el asegurar que en euskera bizkaino han aparecido muy pocas obras de la altura de esta que nos ocupa. La escuela sabiniana está de enhorabuena. Los lanzadores de piedras contra el vecino tendrán que enmudecer ante esta labor enorme de "Otxolua". Y no es pequeña labor el autorizar el idioma con versiones concienzudas cuando faltan arrestos para escribir una obra original.

Si la traducción está pulida y labrada consigue el mismo valor del original. Con verdadero encanto han de leer y releer esta bella obra nuestros niños. A ellos reza este librito, lleno de gracia y de maliciosa sencillez.

Lo grave sería que obras de tan alto valor quedaran sin la resonancia debida. Es preciso que los vascos demuestren su amor al idioma patrio con la ayuda a los escritores, en especial si estos son de la talla del señor Garro. Una responsabilidad pesa sobre estos señores que tan bellamente escriben en euskera: si no continúan trabajando sin descanso. Alguien se atreve a preguntar en qué grado le calificamos a este escritor bizkaino. Hoy día se han suscitado vanas polémicas de escritores fáciles o populares y escritores difíciles, apartados del pueblo.

En esta contienda ridícula que nada favorece al idioma, la posición de *Otxolua* es la más sana y acertada. Nadie puede alegar que no entiende la prosa castiza y vasquísima de este escritor. Amamantado en nuestros clásicos, nos trae lo más puro del idioma, pero no desdeña tampoco las nuevas orientaciones que tanto favorecen al euskera.

Hemos de dejar para otro día el estilo de algunos párrafos suyos. Entonces subrayaremos sus aciertos y algún defectillo.

Hoy queremos felicitar cordialmente a este trabajador callado que no remueve las aguas de su lago, pero sabe aportar al idioma bellezas incomparables. Adornan la obra unos dibujos del mismo traductor. *Otxolua* merece un aplauso sincero de todos los amantes del euskera, y este homenaje ha de consistir en que todos compren su versión.

La casa Verdes-Atxirika, con su peculiar cuidado y pulcritud, ha sabido editar un libro encantador.

Lauaxeta
1933-III-18

AZALPENAK EUSKO ANTZERKIAK

Eusko antzerki gehiegi ez daukagu, honetan urri gabiltzalako. Noizean bein baten bat agertzen jaku, baina abegi samur gitxi jako. Zegaitik? Geure ikusleak ez daukelako ago zuririk? Euskotarrak ez ei dogu balio antzerkietarako. Beste ohar barik hau esaten dogunean, guzur biribil bat dinogu.

Herri guztietakoak legetxe geure herri honetan jaio diranak bere, edozer egiteko duinak dira. Ezetz? Hamaikatxu idazle on dozuz han-hemen!

Zoritxarrez antzerkigile gurenik ez jaku agertu. Lelokeritxu asko, barre eragiteko gatzbakokeriak, baina sakon eta mamitsuak diran antzerkiak ez dira erne.

Erne dadizantzat lurraldea be landu behar izaten da gero. Ikusleen laguntza eukiko balebe, zerbait gehiago egingo leukie. Antzerki onak asmauteko, astirik asko behar izaten da. Astirik barik ez da umotuko ezertxu bere. Erakutsi onak herriari emoteko, antzerkiak dozuz egokiak. Geure anaiak ez dozuz irakurtera josiak. Buruko mina edo begietako mina egiten jake edo. Irakurtea baino ikustea errezago eta atsegingarriago jake. Tira, ba, euren agoko dana asmau daigun.

Herria hazteko antzerkiak dagiguzan. Bide onez aurrera joan geintekoz. Baina eusko antzerkiaren helburua ez bedi galdu. Edozelako antzerkiak eginaz, edozelako herria haziko dogu. Eta herri txar bat eduki baino gurago geünke antzerkirik ikusi ez.

Abertzale garanok gai honi ekin behar deutsalagu. Elertilariak, olerkariak eta idazleak helburu bat dogu. Helburu honetatik ezin urten ezelan bere. Aberri bakarra osotuteko asmoa sartu jakin ezkerro, aberria azaldutera jo daigun. Antzerki batek erakutsiko leuskigu aberriaren edertasuna.

Tamalez aberriaren bila barik edertasunaren bila dabilzitanak, ezetarako ez dabe balio. Rolland eta beste antzerkigile batzuen asmoak geureganatu daiguzan. Antzerki herrikoiak eginez ezeze, *teatro revolucionario* egin daigun.

Gogai honeek zilotu jataz igandeko antzerki bat ikusi ostean. *Oleskaria* eritxon bati. Olertitsuegia edo. Herriak txalotu eban, bere agorako egokia izan jakolako. Uruñuela jaunaren lanetan olerti larregi senti daroagu.

Ama sakonagoa, abertzaletasunari jagokon erakoa. Gai eder baten jarraile, gizasemeak erakusten deuskuez euren bihotzeko minak eta poztasunak. Neurtitzetan egina dogu, mehe eta azalez. Orain arteko antzerkietan senti ez dogun urduritasuna senti eragin deusku. Beharbada *dramatismo* larregi. Negarrez beti egoteko jaiok ez gara eta...

Uruñuela jaunarengan antzerkigile on bat datza. Neurtitzetan barik hitz lauetan egingo baleu, atsegingarriago. Neurtitz onak biribildutea, gauza erraza ez da, zaila baino. Edonori dohai hori ez jako emon. Beste askotan neurtitza betetuteko asmoz edo, kimak sartuten dira. Giharraz eginiko lukainka gura dogunak zurikirik nahi ez.

Dana dala *Ama* antzerkiak txaloak merezi dauz. *Romance* edo diralako batzuk luzetxuegi diran arren, notintzaren begikoa da. Gai sakona, antzerki-arauz hedatua, bihotzari zirrara emoten deutsalana.

Ikusle guztien txaloak goratu eben.

Eta geurez be goratuten dogu. Elertizkoa da, bai behin, baina abertzaletasunari orpoz orpo jagokona. Horrek poztuten gaitu. Geure lanetan ez darabilgu beste asmorik. Ikusle guztien bihotzak urtu ziran geure abendearen negarraz.

Uruñuela jaunak egin leikena handia izango da. Antzerki bidez eusko bihotzak piztuarazo leikez. Eta bai behar. Zenbat lotan datzazan! Zorionak antzezlariai, antzerkiaren egileari eta Eusko Gaztediko mutil eta neska zintzoai. Guztien lana, lan gora-garria izan zalako.

Lauaxeta
1933-III-21

AZALPENAK IRRATSAIOAK

Gai honetzaz ekin genduan, baina zerbait barriro esan daigun. Urte oso bat igazi jaku eta urtebete honetan hamaikatxu lan eder egin dabe Donostiako Eusko Etxeakoak. Astero-astero irratsaioak emoten izan dabez. Zenbat eusko abesti entzun ez doguz entzun!

Eroapena ezeze gogo argia bere behar izango da holako lanak aurrera erateko. Egun batean edo bian zeozer egin daikezu, baina ekinari jarrai ahal izatea gizon zintzoen lana dogu.

Lanari ekiten deusanak txaloak merezi dauzala ezin ukatu, baina lan hori egoki eta berezia danean, goratu bere goratu behar da. Donostiatik irratsaioak entzun eragiten izan deuskuezanak lan asko ezeze, lan ona bere osotu deuskue.

Nok ez dauz entzun abesti txukunak? Artzeluztar Ameletxu edonok dazau, bere abotsa entzun dogulako ez behin, sarritan baino.

Zubimendi azkarra, Arantzamendi eta abar geure adiskide egin dira. Eta zelan gero! Irratiaren bidez! Holakorik entzuteko bere! Sorginkeria dala ezin ukatuko geunke!

Antxinakoak etorriko balitzaz, zer esanik gehiegi eukiko leuke. Ene, eta firutxu horren bitartez urrundiko hitzak entzuten dozuz? Donostian abestu daroena zelan entzun daikegu hemen ba? Abots hau umetxu batena dala? Sorginen bat hortxe estaldu-ta dago! Bai urrean, bai aurki!

Ez, ez dot holakorik entzun gura, eleiza ama santeak galera-zota daukaz sorginkeriak eta! baina hogeigarren ehunkiko gizo-

nak gareanok barre egingo geunke, larrezko barrea. Gizajo hare-ek ezer ez ekielako susmoagaz, barre ba.

Oraingo gizasemeak langorik ez ei da sortu ba ta. Eta izan bere harrituta geratuteko gauzea, entzuten dogun gauza hori dogu. Urrunetiko hitzak entzun beharra. Eta zelan gero?

Nori otu ete jakon holangorik? Neuri ez jatan beintzat burur-
ratuko beste horrenbeste.

Irratiaren sorginkeriak ezer ez dira izango jatorikon ehunkian. Geure lepotik egingo dabezan barre-algarak, Oiz menditik bere entzungo diralakoan gagoz! Gizonaren adimenak atrapau ez lei-
keanik ez dago eta.

Aurrerakuntza guzti honeek goragarriak dira. Holantxe uste dogu behintzat. Eta beste honenbeste uste izan daben donostiar abertzaleak lan ederrenetarikoa egin dabe.

Lan makala deritxazu urtebetean euskerazko irratsaioak emoteari? Neure baitan goratuten dodaz. Egia esan behar: aber-
tzaletasunari jagokezan zereginak ez dabez erabili, baina euskalt-
zaletasuna biztuteko lain diranak, bai horixe.

Era askotara eusko aberria goratu daikegu eta. Eusko abesti bat egunero entzun daikangunok, ondo bizi gara, baina aberritik urrun bizi diranak zelako poztasuna sentitzen ete dabe abesti bat, euren aberriko abesti bat entzuten dabenean. Urrunetan bizi diran-
nai aberriaren maitasuna eroateko bide ona. Ludian zehar banan-
duta dagozanak, negarrik asko egingo eben, irrati bitartez eusko abestiak eta hitzaldiak entzuterakoan.

Guzti hori donostiar abertzaleak egin daroe. Urtebete honetan asmo ederrak erabili badabez, ederragoak aurrerantzerako dau-
kez.

Goratu daiguzan, ba, zintzo-zintzo jarrai dagientzat.

Lauaxeta
1933-III-22

AZALPENAK LIZARDIREN OROIMENEZ

Gizon maitagarri haren gomuteak betetuten dauz geure gogo honeek. Neure kautan oldoztu daroat haren lana. Olerkari sakona izan zala ezin ukatu, baina gizon hobea zan. Elertilari trebeak baizen lehenago gizon onak nahi doguzala inoan. Honeri nago gaur bere.

Ha ezeze, beste olerkari batzuk be hilak dira. Haren besteko gomutarik itxi ete deuskue? Ezetzean nago. Herrietako izparkari guztiak eta idazlari gorengoak, haren gomuta goratu daroe. Egun ederra amaitzen danean zer jazoten dan edonok daki. Ortzi goian ikusten dogu ikusi bakezko urdina. Zugatzetan nahastuten da lainoa. Guztia da gentza.

Lizardiren amaieran be, ikaragarritzko bakea ikusten dogu. Haren azken hitzak gogoan doguz, guraso on baten hitzak legetxe.

Gerokoak hautetsiko dabe olerkaritzat. Itxi euskun idaztinoan baino ezin igarri ahal izan dabe bere gogoan, baina ludion bere ondoan izan ginanok olerkari on eta gizon hobegotzat geunkan.

Gomuta honek eroan ginduzan Tolosara. Herrian sartutera-koan itun genkusazan toki guztiak. Aurpegi askoren artean baten hutsa, ba. Non ete zan aurpegi maitagarria? Harek hain maite ebazan mendiai begiratzean, negarra begian eta samina barnean, besterik ezer ez.

Lagunai agur eta agur. Zenbat etorri ziran? Notintza handia bildu zan haren gomutaz. Aberri Etxeko antzokia beterik, hizla-

rien hitzak entzun guraz. Barrenatar Polikarpa, Ariztimuñotar Joseba, *Orixe* eta nerau hautuak izan ginan. Barrena jaunak hutsa emon euskun, beste zeregin batzuk egitera joan zalako. Haren hitzaldia, hitzaldi mamintsua izango zan, baina... Lizardi zanaren argazki eder bat geunkan geure aldamenean. Hari begiratutean negar isilak urteten euskun.

Labayen argiak, Tolosako endore jaunak, hitzaldi labur eta ederrena egin euskun. Lizardiren arima eta honena, bat baiziran. Hil zanaren gaztaroa, haren lor eta poztasunak azaldu ebazan. Labayen jaunak ondo ezagutu eban adiskide jaunaren gogo argia. Alkarrekin ikastaroak eginak ziran. Ikastetxeetan haren bestekorik ez ei zan, buru argia baita. Urte bian letradu egin zan, baina urte bi horreetan etxeko zereginak bere lepoan eroiazala, aita hil jakolako gaztez.

Labayen azkarraren hitzaldia begiko izan jakun. Txalo ugarriak jo geuntsazan. Hurrengo andereño bat.

Tolosako EABren lehendakari lirainak irakurri eban olerki bat. Jauregi jaunak eginik olerki eder eta negarrez beratua. Ondo irakurri euskun andereño lirainak eta notiuntza osoak negar egin behar. Lehenen *Lauaxetaren* hitzaldian ikusi gura izan genduan Lizardi olerkaria. Hitzaldi luzea izan zan, ona bazan ez dakigu baina. Tira ba, gizon argi harek gehiago be merezi eban, nire hitzaldi txatxarra baino; beste askoren faltan oster, neureaz kontentu izan beharko eban.

Orixe idazlearen lantxua, lantxu sakona eta entzungarria. Lizardiren gogoia eta Orixena kideko ziran. Egun luzeak alkarrekin bizi izan ziran, batak besteari aholku handiak eta onu onak emon eutsezan. Orixe jaunaren lanak, lan itunak ez dira izaten, baina igandeko ha, negarrez egin zan edo. Adiskide maite bati eskeintzen jakon azken agurra. Gauza handiak esan euskuzan, baina handiagoak esan leikiguz. Okerki puntarengo bat be irakurri euskun.

Lizardi zanak egin eban azken olerkia, Tolosako andereño polit batek irakurri eban. Ederto oguzten ikasia da. Lizardi uler-

katxa dala esan daroenak haren oguzkerea entzun baeben, besterik esango leukie. Erraz-erraz ulertu genduan. Zorionak emakume lirain hari.

Amaitzerakoan Aitzol azkarrak egin euskun hitzaldi sakona. Agirreren adiskide ona izan zan. Euskaltzaleak asmau eben, olerki-guduak be euren burutik sortuak dira. "Lizardi kistarra" gai hau astindu eban, bai behin, Aitzol jaunak. Abotik ezin urten izan jakozan hitzak, saminak ito arazoten eutsazalako. Jai eder honen gomutea, ez jaku ahaztuko. Hau ezeze gehiago be merezi eban hil dan harek. Prosaz idatzi ebazan lanakaz idaztiño bat egitea erabagi zan.

Asmo hau aurrera eroateko geure laguntza beti izango dabe.

Lizardiren oroimenez egin zan opamen hau argia zan. Tolosako abertzaleak ez dabe ahaztu gura euren adiskide eta aberkide izan zanaren gomutea; maite dabe.

Labayen jaunak esan eban legez, harrizko oroigailutxu bat egin behar leuskioe "Urte giroak" idatzi ebazan mendian. Argizko bide bat itxi eutsen gazteai; bide haretatik ibiliko diranak ez dira galduko. Abertzale zintzoa bazan, kistar ona bere bazan.

Betiko atsedena eukiko al dau, Goikoaren altzoan.

Lauaxeta
1933-III-28

AZALPENAK GAZI-GOZOAK

Eusko idaztiak gehituten jakuz, gehiago gura izango geunkezan arren, geuretzat nahikorik ez dagoalako. Elearen pizkundea nahi dogunok zer ikusi gura geunken jakitea gatxa ez da, erraza baina. Idaztiak esku artean nahi doguz, gehiagotzen dirala.

Idazle asko doguz jakitearen seme diranak, batzuk bertsoak josten, besteak miesaz ehunduten dabela. Ago askotarakoak dira, bai eta behar be, elertiak ez diralako neurri batekoak, askotakoak bai ostera.

Eta idazle azkar honeen arteko bat dan Barrenso argiak, bere lehenengo kutuna etxera bidaldu deusku. Harrera ona egin deusagu geure etxean sartu danean. Egun onak esanaz batera "Aurre-itza" gozatu dozu. "Aurreitza" k alperrekoak dirala, sarri entzun dogu. Zertarako diran ba aurre hitzak? Idaztitan esango dozuna eta ez dozuna azalduteko.

Idazleak esaten deusku: asmo hau neukan, baina ondo bete dodanentz ez dakit. Eta gerotxuago, barriz, beste lelokeria hau jaurti daroe: neureketz ez neban argitaradu izango, baina adiski-deak animatu nabe. Ondo jagok.

Agirre jaunaren aurre-hitzean, baina, halakorik ez daukagu, bere euskeraganako maitasun sutsua, bai, ordez. Gizonak zer diran jatorriz ikasia dogu idazle hau; jakitearen eta irakurtearen zale. Bai behin, baina geure aberri honetan zaletasun hori moztuta edo daukagu, jolaserako zaletasun gehiago dala, susmauten dogu.

Barrenso ro jaunak dirauskun legez, euskotarrak ez dabez nahi idazti sakonak edo itunak, arintxuak eta ipuin-narruz jantziak baino. Ago hori dauken ezkerero, horra eroan beharko doguz geure ur guztiak. Edestiak, ipuinak, kondairak eta gertairudiak atsegin-atsegin jakez. Ames-zale ez garala dinauskuenak, ohar hau banandu begie. Oraingo alde honetan, osterara, erderara jo behar geutarrak irakurri-mina daukenean, ele hau txiroa dalako liburuz.

Lotsati jokaturten da euskerea. Oker hau zuzendu gura dabena jo hona eta jo hara dabiltz. Agirrerren semetxuari aurpegia ikusi deusagu, bere aitaz itaundu deusagu.

Aita nor zan aspaldiz genkian. Idazlan asko egin dozu, irakurle, eta euskerea ondo ezaugututen dauana. Nahastuegi ez ete darabil? Hizkelgi guztiak nahastuten dauzala entzun dogu. Horrek esango deus euskerea ezaugututen daua.

Lanari eutsia dabil eta erreztasun asko dau idazteko. Idazletajuz egin da eta bulkoak, gogaiak badauz. Ez da edonor idazle izateko jaiio, hizkuntza sakonez ezaugutu arren, aditzaren gorabeherak txukun-txukun erabil arren, idazle kaskarrak badira. Gogoa behar, ederti-agoa. Barrenso jaunak dohai honeek badaukaz. Antzez be eskribidore baten aztarra dauka.

Txaidean zehar ikusiko dozu barruko pentsamentua eroan ezinik dabilan bat legetxe. Zapatak erdi narras, eskuak luze, begiak lurrera begira orain, gero zerurantz. Hitz egiterakoan, biguna, guztiai atsegin emoteko eran.

Jainkoak aukeratu dau idazletzat eta idazle izan beharko da. Lehenengo semetxu hau, aurreztari dator, bide ilunak argitu ostean, beste guztiak etxetik urten daitezantzat. Bidean galduko ete da? Neurekiko beldur naz, euskotarrak ez deuselako ukurtupen handirik egiten liburu dan liburuari.

Liburutxu honek mamin ederra dauka, irakur erreza da. Edonori asti on bat igaro erazoteko langoa. Bere giharrez jardungo gara, gaurko hau lehenengo agurra baino ez dan ezkerero.

Gaien barri jakin gurako zeunke? *Euzkadi* izparringiaren irakurle bazara, behin baino gehiagotan irakurriko zenduzan egile

honen idazlan txukunak. "Loreti" maitasun-edestiaren ataltxu batzuk begi-begiko iruditu jakuzan. Sei atalburu daukaz nobela edo irakurgai labur honek. Idazleak badau irakurgaiak idazteko tankerea. Bigarren jatorku, "Larretxoko sorgina" arin-arina eta arnasa baten irakurten dan irakurgaitxua. "Mikel, arrantzale zangarra" be, ez da makala, ona baino. Baroja, Silvio Pellico, Walter Scott, Pipini eta abarren lanak be euskeratu dauz. Ondo euskeratu ganera.

"Kirikiño" sariz saritua izan zan lantxua be irakurri daikezu. Idazti txikina, baina mamin handikoa egin deusku. Euskaldunak esango dabe irakurteko gogorik daukenentz.

Agirre jaunak idazteko mina dauka, idatzi gura leuke, irakurleak adoretu begie. *Gazi-gozoak* edonoren eskuetan ondo legokez. Erosi eta irakurri egizuez, ba. Zertzelada gehiago hurrengoan.

Lauaxeta
1933-IV-12

AZALPENAK GAZI-GOZOAK

Idazti barri honetzaz zerbait esan genduan, baina gehiagorik esan beharra dogu. Barrensororen lehenengo kutuna irakurri ostean, asmo bat sortu jaku. Idazle honek zegaitik irakurgai batzuk ez dauz idazten? Irakurgai edo nobelak egiteko gairik asko dau, ba.

“Loreti” deritxon ataltxua holako taiuz egina da. Mendi artean datzan Urizarko neskatila lirainaren gorabeherak edestuten deuskuz eta oso atsegingarriak jakuz. Uriaren bihotzetik asko urrindu barik, itsasora bidean ezkerretara, gaztelu ederra begizatzen dau bidaztiak. Geuk be idazti honen bidez gaztelu hori ikusi dogu. Eta pozik gazteluko okulu guztiak arakatu doguz.

Zegaitik irakurgai gehiago ez dauan idazten? Eusko idazle gehienai jazoten jakena Barrensorero jaunari be jazoko jakolako edo. Halan bide dogu. On eta eder asko ikusi daroaz, baina idaztiak egiteko dirua ezeze irakurleak behar dira. Idazten dan bitartean lan sendo egin eta gero dirua galdutea, inori ez jako begiko izaten.

Eusko elertian agertuten ez bajakuz idazti gehiago, irakurleak dauka errua. Hau zelan izango dan? Erraz azaldu daiketsut. Eusko idaztia erosten ez dan aldian ezer ez dogu egingo. Liburutegietan sartuta eukiteko ez dira idaztiak, eskuz esku ibili dagizantzat baino.

Barrensorero jaunaren asmoak jakin doguz. *Gazi-gozoak* deritxon hau salduten badau, beste batzuk josteari ekingo deutso. Eta giharra eta azala daukaz honek. Euskerea sakonez ezagutu daroa.

Neure ustez epiteto larregi erabili darabiltz. Edo be, erreztasun ugariari emona dakusgu. Beste akatsik ezin ohartu geinkio, ez baitauka.

Ondasun guztiak eta akats txikerrak "Goazik baserri aldera" deritxon idazkian daukaz. "Kirikiño" saria bereganatu eban honen bidez. Eta ondo merezia. Baina, gure ustez, gaiari hasiera emon baino lehenago bihurkera batzuk emon daroaz. Uretan sartu baino lehen oinak busti guraz ibiltzen danaren antzera. Honetarikoa asko dira. Igeri nahi, baina hotzaren bildurrak atzerantz daragoioe. Plisti-plasta uretara sartuten danak ez dau holako dar-dararik izaten.

Aditzean, ostera, nahaste larregi ikusi daroagu. Nahastu egi-ten dauz bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa. *Ditu* eta *dauz*, *ditugu* eta abar edonok darabiltz, baina beste era batzuk be aurkitu doguz.

Euskerapenari eutsiegi dabilela? Ondo egina deritxagu. Geure barrutian lora bereziak sortuko diran arte, beste elerti batzuei laguntza eskatu behar. Barojaren irakurgai-atalak begi-begikoak jakuz. Ondo euskeratuak. Altzateko jaunaren ataltxuaren samurra. Harako lelo ha:

"Sagarra lodi-lodi
denbora denean,
Gazteak hankak arin
Soinua jotzean."

Erderaz idatzi daroa Barojak, baina harek ainako eusko izatearen sundarik ez dauka inok. Nok harek baizen ondo idatzi deuskuz mendiak eta itxasoa? Tamalez geure herri honi, eusko gogoaz barik elertilari begiakaz begiratzen deutso, bestela Barojaren antzekorik ez zan izango.

Agirre jaunak badauka ago zuria halako atalak aukeratuteko. Silvio Pellicorenak, ostera, ez jakuz atsegin. Negartia dogu idazle ha. Eta gaurkoak ez gagoz negar egiteko aginean. Maroncelli giza-joa antxinatik ezagun dogu, baina ez gara adiskide inoiz egin.

Honeek gorabehera, idazti barri hau, idazti ona dogu. Eusko elertian bere lorea emongo deuskuna. Elertilari on bat dogu Barrensoरो jaunarengan, ez bedi atzeratu. Goizeko izotzak jotzen dauz geure elertilariak, laguntzarik ez dabelako aurkituten edo. Irribarrea ugari ikusiko dabe, besterik ez bada be. Eta elertilari guztiak umeak lakoxeak dira: maitekiro haziak dira.

Zigorkadaka hasten bazara, galduko dozuz. Herri guztiak itzal handia eta maitasuna deutse, baina eusko artean halakorik ez dakusgu. Aldatuko dira aldiak? Gerokoaren izpar nok daki.

“Hartu begi gogoz zaldun gazteak, dakarkiodan emaztegai liraina. Erbestean eskein-hitz bat beteaz ibili dan bidaztiak izan begi laguntzat aurrerakoan ere hitza zaintzen jakin dauan emazte txoragarria. Jaungoikoari eskerrak. Gazteluko atea agintariak zabaldu izan ez baleustaz, belu izango zan behar. Orain bihotza gainditzen deustan zoriona, zorigaitz eta atsekabe huts bihurtuko zan.”

Gazteluko atea zabaldu dagioguzan idazti honi. Bidaztia dator urrunetik. Barrensoरो jaunaren kutunari atea zabaldu, arren, geurekin geratu dedin.

Lauaxeta
1933-IV-20

AZALPENAK

“TXISTU Y DANZAS”

Donostia abearen hitzaldiak zelakoak izaten diran ondo daki-gu. Elertilari errimeea dogun ezkerero, hitz bakotxean edertasunaren antza eta jakintzaren sundea itxi daroaz. Hile asko dira txistuaz mintzatu zala. Billbaoko Filarmonica deritxon aretoan ikusi genduan bere bizar mehe eta motzagaz. Gizon argia dala berehala igarten jako.

Lekaidetxu honek zabaldu dauz geure eresiak. Europan zehar entzunak badira euskoen eresiak eta dantzaketak, honi zor jako. Hitzaldiaren iragarkia ikusi genduaneko poztu ginan: “Notas breves acerca del txistu y de las danzas vascas.”

Gai honetzaz beste inor hobeto mintzatuko litzateke? Eze-tzean gagoz; Donostia abea ez da alperrik ibili herriz herri. Atso zehar bakotxaren abotik ikasi dauz zoragarritzko abestiak.

Entzun geuntsan hitzaldia, hitzaldi ederretarikoa izan zan. Eskuetan bageunka, inogun. Irakurteko mina sortu zan. Eta hona hementxe argitaratuta orduko hitzaldia. Bizkaiko Txistulari Batzak emon deusku, Uzelai margolari ospetsuaren margozki batzukaz.

Edertoago argitaratuta ezin ikusi geinke. Begiak atseginduten jakuz, baina begiak baino gehiago adimena eta eusko gogoa. “Eusko gentza, gentz deuna, igandeko eta jai-egunetako gentza, alaitasunezko gentza, uriko eta etxeko gentzak, zaharren eta gaz-teen gentzak”, Tejada jaunak nabaritu daroa hitzaldi honetan. Tejada jaunak urritza egin deutsa eta zoriz egin be. Jaun honek lan handiak egin daroaz geure txistuaren alde.

Bizkaiko dantzak eta Euskadi osokoak ikusten doguz ikusi hitzaldi horretan: ezpatadantzea, txakolina, mahai ganekoa, kaxarranke, aureskua, makil-dantzea, katadera-dantzea, esku-dantzea, almute-dantzea, zahagi-dantzea, ingurutxo, dantza luzea, antzara jokoa, korrea dantza, zartain-dantza, itsas-dantza, ipuri-dantza, neskatxa-dantza, muxikos edo mutikos, katxa-dantza, godaleta-dantza, kilun-dantza, 'Jean petit qui danse' eta bere-din gehiago.

Dantza guzti honeen izparrak emoten deuskuz eta bakotxaren eresia zelakoa dan be esan daroa. Donostia abearen lanetan zer ikasi asko dago, eta hitzaldi honetan asetu geintekoz.

Geure txistulariak badauke zer jo, Espainia aldetik jatorkuzan lelokeriak alde batera jaurtirik. Antxinako *juglar* esaten jaken haren antzekoak doguz geure txistulariak. Honeek dira oturun-tzetako edo bazkarietako poztasuna.

Txistulari barik non bazkalduten dira euskoak? Elertilari apal eta txiroak, baina benetako elertilariak. Geure aberria ezin osotuko dogu txistulari barik, honeek isilduko diranean, eusko gogoa bere isilduko dalakoa. Abesti, txistulari, dantza eta poztasun barik ete legoke Euskadirik?

Benetako maitasuna zor deutsegu lan hau egin daroenai; edate-dantzako eresia langorik ez dogu entzun inoiz. Antxinako *ballest* hareek, Lullyren aldikoak be, ez euken holako edertasunik.

Zorionak ba, Donostia abeari eta Txistulari Batzari holako idaztino zoragarria argitaratu dabelako.

Lauaxeta
1933-V-19

TEATRO VASCO *TXANTON PIPERRI* EN BILBAO

Un acontecimiento artístico se nos anuncia para el sábado y domingo próximos. El notable orfeón Eusko Abesbatza de Donostia se ha sentido con fuerzas para poner en escena la ópera vasca, en tres actos, música de don Buenaventura de Zapirain, letra de don Toribio de Alzaga, titulada *Txanton Piperri*.

El triunfo obtenido en Donostia ha sido parte para animar a los excelentes artistas a venir a Bilbao. La ópera vasca que resonará en el Arriaga es la página más bella de nuestra historia. Aún recordamos las frases de Lope García de Salazar en su libro de las "Bienandanzas e fortunas". De la torre de San Martín de Muñatones salió el argumento de la obra de Alzaga.

La lucha de los ganboinos y oñacinos, con sus incendios, saqueos, robos, odios y rencores de familias linajudas sirven de marco y argumento a esta bella producción vasca. Y entre el fragor de las armas suicidas que los hermanos de raza levantan, se escuchan aires de vieja leyenda. Sobre un zarzal florido aparece la Virgen de Arantzazu. Y la leyenda adquiere suavidades de milagro en la boda de la linda Maritxo. El canto de los peregrinos y los ecos de las campanas que se escuchan en la lejanía van amortiguando los rencores fratricidas. Los Lazkano, Loyola, Lizarreta y otros *haundikis* de aquellos tiempos de la Euskadi negra quedan purificados con el canto que entonan en loor de la patria.

Los tiempos, pues, de *Txanton Piperri* son de gran interés histórico para nosotros.

El feudalismo bárbaro y salvaje arrasaba los campos de la tierra vasca, mientras que el pueblo sencillo, conservador de la raza milenaria y de su idioma, se esforzaba en imponer los cánones de la democracia.

Las torres feudales alzaban con orgullo sus testas y querían sujetar a su fuerza a todos. Las costumbres salvajes de que nos habla Lope García de Salazar eran fruto de los extranjerizantes señores.

En aquél período triste de nuestra historia aún no quedaban bien dibujados los perfiles de los Estados vascos, porque su organización sufría la violencia de los aristócratas. Para nosotros, la razón porque se recopilaron y se transcribieron los fueros o leyes vascas fué esa lucha eterna de los señores contra los gremios, las villas y el pueblo llano.

En aquel desbarajuste de cosas no pudo encontrarse otra fuerza para contener a los bárbaros feudales sino las leyes que regían en los Estados vascos. Por otra parte, entonces surgen con vigor las villas. El instinto de conservación obligó a nuestros mayores a formar estos baluartes.

No es nuestra labor en estos momentos el trazar el marco en que se desarrolla y cobra belleza la obra de los señores Zapirain y Alzaga. Rozamos estos detalles para dar una idea de la grandiosidad y envergadura de la ópera. No falta tampoco el enredo del amor, aunque con discreción y sumo acierto.

Entre nuestras notas encontramos la fecha del estreno de *Txanton-Piperri*. Con una profunda emoción vieron el año 1899 el estreno de la ópera en el teatro Principal. Fué un acontecimiento. El Ayuntamiento presidió el acto, por acuerdo tomado en sesión. Y tras varias representaciones seguidas del éxito más lisonjero, la obra saltó al teatro Arriaga de Bilbao. No es desconocida, pues, la obra. Sabino de Arana y Goiri y el señor Sota aplaudieron la bella obra. Ha tenido otras varias representaciones, y siempre con éxito.

En la Prensa de los últimos días del mes pasado podemos leer los elogios unánimes y justos que todos los diarios han dedicado a

la producción de los señores Zapirain y Alzaga. La crítica ha coincidido en subrayar el mérito de la ópera. Tal vez las exquisiteces musicales de hoy en día obstruyan el paso a las obras de otros días. La musicología vasca ha avanzado notablemente y ha llegado a encauzar sus tentativas por caminos de estilización y pulcritud, que tal vez no pudieran encontrarse en las obras del pasado siglo. Pero esto no es obstáculo para que los amantes del arte en sus múltiples manifestaciones y matices temporales sientan verdadero placer al escuchar la música inspirada del maestro Zapirain. En materia musical nada es despreciable, lo mismo que en todo arte. Y es de necesidad que los alambicadores modernos midan con justeza todo el esfuerzo de sus progenitores en preparar el camino a la perfección.

Los de mañana juzgarán con tanta dureza a los de hoy como éstos juzgan a los de ayer. Es ley del tiempo. Pero es también verdadero que el valor de las obras se aprecia a larga distancia, con perspectiva. Cuando se remansan las pasiones, se decantan los sentimientos, es dado juzgar con serenidad todo el mérito de las producciones de arte.

Por lo tanto, es de agradecer esta tentativa del Orfeón Vasco por querer darnos las obras de ayer para que podamos juzgarlas con ponderación y peso.

A estas bondades hemos de añadir el extraordinario mérito del Eusko Abesbatza. Nadie ha dudado siquiera del arte de estos jóvenes fervorosos, que *sacan* la obra con la máxima finura y exquisitez.

En nuestras notas diarias dejaremos un reflejo de su actuación. Por hoy conste nuestro entusiasmo por su valentía. Con agrado nos preparamos a ver y escuchar la gran ópera vasca el sábado y domingo próximos.

El pueblo de Bilbao ha de recibir complacido esta peregrinación artística de los donostiarras. Ellos vienen con entusiasmo y deseosos de agradar al público bilbaino. Las líneas que saltaron en la torre de Muñatones de la pluma de Lope García de Salazar

vuelven a Bizkaia. Bien es verdad que algo transfiguradas por la fantasía del artista, pero siempre con el sello netamente vasco que les infundió su autor.

“Salieron Fernando de Ganboa e Ladrón de Valda, e los de Zarauz de Iraeta, e Achega, con todo el poder de los ganboanos, con una luna la noche de Navidad, e atravesando muchos montes e valles llegaron en alborada en Lescano... e quemaron la casa de Lescano, e saltó Joan Lopes de Lescano de la casa en camisión por una ventana al río, que va so la casa, e pasó a nado allende, e así escapó de la muerte.”

Lauaxeta
1933-V-24

EN VILLARREAL DE URRETXUA: EL IV DÍA DE LA POESÍA VASCA

La poesía vasca no debe gran cosa a Iparragirre, en cuyo honor se celebraron las fiestas del domingo. Pero el valor literario del bardo de Urretxua no debe ser medido según las normas de la crítica moderna. Las letras vascas han avanzado para que paremos en algunos versos más o menos inspirados.

Por encima de sus poesías está el hombre de carácter, siempre añorando las libertades de su patria. En cada una de las canciones que brotaron de su alma dejó un inconfundible amor a Euskadi. ¿Su cultura? Muy poca cosa tenía que ser, puesto que los años de la juventud los gastó en recorrer montañas y valles.

Pero este magnífico símbolo de la raza que presentía algo transcendental en su interior, no hubiera pasado de ser un pobre romántico, de no venir más tarde el nacionalismo. La obra incompleta de Iparragirre cobra prestancia y totalidad en la mente de Sabino. Bien puede conformarse con el título de precursor inconsciente.

En torno, pues, de esta figura simpática han organizado los euskeristas que componen la Sociedad Euskaltzaleak un certamen poético. Cada año aparecen líricos que dan rango y altura al idioma.

Con deseos de admirar estas fiestas que nos rememoran los Juegos florales de Cataluña y Provenza, sin olvidar las que tanto amó el lírico valenciano Llorente, al frente del Rat-Penat, fuimos

a Urretxua. Las calles, animadas. Siguiendo la ruta de edificios oscuros que soportan el peso de los años, llegamos a la plaza pública. La estatua del bardo se levanta en ademán arrogante. Es el momento de cantar el "Gernikako"; pero la guitarra de Iparra-girre está muda.

El Cuadro Artístico de Zumaya había representado la víspera una bella obra teatral. Pierre Loti no sospechó siquiera que su *Ramuntxo* había de conquistar los aplausos de nuestras gentes y que el euskera acogería en su seno aquel amor del joven vasco. Don Toribio de Alzaga se encargó de dar vida teatral a la famosa novela. Y el pueblo de Urretxua la aplaudió con entusiasmo.

Durante la misa mayor, cantada por un coro nutrido, pudimos escuchar un maravilloso sermón. El doctor don Antonio de Abaunz supo explicar el tema "Oración y poesía" en una magnífica dominical. La oración y la poesía han encontrado siempre una hermandad espiritual en la tradición de la Iglesia. No queda un profeta sin que reuna en maravillosas poesías sus plegarias a Dios. El Magnificat de la Virgen es un ejemplo.

En el salón del Ayuntamiento, una bella conferencia de don José de Eizagirre, presidente de Euskal Esnalea. Una conferencia que supo concretar la vida del bardo vasco y encuadrar su figura en el ambiente. El juicio del señor Eizagirre estaba en su punto en todo momento. Gran capacidad la suya.

¿El nombre del poeta laureado? Este momento suele causar cierta impresión amorosa en cuantos apreciamos el idioma. Suele ser la aparición de un nuevo valor. Y también su consagración. Por ello sólo debieran de ser miradas con simpatía estas fiestas poéticas. Quién será don Francisco de Etxeberria? Hacemos memoria y al punto recordamos la versión euskérica de la *Eneida* de Virgilio. Fué director del semanario euskérico *Argia*. Luego su nombre quedó en la penumbra. Había ingresado en la Compañía de Jesús. Desde Bélgica volvía a recordarse de su patria. Una larga poesía, "Bost Lore", traía algo de su espíritu selecto. El Tribunal, compuesto por los señores Lekuona, Arrese e Intzagarai, concedió la

rama plateada de roble a esta poesía. ¿Nuestro juicio? Es difícil medir todo su valor en una sola lectura. Esperamos que aparezca junto a las otras poesías que concurrieron al certamen. Por de pronto, la figura del señor Etxeberria se nos presenta como un valor más que levantará el idioma.

Del concurso de poemas merecieron el premio los señores Urkidi y Kerexeta. Otros valores desconocidos. Nos alegra este florecimiento de poetas que se atreven con poemas euskéricos. Por fin, otro tercer premio a las mejores colecciones de poesías populares. Han llegado veinticuatro antologías. Los señores Dorronso-ro, Ezenarro, Gorrotxategi y don Fernando de Urkiaga se llevan las pesetas. Entre aplausos y plácemes de los presentes, se van retirando los premiados.

El señor Ariztimuño, alma y vida de estas fiestas poéticas, cierra el acto con unas profundas palabras. El renacimiento vasco va siguiendo su trayectoria.

Luego cantan los bertsolaris, la banda da un concierto de música. Toda una hermosa fiesta de poesía y música. El pueblo de Urretxua se alegra con el homenaje a su hijo ilustre. El banquete popular resulta encantador, pues los hermanos de Donibane Lohitzun han llegado en dos autocars.

Allí saludamos al autor de "Maitena", Colin; doctor Jauregi-berri, los hermanos Larre Dargais, Bilbao, Urionaguena, Dublane, Olaizola, Albert, Duperou, Duhart, Landes, Olaizola, Dardisguyin, Garitaonandia, Perissena.

Entre aplausos y vítores a estos valientes euskaltzales celebramos una fiesta de hermandad racial. El propagandista Altzeta enaltece el mérito de estos vascos que llegan de la otra parte del Bidasoa. En la mesa se sientan el digno alcalde de Urretxua, señor Berriotxoa, el alcalde de Tolosa, Antonio de Labayen, Eizagirre, Elosegi, Iñurrategi, Zubimendi, *Luzear*, Artetxe, Abaunz, Tellae-txe Ariztimuño, Leizaola, Esnaola, Arri-Gotzon. En fin, una concurrencia numerosa e inteligente.

A la tarde llegan muchos cientos de euskal idazles y euskeristas.

Y en el frontón Ederrena se celebra una hermosa fiesta. El alarde de ezpatadantza causa una grata impresión. Bergara, Tolosa, Ordizia, Alegría, Ataun, Zaldibia, Arrasate, Soraluze, Elgoibar, Legorreta, Azkoitia, Lazkano, Beasain, Zumarraga, Legazpia, Eibar y Urretxua han podido formar un gran alarde de dantzaris. Los gorularis son también un número considerable.

El frontón resulta pequeño para contener a tantos ezpatadantzaris, y bailan sólo ocho grupos. Más tarde, en la plaza pública, bailaron todos juntos.

El orfeón de Urretxua, con 180 voces, canta diversas canciones: "Festara", "Goizeko Izarra", "Txarmangarria", "Eskerrak Jaunari", "Ume eder bat" y "Gernikako Arbola". La inteligente dirección del señor Nabarro ha sido capaz de formar un hermoso coro que canta con gusto.

En los intermedios el renombrado barítono de Deba señor Urkiri canta con finura y gusto artístico refinado diversas melodías vascas.

El festival terminó con la actuación de los bertsoaris.

Qué hemos de pensar de tales certámenes? Las fiestas de la Poesía Vasca han tenido una importancia real en nuestro actual renacimiento poético.

Sin contar con "Lizardi" y "Bedoña", fallecidos recientemente, podemos presentar poetas de alta inspiración: Orixe, Jauregi, Tapia-Perurena, Loidi, Enbeita, Jakakortajarena, Etxeberria, *Utarsus*, Kerexeta. Nombres que pasarán en la literatura vasca como símbolos de un renacimiento pleno.

En el homenaje a Iparragirre han aparecido nuevos valores. No es pequeño mérito. Pero no es tan sólo el consagrar valores; es algo más profundo que llega al alma del pueblo.

Es menester que el pueblo vasco sepa apreciar a los poetas y escritores, y no conseguiremos eso si no es merced a estas fiestas de tan delicado matiz cultural.

No era la figura de Iparragirre la que nos entusiasmaba en aquel acto: era la vida de ese pueblo que tan admirado entusiasta

encontró en aquel bardo. Entre los diversos factores que juegan en el renacimiento de un pueblo, los valores espirituales son los esenciales. Los nombres de Porthan, Lómrot, Cygnaen o Arthau tienen que ser considerados como los despertadores de un entusiasmo sin límites. En Euskadi mismo, el fundador del nacionalismo no se avergonzó de la poesía.

Aún nos falta el genio literario que haga el milagro de la resurrección del euskera. Pero esperemos. La Providencia puso en Iparragirre algo genial que detuvo al vasco en su muerte. Luego nació Sabino. La patria quedó en vías de salvación. Tal vez llegue el prometido del euskera que celebre las bodas misteriosas que soñó el llorado Lizardi.

Lauaxeta
1933-VII-18

KIRIKIÑO ZANAREN OROIZ

Gizon on eta abertzale zintzo haren gomuteak alkartu garoaz. Ezin kendu daikegu burutik haren lan ederra. Euskadin izan ziran gizon on askoren artean azkenengoa barik, lehenengoa izan zan.

Geure irakasle bakarra izan zan Sabinen jarraitzaile argia, euskerea maite-maite izan ebana. *Euzkadi* honetan idatzi ebazanak erein eben benetako abertzaletasuna. Urteak joan urteak etorri, haren lana aratzago geratuko jaku. Bai, ba, abertzaletasunak indartu daroan lana, betiraunerako lana dalako.

Euskerea gora eta behera darabilen askotxuk, Kirikiñoren gogaia ontzat hartu behar leukee. Euskerea maitagarria dalako ez eban maitetuten, geure aberriaren elea dalako baino. Honetan aldakuntza handia dago. Batzuk maite dabe antxinako ele zaharra dalako. Jakintzazaleak erabili darabile, gauza bakanak erabiltzen diran legetxe.

Baina Kirikiño ez zan holakoa. Ele hau maite eban, geure aberri bakarraren ezaugarrikerik ederrena zalako.

Horigaitik idatzi eban. Baina idazle argia izan bazan be, haren gogo ona goragarriagoa zan. Kirikiñoz hitz egingo danean, idazlea goratuko dabe, baina ezin baztertu ahal izango dabe haren ondasuna.

Bihotz hoberik ez zan. Guztientzat eukan barre-irri samurra. Eta bide latzetan hasi diran idazleai lagunduteko, haren ainakerik ez da agertu, ezda be agertuko.

Orain, hildegian lotan datzanean haretzaz gomutauten gara. Ezin ahaztu gara. Eta zelan ahaztuko gara? Euskadi guztiko idazleak, urtero-urtero euren lorak opatuten deutez.

Mendi artean ostendurik dagoan hilobi haretan, hamaikatxu otoi samur esaten dogu. Aurtengo otoa be, beste urteetakoak lako-
xea izango da. Goi aldetik lagundu daiskula geure aberria askatu-
ten. Geure hizkuntza honi arnas egin degion Jaunak, arren eskatu
degiola.

Gaur batuko garan hildegi txiroan, guztiok bat-batera daigun
eskari hau. Geure ahaleginak ezer ez dira, Goikoaren arnasa
barik. Hareri jagoko hiltzorian dagoana gaizkatutea, berari dago
herrien askatasuna.

Kirikiño ikertuten joango garan jeltzaleak, batez bere hain
jeltzale zintzoa izan zanaren adiskideak, zin dagigun geure ele
eder hau goratuteko.

Pitxi bat dalako ez, Euskadiren mamina dalako baino.

Egun honetan, *Euzkadiko* lehenengo idazlea izan zanari, otoi
hau bidalduten deutse bere ikasleak. Goiko atsedenetik, Sabine-
gaz batera, arren dagiela geure alde.

Lauaxeta
1933-VII-23

ABERRIRI OMENA

Euskal idazle bati omena egingo jakola esan baeuskuen antxinatxu, ez genduan sinistuko. Ostikolariak edo ukubilkariak berein omen hartuten izan dabezan herri honetan, ezer ez dira izan idazleak. Dirudianez ukubilkada bat emoteak garrantzi handia dauka. Idazleak baino bai behintzat!

Buruan kapela eta sur ganean betaurrekoak eroiezan gizonak, ostikolari edo ukubilkariai omenak egin ezinik ebiltzan.

Eta kapela eta betaurrekodunak jakintsuak ziralako ustean gengoan...! Baina ukubilkari batek zer aintzarik damotso herriari, ba? Inoren musturrak apurtuten dauzala?

Eta honetzaz dinardugun ezkerro, Bizkaiko herritxu baten jazo zana azaldu behar dot. Olerki-sariketea izan zanean, ezer ez dan idazle batek lehenengo saria jaritxi eban. Herriratu zanean, zorionik ez eutsan emon sukaldeko katuak be. Beraz, olerkari izatea eta traperu izatea, gauza bat dira. Baina geroxe pelota-txapelketea izan zan herri haretan. Mutiko bi txapeldun geratu ziran eta herri osoa urten jaken geltokira. Txistulariakaz eta guzti! Kea erabilen bolandera edo txapliegoak, eta dana zan zaratea eta poza.

Bestela egingo eban olerkari zoroak pelotari egin bazan, harrera hobeak behintzat izango ebazan! Eta hauxe berau idazle guztiai jazo jake. Berrehun omenaldi egin jakez ostikolariai; zenbat egin jakoz Azkue jaunari? Horren lanak balio dabe ba, ostikolari guztien iztar lodiak baino gehiago...!

Baina tira! Ez gaitezcan hasarratu. Gauzak aldatuten dirala edo dirudi. Oraingoan idazle bat goratu daroagu. Beti ez dira

izango harrijasolariak edo bazkari baten artxo edo arkumea jaten dabenak. Azkenengo honeek urdailaz oldoztuten dira, baina urdailaren larrak amaiera txarra dauke. Gehienez be irolean.

Buruari jagokozan lanak baino ez dira goratu behar, burua bide dala gauzarik handienak egiten diralako. Berrehun ostikolari baino maiteago dogu olerkari on bat. Eta eskari hau egin daroagu egunero. Sortu daitezala idazle eta olerkariak, ostikolari bat be izan ez arren.

Eta zetarako gura dozu idazlea, ba? Ludi osoa dozu idazleena. Matxinadak eta asaltoak ez dira egiten ukubilakaz, idazleakaz baino. Adimenak argiz betetu daroaz idazleak. Geure Euskadi honetan zelako lan ederra ez dabe egiten idazleak. Eskerrak eurai abertzaletasuna aurrera doa. Egunero tanta-tanta isuri daroe aberriaren ezagupidea.

Eta idazleen artean, azkenengoak ez dira herri-idazleak. Herri bakotzeko izparrak eta gorabeherak bidalduten dabezanak lan gurena egin daroe. Elearen alde ezeze, ekandu onen eta herri izate guztiaren alde ahaleginduten dira.

Euskal idazleai ez jake eskerrik emon oindino, baina gaurko abertzaletasunaren gurasorik onenak eurak dira. Urtero-urtero zenbat hazi erein ez ete dabe? Hizlariak egiten ez dabena, eurak egin daroe. Lehenago ezer ez zan irakurten geure ele honetan, orain gehitxuago. Zegaitik? Herriko izparrak ikustean-edo, asko zaletu diralako.

Idazle honeen artean, gorengo bat *Aberrri* dogu. Gorengoa? Omenaldi baten gai, bai behintzat. Eta honi egiten jakon legez, beste batzuei be egingo jake. Urtero egin behar litzateken jaiak dogu. Urtean idazle bati omenalditxu bat egin. Hori dok hori, ardiak ardiaren omen!, norbaitek esango deusku. Ez dago ajolik edo ardurarik. Omen hori dala-ta, idazleak batuko gara, alkar ezagutu eta asmoak barriztuteko.

Aberriri egingo jakon omen horretan erabagi hau hartu behar dogu. Baina gehiagorik be badago. Euskal idazlearen jakintza

gehiagotuteko bideak arakatu daiguzan. Zelan edo halan idazle honeen jakina sendotu behar dogu.

Herri-idazle onena nor izango litzakean? Bere herriko izparrak ezeze inguru haretako euskerearen joerak, esakerak, ipuinak, bertsoak eta abar batuko leukezana. Non lan egin badauke ba.

Elgoibarren izango dan batzar horretan “eusko idazle-batza” eratuko dogu eta batza horrek asmau begiz araurik onenak. Bateko *Txistu* eta besteko *Egunerokua* darabilguz. Gauza errezagoa esango dogu: idazle bakotxak bere herriko mendi-baserri soloen izenak batu begiz. Ipuinik ez dago? Agure zaharren esaerak, amamaren kanta zaharrak. “Jauregiatar Kaulderi seme bat jaio jako” idaztea ez da gauza gatxa edo zaila. Ondo egina dago, baina beste zeozer gehiago be izango dozu herrian. Herriko *artxiboan* sartu zara inoiz? Eleizako idaztietan diran eusko abizenak ikusi dozuz? Hasi lehenengo idaztitik eta gaur arte izan diran abizenak batu daikezuz.

Euskal idazle asko eta asko doguz, baina herriko izparrak bidaldu ezkerroan pozik dagoz. Loren izenak badakizuz? Solo artean diran bedar edo loren izenak adiraldtu egizuz eta zeure izparringira bidaldu. Eusko Idazle-Batzaren artxiboa egingo dogu. Hantxe gordeko dira idazle bakotxak bidalduten dauzan esaerak, ipuinak, bedar edo lora-izen eta abar. Zelako lana egin daikegun!

Baina idazki hau luze doa. Hementxe apurtuko dogu, bihar-koari be zeozer zor jako eta *Aberriren* omen honek onura handiak ekarriko deuskuz.

Lauaxeta
1933-VII-29

ABERRIREN OMENARI BURUZ

Idazle bati egin jakon omen hau, ez jaku ahaztuko. Bakan-bakan da izan be idazle bati omenak egitea eta! Euskotarrok zentzun apur bat daukagula erakutsi dogu oraingoan. Beti ez dira izango tripa-txapelketak eta ostikolaritzazko omenak!

Aberrri aukeratu genduan omen-gai. Bai merezi be gizon pres-tu horrek! Hamaikatzu lerro idatzia dogu bere bizitzan. Beste saririk ez dau irabazten cusko idazleak, geure artean ez dagoalako *entxuperik*. Seilotxua bera be geure sakeletik ordaindu behar, eta izparringiko artezkari kokoloak argitaratzen badabe pozik. Sarri askotan otzara sakonera jaurti daroe, ez da halan? Tintea jalgi, seilotxuan jalgi eta otzarara joateko hainbeste lan.

Baina hau guztiau egin daroagu geure aberriak eragiten deuskulako. Beste inoren ederrak ez gaitu lotuten.

Omentxu bat beharrekoa zan, ba. Eta aurtengoa *Aberrri* mutil-zaharrari egin jako. Hurrengoan besteren bati.

Beharbada aurtengo aina emakume ez dira batuko beste omenetan. Ezkongaietan dagon *Aberriri* ondo esaten deutse emakumeak! *Aberrri* izan dalako izan, gizon apala eta maitekorra. Hori dala-ta, hainbeste idazle batu ziran. Guztien abizenak edo izenezkutuak? Beste lan batzuk arazopetuta ibili nintzanonek ez nebazan oro hartu, baina tira, gehienak hemen izango dira.

Ahaztuta geratzen danak, asketsi begist: Mendi Lauta, Otxolua, *Aberrri*, Ikur, Atarrene, Altzeta, Otarra, Anastaxio, Atxuri, Zonzezke, Zebain, Aingeru, Goikolako, Izparkari, A-Bi, M.'dar G., Leb.tarra, Andoni, Biriatu, Aloña, Basarri, Txaranbel, Euskal

irratsaioko pianista, Muru mendi, Alberdi, Ixaka, Mirenen alaba bat, Mokoroa, Mujika, Itziartxo, Lizarregi, Ayanbe, Arantza, Maitxo, Intza, Zorrospe, Txori Erreka, Intxirri, Jo eta ausi, Txirri, Aritzeta, Uzturre, Larraitz, Zimitz, Yolande, Arantxa, Armoya, Arkaitz arte, Txiki alai, Dris dras, Zapiaitza, Goxo-goxo, Lakatza, Kaiku, Aixerixa, Gotrole, Litargi, Udala mendi, Larreategi, Azpitarte, Garate, Kardantxilo, Errotari, Gogorra, Egi alde, Belaustegigoitia, Barrenoso, Artibai, Abertzale, Oraitz, Agarel, Abeletxe, Basatxori bat, Jexuxa, Ira, Basanaitz, J. Elgea, Mañariko, Tene, Burni bide, Xapi, Murugain, Endoya, Burni bide, Gurutzondo, Arno-mendi, Andoni eta Lauaxeta.

Idazle guzti honeek batu ziran batzar berezi baten. Batzarrak eta ezer ez bat beti bat izan ohi diralako, itxaropenik ez daukagu, baina igandeko batzarra, eskerrak *Luzear* zintzoari eta jai hau antolatut dabenari, onura handikoa izanzen dalako asmoan gagoz.

Euskal idazleak egin daikien lana, lan ikaragarria da. Hainbeste eta hainbeste diran ezker, eusko sail honi aurrerakuntza handia egin leikioe. Batzar anaikor haretan hartu ziran asmoak ez dira geure elearen aurkarako, onerako baino. Euskal Idazle-Batza horren bidez egingo diran lanak, Elgoibarko batzarra aintzalduko dabe.

Asmalaria nor izan zan ez daigun ahaztu: *Luzear*en jakintza minari zor jako. Batzar haretaz esango dogu zerbait, ikaskizun handikoa zalako.

Gerokorik ez dakigu. Bazkari galanta egin ei eben. Nik be *Mirentxo* zintzoaren kontura jan neban bazkari ona. Arintxu badere. Donostiara joan beharrak eragin eustan.

Bazkari ona izan zala igarri dogu, idazle guztiak goratzen dabelako. Eta euskotarrak jaiok garalako bazkari orotan. Mutil-zaharrari esan jakozan esatekoak!

“Boga-Boga” abestu zala ez deuskue esaten, baina abestuko zan: Arranopola, bazkari bat ez dogu egin “Boga-Boga” abestu barik! Izan bere bazkal ostean itsasoan zehar joateko bildurrik ez da. Marinel onak gara janda ostean!

Urrun ziranak be alkartu ziran urrutidatzi bidez. Soinez ez ziran haragino heldu, baina bihotzez bai. *Luzearen* hitzari gagoz: Hogeta hamazortzi urrutidatz etorri ei ziran; nongoak ziran hemen dogu:

Ernaiu (Etxarri Larraun), *Arresigor*, *Txadon zaya* (Astigarraga), *Lekonde* (Urkaregi), *Zudupe*, *Atxondo*, *Maitane* (Azkoitia), *Murumendi* (Isasondo), *Jabier zaharra*, *Apala* (San Lorenzo), *Talo* eta *Iziartxo* (Errezil, Arrugain (Espinosa), *Amagoya*, *Urretabarren* (Tabira), *Irular*, *Larreko* (Iruña) *Urreta* (Lasarte), *Miren Karmele* (Zestua), *Eriomendi*, *Igerra*, *Iturri-txiki* (Azpeiti), *Oñazkarra* (Andoain), *Beristain*, *Ibiritxo*, *Nikomedes*, *Ulaziatar Esteban*, *Maria*, *Bene*, *Fide* eta *Arantxa*, *Arrasate* (Mutriku), *Aitzol* (Donostia), *Lete* (Soraluze), *Zeleta* (Logroño), *Agirretxe* (Orio), *Belu-mendu* (Gernika), *Maite* (Murgia), *Orixe* (Orexa), *Arripe*, *Arri*, *Gotzon* (Urretxu), *Mendi xuri* (Orreaga), *Elordi* (Arua), *Luistar Itxasgain* (Cadiz), *Zugazte* (Altza), eta isilik, Otzategitxutar Jon (Santander).

Urrutidatz guzti honeek eta han zan idazle moltsoak erakutsi eutsen *Aberri* onari, guztion bihotzeko dala. Zegaitik hara joan nintzan itaundu eustan bati erantzun neutsan: *Aberri* deutsadan maitasuna dala-ta. Euskal idazleai zor jaken bihotzeko maitasuna erakutsi gura deutsegu. Aberriaren gudari puntarengoak doguz.

Zorionak *Aberri* adiskideari eta aurrera jarrai dagiala, lotan geratu barik. Omen hori ez dadila izan patxada onean atsedean egiteko, lumea barriztau eta aurrera ekiteko baino.

Ezkonduen danean beste omenaldi bat egingo deusagu.

Lauaxeta
1933-VIII-3

EUSKO IDAZLEEI

Aberri, mutilzahar aipatu, eusko idazle jator eta gure anai maite-maitearen opamenez igazi dan garilaren 30garrenean Elgoibarren bildu ziran eusko idazleak Bazkun bat sortu behar zala-ta, behin-behineko Batzordea izendatu zuten, hilabete bi barru Araudi-Gai bat asmatu eta *Euzkadin* eta *El Dían* argitaratu zezatentzat.

Eta agindu horrerri erantzunaz, eta beharkun atsegingarri hori beteaz hona hemen gu. Behin-behineko Batzorde geranok, ororen artean egin degun lana eusko idazle guzien aurrera dakargula.

Zer ote derizkiozute? Zuen guzian asmo hareek, agian, besterik ote ziran?

Aberri zintzoaren inguru bildu ziranen asmo eta nahiak oso rik jaso nahi izan ditugun arren, baliteke ordea batzuen-batzuek bazterrean gelditzea.

Oker hori zuzentzeko eta Eusko Idazle-Batza behar bezala eratzeko Batzar Nagusia egingo degu. Donostiako Eusko Pizkundian, Avenida 25, urrilaren lehenbiziko egunean, goizeko hamar eta erdietan.

Ordu erdi itxoin ondoren, bildu diranakin egingo da Batzar Nagusi hori.

Araudi-gai honetan aldaketaren batzuek, ala zenbait gai eta asmo, bertan ez dagerrenik, norbaitek sartu nahiko balituzke, "Idazkiz adierazi beharko dio" Batzordearen lehendakariari. Irail honen 24garrena baino lehen idazki-estalkiari zuzenbide hau ezarriaz: Barrenatar Polikarpa... Zarauz.

Hona hemen orain gure:

ARAUDI-GAIA

1. EUSKAL IDAZLE BATZA deritzan elkarte bat sortzen da, hau da, euskal idazle gehienak barruan hartu nahi lituzken anaidia, hemen dihoan araudipean eratuko dana.
2. EIB politika alderdi gabeko bedi eta helburutzat izango ditu: Euskadi gure aberria irakurgai eta idazlanen bidez bizkortu eta sendotzea, eta idazleai elkarren artean laguntza ematea.
3. Gure Anaidia idazleentzako eskeiniak dauden sariak zuzen eta garaiz eskuratu ditzaten ahaleginduko da, eta sariketa berriak nondik edo handik sorrarazten ere bai.
4. Idazti eta irakurgai berrien salketa eta zabalkundea errez-tutzearren neurri egokienak burutu bitza.
5. Liburutegi ibiltaria eta beste honetariko asmoak aurrera eramango ditu Euskadi osoan, ahalik eta irakurgai, idazti, orri eta aldizkingi gehienak saldu eta zabaltzeko.
6. Egunkari eta aldizkingietan euskerari zor zaion lekua eman dezaioten arretaz arduratuko da. Batez ere egunkarietako euskal atalak, bizi, mamitsu, eta berri eta azken jazoeraz beteak etorri ditezten, egunkariai dagokien eran. Honetarako behar diran euskal izparkari ordainduak izan bitzate. Hau da biderik bakarra gerora euskal egunkari hutsa sortu ahal izateko.
7. Euskal Elertiarren gorabeherak, liburu berrien albiste, sari-keta, jai eta euskal idazleen arteko hartu-eman guziak jakin erazi eta aztertzeko EIBk aldiz behingo *Deia* edo Errebista bat argitaratuko du. Aldizkingi honek izango du atal bat, emakumeekiko gai eta asmoak berezki erabiliko dituana.
8. Hontaz gainera EIBk euskal aldizkingi guziai eutsiko die, eta batez ere hurrek irakurtzeko egin nahi litzatekeen aldizkin-gitxoari.
9. Orobat EIBk laguntza eskeiniko dio udal, bazkun, lagundi eta eskatu lezaken beste edozeineri euskeraz idaztearren herriko agindu, dei, iragarki eta abar, honela gure izaera guztia euskal-duntzen joanaz.

10. Gure alkartasunak idazle bakotxa bere iritzi, idazkera, lan eta arlo berezietan aske eta bakean uzten du. Aholkua emanaz bakarrik gaurko irakurle gehienak ulertzeko eran idazteko.

11. EIBren Artekari-Batza honela osatua izango da: lehendakaria, lehendakari-ordea, txindizaina, idazkaria eta lau batzarkide. Batzar hau urtero erdizka aldatuaz joango da. Eta maiz samar (hilean behin gutxienez) bilerak egin ahal izateko on litzateke batzordeak (lehendakari, idazkari eta batzarkide bat) herri batean ala alkarren urtean, behintzat, bizitzea.

12. Alkartasun hontako bazkide izateko, noizik behin idazkairen bat argitaratu beharko du, gutxienez urtean behin, eta urte-sari bat ordaindu.

13. Hamabigarren atalki horrek agintzen diona bete gabe legoken bazkideak, batzarretan autarkirik ez du izango, zer egin hak izango duan arren.

14. Alkartasunaren Batzar orokorra urtean behin gutxienez bilduko da, egin dan lana aztertu, ontzat hartu eta artezkari-batza berria aukeratzeko. Batzar orokor hau, txandaka erkiz erki herri ezberdinetan egin bedi, ahal dala, batean bertako euskal idazle bati gorazarre eskeinirik.

15. EIBk beste euskaltzale bazkun guziekin alkar hartzeko ahaleginak egingo ditu euskeraren alde.

17. Araudi hontan ez dauden zernoletan, erabakia Artekari Batzaren iritzira gelditzen da. Orobat idazle lagun guziei eskatzen zaie, zuzendarien esanera gertu jarri ditezela, zenbait gaitzaz jarduna edo idazlanak egiteko aginduko dezaietenean.

Behin-behineko batzordea.

1933-IX-12

EGUNEKOA

Urteurrena

Urtebete igazi jaku *Jagi-Jagi* agertu zan ezkeroztik, atzo izan zala uste dogun arren. Hamaikatxu izualdi ezeze, astrapalada erabili dauz, hemen euki doguzan jaurlariak ez diralako izan zuzutsa-zaleak, jazarleak baino. Hareek, barriz, ostendu dira goizaldeko kea legetxe, asteroko horrek sendo dirau.

Askoren begiko ez zan, baina guztiak abo bardina ez daukagun ezker, janari bakarra ezin jan daikegu. Geure ustez, *Jagi-Jagik* lan gurena egin dau, abertzaletasunari barruratu deusalaiko indar berezia, gogo urduria. Urte osoan erabili dauan asmoa, asmo argia da: gudaketan barna joan da, gurendearen itxaropen barik, gauzarik onena gudea bera dalako.

Zaharren artean baino gazteen artean igali umotuagoak heldu erazo dauz. Espetxe bateko itzalak bildurrez kikilduten ebazan mutilak, gaurko honetan ez dira etxeratuten. Bakotxak daukazan betebharrak erakutsi deusaz, abertzaletasuna ez baita zuzendarien lana, guztiona baino. Horretan ez dago zalantzarik.

Eta asteroko horren lana begiko lana izan jakela gehienai azaldu nahi dogunean, espainiarrak egin deutsezan jazarpenak burura jatorkuz. Baita salduten izan diran zenbakiak be. Abertzaletasuna sortu zanetik orain arte ez da asterokorik saldu *Jagi-Jagi* ainean.

Epaileak ez dira lotan egon, artikulu gehienak salatu dabez eta. Baina hori gorabehera atzerakadarik ez da izan. Nahaste-

borraste handiak sentitzen ziran geure sail honetan, bateko araudia, besteko biguntasuna, askoren agoetan ebiltzalako. Asteroko horrek ekarri eban argiak baztertu ebazan zoritzarreko hodeiak.

Horregaitik abertzale ez diranai eta diranai, guztiai zerbait esan deutse. Okerra ikusten zanean zigorra etorran. Notinari ez, notinak maitegarriak baitira, okerrari berari baino.

Urte osoa amaituten dan egun honetan, zelako asmo barriak daukezan be ondo dakigu. Asmo horreek garaituko diranean abertzaletasunak asko lortuko dau. Geure zorionak asteroko horren egileai eta jarrai dagiela lehengo bidez.

Lizardiren oroimenez

Hain maite genduan lagun haren gomuteak ez gaitu itxiko. Egunak badoaz, baina olerkari bikainaren loratza, geroago eta argiago dakusgu. Lehenengo saria hari emon neutsan eta beste hogeï bidar emon behar izango baneuke, hari emongo geunskio. Haren bestekorik ez da izan, goragotuagorik ez aurki. Hori dala-ta, pozarren ikusten dogu tolosarrak egingo deutesen oroigarria.

Ez genduke jakin nahi inok haren gomutea baztertu dauala. Lizardi zanaren oroi alde zedozer egiteko prest gagoz. Txindoki goian izan naz oraintsu eta neure lehenengo zeregina zein izan zan esan beharko. Haren gogo alde "Aita gure" bat esan neban. Zelan sartu jatan haren gomutea! Txindokiren abeslari gurena haxe izan zan. Lizardiren oroigarria eregiteko dabilzanak bidaldu deuskuen ingitxua hemen jartzen dogu, euskotar zintzo guztiak lagundu dagientzat oroigarririk ederrena egiten.

Lizarditar Jabierren oroipena bizitu eta iraunkortasunez hornitu nahi genduke bere adiskide eta ikasle izan ginanok. Lizardiri begiko zitzaion benez, Urkizu mendia. Egurats eta atsedan bila bertaraxe igo ohi zan. Berè olerki eta elerti lan gehienak bertantxe sumatutakoak zituan. Beraz, Urkizu bezain oroigarri-leku egokirik ezin aukeratu.

Gure asmoa, bide urratzen hasia degu. Laskibartar Adiran, iraterkari eta Garmendiatar Kepa, marrazkilari, jaunai eskerrak, laister amaituko dagokion bezela. Harrizko eserleku bat: Lizardiren bihotz-begiai hain kutun zitzairen izadi-zatiari begira. Gainen, antzinako hilarrien antzera landutako harri bat. Harlandu honetan idatziko dira olerkari zanaren izen-abizenak, izen-ordetua eta noiz jaio eta hil zan. Barrenean berriz, bere gogaldi sakon eta ederrenetako bat.

Agorraren 10garrenez izango degu oroigarri onespena. Ez degu egundoko jaialdirik eratzeko asmorik: sendi barrengo bileratxo bat baizik.

Agirretar Joseba Mirena zanari begirapen eta adiskidetasuna opa izan zenizkiola gogoratu zaigu. Oroigarri honen eraikitze lanai zure laguntza eman nahiko diozula-ta, ez genduke zuri huts egin nahi, ezta ere zuk ezagutzen dituzun beste hainbat lagunei.

Gure dei honeri erantzunaz bidaliko dezun emaitza, egokien deritzazun eraz, Tolosako Aberri-Etxera bidali. Orobat zure ahai-de-adiskideen artean bilduko dituzunak.

Eskerrak gaurtandik. Agindu.

Lizardiren Oroigarri aldeko batzordeari.

Pasaiko izatea

Pasaiko izate edo portuari ez eutsan kalte makala egin Prieto horrek. Bilbaoko izateaz neurtu gura eban edo, bai?, eta horretarako han sartzen diran salgaiak hemen sartzen diranai besteko zerga jarri eutsen. Horrelako erabagia ez jako buruan sartuten inori, be. Bilbaoko kaiak bide asko daukalako, harek osteria ezer ez.

Gipuzkoa osoa jagi zan Prietok emon eban erabagi horren ala, baina jaurbidea jausi dan arteragino ez dabe ezer jadetsi. Orain Guerra del Rio jaunak deuseztu dau lehengoarena.

Poztuten gara asmo horregaz. Bilbaoko *El Liberal* izparringitxuak gogor dirausku Pasaiko izatea eta hemekoak bardinak dirala. Bizkaitarrak jagi behar ei gara geure portuaren alde. Ez jagok

txarra! Euskotarrak garanok, ez daukagu geurekotasunik, aberriaren kaiak eta saltokiak, bardinak jakuz. Bat aberastuteak ez gaitu betokertuten, poztu baino.

Hemeko izateari kalte handirik ez deutso egingo, hangoari barriz mesede galantak. Prietoren burukada baten alde ezin egon geintekoz. Zorionak hain zintzo lan egin dabenai.

Lauaxeta
1933-IX-15

EGUNEKOA

Lizardiren oroiz

Lagun mina: hor degu zeure oroigarria. Mendi arteko bake zoragarrian izango dogu harrizko iduria, eguzkiak eta edurrak maite izango daben oroigarria. Harantz hegaz egingo dabe hain atsegin izan jatzuzan txoriak be, udabarriko lorak sortuko diranean. Eta bidazti antzo handik igaroko garan eguerdian itzal anderea urtengo jaku bidera eta bere esku meheakaz legortuko deusku bekokiko izerdia.

Bidazti antzo handik igaroko garanean, "Eusko Bidaztiarena" abestuko. Urkizu mendi hori, mendi donea izango da zeure adiskide izan ginan guztiontzat. Egunak badoaz, baina zeure gomuta argia, eder-eder barrenean dogu. Zeure irudia sarri dakust neure ondoan, hegazka datorren izpi bat legez helduten zaiataz. Arratsalde zoragarri baten antza dauka zeure gomuta horrek.

Urkizu mendi kutun horren ganean betiko atsedean egin egizu gomuta horrek eta handik dabiltzanen begietan edertasuna sortarazi.

Lizarditar Jabier, euskotar semerik onena, ez gara zutzaz ahaztuko, zure olerkiak izango jakuzalako eguneroko itzartzaleak. Bizitza honetan zeure antzeko izango bagina, begiak zabalzabalik beti edertasuna atzemoteko, eta bihotza beti gorantz hegazka, zeruko atseginak txastauteko.

*Jainko-muino-gainetara baino lehen
(ederra baita bizia)
urrezko itsaso bebilt urduria
Itzal dudala laguntzale lerdin.*

Jaurleri barria

Lehengo jaurleri leloa joan jaku. Atzera etorriko dala be hots egin deusku, baina harelakorik ez dogu ikusi gura geure begien aurean. Beste honek, Muga jaunak asmo onak dakarz, baina asmoak ez dakigu zetan geratuko diran.

Geu ez gara poztuten jaurleriaren hitzakaz. Lehenengo azalpenak beti dira azalpen labanak. Guztien alde zuzutsa egingo dabela, azkenengo kokoloak be esan euskuen, baina eginkizunak beste modu batekoak izan dira. Hitz gozo asko entzunak gara, baina hitzak haize bihurtuten dira.

Muga jaun hau, gizon ona dala esan deuskue. Poztuten gara, besteak, ba, on antz handirik ez eben euki. Beharbada izango ziran, baina geuretzako ahalik txarrenak izan dira. Emon diran *Comité inter-partidos* edo diralako batzuen eskuetan jausita egon da. Honen hitzak be aldatuko dira edo. *Separatistai* guda gogorra egiteko asmoz datorrela, ez dau esan. Baina alderdi indartsu baten aurka hasiko jaku.

Behekoak eragingo deutse, zigorkadaz euren alderdiak handi egingo diralakoan. Hitz onak esker onez entzun doguz, orain egin-kizunen begira gagoz.

Txistulari

Zoragarrizko zenbakia atera deuskue oraingoan. Gaur artean agertu diran zenbaki guztiak baino ederragoa dogu. Bai behin! Urrezko hizkiakaz idatzi dabe: "Campiondar Artur eta Boutar Jai-meren aintzaz, Euskadiko Txistulari-Batzak". Euskadiko txistulariak holantxe agertu gura izan deutse gizon ospetsu horri, euren barruko maitasuna. Campion jaunak antxina-antxina azaldu eban txistularienganako eder-nahia. Erraondoko txistulariaren edestitutunak negar eragin deusku sarri. Hori dala-ta Iruñako uri zahar-rean jaialdi gurenak eratu dabez. Hile honen hogetaboskarrenean hasiko dira jaiok.

Berrehun txistulari batuko dira Campion maitagarri eta gora-garriaren omenez. Jai honezaz eta omenaldi gurenaz hauxe dirausku *Txistulari*ko idazle azkar batek:

“Eusko arbasoa dogu Kanpiondar Artur. Buruz, aspaldi honetan gure artean sortu izan dan gizonik argiena. Edesti, ertilan, euskal-hizti, eusko agerkun guztiak arakatu eta zeharo aztertu izan ditu. Alde guztietara hedatu daroaz bere jakintzaren txinparta biziak. Bihotzez, gure bazterrak baizen zabal eta gure ibarrak baizen sakon. Napar odola daroa bere zanetan. Napar gogoa bere barruan. Baina buru-bihotz baino gehiago dogu Kanpion. Eusko herri zaharrak eta Euskadi barriak beragan joten dabe. Gure asaba zaharren arnasea berekandu eta berpiztuta jarauntsitzaz laga deusku eusko piztu barrioi.”

Lan txukunak idatzi dabez Altubetar Seber gorengo idazleak, Lekuonatar Imanol jaupari argi-argiak, Lizaso, Errenderiko txistulari aipagarriak.

Garbizu idazle azkarrak eta beste aldra batek. Guztien artean zenbaki dotore-dotorea emon deuskue. Zorionak Txistulari-Batzari holako aurrerapenak egin dauzalako. Goiko Jaunak halan nahita, Iruñan izango gara jai eder horreek ikusteko asmoz.

Aldundia

Bizkaiko aldundiaren gorabeherak ez dira amaituko inoiz. Lehen sosolistoak jaube ziran, orain, barriz, erradikalak. Honetarik sei izentau dabez aldundi-isuna eratuteko asmoz. Bostehun laurleko eder hartuko dabe eta pozik egongo dira. Sosolistoak kanpora urten dira, besteak ez baina.

Beraz, ba, lehengo sei eta orain sei barriak ederto jango dabez geure laurlekoak. Baina erradikalai gorapen bat jaurti behar jake: sei hilabete barruan hauteskundeak egin beharko dirala eskatu dabe: Tira, beti hor egoteko asmorik ez dauke. Sei hilabetean itxarongo deutsegu, urte bi eta erdietan be itxaron dogu eta.

Jaurlariak esan euskun alderdi guztietakoakaz eratuko ebela aldun-isunori. Abertzaleok ez genduan ezertxu be hartu, baina geugana be ez dira etorri. Tira, lehengoak eureganatu eben guztia, oraingoak ostera bardin dagie.

Lauaxeta
1933-IX-19

ZIRIKA

Fermin Abando deritxon txotxoloaren idazkiak Espasatik hartuak zirala esan genduan. Eta guzurrez barik egiaz mintzatu ginala edonok jakin daike. Ezer ez dakien gizonok idazle sartuten diranean ukondoaz lurra joten dabe. Lotsarik daukanak zerbait aldatu daroa, igarri ez dagientzat be. Egiaz: idazle guztiak handik edo hemetik ostu daroe gaia. Inoren idazkietan izpar asko atrape-tan dabez, baina euren arauz eta gardiz konpondu daroez. Horixe egiteko be *talentua* behar da, gero.

Abando horrek ez dauka talento handirik. Hitzez hitz ostu dauz Espasaren lerroak. Hiztegi lodi horregaz buruan joko neuke jo.

Mundakako herrian jazo ziranak jazo ostean *errepublikano* guztien amak eta aitak, neba-arrebak, osaba-izekoak eta adiskide piloak heldu jakuz. Honeen gardiz tiroka ibili ziran gazte hareek onak baino hobeak. Txori bat erailteko be ez ei dira inor.

Baina abertzaleen aurka esaten diran astokeriak sinistuten dabez. Orduan ez dago onik, danak txarrak diralako. Koitadu batzuk dira sosolistoak eta erkaldarrak, baina Jaun onak gaizka-tu gazizala koitadu horreekandik.

Katalunia aldeko *ezkertarrak* arteak hartu ezinik dabiliz. Urubioren batek liztorra sartu deutse. Eurek jakingo dabe non, geuk ezin jakin daikegulako. *Esquerra* horretan jazoten ez danik ez da jazoten erradikal sosolistoan artean be. Xirau, Terradellas, Lluhi eta Casanelles alderdi-hustutea ez jake otu, ba. Gero aska-tasunaren alde hitzak jaurtiko dabez.

Alderdi barria jaio ei da Espainian. Laterri horretan jazo dira gauza handiak. Hor izaten dira hamalau arrobako emakumeak barraketan erabilteko langoak. Espainian jaio izan dira buru biko abereak eta zortzi hankadun katuak. Burua hanketan eta hankak buruaren tokian daukezanak ugari baino ugariago ikusten dira. Baina oraingoan jazo dan hau izugarriagoa dogu. Zer dan? Bost urteko semeak gurasoak erail ete dauzan? Ez. Prieto zuhur bihurtu ete dan? Ezta. Marcelino Domingo jaunak alderdi barria eratu dauala. Ilargia atrapetea baino zailagia da horixe. Harek daukan aurpegiaz alderdi barri bat eratu daikela esatea be. Eta egia ei da...

Ene zer entzun dogun eta nori!

—Jesus Mari eta Kontze, non dago geure ahuntza, esan egiskuzu arin.

—Neu be ikaratuta nago. Gaurko egunean entzuten ez danik ez da entzun gizaldietan be. Holantxe. Sosolistoak ez ei dabe gure tokirik Bizkaiko aldundian. Eguzkia erre dala esatea baino izugarriagoa dogu hauxe.

Ez dabela gura? Sosolistoak izan eta entxufe baten sartuta egon gura ez. Ze demonino jazo ete jake. Aldundian egon dira orain arte, bostehun laurleko edo burnizuri irabazten. Euren buru izan dira eta berehala muxin-muxinka hasi jakuz. Izpar hau jakingo dozuenean aitaren egizue...

Hauteskundeak noiz izango diran itaunduten deuskuenai esan behar deutsegu laster oiez-oiez izango dirala. Zelan dakigun? *El Liberal* irakurriaz. Gauza gatxa dala hori dinoanari erantzungo deutsagu. *El Liberal* dogu hauteskundeak noiz izango diran jakiteko zantzurik onena. Egunero hogeit berrogei *convocatoria* edo dei dakarz. Sosolistoan dei guztiok hauteskundeak etxe ondoan diranean izaten dira. Beraz, ba, laster doguz hauteskundeak.

Lauaxeta
1933-IX-30

EUSKAL IDAZLE BATZARRA

Batza bat sortu behar dogun ezkeroz guztiok batutea izango litzateke egokiena. Baina idazle askok egingo dabena aurretixik dakigu: etxean geratu eta kitu.

Eta batzar hori garrantzitsua dogu, bertan sortu arazoko dan batzak onura handiak ekarri daikezalako.

Zer egingo dogun? Bazkaria jan: bai behintzat, besterik ezean. Ez da ezerez! Euskotarron artean garrantzi haundiko gauzea dogu bazkaria jatea. Guk jango dogu, ba, Mirentxuren etxean hatan be. Kazuela onenak jarri egizuz, Mirentxu, eta saltsa edo basi onaz gertau janariak.

Hemen hartuko dogun kafesnea gorabehera gose handia euki-ko dogu. Batzarrean entzungo diran abotsakaz eta deadarrakaz, barriz, gose bi.

Bazkari baten tripeari baino ez jakola atsegin emoten dinoenak oker dagoz. Bazkalorduan mintzatuten gara alkarrekin eta asmo barriak azalduten deutsaluz bata besteari. Oilasko iztar bat jan orduan gogai edo idea guren bat sortuten jaken asko dira. Neuri jazo jat. Adiskide berein isil samarrak diralako edo ezin ezagutu. Bai e? Ez nozu atzipetuko ba! Tira neurekin bazkaria jatera! Eta hiru prinsipio eta ardao ontxua emon ostean, hareen barriketak eta hitz jarioak! Errekonde, ez ziran isilduten ezetarako be!

“Asmo eder bat daukat”, dirauskun gizonari bazkaltzera dei egin behar jako. Asmo eta erdi be azalduko deutsaluz. Mahaia lakorik ez dago jakin nahi dana jakiteko.

Elgoibarren batuko garanok be mahaiko orduan mintzatuko gara. Hasikeran hitz gitxitxu entzuten da. Tripak hutsik dagoz eta. Gero zukua amaitu ondoren, tragu batzuk edan bai?, eta txi-txi-putzuka dozuz danak.

Ia, Mirentxu, pikante apur bat be isuri basi artera, saltsara. Pikanteaz ardao gehiago edaten dogu, eta ardaoaz hitz jario ugarriagoa.

1933-IX-30

EUSKAL IDAZLE BATZARRA

Tarranpattan tan, tarrantan tan... Holantxe hasi zan harako animala gaiztoa. Antzera hasiko gara, euskal idazleen eresia bailitzan edo. Eta non geratu ziran besteak, ba? Etorri ez ziranak? Horreek etxean geratu ziran, gauzak txarto urteten badabe eurek parterik ez dabela izan esateko eran. Tira, askorik ez ginan batu, baina han izan ginanak, batzar ona eta onurakorra egin genduan.

Elgoibarrera ez ginan bazkaria jatera joan, bazkari onena jan genduan arren. Mirentxuk badaki janari onak gertauten. Etorri ez ziranak horixe gitxiago euki eben. Etxeko indaba edo babarrunakaz konforme geratu behar. Postretan be jan genduan jan! Haze-lako oturuntza!

Txerrena dogu hauxe gero, baten batek esango dau. Batzarrean egin ziranak azaldu baino lehen, bazkaria zelakoa izan zan dirausku. Erantzuna: bakotxak dauka bere agoa. Batzarrean ondo konpondu ginan. Araudi barria ontzat hartu genduan. Behar ziran oharrak egin geuntsazan eta Jaungoikoaren bakea baino ez genduan izan.

Nortzuk batu gintzan, hara batzuen abizenak edo besteen izen-gordeak: *Amilgain*, Labayen, Errazti, Barrena, *Barrenso*, *Abeletxe*, *Aberri*, *Agarel*, *Amonatxo*, *Anaxtaxio*, *Andoni*, *Arnope*, *Artibai*, *Basanaitz*, *Belantz*, *Dris-Dras*, *Elgea*, *Ete*, *Gabe*, *Goiburru*, *Igerraitz*, *Ira*, *Iraurgitarra*, *Iturri-Txiki*, *Ixaka*, *Jexuxa*, *Kaiku*, *Keiveta*, *Luzear*, *Leizape*, *Litargi*, *Lizarregi*, *Maitxo*, *Mirentxu*, *Murugain*, *Oraitz*, *Txalintxo*, *Urrategi*, *Urre*, *Zaloña*, *zaharraspe*, *Kirol* eta *Lauaxeta*.

Barrena jaunak ederki eroan eban batzarreko eztabaida hotsa. Harek dauka txistu berezia danari dantzazteko! Urrutidazki geurekin izan ziran: Aretxabaletako *Aitza* eta Alberdi; Donostiako *Goikoleako txoria*; Alegriako *Zapel* eta *Larrainzar*; Berastegiko Mendizabal; Debako *Tene*; Orioko *Abaraska*; Beasainen dagoan mungitar idazle argia, *Maite*; Zarautzko *Basarri* eta *Ola-beaga*; Arrasateko *Peli*; Irurako *Onintza*; Lasarteko *Taldantzur* eta *A-Bi*; Tolosako *Arantza*, *Antzerti*, *Yolanda*, *Zimitz* eta *Uzturre*; Goyazko *Armoya*.

Honeen arteko batek esan euskun: Gogoz hor eta Butrongoan nago. Geure ustez gogoz batzarrean eta sabelez Butrongoan izango zan.

Batzar eder honetan mahailburu egon ziran: Barrenatar Polikarpa, Labayendar Andoni, *Luzear*, *Ira*, Zinkunegi eta *Lauaxeta*. Mutur jokarik ez zan izan eta sortu zan sortuteko izan genduan Euskal Idazle-Batza. Asmo onak daukaguz eta aurrera eroango doguz. Orain bakotxaren gogoia agertu dagiela idazle azkarrak. Hona hemen bik bidaldu euskuzanak.

1933-X-4

EUSKAL ALDIZKINGIAK

Tolosako herrian agertzen jakun *Antzerti* aldizkingiaren azkenengo zenbakiak antzerki zoragarri bat ekarri deusku. *Antigone* deritxo eta Zaitegitar Jokin josulagunak euskeratu dau.

Antxinako gomutak bururatzen jakuz antzerki hori irakurri ostean. Eladetarren elerti zoragarria ikasten jardun ginaneko gomutak. Zenbat aldiz erabili doguzan Sopokel antzerkigile ospetsuaren lanak. Ezer ikasi badogu, hari zor deusagu.

Antigone eta Aimon neska-mutilen heriotzak ikutu euskun bihotza eta gerkarren abeslari-taldearen neurtitz sakonak zirrara eragiten euskuen. Tebaseko bakaldun jauregian jazo ziran negargarrikeria guztiak aurkitu eben tokirik ederrena Sopokelen antzerkietan. Kereon eta bere semearen eztabaidea baino samurragoa izan jakun Oidipa eta Antigoneren azken hizketaldia.

Eladeko lurralde zoragarri haretan ibiliak gara puni-sagar eta Atenas inguruko gaimelurraitzetan abestuten eben kirkilak.

Euskotarrak ulertuko dabenentz *Antigone* antzerkia? Ez dogu uste. Antxineko idazlanok ulertuteko, aldi haretako aseleetan¹⁷ eta ipuinetan barna ibilia izan behar. Baina herriak ulertuko ez dauan arren, garrantzi handikoa dogu geure elerti hasi barri honetan.

Hizkuntzari edertasuna emongo deutse. Zaitegi jaunaren euskerapena irakurri baidot, goragarri iduritu jaku lan hau. *Orixe*

¹⁷ Asele: leienda.

jaunak orrazten ekin ei deutso. Ez dakigu zer jarri dauan idazle horrek, baina Zaitegik berak be, euskera mamitsuan idazten ondo daki. Tamalez ekitaldi bakarra emon deutso *Antigoneri*, bost emon beharrean. Estasimoak banandu barik dagoz. Zer dala-ta? Antzerki honek beste behin argia ikusiko badau, irarkera hobea merezi dau.

Eladeraz dagoan idaztian irakurriko dogu barriro *Antigone* eta lerroz-lerro neurtuko doguz lanok. Azalez irakurri dogunari usain ona idoro deusagu. *Antzerti* edertzen da holako lanak argitaratuz eta geure elerti txiro honi gurentasuna erantsiten deutso.

Geure zorionak hartu begiz Zaitegi, *Udalaiitze* euskal idazle jatorrak, holako lan batek daukazan hartu-emon gogorak ez diralako makalak. Txanda batez irakurten diran lanok, ordu askoren semeak dira, ordu asko eta izerdi tirluren ondorengoak.

Antzertiren buru diranak be aipagarri dira, geroz antzerki hobeak emon daroezalako. Ludi-barna geure elertia erabili gura badogu, lelokeriak ezeze goitiagoak egin behar izango doguz.

1933-X-21

TEMAS VASCOS *VOCABULARIO VASCO-CASTELLANO*

El presbítero don Pablo de Zamarripa sigue incansable en su labor euskérica regalándonos con frecuencia libros amenos o trabajos lingüísticos. Esta vez nos envía la segunda edición de su *Vocabulario vasco-castellano*. Un suplemento de su *Gramática Vasca* que lleva también un largo vocabulario en castellano-vasco.

Las obras de este benemérito escritor son hasta el presente las siguientes: *Gramática Vasca* (quinta edición), *Conjugaciones guipuzkoanas*, *Manual de Vascófilo*, *Zaparradak eta*, *Kili-kili*, *Gorabegira*, *Anaiak gara*. Es decir, desde bellas poesías hasta artículos periodísticos. Un buen haber.

Sería un pecado de cultura el negar prestancia en nuestras letras a un hombre que trabaja con tanto denuedo y fervor. En su último librito, *Vocabulario vasco-castellano*, ha querido resolver una dificultad para los que comienzan el estudio del euskera. La segunda edición lleva ocho páginas más que la primera, y en ellas se ha dado preferencia al léxico, añadiendo al acervo de artículos de la primera edición tres arcaísmos, diecisiete neologismos y unas ciento treinta voces guipuzkoanas.

El vocabulario viene con unas observaciones o advertencias interesantes sobre las letras c, ch, h, q, y, v, para que los no entendidos en estos temas puedan encontrar con facilidad lo que en euskera se escribe con esas letras. Las notas sobre el acento y

los femeninos de adjetivos castellanos terminados en *o* son interesantes.

Es un trabajo que recibirán con agrado muchos euskeráfilos. Felicitamos por ello al señor Zamarripa y le exhortamos a que siga esta labor tan provechosa para el idioma nacional de los euskos.

1933-XII-6

SATARKAREN ARTIKULUARI OHARRA¹⁸

Oharra. *Satarka* olerkariari: Olerkari samur bat izan zan, behin, Euskadin. Negu gorria zala entzun genduzan bere abesti-hotsak. Umetxu ginan, baina zein bigunki sartu jakuzan haren oihiuak! Euskadiko zugatzetan ostroak erne ziran olerkariaren abestiak entzuki.

Baina bihotzetan ez zan sortu ostrorik. Bihotzak hotz-hotz egozan eta abeslari beti izateko jaio zan olerkaria isilik geratu zan betiko. Eta euskoak ez ziran konturatu be olerkaria isilik egoala. Zer ardura deutse euskotarra olerkari bat gorabehera! Ostikolari edo pelotari jaio bazan, izparringi guztiak haretzaz mintzatuko ziran. Baina zoritxarrez olerkari jaio zan eta txakurrak aina ez dabe balio olerkariak.

Abeslari sortu zan harek *Txinpartak* eritxon idazti bat argitaratu eban, baina herriak ez eban onartu. Tabernetan jan eta edan ibiltea atseginago jakon. Olerkariaren bihotzera negu hotza jausi zan eta urteak joan urteak etorri ez dogu bere abotsik entzun. *Satarka* ezagututen ete dozu olerkari ha? Haren ordua joan ete zan betiko edo oindikarren abar-itunetan abestu ete daike txoriak? Txikiak ginan olerkari hareri aupada bat egiteko, orain handi egin garanean oihi egiten deutsalagu aberri zoritxardun hone-

¹⁸ "Hitzalditxo" artikuluari eginiko ohar luzea. Artikuluaren ostean honako oharra dakar: Gipuzkoako ahaldunen omenean irakurritako hitzalditxo. Horren ostean dator Lauaxetaren ohar luzea.

gaitik abestu daian. Ez deitsue eskertuko! Ahal daben guztiak haginka egingo deitsue, baina gizonak baino hobeak txakurrak dirala-ta, honeekaitik abestu begi olerkariak.

Gizonak ez dira gai olerkariaren oinak zapaldu dagizan be. Baina txakur gaixoak, euren begi zabal-zabalakaz begiratuten deuskue. *Satarka* zanaren abestiak, *Txinpartak* emon euskuzanaren bihotz-minak entzun gura geunkez txakurzaleak garanok.

Lauaxeta
1933-XII-12

TEATRO PATRIÓTICO. EL PRÓXIMO ESTRENO DE *LIBE*

Hemos meditado serenamente ante la obra teatral sabiniana y no podemos concretar con precisión la idea que nos sugiere. Para poder apreciar su valor, necesitaríamos adivinar la cultura escénica que pudo haber tenido el Maestro.

Sin duda, conoció bastante el teatro clásico, puesto que en su apunte dejó creados los coros de aldeanos, marinos, etcétera. No el coro impersonal y lírico que algunos sueñan, sino el coro, persona trágica o parte integral de la obra. Las palabras de Aristóteles sobre este estreno son terminantes, contra esos que se atreven a dudar de la existencia personal, individual del coro griego.

Por otra parte, la figura de Libe puede traernos lejanas resonancias de una Antígona o Lisistrata. Por los días aquellos en los que escribió Sabino su apunte, la escena mundial estaba bajo el cetro de Ibsen. La influencia nortea de l creador de tantos caracteres envueltos en niebla, siempre anhelando la luz, fué decisiva en todo el mundo. La escena española poco le podía enseñar. Las truculencias de Etxegarai o el arte ficticio de Tamaio y Baus, estaban en contradicción con su carácter. Tampoco Guimerá, a quien pudo conocer en Barcelona, influyó nada en su formación.

Tal vez, su amor a los temas históricos como argumento de dramas nació de la lectura de los románticos, tan entregados al estudio de la Edad Media, como época artística de profunda influencia cristiana. Desconocedores en absoluto de cuanto pudie-

ra darnos alguna luz acerca de la formación teatral de Sabino, hemos de fijar sus méritos. Lo esencial ha sido siempre en la obra escénica la creación de caracteres y el manejo suelto y humano del diálogo.

Arana-Goiri no pudo demostrar sus cualidades de cultivador del diálogo, porque *Libe* fué compuesta para ópera. Acertó, más bien, en la distribución de las escenas y cuadros. Las famosas disputas sobre el espacio y tiempo en las obras teatrales habían pasado de moda. El teatro español seguía, en lo referente a la distribución de escenas y cuadros, la pauta de los autores del siglo de oro. Los franceses, más influenciados por la cultura greco-romana neoclásica, se ceñían a los principios de Racine o Molière. No en vano se publicó en Francia la poética más infantil y preceptivésca.

Tampoco podía aprender mucho Sabino de los autores vascos. ¿Cuántos serían en aquel tiempo? Azkue comenzaba a imponer su vigorosa personalidad, pero más destacada en estudios profundos que en obras teatrales u óperas. El campo teatral vasco estaba inculto. Los sainetes de Soroa no tenían mucho que admirar ni Herelle había publicado sus trabajos sobre las pastorales suletinas.

Todo tenía que nacer de adivinación. El único que deja entrever alguna influencia en el melodrama sabiniano es Wagner. Los triunfos de Schoeder-Devrient, con las óperas del genio alemán, habían dejado un clamor de triunfo por todo el mundo. La magna tetralogía wagneriana no podía olvidarse fácilmente. Y Sabino, como hombre culto, conocía las creaciones nacionales del músico.

Tal vez, la fama de aquél le impulsó a escribir un bello argumento nacional vasco, que quedó sin efectividad por falta de un buen compositor.

Sea de ello lo que fuere, Sabino dejó una huella podersosa en la obra dramática. Su principal mérito será siempre el haber logrado encuadrar en escenas de sumo acierto el tema elegido. Cuatro son los actos, los dos últimos divididos en dos cuadros. En

una escena en la que entran las aldeanas cantando, puso el toque el ballet moderno, pues claramente nos indica que tienen que llegar saltando al compás de lo que cantan.

Por otra parte, no falta la fastuosidad de las óperas. Los personajes principales son pocos. Libe, el señor de Bilala, Handima de Ugarte y el conde de Salinas; pero en torno a éstos, se desenvuelven los apoderados de las repúblicas bizkainas, campesinos, pescadores, aldeanas, damas, etxe-jaunes, padres de familia, el fiel, el pregonero y los jóvenes.

Sólo un atrevimiento de tanta envergadura debe darnos alientos. En la mente de Sabino bullían ideales que hoy bullen en la mente de un Daniels. Al frente de una compañía trabaja sin descanso por crear un teatro nacional judío, que pueda influir en la moderna y aún incipiente civilización hebrea.

No olvidemos las frases de este gran director que nos recalca la dificultad de crear un teatro en un país nuevo, sin tradición nacional y que no sólo necesita de artistas que labren obras, sino de escritores que le presten un idioma.

Las inquietudes actuales del teatro judío tienen semejanza con aquellas sentidas por Sabino. Entre los críticos de ese teatro que nace, unos gritan: "Deberá emanar de nuestros paisajes, de nuestras preocupaciones, de nuestra reconstrucción". Otros, en cambio, exclaman: "Tendrá que tener carácter palestino".

Las palabras de Gavriel son una blasfemia para muchos. "Hay que dejar al margen la Historia e inspirarse en el paisaje". Lo interesante de estos debates sobre el teatro judío es el sentido nacionalista. La obra de Leiwik titulada *Goler* ha hecho saltar de alegría a los críticos de las letras hebreas. Para seguir esta corriente no podemos menos de ponderar la obra de Peretz "Una noche en la plaza del viejo mercado". Este misterio estrenado en el teatro Karmerny, representa la vida del pueblo y por él pasa el abigarrado conjunto de rabinos, cortesanos, mercaderes y gentes que simbolizan la raza. Al ponerse en escena por Fala, logró un éxito clamoroso.

Con esta tenacidad logran los judíos actuales conquistar la escena actual. Gordine, Chelon, Aix, Glanz y otros pueden enorgullecerse de haber elevado el teatro judío.

Todo esto que hoy merece la atención de críticos eminentes dejó trazado nuestro Maestro. Adivinó la importancia de las tablas para la restauración nacional de los pueblos. Pero esas tablas tenían que presentarle al pueblo no sus fracasos ni vicios, sino lo grande y admirable de sus mayores. La misma finalidad que nunca perdieron de vista los autores helenos.

En *Libe* hay intención, sin olvidar el acierto. Intención profunda, de trascendencia enorme para la causa patriótica. El esfuerzo supremo de los pueblos suele llegar a cristalizar en un triunfo o en una derrota.

Lo que interesa es saber interpretar la lección que se oculta tras de ello. Y al verdadero psicólogo, al conocedor de un pueblo, mucho más cuando es un libertador o salvador, se le exige el conocimiento del alma nacional y la interpretación exacta de los gestos y guiños de esa misma alma.

¿Logró Sabino todo ello? Los espectadores han de decir la última palabra. a ellos incumbe indicarnos el valor de *Libe*. No seremos tan infantiles que ocultemos los defectos del apunte original. Adolece de cierto espíritu niño. Fruto, sin duda, que dejó en las letras vascas el estilo de Trueba. En casi todos los escritores vascos de fines del siglo pasado se nota la influencia de los cuentos de color de rosa.

No quisieron ver más que la parte paradisíaca de nuestro pueblo, sus virtudes y la vida tranquila y sosegada de sus aldeas. Algo de esto puede subrayarse en el melodrama. *Jelalde* no pudo escaparse del ambiente literario de su tiempo, aun cuando su inteligencia clara penetraba profundamente en la entraña misma de la raza, tan enemiga de ñoñeces.

Libe, como fruto de su época, tiene los defectos de aquellos días, que a la postre resultan virtudes, porque son la manera de pensar y actuar de cada generación. El escritor debe contentarse

con el elogio de que supo interpretar a los de su tiempo. Sabino cumplió con este precepto. En la forma es de fines del siglo pasado. Pero el nervio y la envergadura del asunto son sacados del siglo XV, época fuerte, ya blandengue para nuestro pueblo.

Lauaxeta
1934-II-22

NUESTRO TEATRO EN TORNO A *LIBE*

Remansada la inquietud que despertó el estreno de *Libe*, podemos penetrar en el estudio de sus aciertos y pequeñas deficiencias. El éxito franco de la obra y la personalidad literaria del señor Sota pueden darnos libertad plena para llegar a un tono objetivo.

En la obra estrenada el pasado sábado encontramos méritos que no deben ser ocultados. El realizador de *Libe* se encontró con un bello argumento; pero no pasaba de ser un apunte o guión. Con criterio firme y seguro ha reconstruido el drama desarrollando el tema con rara objetividad. No negamos que el fondo espiritual del señor Sota es esencialmente lírico. Es un escritor personal. Precisamente todo lo contrario que debe poseer un dramaturgo.

Los personajes creados por su fantasía hablan con gesto espiritual del escritor, cuando ese gesto debiera nacer por movimiento natural. El lirismo tiene su parte de peligro en las obras teatrales.

El desarrollo de *Libe* lleva la serenidad y frescura poética de un poema dramático. En casi todos sus cuadros se observa un equilibrio que únicamente poseen los escritores que han llegado a hermanar la inteligencia y el corazón.

No es solamente la feliz división de los actos y cuadros, debido a Sabino, sino a la facilidad en mover los personajes. Pocos han logrado en tierra vasca la soltura que posee el señor Sota. Etxabe fué muy afortunado en estas lides. Y conste que al hablar nosotros de *Libe* u otra obra vasca, no hacemos comparaciones con las

obras universales, sino con aquellas que han nacido en Euskadi. Lo que parecería elogio desmesurado en parangón con las letras de pueblos floreciente, es alabanza justa al circunscribirnos a Euskadi.

El diálogo, nada pasado, sino vivo y suelto de los primeros actos; la parte irónica de sus frases, son cualidades de un escritor excelente. Y en verdad que es difícil manejar la multitud de personajes que entran y salen en escena. Esta obra nos hace recordar los juicios críticos que ha merecido el estreno de *Within the gates*, del original Sean O'Casey. Los numerosos personajes que se mueven por el Hyde Park, con diálogos en prosa, verso, canciones o danzas, nos recuerdan la formación y el matiz de la literatura del señor Sota. Naturalmente, no todos comprenden los atrevimientos de O'Casey, con sus cuatro estaciones, coros de niños que cantan, damas, literatos, cómicos, obreros, misántropos, etc. La figura del poeta irlandés, a quien los soldados ingleses estuvieron a punto de matar, nos recuerda cierto parentesco con el escritor bilbaino. Sean O'Casey comenzó escribiendo obras para los huelguistas irlandeses.

Este afán de mover masas en el teatro no es preocupación de hoy en *Txanka*. Hace tiempo está estudiando la creación del teatro de masas. *Hiru gudari* fué un tanteo. *Libe* es un avance seguro.

Algunas disputas se entremezclan en el juicio de *Libe*. ¿Es teatro vasco? No entremos en polémicas. Para nosotros *Libe* es teatro patriótico. Lo bello sería hacer arte puro, literatura exquisita; pero nuestra patria necesita de escritores que ponen su talento al servicio de la libertad. No es dado confundir el teatro vasco con el teatro político o patriótico. Muchos olvidan este principio elemental y critican con dureza, cuando ignoran la finalidad que se propuso el autor.

El teatro vasco no tiene personalidad. No sabemos qué matiz propio haya de tener. Seguramente nacerá del esfuerzo de varias generaciones. De los tanteos actuales, con sus aciertos o desacier-

tos, saldrá el verdadero teatro nacional, como expresión del alma, callada pero rebelde, del vasco.

No olvidemos las palabras de Romain Rolland, el preocupado del teatro por y para el pueblo. Sus palabras en el *Théâtre du peuple* llegaron a tomar firmeza en el prólogo de su *Teatro de la Revolución*. "Resucitar las fuerzas del pasado, reanimar sus potencias de acción, en vez de ofrecer a la curiosidad de algunos aficionados la fría miniatura, más atenta a la moda que a la naturaleza y a la fe de la nación en llamas de la epopeya republicana, a fin de que la obra interrumpida en 1794 sea reanudada y completada por un pueblo más maduro y más consciente de sus destinos".

No olvidemos estas palabras luminosas de Romain Rolland que nos harán comprender, con benevolencia, hasta los defectos de la obra de Sota, puesto que sus esfuerzos van hacia la creación de eso precisamente que subraya el autor de *Dantón*. No importa el fracaso de Rolland, que no logró triunfar por falta de preparación en las masas.

Esta inquietud profunda de *Txanka* busca la creación de un teatro revolucionario nacional. Algo de lo que hace con tanto acierto el mexicano Magdaleno o los modernos dramaturgos israelitas. "Una noche en la plaza del viejo mercado" pudiera traducirse al euskera.

En el teatro político vasco, pues, la obra realizada por Sota es feliz. Para entender estas tendencias sería bueno la divulgación del libro de Nina Gourfinkel *El teatro ruso contemporáneo*.

Y siguiendo por este camino de recuerdos, ¿por qué no mentar *Pedro Mari*? El pueblo espectador comparó *Libe* con *Pedro Mari*. ¿Por qué? Si nuestro teatro fuera frondoso como en otras tierras, tal vez estas comparaciones serían más amplias; pero ahora nos desenvolvemos en pequeños círculos. Alguien deseará saber el juicio que salta de la comparación de ambas obras. Son tan distintas, que únicamente coinciden en pertenecer al campo del teatro político vasco. En esto están conformes. En lo de méritos no entramos.

Con la obra última avanza el señor Sota. Sus anteriores producciones quedan en penumbra. *Libe* tiene la amplitud y envergadura de un drama moderno, con desarrollo bien logrado.

Y aparecen en ella personajes de relieve. Tal vez el menos logrado de los personajes será el de Libe. ¿Por qué no penetrar algo más profundamente en el cambio radical que se opera en el alma femenina de la heroína? Es algo brusco el paso de un amor a otro, aun cuando la patria sea parte en este giro.

La creación de Chirrichote, Matxino, Sanoriñe y otros personajes es obra acertada. Como es admirable el acto tercero. Teatralmente, el mejor. La obra desfallece en los dos últimos cuadros. Será por la parte trágica de las escenas? No hacemos más que apuntar. No somos partidarios de matar a nadie en escena. ¿Por qué razones? Estéticas, de eurytμία. Existe un teatro griego en el que los dramaturgos rehuían la matanza en escena. El heleno sacaba a los cadáveres envueltos en blancos velos.

Es lo más difícil el matar a un personaje artísticamente, porque la muerte es la negación precisamente de la serenidad, del equilibrio, base de toda obra ponderada.

El dramaturgo poderoso debe hacer sentir al espectador toda la tragedia que se desarrolla detrás del escenario. Que el ambiente de la escena le haga sentir la ruptura de brazos, las lanzadas del enemigo y la muerte de los héroes; pero no molestemos a los espectadores con los gestos trágicos del que lucha contra la muerte.

Esto ha logrado el señor Sota en un párrafo que queremos subrayar. En el último acto entran en escena Izkuñuso, Olagarro y otros. Y el autor, que quiere hacernos sentir la grandeza de la muerte de Jakinda, el Ubalari de Odeiarre, pone en boca de Izkuñuso aquellas admirables palabras: "Después de luchar como un tigre, cayó herido de muerte. Y en la agonía, cogió un puñado de su aliento, lo colocó en la honda y exclamó: "Voy a lanzar mi honda por última vez. Pero sin piedra, con el alma mía, que la envié a Dios." Giró la honda, la disparó y quedó muerto."

Jamás nos olvidaremos de la muerte de Jakinda, tan bellamente descrita. En cambio, la muerte de Uin no penetra en nuestro espíritu, porque la escena tan trágica nos hace mirar más al suelo que al agonizante.

Por estas razones, tal vez, los cuadros postreros nos desagradan algo. Son emocionantes, pero nos agradan más los cuatro primeros, tan serenos y bien realizados.

En fin, una obra de altura. Con defectos, como toda obra humana, pero con tan grandes aciertos que marcará felizmente este año. Con retoques, según nos asegura Aitzol, resultará una obra magnífica. Para nosotros nada dicen algunos detalles, más o menos laudable o vituperables; lo importante es la orientación, la totalidad de la obra.

Con *Libe* entramos francamente en un terreno de teatro político-histórico que debemos fomentar con entusiasmo. Y al decir esto, no queremos decir que tratemos los temas al estilo romántico, que era una manera imperfecta de volver a la historia, sino con el equilibrio y la serenidad artísticos suficientes para reconstruir las épocas pasadas de nuestra grandeza. No nos importen las sombras de la historia patria. Son patrimonio de todos los pueblos y naciones.

Hasta en los mayores crímenes existe un rasgo que indica la fuerza de las razas. *Libe* ha saltado con valentía. No estamos llamando a la puerta de la ñoñez ni del sentimentalismo siempre añorante.

El teatro político vasco está de enhorabuena.

Lauaxeta
1934-III-8

YATSU EL TEATRO EUSKERICO

El teatro vasco enfila sus miradas hacia los temas históricos. En las obras de nuestros eruditos pueden encontrarse numerosos argumentos que sirvan de aliento a los restauradores de nuestra patria. La batalla de Mungia ha dado forma bella a *Libe*. Antes se pusieron en escena *Txanton Piperri*, *Amaia*, *Garbiñe*, *Loreti*, *Lekobide*, etc. Pero la cantera parece intacta. Con una amable carta de presentación nos ha llegado una obra nueva. *Antxiñako bizkattarrak*, dice su título. Su autor —diecinueve años en flor— ha querido llevar a escena una vieja leyenda vasca. Con éxito? Qué mayor éxito que intentar escribir un drama cuando los años más invitan al juego que al estudio?

Pero queremos hablar de otra cosa. Pocos conocen a la ilustre escritora euzkérica que publicó *Garbiñe*, *Loreti* e *Izurme*. En una de sus obras penetró en la época romana de nuestra historia y logró hacer un drama que ha sido aplaudido por los escenarios vascos.

La nueva producción penetra en la historia de Nabarra. Los abertzales de Bergara, en un rasgo generoso, han querido hacer un notable esfuerzo para estrenar la obra. El boceto de los decorados ha sido encargado al notable dibujante *Txiki* y han sido ejecutados por el pintor alabés D. De Ibarrondo. Los figurines son también obra de *Txiki*. Nada falta para su estreno el sábado próximo.

El título de la obra nos trae recuerdos sumamente tristes. *Yatsu*, o sea, el apellido de los defensores de la independencia naba-

rra. El nombre de dos castillos suena durante toda la obra: Jabier y Amaiur. Hace algunos años, al leer la obra de Navascués, pensamos escribir una obra teatral. Y ahora nos encontramos con que la señorita Elizegi, prestigiosa escritora euzkérica, ha tratado el tema.

El reino de Nabarra, con su gloriosa historia, perece en aquel castillo que dominaba la parte alta del valle del Baztan. Desde los campos de Noain huyen los patriotas nabarros y se refugian en Maya. Allí luchan Jaime Velaz de Medrano y su hijo Luis, Victor de Mauleón, Joan de Oloki y los hermanos Jatsu. La obra dramática se ajusta a la verdad histórica.

En el castillo de Jabier —nuestra mirada hacia Aragón—, Joan y Miguel de Jatsu velan por los destinos de su patria. El noble señor del castillo ha marchado para Iruña. Malos vientos corren para la libertad patria. Las discordias intestinas iban minando aquel reino pirenaico de tan gloriosas gestas.

La obra va recogiendo todos estos datos. Un guipuzkoano, prometido de la hija del castillo de Jabier, simboliza a los vascos descastados que ayudaron al castellano en su conquista.

No falta la nota pérfida de los judíos. La inquietud de los señores de Jabier había llamado a su palacio al sabio Levi. Con ojos ávidos trabajaba anheloso queriendo transformar en oro las piedras que trajo de la sierra de Leire. Sueña con riquezas fabulosas para reconquistar la tierra de promisión y ver en ella, sobre el trono de David, a su hija Esther. Invoca sin cesar al Dios de Abraham, pero en su fondo ancestral no muere el espíritu traidor, el odio contra los cristianos. No así su hija Esther, bellamente enamorada de Joan de Jatsu.

Toda la vergüenza de los últimos días de la independencia de Nabarra aparecen en la obra. Irso, el bufón, nos hace recordar las sentencias de aquel gracioso intencionado del *The King Lear*, de Shakespeare. O bien los dos clowns sepultureros de *Hamlet, prince of Denmark*. La figura de Irso es recia, y entre refranes y decirs suelta profundas verdades. El consigue que Miguel de Jatsu

pueda evadirse del castillo de San Nicolás de Iruña disfrazado de mujer. Con las ropas de Rebeca.

Siete siglos de historia patria perecen con sus glorias; pero entre tanta ruina, la familia de los Jatsu brilla cada día con mayor prestigio. Quién sabe cuándo, pero las ruinas de Jabier y Maya, empapadas de sangre y lágrimas, esperan la hora de la justicia que ha de sonar!

Hoy es la voz del arte que llama a nueva vida a María de Azpilikueta, noble señora que miró desde las almenas de su castillo hacia la lejana sierra. Ella sufrió la ruina de su casa, orgullosa en otro tiempo, dominando la corriente del río Aragón. Magdalena, Miguel, Joan, Martin y Francisco de Jatsu, que hablaron la lengua bizkaina, según confesión del Apóstol de las Indias. Todos estos nombres aparecen en la obra de la señorita Elizegi, que ha sabido poner su profunda emoción de mujer vasca. Porque la raza, gracias al milagro sabiniano, no ayuda hoy al Falsario a que conquiste una sola porción de tierra patria. Muy nuestra desde la Encartación hasta el castillo de Jabier.

La obra dramática *Yatsu* es una tentativa feliz de reconstrucción nacional. Sin que ocultemos algunos de sus defectos, que algún día han de ser juzgados, hoy queremos elogiar sus aciertos. En sus dos actos, divididos en cuatro cuadros, encontramos un dominio profundo del diálogo y facilidad suma en mover los personajes.

Hemos indicado que toda la obra se ajusta a la verdad histórica. Con leer cualquiera de las obras referentes a la historia de Navarra —Moret, Campión, Navascués, Ortueta— podemos seguir al detalle el desarrollo de *Yatsu*. Y a todo patriota han de sonar agradablemente las palabras del drama. Todo está impregnado de sano patriotismo. De valentía. Una voz suena por las calles de Iruña, mientras Joan de Jatsu está oculto en la casa de Leví: “El justiciero rey de Navarra castiga con la muerte a los traidores de la patria”.

Y Joan de Jatsu, con palabra entrecortada, grita: "Mentira! Cómo pueden ser traidores los que murieron en Amaiur defendiendo a los legítimos reyes de Nabarra?"

Pero no desfloremos las palabras de la obra. Es una terminación brillante, llena de esperanza y optimismo. Joan de Jatsu vislumbra la restauración de la patria vasca. *Yatsu* ha de lograr un éxito rotundo.

Lauaxeta
1934-IV-7

ZARAUTZEN GAUR LIZARDI ZANAREN GOMUTAZ

Urte askotxu dira, baina bagilaren 10gn egun batez joan jakun. Betiko hegaz egin euskun, baina hil aurrez bertso honeek esan ebazan:

Horra Josu on-ona
enara gaxua,
ludi hontan min gaitzez
guztiz hondatua.

Norenak diran? Pantzeska deunaren seme argi batenak. Tudelako lekaidetxean egoan, bizitza eroan ezinik, arima baitzun gorputza baino sendoagoa. Hamazortzi urte osotuko dira gaur. Bagilaren 10garrenean. Baten hil zan Errenderitar Erramun olerkari ospetsua. Idazle argi asko izan dira, berein olerkari, baita abertzale be. Inoren atzez atze geratuko zana ez zan Errenderi aba, Astibia abizendun abertzale zintzoa.

Zarautzko jai eder honetan, Lizarditzaz gomutako gara gehienok, baina zuretzaz be gomuta daitezcan, lerro honeek idazten dodaz. Izen-ezkutau edo izenorde asko erabilia zan Errenderi Aba ona: Arrobitar. Danel, Gabiola-Panderitar Aba, Sarbide, Argitzale, Oritar Koldobika.

Euzkadi izparringi honen orrialdeetan hainbat olerki eta idazlan idoro doguz. Eta olerki guztiak pilo baten bilduta daukaguz.

Gaurko poesi-jai honetan asmo sendo bat hartuko ete dogu? Zein? Oraintxe esango deusuet: Errenderi zanaren olerkiak argitara. Gauza zaila? Ez holakorik! Haren azken bertsoak ziran saminduak!

Orain hega-hegaka
zukanantz dijoa...

Orduan joan jakun olerkari argia. Enara gaixoa ezin bizi izan zan ludion, bihotza zaurituta eukan ba. Eta guk, euskoak, haren gomuta gitxi. Beste baten olerkiak be hor dira erdi galdu. Zubigar azkarrarenak. Baina gagozan isilik.

Gaurko jai hau Lizardi zanaren omenez dogu. Lizardi, Lora-mendi, Zubigar, Errenderi... Honeek gorabehera zer euskoai? Bardin dantzan egingo dabe. Olerkariak zoroak dira, deus ez dira. Baina hori esaten dabenai gogor urten behar deutsegu.

Olerkariak langorik ez dago herri bat izartu erazoteko. Lur barnean datzan haziak zelako hots biguna egin daroan be entzuten baitau berak.

Lizardi argiaren omen-egun honetan pozik gagoz. Harek berea emon euskun. Beharba, luzeago bizi bazan ez euskuzan "Urte Giro" ederragoak emongo.

Barriak etorriko dira. Hor dogu Zaitegitar Jokin ospetsua. Bere olerkia irakurri dogu. Mistral batek egina dalakoan gagoz. Ez gomutau harako Bingen eta Mireioren artzain-kopatxuaren edestia? Beste horrenbeste Omer handiak egin eban ikurdian, gero Virgilik bere bai. Camoensek itxasontzi bateko hize-oihaletan. Oraingo euskoai heldu jaku geure ordu ona.

Eskerrak Zaitegiri. Olerkari bikaina dogu. Frantziako olerkari berto onenak euskeratu euskuzan, gero Horatirenak. Langile porrokatua. Geure izparringi honetan hainbat idazlan azaldu doguz.

Batzuk badoaz besteak badatoz. Horixe ludiko bizitza. Ez gaitezan larregi samindu, Urtzi jaunak garoaz eta.

Zarautzko uri txukunean batuko garan guztiok abestu daigun pozez. Euskadiren berbizkundera oraintxe dogu. Olerkarien txintak entzuten doguz.

Lizardi zanak goiko erreinutik begiratu begizku.

Lauaxeta
1934-VI-10

IDAZTI BARRIAK

Euskaltzaleak sendo dinardue eusko idazti barriak argitaratzen. Erreskada galanta bidalduko zeunke guztiak eskuan bazeunkaz. Hara batzuk: Lau idazti olerkietzazkoak, Oleriti-Egunetan saritubak izan diranakaz. Gero *Umezurtz-Olerkiak*; Iturriagaren *Ipuiak*; Zabalaren *Alegiak*. Antzerti-sailean be honeexek: *Amal* Rabindranath Tagorerena; *Bost Urtian* Altzagarena; *Egiazko Jainkoa*, Iparragirre-Labayenena; *Ostegun-Gixena* Labayenena; *Sorgiñak*, Barbier-Lekuona; *Wilhem Tell*, Schillerrena. Euskal Jakintza sailean beste honeek: *Itz-Lauz*, Lizardirena; *Muerte del euskera* Aitzolena; *Filosofía vasca* Alzorena.

Idazti guztiok argitaldu dabez bazkun horretakoak. Ez da lan makala. Oraingoan hiru idazti barri daukaguz eskuetan. Laburkiro zerbait esan daigun.

I. *Eusko Olerkiak 1933-34*. Euskaltzaleak. Urretxuako Oleriti-sariketan izaniko olerkirik ederrenakaz liburu borobila egin deuskue. Ariztimuñotar Joseba jaunak hitzaurre goralgarria egin deutse. Horrerri buruz zerbait idatziko dogu, gauza sakonak dirauskuz eta. Eusko elertiarri jagokon kera bereziaz dinardu. Estetika esan behar deutsagu kera berezi horri. Geure olerkietan diran irudi-gaiak banatu dauz eta argi banatu be. Hitzaurre eder horrek zer esana egingo dau.

Idaztia, osterá, osotuten dabe Etxeberriatar Pantzeskaren "Bost lore" olerki bikainak, lehenengo. Saritua izan zan olerki hori. *Orixeren* biak, bai begiko jakuzala! Zaitegitar Jokinen sei olerki emon deuskuez. Barrien artean goralgarri Arindar Gotzon,

Gaztelutar Jon, Onaindiatar Jagoba, Pagaitezabaldar Pantzeska, Urkiditar Albontsa, Ametzagatar Bingen, Arrizubietatar Martin, Sagartzazutar Kauldi, Muxikatar Errobustene. Azkenengo bi honeek idazle argi eta ezagun-ezagunak doguz. Gehituago idatziko balebe, Euskadik eskerrak egingo leuskioez. *Endaitzen* olerki txukun bat be irakurri dogu. Geroago eta olerkari gizenduagoa dogu hauxe.

Bigarren sailcan eusko poematxoak dira. Kerexetatar Errapelek lehenengo saria lortu eban bere *Orreagagaz*. Ederki egina dirudi. Ormaetxeak be bere "Maite Damu" bidaldu eban. Zegaitik honentzako sari bat ez?

Liburu hau borobilduteko asmoz hiru olerkari gorengoan olerkiak emon deuskuez. Bata hil zan, *Loramendi* argiak iges egin euskun. Tapia-Perurena eta Jauregi dira besteok. Olerkari bikainak besterik bada. Geure eretxiz oraingo olerki-liburu hau besteak ainangoa bada, beharba hobea. Azkenengo asmo hau beste guztietan be eginen beharko. Zorionak egileai, batez be Aitzol langile porrokatu horri.

II. *Eusko Alegiak* Zabalatar Matai, Ariztimuñotar Josebaren hitzaurrea. 1934, Euskaltzaleak, Donostia.

Azalez eta mamiz eusko liburu dogu oraingo hau. Basojaun baten babespean jarri deuskuez abere edo animala guztiak, eusko kutsua erakutsi nahiaz. Eusko alegilari bikaina izan zan bilbaotar Zabalari buruz hitzaurre txukuna Ariztimuñok idatzi dau. Haren bizitza ederki azaldu deusku, baita alegi-gaiak nondik hartu ebezan esan be. Samaniego, La Fontaine, Esopo, Fedro eta beste askorengandik jaso ebazan ba.

Alegien hasieran hitz honeexek idatzi euskuzan Zabalatar Matai praile azkarrak:

"Ezin itxi ginaike
Bizkaiko lurrean
euskeraz kantatea
ondo jakunean."

Lan bikaina egin dabe Euskaltzaleak haren alegiak argitalteaz. Zorioneko gara, alegi txukuna baita, bizkaiera ondo ezagutzeko berebizikoak dira.

III. *Filosofía Vasca* Miguel de Alzo. Euskaltzaleak. Kaputxino jakintsu honen hitzaldia lehenago irakurria dogu, *Yakintzan* agertu baizan. Orain arte bestek egin ez dauana, honexek egin deusku. Holako gaiak erabili nahi izan ebazan Quadra Salcedo jaunak, baina asko jakin arren, txorotxu zan ezkerero, gauza handirik ez eban egin.

Tamalez erdi egin geratu zan haren lana. Alzoren ez da kidekoa, sakonago eta sendoago egina baino.

Inok ez eban uste izango euskotarrok filosofi berezia geunkala, baina hitzaldi hau irakurri ostean pozez esan behar dogu geure jakintza berezia daukagula. Bai horixe! Euskotarrok bikainak izan dira buruz eta egitez. Hitzalditxu honi buruz gauza gehiago esango dogu. Gaurko aski.

Zorionak Euskaltzaleak-i holako lan sakona egin daroalako eta eskerrak liburuok bidaldu deuskuzan Aitzol adiskide minari.

L.

1934-VI-17

BESTE IDAZLE BAT GITXIAGO

Euskal idazleen maitalari dabil herio. Antzinakoak esana: Urtziren eder diranak gaztaroen hil ohi dira. Geure idazle honeek be Urtziren eder dira oiez.

Hogeta bots urte eukazan gazte trebe eta azkarra jakun Arrutitar Joseba, *Arnope*, eta hil jaku. Oraintxe lanari ekingo eutsan sendoen. Gizonak asmoak, ostera, heriotzeak apurtuten dauz.

Tamalez euskal idazle lar ez gara. Onentxuak badoaz. Garbi-zu, Errenderi Aba, Elzo, Lizardi, Loramendi. Honeen jarraile beste asko. Benetan minduten gaitue holako heriotza honeek, baina Goikoaren nahia ontzat hartu beharrea gagoz.

Haren bideak, bide zuzenak. Harek egin daroana, ondoen egi-na. Gure begi lausotu honeek ikusten ez dabena haren begi argiak ikusi daroe. Nok daki onena zer jakun?

Idazle gitxi, irakurle gitxi. Baina idazleak hilobira badoaz, euskerea areago. Semeen heriotzari gagoz, baina amarena be ikusten dogu. Saminkorragoa hatan be.

Arnope eta beste idazleen gogoak betiko bizitza izango dabe. Jaunaren aurrera doaz. Baina geure hizkuntza? honek ez dau izango berbizterik geure hazurrak legez.

Arruti mutil gazte eta azkarra, jaungoikotia zan. Guztion begiko, bere apaltasuna bide. Bihotza minez daukagu, baina itxaropen ederrez betèrik gagoz. Beati mortui qui in Domino moriuntur. Zorionekoak Jainkoaren bake begietan daukela hiltzen diranak. Betiko argia ikusiko dabe.

Zeru goitik orru egin begi geure hizkuntza eta aberri honen aldez. Kirikiño, Lizardi eta aldra ederra daukaguz han goian. Zenbat adiskide!

Arnope azkarra zanaren sendikoai geure tamal-agurra eta samina erasten deutsegu. Irakurleok, otoi haren gogoaren aldez. Eta, Jauna, betiko atsedena emon egiozu.

Lauaxeta
1934-VII-24

LIBURU BARRI BAT

Eguzkitzatar Jon idazle trebeak emon deuskun liburu barriari buruz zerbait esatekoan gagoz. Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkunakoai zor jake idazti eder hau, hareek izan baitira argitaldu dabenak. Lehenago irakurriak geunkazan liburu horretako artikulua gehienak, *Ekinen* agertu ziralako. Baina pilo batean agertu jakuzanean be poz-pozik irakurri doguz. Bizkaian ezeze Euskadiko beste bazterretan be, Eguzkitza lango idazlerik ez dago asko. Gorengoetan gorengo dogu, euskera erreza, herrikoia, edonok ulertuten dauana. Ez dauka ulertu ezinik.

Ur garbian harri-koskorak ikusten diran legetxe idazle honen lerroetan agiri dira gogai edo ideak. Orain baino lehen be, idazti bi emon euskuzan. Hareen etorria eta edertasuna! hitzaldietan be ez da makala izan. Hor Lekeitioko kaxarrenkeaz be artikulua txukuna egin eban. Eguzkitzaren idaztietan zer ikasi badaukagu. Oraingo honetan legetxe.

Gizartekeria edo sozialismoari jagokozan okerbide guztiak atzalduten deuskuz. Keria horren tentelkeriak ez dira txikerrak izan be. Baltsakeria edo komunismoaz be ohidalako azterketak egin daroaz. Hementxe jarri daigun hasierako oharrean dirauskuna.

“*Ekinen* 46. zenbakian haxe idatzi neban: Bai hau zehatz eta osoro azaltzeko asmoz ez nintzan hasi. Asmo honegaz *Ekinen* idazten beste bazkide bat hasi zala banekian. Zehaztasunak horrentzat itxita, gauzarik jakingarri eta beharrenak lehenbailehen adierazo behar zirala neritxon. Horigaitik hasi nintzan. Gure

lugin, arrantzale alogereko asko be gizartekeriaren sareetan jausteko arriskuan behar, bada beste inor baino arrisku handiagoan egozala-ta, handi-handiak ahalbait lasterren azaltzeko asmoz heldu neutsan arlo honi. Gero gauzak aldatu egin dira eta, lehengo asmoak be beste helburu batera zuzendu behar. Arlo hau zehatz lantzeko asmoz *Ekinen* idazten hasi zan bazkide zintzo eta langile bizkorra, gitxien uste genduanean, Jaungoikoak Beragana eroan deusku (G.B.). Hau dala-ta, esandakoak eta esan barik itxi dodazanak, pizka bat biribildu nahi neukez.

Arlo osoa sailean eroan baneu, orain atalok alkarrekin erre-zago josi ahal izango nebazan; hori egin ez nebalako, irakurle horrek hutsuneak sarritxu eta birritan esandako gauzak be behin baino sarriago idoroko dozuz. Hor akats handitxua zala-ta, *Ekinen* agertu ziran lantxuok liburu baten guztiak era batera argitaratzeko nagi eta muker nengoan; baina bazkide batzuk zirika ibili jataz, eta norbere eretxia itxirik, noizean behin inorena egitea be bidezko gauzea dalako, *Ekinen* jauzika agertu ziran atalok ahal bestean alkarrekin josi dodaz, irakurle horrek eskuetan dozun liburutxu hau egiteko. Jaungoikoa lagun bekigu orain eta gero.”

Hauxe guztiau esan deusku egile argiak. Zirika ibili jakozanai eskerrak egin beharrean gagoz, hareei zor jake ba oraingo erregalu hau. Eguzkitza jaunak liburu gehiago emon begiskuz. Holako idazle gorengoak gaizkatu daike euskera gaixo hau, besteak ez.

Horretarako irakurleak be erakusten emon begie noraginoko itzal edo lotsea daukatsoen. Lehenbailehen idaztia erosi eta irakurri. Eta bide batez Jaungoiko-Zale Bazkunari eskerrak egiten deusaguz liburu eder hau argitaldu daualako. Merezi dauan legez argitara ekarri deuskue.

1935-III-20

KATALUNIAKO IRARKOLAK

Euskadin argitaratzen doguzan liburuak askotxu dirala esan daroe. Baina geure txirotasuna ikusi daiguntzat be Kataluniak daukezan kolezinoak eta idazti-zerrendak jakin eraziko doguz. Mundu guztiko Idaztegi eta Idaztisti gaiez II Batzar Orokorra egin daroe, bai? eta batzarkideak jakin dagientzat edo, *La Veu de Catalunya* azaldu deuskuz gai honetzazko zertzeladak.

Herri bateko kultura edo akilana igarri daiguntzat, idazti-zerrendai begiratzea aski dogu. Udabarría noiz mendiratu dan igarten dogu ostroak eta lorak agertzen diranean; liburuai buruz, beste horrenbeste.

ELERTI KATALANDARRA

Els Nostres Classics (Editorial Barcino). Kolezino honetan barriz irarten dabez antzinako idazleen liburuak. Hamalau, hamabost eta hamaseigarren ehungietakoenak. Bitarikoak dira idazti horreek: A zerrenda eta B. Lehenengo zerrendako idaztiak 48 dira. Bigarrenekoak 5. Antzinako idazleen ortografia berezia argitaratzen dabez orrialdeetan oharrak jarriaz.

Biblioteca literaria (Editorial Catalana). Garrantziduna, orain arte argitaldu dauzan liburuakaz 167 ieki¹⁹ egin daroaz. Gaurko eta antzinako idazleen idazlanak argitaratzen dauz. Olerkiak,

¹⁹ Ieki: ale.

komediak eta irakurgaiak. Renaixença-aldikoenak be txukunkiro atera dauz.

A Tot Vent (Edicions Proa). Herritarrentzat egina dozu; orain arte 75 idazti osotu dauz eta gehienak irakurgaiak dira.

Antología (Editorial Barcino). Renaixença eta oraingo idazleen liburuak irarten dauz. Azalez eta mamiz ondo horniduak dira. Els Nostres Classicseko idaztien antza dauke. Egungo egunez 8 idazti eder erakutsi daikez.

La Mirada (Proa). Irarkola honetako idaztiak dotoreenak dira eta edozelako idazlanik ez dabe onartzen. 8 liburu argitara dauz.

Nou Esplet (Editorial Barcino). Eguneko idazleen lanakaz agertzen dira irarkola honetako idaztiak. Ieki asko saldu daroaz.

Les Illes d'or (Mallorca). Balearcetako katalandar idazleen liburuak hortxe erosi daikezuz. Gaur artekoak 7 idazki dira.

Biblioteca de Contemporanis (Societat Castellonenca de Cultura de Castello de la Plana). Valentziako idazleen lanakaz konpuduten dauz liburuak. Hamabigino agertu dira.

L'Estel. Herritarrentzako idaztiak. Zortzi osotu dauz eta gehienak Valentziako idazleenak dira. Antzinako idazleenak be berirarriko dauz.

Biblioteca lleidatana. Lurralde horretako idazleen liburuak. Lau tomo agertu dira.

Quaderns literaris. Hamabostero agertzen dira ingurrati antzeko liburutxu honeek eta herriari buruz eginak dira. Orain arte berrogeta hamar inguru agertu dira Kataluniako idazlerik onenen idazlanak ezeze atzerritarrenak be ikusi zeinkez.

Els Nostres Poetes. Teixidor eta beste gazte batzuk asmatu dabe olerki-liburudun zerrenda hau. Merke-merkeak dira eta ohi-dalez saltzen dira. Quadersn literaris-en antzekoak dira.

Narcís Oller (Gili) idazlearen lan osoak; laster agertuko dira Joan Maragallenak (Sala Farès, Ignasi Iglesias) (Editorial Juventud) eta Dr. Torres i Bagesenak be irarriko dabez. Maragallen idazlan osoak lehenago agertu ziran.

Luditar elertia

Fundacio Bernat Metge (Editorial Alpha). Hemen lan egiten dabenak garrantzidun arazoa darabile; eladetar eta laterar idazleen lan osoa katalanderaz jartea. Txukunkiro aldatuak dira eta tes-tonenak konpontzen dabez. Katalunian ezeze ludi osoan be entzute handikoak dira liburu horreek. Orain arte 72 idazti argitara dabez. Azal dotoreaz agertzen dira eta Cambo jaunari zor handia deutse.

A tot vent (Edicions Proa). Katalandar idazleen ondoan ludi osoko nobelagileenak be agertzen dira. Errusiako idazleen nobelarik ederrenak irakurri daitezuz eta karu ez diran ezkerro, edonoren eskuetara heldu daitezke.

Biblioteca Univers (Llibreria Catalonia). Herriarentzat eginak dira Idaztitegi honetako idazlanak eta XVIII eta XIXgarren ehungietako liburuai ekin daragoioe. Hogeta hamar zenbaki daukez.

Biblioteca literaria (Editorial catalana). Katalandarren idaztiak eta ludi guztiko olerkari eta irakurgagileenak argitaratzen dauz.

Colleccio Popular Barcino (Editorial Barcino). Taiu eder eta herrikoia dauken liburutxu honeek munduko gauzarik ederrenak emoten deutsez Katalunian jaio diranai. Gaur 118 liburu daukez eta elerti gehienen edestiari buruz be idazlan txukunak idaztitegiataratu dabez.

Quaderns literaris. Mueta askotako idaztiak argitaratzen dauz, olerkiak eta irakurgaiak.

Biblia de Montserrat. Lekaidetxe haretako fraileai zor jake lan izugarri hori.

Mistics de Montserrat. Montserrateko fraileen uzkuurtza gaieztazko liburuak. Ederto irarriak dira.

Elizti²⁰ katalandarra

Collecio Popular Barcino, Publicacions de l'Associacion Protectora de l'ensenyanca Catalana; Manuals Escolers Barcino eta Diccionari General de la Llengua Catalana. Guzti horreen arte berein elizti eta jakintza liburu argitara dabez.

Irakaskintza idaztiak

Publicacions de l'Associacio Protectora de l'ensenyanca Catalana, Editorial Barcino, Dalmau Carles, Gustau Gili, Joventut, Elzeviriana eta beste etxe batzuk irarri dabez gai honetzazko liburuarak.

Edestia eta

Enciclopedia Catalonia. Hogei liburu oso dira. Edestiaz: Rovira i Virgili eta Ferran Soldevila, Libreria Catalonia eta Editorial Alpha-k argitalduak dira. Katalan folkloretzaz be liburu asko agertzen dira.

Azkena

Hemen jarri doguzanak eta beste berein dira Katalunian. Editorial eta irarkola horreek egunero ateraten dabez idazti barriak. Jakintza-gai, olerki, irakurgai, edesti, elizti eta beste gauza guztietzaz agertzen diran liburuak adirazoten deuskue katalandarrak kultura handia daukela.

Egun gitxi dira Eskiloren tragediak jaso genduzala, Carles Ribak katalanderaz jarriak ziran. Lanaren ederra! Eta hau guztiau ikusten, dogunok samintasun bat darabilgu: Gure artean

²⁰ Elizti: hizkuntzaren ganeko liburua.

zegaitik gehituago ez da egiten? Begiak zabaldu daiguzan;
garrantzi gehiago emon behar jako liburuari. Kataluniako liburu-
zerrenda honeek ez doguz jarri inor kikilduteko, adore barria har-
tu daiguntzat baino.

Lauaxeta
1935-VI-1

VI-GARREN EUSKO OLERTI-EGUNA OLERKI SARITUA MAITE OPARI²¹

ZORIONAK: *Euzkadi* izparringiak zorionak bialtzen deutzaz Koldobika olerkari ospetsuari. *Biozkadak* agertu ziranean esan genduan olerkari haundi baten aintzinean gengozala; orain lehen-go hitzak barrero esango geunkez.

Eusko Olerti-Egunak bide onez ibili dabiltz. Jauregi lako olerkariak ondo merezi dabe lehenengo saria. Zorionak! Eta zilarrezko haretx-abar horrek eragingo al deutsu beste liburu bat emon dagiskuzun.

1935-VI-2

²¹ Jauregitar Koldobikaren olerkiari Lauaxetak egindako oharra.

IDAZLEEI OHARRA

Geure euskal idazle maiteoi, ohar bat egin beharrean gara. Idazlan luxetxuak bialtzen deuskuzue, eta hori dala-ta, geure mahai ganean pilatuaz doaz idazlanok, hiru edo lau idazleren lanakaz orria betetuten deuskuzuelako.

Ganera, geure orriau, apainduagotu gura geunke, eta idazlan luzeak eragozpen gogorra izaten dira horretarako. Beraz, ene idazle begikook, idatzi egizue zehatz, baina labur.

Horretara egiten badozue guztion lanak sartu ahal izango doguz, eta argazki eta marrazkientzako lekua be izango dogularik, geure-geurea dogun euskal orriau dotore-dotore atarako dogu.

Eta idazleoi, zeuen zintzotasunaren ordaintzat zor jatzuen omena opaltzeko, hementxe jarriko doguz txairo eta apain zeuen argazkiak, geure irakurle guztiak ezagutu dagiezan, zeintzuk diran euskeraren alde lan eta lan egiten dabenak eta zeintzuk diran be, euren uri eta enparau gogoko irakurgarriak opaltzen deutsezanak.

Ia ba mutilak; idatzi zehatz eta labur, eta hasi zeuen argazkiok bialtzen, lantzean bat argitaldu daiguzan.

Mahai ganean pilatu jakuzan idazlanak hara zeintzuenak diran: Urkidi, Aixeriya, Biritxiñaga, Andoni Kaiku, Ixaka Bake-nai, Ilintxa, Curtubaitar Kepa, Iturriagatar Pantzeska, Mañariko, Mendigain, Montxor, Kerexetatar J.L.M., Aiz-Zorrotz, Aitza, Agureak, Goxabarran, Otarmi eta Eguzkirenak.

Ahaleginduko gara lanok lantzean bat argitalduten; besterik ezean, *Gudarikoei* emongo deutseguz bat edo beste, asteroko bulartsu haretan argitaldu dagiezan.

Bagara?

1936-XII-29

EGUNEROKO BARRIA

Zorionak euskaltzale. Urtebarri egunetik euskal egunerokoa izango dogu. Bapatean hauxe erabagiau hartu beharrean aurkitu gara. Zergaitik? Bai edo dakizu, egun horretatik aurrera izparringiak lau ingozki baino ezingo dabezala argitaldu, eta hau dala bide gure eguneroko honek atal batzuk gitxitu beharko dauz. Euskal orri osoa behintzat ezin inondik inora argitaldu, euskeraz lehenengo orrialdean edo zerbait idatziko dogun arren.

Hutsune hau betetako, alde batean ezin dana bestean egiteko, izparringi barria urtengo da, euskal eguneroko dotorea, eta hemetixek, geure etxe honetatik urten be. Beraz, badakizue idazleok, eguneroko hori geure-geurea izango da, eta idatzi sendo uri-izparrak, idazlan sakonak, olerkiak, ipuinak, aseleak eta abar. Baina zehatz eta labur atzo esaten genduan lez.

Oraintxe dok ba ordua, euskal idazleon ordua. Beti ez gozak ibili euskal-egunerokoa behar genduala-ta?

Haor ba mutilak, urtebarri egunetik izango joagu. *Eguna* eretxiko jakok.

Argitu ba adimenok, zorroztu idazkortzok eta ekin lanari.

A! eta zorionak euskaltzale.

1936-XII-30

III
Ipuinak

OSAGILE ONENA

—Agur, osagile horri. Gaixoak narabil aspaldion, bai?, eta osakai bila nator.

—Eskertuten deutsut neugan holako itxaropena daukazulako. Ez zara damu izango laster ba, osatuko zaitut eta.

—Neure bizitzako egunetan gaixorik euki bako gizona naz. Orain, barriz, urdailak ez deust bakerik emoten.

—Urdailetik txarto, ezta? Ez larririk. Urlia jaun ospetsua dozu urdaileko gatxen osalari onena. Harengana joateko emongo deutsut txartel bat, neure aginduz zoazela erakutsi egiozu eta laster zeure gatxa kendua izango da.

—Baina, ene osagile jaun hori, urdaila ezeze, oinetatik be ez nabil ondoegi. Sarri jausten naz, oinak ahulduta edo daukadazalako.

—Ez bildurrik. Horrentzat be aurkituko dot osagile ona. Berendiagana joan zaitez. Halakoxe osagilerik ez dago inguruetan. Bai ona dala gero.

—Poztuten naz neure gaitz honeentzat osagileak aurkituten dodazalako. Baina neure gaixo honeek ez dauke amairik.

—Besterik badozu? gaixo gehiago daukazu?

—Bai oindino gehiagorik badaukat. Gaixoak oratu nabe, bai?, eta txarto nabil.

—Zer dozu, ba?

—Hemen eskuturran baltzitu bat daukat. Ez dakit zelan sortu jatan.

—Ez da gauza handirik. Sandiagana zoaz eta harexek osatuko zaitu.

—Osalari ona da, ezta?

—Eta ganera neure adiskidea.

—Zeure adiskidea da? Ondotxu dago! Zeure adiskidea.

—Gehiagorik badozu?

—Osagile, adiskide gehiagorik badaukazu?

—Hori itauna!

—Ez txarra bere! Zeuk adiskide gehiago badozuz eta osagileak badira, neuk gero gehiago eukiko dodaz edo.

—Zer dozu, ba?

—Buruko minak. Sarri burua galduten jat.

—Horixe benetan gaixo txarra! Edozein osagilegana ezin bidalduko zaitut.

—Ez, burua ezin itxi neike edozeinen eskuetan.

—Ez, osagilerik onenagaña joango zara. Harexek arakatuko deutsu burua. Beharbada garaunak atarako deutsuz, baina ez bildurrik izan.

—Bildurrik ez daukat! Garaunak kenduten badeustez bere, zer jazoko jat ba? Hil? Eta hiltea ete da gauza harrigarria? Bai zera! Osagile horrengana joango naz. Ederto neugaz portau zara!

—Eskerrik asko.

—Orain zer ordaindu behar deutsadan, esan egistazu.

—Berrogeta hamar laurleko.

—Gehiago ez? Uste neban gehiago izango zala. Baina esan egista [...] hori kobretako?

—Zelako gaixoak daukazuzan esan deutsut eta ganera norengana joan [...] bere azaldu deutsut. Nahiko ezta?

—Bai. Ganera osagile horreek onenak dira! Zeure adiskideak!

—Neure adiskideak!

—Itaun bat jauna: Osagilea zara, ezta? baina ze mueta edo klasetako osagilea zara, ba?

—Gaixo guztietariko osagilea nauzu. Zeuri zerbitzeko gaixo guztietarikoetan ikasia naz.

—Agur, jaun argi hori! Osatu deustazu sakela behintzat!
—Agur! Badakizu nortzukana joan behar zaran. Hareek
gehiago kenduko deusue. Baina ez bildurrik!

Lauaxeta
1932-IX-4

LARUNBATETAKO IPUINAK

Katua hil jakon geure neskazaharrari. Holako piztitxu baten heriotzeak ezin izan lei leba handirik, baina Maiton neskazaharra negarrez urtu zan. Bere bizitza luzean beste adiskiderik ez eban cuki.

Gaztetan polit-polita ei zan, baina ezkonge geratu zan. Ludi-ko gauzak holakoxeak dira eta. Itxasontzi bateko buru zanagaz paseotxu batzuk egin ebazan Volantin egurastokitik. Gero ezer ez, izontzia joan zalako. Hainbat eguneko negarra euki eban, baina azkenean ahaztu jakon.

Correo txaideko bere etxean bizi zan. Eta bizitza bakartia, bizitza ituna dalako, katu bat ekarri eban. Bizar luze-luzea zan eta sagurik ez eban atrapauko sekulan. Maitoni begiko egin jakon. Bere behe ondoan egin eutsan oherik bigunena. Eta negua zanean brokin ondoan lo eragiten eutsen.

Seme bat baleu moduan maite eban. Eta jan zer gero, jan! Edozelako janariak ez eutsazan emoten, janari meheak baino.

Semerik ez senarrik ez daukan neskazaharrak, katua maite behar ba. Baina betikoak ez gara geu be, eta abereak gitxiago. Guztioi heriotzea jatorku.

Maitonen negarrak, negar biziak ziran, eri txarrak katua eroan eutsalako. Zaharren zaharrez, narras ebulan eta areto nagusitik suteko berotasuneraino be ezin joan izaten zan. Bizar luzeak jau-si jakozan eta narruko uleak be zehaztu jakozan. Harek eukan itxurea.

Katuaren bizitzea zala-ta, otoi handiak egin eroazan geure Maiton zaharrak, baina Balbea sartu zanean katua eroan eban.

“Ai nire katutxu pintoa, neure bizitza poza, neure egun triste-
en argia, neure bakartaldien izarra!” eta holako handiak inoazan
neskazahar gaixoak. Correo txaideko etxe ederrean, negar galan-
tak entzun ziran. Egurastuten ebiltzanak, ikaratuta geratzen
ziran. “Zer jazoten dok hor gero?”.

Maintonek bere antzeko adiskide bat eukan. Neskazaharra
haxe be. Ezkonduteko ei egoan, baina gaixo hil jakon senargaia.
Lantzean behin biok batzen ziran euren nekeak eta saminak edes-
tuteko asmoz.

Katutxuaren heriotz-egunean heldu zan Maripe. Lagunaren
negarrak entzun ebazanean, berak be negarrari eragoion.

—Eta orain zer egingo dozu, ba? Katua hobiratu behar da!

—Ez neuk! holakorik neuk ez neuke egingo neuk. Katu zora-
garri hau ezin lurperatu geinke.

—Etxean be ezin gorde zeinke ba. Ustel-hatsaz beteko jatzu
biztokia.

—Zer egingo dogu ba? Hau zoritxarra! Neu hil banintzan,
neu!

—Erre egin daigun erre.

—Ez horixe. Hara, asmo bat bururatu jat, otu jat. Paketetxu
baten bilduta eroan egizu. Ibaizabalera jaurti zeinke. Urak eroan
dagiela bere altzoan. Holako katutxu maitagarri batentzat leku
hoberik ez dago. Ganera itxaso zabaleraino joango da. Han arrai-
nak jango dabe eta kitu.

Mariperi ez jakon txar irudi bere adiskidearen hitza. Bien
artean egin eben paketetxua. Ingi zuriz hogeitole egin eutsena,
bai?, eta sedazko lokarri batez lotu eben.

Hondartza edo Arenal ondora heldu zan Maripe, paketetxua
eskuan ebala. Baina zelan jaurti? Ertzainak ikusten ziran alde guz-
tietan. Deustoko ikastola nagusiraino be heldu zan. Baina alperrik.
Hantxe be ertzainak ziran. Zer egin ez ekian. Ibaira jaurtitea baino
errezagoa zan edozer. Holako baten barriro ganean itxi eban bere
pakete dotorea. Aldendu ez zan aldendu, diarraka non jatorkon er-
tzain bat: Emakume horrek, hau ahaztuta itxi dozu, ezta?

Maripek eskerrak emon eutsazan eta eskupekotxu bat, hain ertzain ona zanari. Zer egin ez ekian. Holako baten Ondarreta edo Getxoko bultzia hartu, bai? eta itxasoraino joatea otu jakon. Esan baino lehenago egin eban.

Bultzian sartu zanean, mila paketetxugaz joaten dan erreka-dista baten ondoan jazarri zan. Jatsi zan Ondarretan eta paketetxua hartu bere bai. Itxas ondora joan zan. Anei gizon eta emakume ikusi ebazan hondartzan. Igeri ebiltzan.

Zer egin? Bilbaon bertan baino gatxago zan paketea uretara jaurtitea. Buruko minaz Bilbaoratu zan. Correo txaidean sartu zan bere paketeaz.

—Ai Mainton adiskide ona! Ibaira ezin jaurti izan dot. Hauxe eta hauxe jazo jat. Zer egingo dogu ?

—Hara, ba, sua biztu edo isiotu daigun. Baina surik ederrena. Usainezko sua eta hantxe erreko dogu. Katuaren azkena halangoxea izango da!

Neskazaharrak piztu eban surik ederrena. Kolonia-ura bota eban eta garrak dirdirka ziranean, hartu paketetxua eta zabaldu eben. Zer zan ha? Katua ez eban bildu ba? Katuaren orde z urdaiazpiko ederrena bilatu eben!

Euren ikarea galanta izan zan eta irribarreka alkarri inotsen: Zer esango ete dau katutxu hila aurkitu dauanak? Laster beste katutxu bat ekarriko ei dau geure Maintonek! Correo txaidean dan ezkeru, jakingo dogu.

Lauaxeta
1933-V-27

IPUIN BARREGARRIAK IRAKURLE ERRIMEA

Bizkaiko uritxu hau mendi artean dago. Berein basetxe ikusten dira, bakotzak muino eta hegi-magaletan solo zabalak hesitu dauz. *Usobaltz* basetxeak be lurralde joriak eukazan. Goiko alde-tik ohian edo baso itzala, enbor lodidun pagoak eta haretxak. Beheko aldean, ostera, lur landuak, alorrak. Muna ertzetan bazi-ran ohidalako mahatsondoak be.

Eta solo arteko bitxidorrak! Gariak lorán egozan, bai? Eta kereizak, odola bera baino gorriago. Sanpedro sagarrak, matrail-gorri, San Juan madariak, osterá, hori-hori.

Etxe inguru haxe baizen zoragarria! Bakezko bide hareetatik gorantz nonor joian. Nor ete zan? Ene bada eta, herriko telefonis-tea! Gure *Zazpi hanka* artegatu zan, barri txarren bat ekarriko ete eutsan be.

Bedar sikuai bueltea emoten ebulan eta itxi bertan bere esku-barea eta hideruntz urten eutsan telefonisteari.

—Eta, zer dakarzu, ba? Berorik bere ez, berorik?

—Jesus mila bidar! Lekutan bizi zaree gero. Ezin zeinkeez etxe honeek hor beheko trokara ekarri. Aldats honeek igoteko be arnasa txarra ez da euki behar. Heldu nazanean, heldu!

—Tira, sartu zaitetz etxe barrura, txakolin apur bat be badau-kagu eta.

—Txakolina, dinaustazu, txakolina! Prisa galanta daukat, lapikoa be sutondoan itxi dot eta. Gure gizona datorreneko dana

prest euki behar izaten da, bai? Eta arin-arinka banoatzu. Hamen dakartsut telefonema bat. Ez dakit zer dan.

—Bueno. Hor daukagun kriedu edo morroi gazteak leiduten badaki eta harexek esango deust zer barri dakarren.

—Agur, ba Martolo.

Geure telefonistea, baserritar edo aldeana hutsa zan. Leiduten baekiela batzuk inoen. Besteak, ostera, haren alaba bat zala telefonoko gauzak eroaten ebazana. Amak kobrau bai, baina besterik ez ebalagiten.

Geure ustez Mikela-Petrak ez ekian leiduten, bestela esango eutsan Martolo edo *Zazpi hankari* ze barri etorran telefonemean.

Dana dala, geure *Zazpi hanka* zer egin ez ekiala geratu zan. Papeltxu urdin harek ze barrabaskeria ete ekarren ba? Sorginkeriak dira gero holako gauzak! Errekaduak hobeto ez ete dira bidalduten mutil bategaz edo?

Behiak zainduten egoan Patxitxuri dei egin eutsan.

—Hi, Patxitxu, etorri hadi hona. Hauxe leidu behar daustak.

—Zer da ba zer? Ene hori teleponemea da! Eskolara ibili nintzanean holako bat ikusi neutsan Don Kaxinto abade jaunari. Ama hil jakonean heldu jakon.

—Zer dinostak, ama hil jakonean honen antzeko papeltxua bidaldu eutsela?

—Bai, ba! Nonor hiltan danean errekadua emoteko ei dira...

—Zentaila-zentailea! Ez dok izango egia! Nor barrabas hil ete jat neuri?

—Neuk leiduko deustut.

—Tirok, ba. Hartuik.

Geure Patxitxu, mutil errimea zan. Hamaika urte baino ez eukazan, baina alargunaren semea zan ezkerro, kriedu parau zan. Ogia irabazteko zeozer egin behar ba. Eskolara nonoz ibilia zan, gauza handirik ez ekian arren.

Esku artean hartu papeltxu urdina eta zabaldu eban. Letra iluna eukan. Zortzi bidar begiratu eutsan gaixoak. Ezin leidu zer zan!

—Ezer txarrik jagok ala? Leidu egik mutil, leidu!

—Bai oraintxe—. Eta hasi zan irakurten. Erderaz idatzita egoan telefonema hori. “A cura mañana, a la una, confesión Margarita.”

—Zer dok hori mutil? Konfesetan bihar joateko?

—Bai, hauxe dino. “A cura mañana a la una confesión. Margarita”. Hemen horixe dino.

—Ez jakiat, ba. Nok barrabas bidaldu jaustak hori.

Patxitxu gaixoak zortzi bidar leidu eutsan telefonemea, baina beti bardin. Argi eta garbi egoan “A cura mañana a la una confesión. Margarita.”

—Tirok, ba. Ondo jagok eta.

Geure *Zazpi hanka* preparau zan hurrengo egunean. Jantzirik onenak atera kaxatik eta urten zan. Andrea ikaratuta egoan. Gure gizonari konfesetan joateko nork agindu ete deutso gero! Aitarenka ebilan.

Tripili-trapala hor doa geure gizona eleizara. Herri haretako eleiza mendi goitxu baten dago. Haren antzekorik ez dago Bizkaian. Basetxe bat dala dirudi. Ondoan zelaitxu txukuna dauka. Aurrez aurre, ostera, zipres batzuk. Ortusantua edo hantxe egongo zan antzina eta.

Eleiza ondotik ohidalako ikuskizuna dago. Han be aldean kaminoa eta errekea. Trabiba be ibiltan da.

Zigarro-kondoa jaurti eleizako atetan bai? eta txapela kendu eban Martolo jaiok. Ur bedeinkatuaz atzamar-puntak busti ostean *Aitearen* egin eta sartu zan.

Eleizan ez zan inor. Silintasuna. Haxe zan bake gozoa! Berorik bere ez! Altara nagusi aurrean argi-ontzia egoan. Andra Mariren altarea lorakaz.

—Non ete jagozak abadeok, ba? —kolkorako inoan *Zazpi hankak*.

Atzeko jarleku baten jezarri zan eta ia ordubete pasau jakon. Logurea be sartu jakon. Kanpandorreko erloju zaharrean ordu biak jo eben.

—Hirurak arte egongo nok. Abadeari ahaztu egingo jakon eta.

Baina hirurak izan ziranean be abaderik ez zau etorri. Siestea botaten egoan geure parroko ona. Martolo gizajoak zeozer errezau eban eta hasarre antzean aldendu zan. Eleiz ondoan inor ez. Oilo batzuk kerizpetan etxunda. Ha zan beroa! Tripili-trapala etxeratu zan, izerdi galanta bota ostean. Etxean sartu zaneko andreak itaundu eutsan: Eta zer? Konfesau zara?

—Ze konfesau eta koplala! Ordu luze bi hantxe egon naz, baina inor ez da etorri. Gogait eginda etorri naz.

—Zaran kokoloa! Hantxe egon behar zenduan! Beharbada Jaungoikoaren deia izango zan. Konfesautera dei egin deutsunean zeozegaitik izango zan.

—Tira, itxi egion orri bakean. Banoa bedar-sikuai bueltatxu bat emoten.

Hurrengo egunean, domekea bazala-ta, gure Martolo herri-
ra jetsi zan. Hamarretako mezea entzun nahi eban, baina lehe-
nago kopatxu bat anisedu hartu behar ebalakoan tabernara sar-
tu zan.

Taberna haretan telefonoa egoan. Agertu zaneko Mikela Petrak ohiau egin eutsan: Eta atzo non egon zinan ba? Zure burua! Zeure begira hementxe egon nintzan.

—Ba, beste gauza batzuk egin beharra neukan eta.

—Ez neutsun telefonemea eroan, ba, ordu batetan honaxe etorteko?

—Zeer? Hona etorteko? Ez, horixe! Telefonemeak hauxe inoan: a cura mañana a la una confesión. Margarita.

—A astokilo handia! Hori inoala. Oraintxe esango deusut.

Hau esanaz batera, Mikela Petrak dei egin eutsan bere alabari:

—Zu, Mari, atzoko telefonemeak zer inoan?

—Zer esango eban, ba —erantzun eutsen neskato zuhurrak. Hauxe: “Acuda mañana, a la una, a conferencia. Margarita”.

Miravallesen daukazun arrebearena zan zeugaz konferentzi bat euki gura ebalako.

Zazpi hanka konturatu zanean, hango barre-zantzoak entzun ziran baita Gorbeian bertan be. Halakorik! Konferentzira joan beharrean, konfesatzera ez zan joan ba. Arranotan! Ondo leiduten ekian morroi gizajoak!

Lauaxeta
1934-VII-8

TXIKIENA ETA MAITEENA

Jauregi eder baten zan. Senar-emazte aberats-aberatsak bizi ziran jauregi hartan. Eta ume bi baino ez euken. Mutikoak biak.

Bata argaltxua zan eta bestea sendokotea. Amak argaltxua eban bere kutun²², eta aitak sendokotea. Eta ume biok beti alkarri agiraka²³ eta alkarrekin burrukan ebiltzan. Eta ez egoan bake-rik etxe hartan.

Ama ia burutik nahasturik ibilten zan mutiltxu biokin.

—Barraban²⁴ horrek daukaz erru guztiak —esaten eutsan senarrari sendokoteagaitik.

—Sugalinda²⁵ txar horrek daukaz erru guztiak —esaten eban ostera senarrak argaltxuagaitik, eta hasarre eta agiraka ibilten ziran senar-emazteak be.

—Eskerrak, bi baino ez zareena —inoen biok—. Bi zareen lez, lau edo sei bazine, nork burutu zuekin?

Ez lau, ez sei; hamabi umedun senar-emazte txiro batzuk etorri ziran behin baten, ukar edo limosnatxu baten eskean, jauregi-ko atadira. Hamabi ume. Hamabiak burutsean eta oinutsean. Bainen hamabiak poz-pezik: ijotika eta ikotika²⁶.

²² [Kutun: predilecto.]

²³ [Agira: altercado.]

²⁴ [Barraban: revoltoso.]

²⁵ [Sugalinda: lagartija.]

²⁶ [Ijotika eta ikotika: a saltos y volteretas.]

—Ene bada ta...! —esan eutsen senar-emazte aberatsak senar-emazte txiroai. Ene bada...! eta hamabiok zeuenak dozuez? Eta zelan atonduten zarie, guztiok maite-maite izateko? Guk bi baino ez daukaguz, eta geuk dakigu zelan bizi garean eurekin. Zeuek zelan atonduten zaree hamabiok holan poz-pozik eukiteko?

—Zelan? —erantzun eutsan emazte txiroak—. Zelan, dinozu...? Errez-errez. “Txikiena eta maiteena”. Horixe da dana.

—Zer esan dozu? Zer esan gura dau “txikiena eta maiteena” horrek?

—Zer esan gura dauan? Horra ba. Ez hamabi, baita hogeta hamabi ume be, edonork maite izan leikez, maite, Jaungoikoak emon ezkerro. Zuk, ordea, danok *maiteen* izan gura dozuz: ez guztiok *maite*, guztiok *maiteen* baino. Eta horixe da inola bere ezin leikeana. Inortxuk be ezin leike adiskideetan bat baino *maiteen* izan. Eta umeetan be bardin da. Bat bakarrik izan leike *maiteen*. Eta bat bakarrik izan behar dan ezkerro, inortxuk be bekaizkeria eta inbidiarik euki ez dagian, izan dadila beti txikiena maiteen hori. Horixe da dana. Bi dirala? Txikiena maiteena. Hiru dirala? Txikiena maiteena. Hamabi dirala? Beti txikiena maiteena.

Urteak joan urteak etorri, beste umetxu bat be emon eutsen Jaungoikoak senar-emazte aberatsai. Eta beste bat be gerotxuago. Eta baita gerotxuago beste bat be. Sei, lerroan-lerroan.

Baina uste dozue horregatiik, etxe hatan lehen baino hasarre gehiago euki ebenik? Ezin enetxuok, ez. Lehengoak ahaztu be ahaztu ziran zeharo. Zer jazo zan ba? Senar-emazte txiroen irakaspideari jarraitu eutsela. Besterik ez. “Txikiena eta maiteena; eta beti txikiena eta maiteena”.

Holan, ez egoan alkarrenganako bekaizkeria eta inbidiarik; ezta hasarre-biderik be. Danok bardin. Txikiena eta maiteena. Beti txikiena eta maiteena.

Eta, jakina, danok izan gara noiz edo noiz etxeko txikiena.

L.
1935-VI-13

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Caroa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten*
olerkiak eta artikuluak
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Callastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

23. BERBALAUAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. EUSKALDUNAK MADRILEN
Jose Basterretxea *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. EUSKERA NIRE BIZITZAN
Karmelo Etxenagusia
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. NI KAZETA-EGILEA NAIZ.
ARTIKULU, BERRI, ISTORIO
Jean Hiriart-Urruti
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. KRESALA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. ZORIONA. 31 ETA ESKU
Xipri Arbelbide
30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiriño*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. IZARTU EUSKALDUNAKI
ELANTXOBETAR BATEN OLERKIAK ETA
ARTIKULUAK
Gorgonio Renteria
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone
Etxebarria
32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiriño*
Sarrera: Cesar Gallastegi
33. GURE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



MUNGIA
UDALA
AYUNTAMIENTO

ISBN 84-89816-23-9



9 788489 616237